

"Juan
San Martín"
GIZA
ESKUBIDEEN
BILDUMA



ETORKINEK ZERBITZU ETA
PRESTAZIOETARA DUTEN SARBIDEA,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Maitane Arnoso
Mikel Mazkieran
Ainara Arnoso
Silvana Luciani
Adriana Villalón
Aizpea Otaegi

ararteko

Herriaren Defendatzalea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.net

**ETORKINEK ZERBITZU ETA
PRESTAZIOETARA DUTEN SARBIDEA,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

**Maitane Arnoso
Mikel Mazkiaran
Ainara Arnoso
Silvana Luciani
Adriana Villalón
Aizpea Otaegi**

Eskerrik asko:

Arartekoari, herriaren defendatzailea den aldetik, lan hau ahalbidetu duen ikerketa-bekagatik eta, bereziki, Itziar Barrenkuari, une oro laguntzeko prest egon izanagatik.

Ikuspegi Behatokiari, bere datu-baseak eskuzabaltasunez uzteagatik, azterlan honetan aurkezten diren tauletako asko egiteko bidea eman baitute.

Herri Administrazioetako eta hirugarren sektoreko pertsoneri, elkarrizketak egiteko aukera eman zigutelako.

Beren lekukotzak gurekin tartekatu zituzten etorkinei.

UPV-EHUko Psikologia Fakultateko

Gizartearen eta Komunitatearen Partaidetzako ikasleei.

Ane Pedrosari, prozesu honetan eman digun laguntza baliotsuagatik.

© ARARTEKO

© Egileak:

Maitane Arnosó, Mikel Mazkianan, Ainara Arnosó, Silvana Luciani, Adriana Villalón eta Aizpea Otaegi.

Itzulpena:

HORI-HORI S.A.

Ararteko erakundearen aldetik:

Iñigo Lamarca, Julia Hernández, Inmaculada de Miguel, Itziar Barrenkua, Nieves Oca.

Inprimaketa:

Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa eta azaleko irudia:

EPS comunicación • www.eps-grupo.com

Paper ekologikoa

ISBN: 978-84-89776-50-0

L.G.: VI 620-2011

| | |
|--|----|
| TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA | 8 |
| AURKEZPENA | 11 |
| SARRERA | 13 |
| METODOLOGIA | 17 |
| 1. KAPITULUA. BERDINTASUN EZA ETA GIZARTE BAZTERKERIA | 21 |
| 1. Arrisku- eta ahultasun-faktoreak etorkinen artean..... | 21 |
| 2. Egungo egoera eta bizi-baldintzak: arrisku-faktoreak..... | 25 |
| 2.1. <i>Administrazio-egoera</i> | 25 |
| 2.2. <i>Egoitza-egoera</i> | 28 |
| 2.3. <i>Lan-egoera</i> | 32 |
| 2. KAPITULUA. ONGIZATEAREN ETA GIZARTE ESKUBIDEEN ESTATUA. ETORKINEN GIZARTERATZEA ETA GIZARTE BABESA | 37 |
| 1. Gizarte-babesaren kontzeptualizaziorantz | 37 |
| 2. Etorkinek ongizatearen estatuari buruz dituzten diskurtsoak | 41 |
| 2.1. <i>Etorkinek ongizatearen estatua eskuratzeko duten moduari buruzko gizarte-diskurtsoak</i> | 41 |
| 2.2. <i>Etorkinen integrazioa ongizatearen estatuko eremuetan</i> | 43 |
| 3. Osasunerako sarbidea..... | 44 |
| 4. Hezkuntzarako sarbidea..... | 45 |
| 5. Etxebizitzarako sarbidea..... | 46 |
| 6. Gizarte Segurantzako prestazioetarako sarbidea | 47 |
| 7. Gizarte Segurantzako gizarte-babeserako afiliazioa eta sarbidea | 50 |
| 3. KAPITULUA. GIZARTE ZERBITZUETARAKO SARBIDEA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N ETA HIRUGARREN SEKTOREA | 55 |
| 1. Kontzeptu-mugaketa..... | 55 |
| 2. Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea Atzerritarren Legean..... | 56 |
| 2.1. <i>“Oinarrizko prestazioaren” kontzepturako hurbilketa</i> | 57 |
| 3. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaile den biztanleriaren profil sozial eta demografikoak: normalizazioari buruzko eztabaidak eta eskari espezifikoak..... | 60 |

| | |
|--|-----|
| 4. Gizarte-zerbitzuak EAEn..... | 62 |
| 4.1. Araudi-aurrekariak..... | 62 |
| 4.2. <i>Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea</i> | 63 |
| 4.3. <i>Diru-sarrerak bermatzeari buruzko 18/2008 Legea</i> | 64 |
| 5. Hirugarren sektorea eta etorkinak | 66 |
| 4. KAPITULUA. ETORKINEK ESKUBIDETARA ETA GIZARTE PRESTAZIOE- TARA DUTEN SARBIDEA ETA IRITZI PUBLIKOA | 69 |
| 1. Gizarte-babeserako sistemen gainean antzemandako mehatxua | 69 |
| 1.1. <i>EAEko gizarte-eskubide eta -prestazioetarako sarbideari buruzko balorazioa</i> | 74 |
| 2. Estereotipo eta errealitatea: prestazio ekonomikoen, aholkularitza-zerbitzuen eta prestakuntzaren erabilera..... | 76 |
| 2.1. <i>Gizarte-babeserako sistemaren gehiegizko onura</i> | 76 |
| 2.2. <i>Laguntza ekonomikoen pertzepzioa</i> | 77 |
| 2.3. <i>Aholkularitza-zerbitzuen erabilera</i> | 79 |
| 5. KAPITULUA. GIZARTE AGENTEEN BEGIRADA, ETORKINEK GIZARTE ESKUBIDE ETA PRESTAZIOETARA DUTEN SARBIDEARI DAGOKIONEZ | 83 |
| 1. Prestazioen erabilerari buruzko pertzepzioak..... | 83 |
| 2. Bazterkeria-arriskua eragiten duten faktoreak..... | 84 |
| 3. Oinarrizko beharrianak eta harrera-fasea..... | 85 |
| 4. Gizarteratzearen begirada murrizak..... | 86 |
| 4.1. <i>Babes eta ongizatearen sistema kultura arteko errealitateetara ez egokitzea</i> | 87 |
| 5. Eskuragarri dagoen informazioa eta dokumentazioa..... | 91 |
| 6. KAPITULUA. ARAUDIAN ETA ETORKINEN PROFIL SOZIAL ETA DEMOGRAFIKO ETA JURIDIKO ETA ADMINISTRATIBOAN ERROTUTAKO ZAILTASUNAK | 93 |
| 1. Gizarte-laguntzak eta -prestazioak eskuratu eta mantentzeko zailtasunak | 93 |
| 2. Geroz eta murriztailegoa den araudia: terminologiaren zehaztasun falta..... | 94 |
| 3. Administrazio-irregulartasuneko egoera..... | 96 |
| 3.1. <i>Indarkeria matxistaren biktima diren emakume atzerritarrak, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa eskuratzeko eskubiderik ez dutenak</i> | 96 |
| 4. Laneko eta egoitzako egoeraren ondoriozko zailtasunak..... | 100 |
| 4.1. <i>Langabezia estaltzen ez duten lan-sektoreak: etxeko araubideko langileak</i> | 100 |
| 4.2. <i>Egoitza-baimena eta gizarte-prestazioak berritzea: arriskuaren eta aukeraren artean..</i> | 100 |
| 4.3. <i>Adin kontua: 18 eta 23 urte bitarteko hutsunea</i> | 102 |
| 5. Errolda eta benetako egoitza frogatzea..... | 102 |
| 5.1. <i>Ohiko etxebizitzaren ezaugarriak eta bizikidetzta-unitatearen ondoriozko arazoak</i> | 104 |

| | |
|---|------------|
| 6. Prestazioen kudeaketaren ondoriozko zailtasunak..... | 105 |
| 6.1. Jatorrizko herrialdeetan egin beharreko tramiteak..... | 105 |
| 7. Zailtasun psikosozialak..... | 107 |
| GIZARTE PRESTAZIO ETA LAGUNTZEN KATALOGOA | 109 |
| ONDORIOAK | 123 |
| 1. Kontzeptuak argitzeko beharra | 123 |
| 2. Administrazio-maila desberdinek gizarte-zerbitzu eta -prestazioen zerrenda osatzeko orduan duten eragina eta araudiaren bilakaera jarraitua..... | 123 |
| 3. Arrisku eta ahultasuneko faktoreak EAEko etorkinen artean..... | 124 |
| 3.1. Administrazio-egoera..... | 124 |
| 3.2. Egoitza-egoera | 125 |
| 3.3. Lan-egoera | 125 |
| 4. Etorkinak ongizatearen estatura sartzeari buruzko araudi-mugak eta gizarte-dis-kurtsoak | 125 |
| 4.1. Osasunerako sarbidea..... | 126 |
| 4.2. Hezkuntzarako sarbidea..... | 126 |
| 4.3. Etxebizitzarako sarbidea | 126 |
| 4.4. Gizarte Segurantzako prestazioetarako sarbidea | 126 |
| 5. Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea Atzerritarren Legean..... | 126 |
| 6. Estereotipo eta errealitatea: iritzi publikoa eta etorkinek gizarte-prestazio eta eskubideetarako duten sarbidea | 127 |
| 7. Gizarte-agenteen begirada, araudian errotutako zailtasunak eta etorkinen profil sozial eta demografikoa eta juridiko eta administratiboa | 128 |
| 7.1. Atzerritarren egoera juridiko, laneko eta egoitzakoa..... | 128 |
| 7.2. Prestazioen kudeaketa | 130 |
| 7.3. Hauskortasun psikosoziala | 130 |
| ERANSKINA. NEURKETA-SISTEMARAKO INKESTA..... | 131 |
| ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK..... | 141 |

TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

| | | |
|------------|--|----|
| 1. taula. | Administrazio-egoera eta jatorria (%)..... | 26 |
| 2. taula. | Etorrera-urtea eta administrazio-egoera (%)..... | 27 |
| 3. taula. | Errolda eta jatorria (%)..... | 28 |
| 4. taula. | Ostatu- edo etxe-mota eta jatorria (%)..... | 29 |
| 5. taula. | Ostatu- edo etxe-mota eta administrazio-egoera (%)..... | 29 |
| 6. taula. | EAEn etxebizitza edukitzeari buruzko araubidea eta jatorria (%)..... | 30 |
| 7. taula. | EAEn etxebizitza edukitzeari buruzko araubidea eta administrazio-egoera (%)..... | 31 |
| 8. taula. | Bizikidetza-modalitatea EAEn eta jatorria (%)..... | 31 |
| 9. taula. | Bizikidetza-modalitatea EAEn eta administrazio-egoera (%)..... | 32 |
| 10. taula. | Lan-egoera eta administrazio-egoera (%)..... | 32 |
| 11. taula. | Lan-egoera eta jatorria (%)..... | 33 |
| 12. taula. | Kontratazio-mota eta jatorria (%)..... | 33 |
| 13. taula. | Lanpostu-mota eta administrazio-egoera (%)..... | 34 |
| 14. taula. | Enplegu-bilaketa aktiboa eta jatorria (%)..... | 34 |
| 15. taula. | Enplegu-bilaketa aktiboa eta administrazio-egoera (%)..... | 34 |
| 16. taula. | Langabezian egondako denbora eta jatorria (hilabeteak)..... | 35 |
| 17. taula. | Langabezian egondako denbora eta administrazio-egoera (%)..... | 35 |
| 18. taula. | EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua eta jatorria (%)..... | 35 |
| 19. taula. | EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua eta administrazio-egoera (%)..... | 36 |
| 20. taula. | EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua emandako denbora eta jatorria (hilabeteak)..... | 36 |
| 21. taula. | EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua emandako denbora eta administrazio-egoera (hilabeteak)..... | 36 |
| 22. taula. | EAEn kontratatutako pertsonen jatorria (EAEko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan/Enplegu Institutu Nazionalean erregistratutako/ jakinarazitako kontratazioa), 2001-2008..... | 51 |
| 23. taula. | Biztanleei egindako kontratu-kopuruaren igoerari buruzko tasaren eta EAEn atzerritar talde batzuek izandako hazkundeari buruzko tasaren arteko aldea, 2001-2008 aldian, jatorriaren arabera..... | 52 |
| 24. taula. | EAEn epe mugagabeen kontratatutako pertsonen jatorria (EAEko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan/Enplegu Institutu Nazionalean erregistratutako/jakinazitako kontratazioa), 2001-2008..... | 53 |
| 25. taula. | 2008an EAEko EINeko bulegoetan erregistratutako etorkinak, 2008an zuten biztanleriaren aldean, jatorriaren arabera (%)..... | 53 |
| 26. taula. | Antzemandako mehatxua (autoktonoen artean) eta lurralde historikoa (%)..... | 72 |

| | | |
|--------------|---|----|
| 27. taula. | Antzemandako mehatxua (autoktonoen artean) eta diru-sarrerren maila (%)..... | 72 |
| 28. taula. | Antzemandako mehatxua (etorkinen artean) eta jatorria | 73 |
| 29. taula. | Antzemandako mehatxua (etorkinen artean) eta administrazio-egoera..... | 73 |
| 30. taula. | Gizarte-prestaziorako sarbideari buruzko balorazioa (autoktonoen artean) eta lurraldea (%)..... | 75 |
| 31. taula. | Gizarte-prestaziorako sarbideari buruzko balorazioa (autoktonoen artean) eta diru-sarrerren maila (%)..... | 76 |
| 32. taula. | Autoktonoen iritzia atzerritarrek gizarte-babeserako sistematik onura gehiegi hartzen dituztela dioen adierazpenari buruz, lurraldeen arabera (%)..... | 76 |
| 33. taula. | Autoktonoen iritzia atzerritarrek gizarte-babeserako sistematik onura gehiegi hartzen dituztela dioen adierazpenari buruz, diru-sarrerren mailen arabera (%)..... | 77 |
| 34. taula. | Oinarrizko Errentaren emakiden bilakaera Gipuzkoan (2000-2008), jatorriaren arabera | 78 |
| 35. taula. | Laguntza-prestazioen (Gizarteratzeko Errenta Aktiboa edo RAI, adibidez) onuradun diren atzerritarrak EAEn, 2001-2009an, jatorriaren arabera..... | 78 |
| 36. taula. | Ordainketaren araberako prestazioen onuradun diren atzerritarrak EAEn, 2002-2009an, jatorriaren arabera..... | 79 |
| 37. taula. | Aholkularitza-zerbitzuren baten erabilera, jatorriaren arabera (%)..... | 79 |
| 38. taula. | Aholkularitza-zerbitzuren baten erabilera, administrazio-egoeraren arabera (%)..... | 80 |
| 39. taula. | Aholkularitza, laguntza edo informazioaren eskaera-mota, jatorriaren arabera (%)..... | 80 |
| 40. taula. | Aholkularitza, laguntza edo informazioaren eskaera-mota, administrazio-egoeraren arabera (%)..... | 81 |
| 1. grafikoa. | Etorrera-urtea eta jatorria (%)..... | 27 |
| 2. grafikoa. | Errolda eta administrazio-egoera (%)..... | 28 |

AURKEZPENA

Lan hau MUGAK, GIPUZKOAKO SOS ARRA-ZAKERIA ikerketa-taldeak egin du. Talde horren partaide dira Maitane Arnoso, Mikel Mazkiaran, Ainara Arnoso, Silvana Luciani, Adriana Villalón eta Aizpea Otaegi.

Eskubide ekonomiko eta sozialen titulartasunari buruzko azterketan aurrera egiteko asmoz erakunde honek eman zuen beka baten emaitza da. Berdintasun printzipioa indarrean egonagatik ere, begi-bistakoa da egoerarik ahulenean dauden etorkinek eskubide horiek gauzatzeko mugak dituztela.

Eskubide horiek baliatzeko dauden oztopoek larriagotu egiten dituzte gizarte bazterkeriazko egoerak, zaildu egiten dute pertsonen gizartean eta ekonomian parte hartzea eta giza eskubideez gozatzea. Pertsona orok eskubidea du beretzat eta bere familiarentzat bizi-maila egokia izateko –elikagai, jantzi eta etxebizitza duina barne direla–, bizi-baldintzak etengabe hobetzeko eskubidea edo ahalik eta osasun fisiko eta mental onena izatekoa. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen gaineko Nazioarteko Itunean xedatuta daude eskubide horiek. Espainiak itun horretan parte hartu du, horren hautazko protokoloa sinatu eta berretsi du 2010eko irailaren 23an; beraz, gehiago exiji dakiok. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak elkarren mendekoak dira, eta eskubide zibilekiko zatiezinak, halako moldez non lehenak falta badira, bigarrenak ahuldu egiten baitira. Horregatik, garrantzitsua da horiek hobeto babesten ahalegintzea.

Atzerritartasunak lurralde bateko eskubideen titulartasuna eta eskubide-gauzatzea bereizteko aukera ematen du, jatorrizko naziotasunaren arabera. Etorkinek, beren jaioterria ez den lurralde batera iristen direnean, egoitza- eta lan-baimenak eskuratzeko zailtasunak izaten dituzte. Horren on-

dorioz, beraien eskasia-egoera edo osasun-egoera alde batera utzita, ez dute baldintza beretan baliatzerik izaten lurralde horretako gainontzeko biztanleek dituzten eskubide sozialak. Era berean, Gizarte Ongizateko zenbait zerbitzu eta prestazio etorkinekin partekatzearen kontrako diskurtso bat ageri da hedabideetan eta gizartean. Diskurtso hori zehaztugabea da eta zorrotzasunik gabeko informazioa ematen du etorkinek jasotzen dituzten prestazioez eta zerbitzuez. Diskurtso hori hedatzeak ezaugarri fenotipiko ezberdinak dituzten pertsonenganako gaitzespen orokorra sortzen du, eta portaera xenofoboak egotea errazten du.

Azterlan honek badu alde on bat: pertsonen aitortutako eskubide sozialak aztertzen ditu, eta egoera administratiboaren eta jaioterriaren arabera, lurralde berean bizi diren pertsonen artean zer ezberdintasun dauden jartzen du agerian. Lortutako emaitzak ez datoz bat zirkulu batzuetan nagusitzen den diskurtsoarekin. Izan ere, diskurtso horrek sinestarazi nahi du etorkinek bertakoek baino gizarte prestazio eta zerbitzu gehiago jasotzen dituztela. Egiazkotasunik ez duen baieztapen hori guztiz bidegabea da ikerlan horrek zehazten duen oraingo araudia ikusita, eta aurrez aurre gezurtatu beharra dago, ez osagai xenofoboa delako bakarrik, baizik eta baita ere eskubide sozialak zabaltzea eragozten duen traba delako, eta horrela, lehen adierazi dudan bezala, giza eskubideak betetzea eragozten duelako.

Orduan, azterlan honetan, biztanle etorkinek EAEko gizarte zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko duten ahalmen ezberdina aztertzen da. Eskubide horiek baliatzeko zailtasun zehatzak aurkitu dituzten etorkinen eta gizarte-eragileen ikuspegia ematen da. Horrekin batera, gizarte baliabideen eta prestazio ekonomiko eta sozialen katalogoa eskaintzen da, prestazio horiek jasotzeko zer baldintza bete behar diren azaltzen da, bereziki azpimarratuz egoera juridiko-administratiboaren arabera etorkinak prestazio eta zerbitzu horietan onartzeko edo horietatik kanpo uzteko dauden irizpideak. Lan honetan inkesta-proposamen bat egiten da, neurketa sistema bat erabiltzeko. Sistema hori lagungarria izan daiteke denboran edota lurralde ezberdinetan etorkinek zenbaterainoko babes soziala eskura dezaketenez neurtzeko.

Arartekoak urteko txostenetan behin eta berriz adierazi duenez, oso garrantzitsua da azterketa zorrotzak egitea Euskadin bizi diren pertsonen prestazioak eskuratu ahal izateaz. Horregatik, egindako lana eskertu nahi diet bereziki ikerketa-taldeari, beraien iritzia eman duten gizarte-eragileei eta galderei erantzun dieten etorkinei. Baita ere datuak emanaz lankidetzan aritu diren erakundeetako arduradunei, Jon Olaskoaga EHUKo irakasleari –ikerlanerako metodologiari egin dion ekarpenagatik–, eta azterlana koordinatu eta berraztertu duten Arartekoko langileei.

Bukatzeko, berriz adierazi nahi dut zein garrantzizkoa den eskubide sozialen arloan datuak biltzen eta tratatzen aurrera egitea, arlo honetan erraz sortzen baitira diskurtso zehaztugabeak. Gizarte-zailtasunak eta gizarte-politikak aztertzen dituzten ikerlanei esker, politika publikoak eraginkorrakoak izango dira pertsona ahulenei laguntzen, esaterako, etorkinei eta, horien artean, administrazio-egoera irregularrean daudenei. Mugak kontrolatzeko politikak izan arren, pertsona horiek gure ondoan bizitzen edo, hobeto esanda, “bizirauten” ari dira eta, horregatik, agian pairatzen ari diren eskubide-gabeziak euskal gizarte osoari dagozkio, eta kezka sortzen diote Arartekoari, pertsona guztien eskubideak defendatzeko erakundeak denez.

Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekaina

SARRERA

Lan hau aurkezteko orduan, Arartekoak 2007-2008rako deitutako ikerketa-beka arautzen duten oinarrietan azaldutakoa bete da. Bekaren erreferentzia “1 Modalitatea” da eta helburua giza eskubide batzuk gure erkidegoan aplikatzeari buruzko azterketa bat egitea da, ahultasun-egoera berezian dauden taldeei dagokienez, batez ere.

Gure inguruan etorkin ugari dago, gehienak herrialde txirotuetakoak, eta, horrek hedadura zabaleko erronkak pizten ditu gizartean, bereziki eskubideen berdintasuna sustatzeko, norberaren jatorria edozein dela ere. Konstituzioak eta antolamendu juridikoak etorkinei aitortzen dizkien oinarritzko eskubideen artean (batzeko eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, elkartzeko eskubidea, eta abar), lanerako eskubidea eta gizarte-prestazioetarako eskubidea jotzen ditugu oinarritzko elementutzat, etorkinak integratzeko edozein prozesutan.

Bigarren belaunaldiko eskubide horiek, etorkinei dagokienez, unibertsaltasunaren eta hiritartasunaren artean kokatzen dira. Unibertsaltasuna esatean, lanerako eta gizarte-prestazioetarako aukera esan nahi dugu. Horrenbestez, nazionalitatea, administrazio-egoera eta hiritartasuna ez dira aintzat hartzen, estatu jakin bateko nazionalitatea ez duten pertsonak baztertzeko baitituzte. Hala ere, ezin dugu ahaztu aukeraketa honen atzean ezkutatzen den egoera politikoa aurrekontu eskuragarriarekin eta gizarteko iritziaren estatuarekin lotuta dagoela eta bi faktore horiek ez dutela atzeritarrei gizarte-prestazioak emateko joera handirik.

Gizarte Segurantzatik datozen prestazioei buruz ari gara batez ere. Izan ere, bai ordaindutakoaren araberako prestazioetarako, bai ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioetarako, legezko

egoitza edukitzea beharrezkoa da eta hori muga garrantzitsua da etorkinentzat. Batzuetan, gainera, prestazioa eskatu aurretik aldi batez legezko egoitza izateko eskatzen da.

Horren harira, azken urteetan onetsi diren eta etorkinen eta autoktonoen arteko muga-desberdintasunak are gehiago handitu dituzten lege desberdinak aipatu behar ditugu. Horren adibide dira Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea edo Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta arautzen duen azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretua. Lehenengoak atzerritarren sarbidea mugatzen du, legezko egoitzako 5 urte egiaztatze eskatzen baitu, eta, bigarrenak, bestetik, legezko egoitza iraunkorrean 5 urtez egon izana egiaztatze eskatzen du, etxebizitzak alokatzeko laguntzak jaso ahal izateko.

Abiapuntua, beraz, gizarte-prestazioetarako eskubideaz baliatzeko aukera etorkinen integrazioa errazteko elementu gisa aztertzea da, eta, era berean, beste eskubide batzuk (hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta abar) aitortzeko garrantzia azpimarratuko da.

Azterlan honen helburua etorkinek EAEn zerbitzuak eta gizarte-prestazioak jasotzeko duten aukera aztertzea da, bai eta talde horrek dituen zailtasunak eta legezko mugak desfizatzea ere, administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarrei dagokienez batez ere.

Azterlan honetako atal nagusiak gai honen ikerketari buruzkoak dira eta honako alderdiak jorratzen dituzte, funtsean: etorkinek jasan behar dituzten bazterkeria-egoerei buruzko datuak eta literatura, gizarte-babesa eskuratzeko araudia, atzerritarrek gizarte-babeserako sistema erabili eta jasotzeari buruzko iritziaren estatuak, eta gizarte-laguntza eta -prestazioak eskuratu eta mantentzeko aurkitzen diren zailtasunak.

Lehenengo kapitulua bazterkeria eta berdintasuna kontzeptuei buruzkoa da eta etorkinen artean dauden arrisku- eta ahultasun-faktoreak aztertzen dira bereziki. EAEn bizi diren atzerritarren egoera deskribatzen da, integrazioarako oinarrizko hiru ardatzen arabera: administrazio-egoera, egoitza-egoera eta lan-egoera.

Bigarren kapituluak ongizatearen estatuaren eta gizarte-babesaren kontzeptuak azaltzen ditu. Horrez gain, immigrazioa aurreko elementu horiekin batera azaltzean sortzen diren diskurtsoak, eta etorkinen eskubideak eta gizarte-prestazioak eskuratzeko sarbidea arautzen duen araudia ere aztertzen dira. Gizarte Segurantzako kide izatea gizarte-babeserako sistemara sartzeko bide nagusietako bat denez, EAEn Gizarte Segurantzako kide diren atzerritarren profil sozial eta demografikoak aztertu dira, bide horien bitartez integratzeko prozesuen dinamikak identifikatuz. Gainera, kontuan hartuta gizarte-zerbitzuak gizarte-babesa eskuratzeko azken bidea direla, atzerritarrek horiek eskuratzeko duten aukerari buruzko araudia berrikusi da, zerbitzuok erabiltzen dituzten biztanleen profilei buruzko literaturarekin batera. Azkenik, gizarte-bazterkeriaren eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeek zeregina deskribatu da, eta, horretarako, administrazio publikoen gizarte-babesetik at geratzen diren biztanleek egin ohi dituzten eskaera-motak azaldu dira.

Hirugarren kapituluan atzerritarrek eskubide eta gizarte-prestazioak erabili eta gozatzeari buruz dagoen iritzi publikoaren estatua berrikusi da; zehazki, immigrazioak gizarte-babeserako sistemetan eta horietarako sarbidea legitimatu edo deslegitimatzeko prozesuetan duen eraginaren gainean antzemandako mehatxua. Etorkinek prestazio hauetan egiten duten gehiegizko erabilerari buruzko diskurtsoen aurka, EAEn gizarte-prestazioak jasotzen dituzten biztanleei buruzko profil sozial eta demografikoen datuak jaso dira; zehazki, Gipuzkoako Oinarrizko Errenta zaharrari, Gizarteratzeko Errenta Aktiboari, kotizaziodun prestazioei eta beste aholkularitza-zerbitzu batzuei dagokienez.

Laugarren kapituluan atzerritarrek jasaten dituzten bazterkeria-arriskuko faktoreak eta gizarte-baldintzak deskribatu dira, EAEn immigrazioarekin lotutako arloetan lan egiten duten gizarte-agenteen ikuspegitik. Atzerritarrek gizarte-babeserako sistemara sartzeko orduan zein faktorek eragiten duten identifikatu da

eta, horrekin batera, atzerritarren barruan horiek eskuratzeko zailtasun gehien dituzten taldeak antze-
man dira. Azterketa honetarako oinarri nagusia EAEko gizarte-babeserako sistemara sartzeko zailtasun
espezifikoa aurkitu dituzten etorkinei eta gizarte-agenteei egindako 30 elkarrizketak eta metodologiaren
atalean deskribatu diren beste ikerketa-jarduera batzuk dira.

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden (Estatuko esparrutik nahiz administrazio autonomikoaren
esparrutik bideratutakoak) oinarrizko baliabide eta prestazio sozial eta ekonomikoei buruzko informazioa
jasotzen duen katalogoa azalduko da. Bertan, prestazio desberdinak eskuratzeko betekizunak deskribatu
dira, etorkinak beren egoera juridiko eta administratiboaren arabera baztertzeko edo onartzeko irizpideak
azpimarratuz.

Azkenik, atzerritarrek gizarte-babesa eskuratzeko duten aukera denboran zehar edo/eta lurralde desber-
dinetan ebaluatzeko erabilgarria izan daiteken neurketa-sistemarako inkesta-proposamena aurkeztu da.

METODOLOGIA

Azterlan honek ikertzen duen gizarte-errealitatearen konplexutasuna ikusita, hainbat tresna metodologiko tartekatu behar dira, gure azterlanaren xedean esku hartzen duten aldagaien aniztasuna ulertu ahal izateko. Tresna horien adibide dira, esate baterako, bigarren mailako iturri teoriko nahiz legegileen berrikuspena, azterketa kuantitatiboa eta ikerketa kualitatiboa.

Horren harira, gai honetan bi erreferentzia-legeen azterketa egin da: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta Diru-sarrerak bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legea. Aipatzekoa da bi lege horiek ikerketa-lan hau martxan zegoenean egin zirela. Gero, lege horiek garatzen dituzten dekretu batzuk argitaratu dira, besteak beste, etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua. Aurreko horri Gizarte Zerbitzuen 2010-2014 Plan Estrategikoa batu behar zaio. Helburua Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen mapa ezartzea da, lurralde autonomiko osoko antolamendu-oinarriak esparru horren barruan zehazteko.

Horren harira, gizarte-zerbitzuen kudeaketan berantolaketa bat egon da eta 18/2008 Legea aldatu du. Aldaketa horren xedea zera da, Legean aurreikusten diren prestazioak Enpleguaren Euskal Zerbitzuan kudeatzea, hasiera-hasieratik, Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak (GLL) salbu. Azken horiek udaletan kudeatuko dira. Horrela, laguntzek laneratzeko hitzarmenekin duten lotura indartu nahi da, hemendik aurrera itunok “laneratze aktiborako” hitzarmen izena hartuko dutelarik. Hala ere, proiektua egiteko prozesuan zehar sortu diren aldaketa guzti horiek eta legebiltzarraren egoitzan eztabaida-fasean sortuko batzuek (Gi-

zarte Zerbitzuen Saila egitea, besteak beste) gure lanari eragiten diote neurri batean, gaurkotasunari eta indarraldiari zehazki. Hala ere, azterlanaren helburuak etorkinek gizarte-zerbitzuetara duten sarbidea aztertzea da, eta nahiz eta berrantolaketa horrek edo etorkinei zuzendutako zerbitzu espezifikoaren etendura berriak (HELDU adibidez) sarbide horri eragin diezaioketen, aipatu ditugun aldaketek ez diete etorkinen legezko betekizunei eragiten; ez behintzat gizarte-zerbitzuak eskuratzeari dagokionez. Edonola ere, lan honek aipatutako bi legeetara egokitu ditu araudi-erreferentziak.

Halaber, azterlan hau egiterakoan beste araudi-aldaketa garrantzitsu bat egon da. 2/2009 Lege Organikoari buruz ari gara. Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen du eta 2009ko abenduaren 12ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Atzerritarren Legeari egindako erreferentziak, beraz, azken aldaketa honetara egokitu dira. Era berean, lan hau ixteko orduan, Lege honen garapen-araudia ateratzeko dago. Ulermen-ondorioetarako, aipatzekoa da testu honetan zehar “Atzerritarren Legea” izen orokorra emango diogula, horren barruan atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta beren gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa sartuko delarik, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoan, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoan, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoan eta abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoan emandako idazkuntzetan. Artikuluren bat lehen aipatutako lege-aldaketaren bateko idazkuntzaren arabera azpimarratu nahi bada, aldaketa hori eragin duen lege organikoa adieraziko da.

Tresna kuantitatiboei dagokienez, Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) emandako bigarren mailako iturriak eta Gizarte Segurantzaren, EINen (Enpleguko Institutu Nazionala) eta EAEko foru-administrazioen (Gipuzkoakoak zehazki) iturriak estatistikoki ustiatuta egin dira deskribapen-azterketak.

Batetik, lagin garrantzitsu bati buruzko datuak landu dira, lurralde historikoen arabera, EAEn biztanle-ordezkaritza gehien duten nazionalitateak kontuan hartuta (N=3.101 inkesta). Ikuspegik 2006ko azaroaren eta 2007ko martxoaren artean jaso zuen informazioa eta inkesta egindako pertsonen jatorria eta egoitza-lurraldea hartu zituen lagina geruzatzeko irizpide gisa. Lagin hori erabili da EAEko etorkinen egoitza-, lan- eta administrazio-egoera eta gizarte-prestazioen eta aholkularitza-zerbitzuen erabilera aztertzeko, bai eta talde arteko ikuspegitik etorkinen iritsierak gizarte-babeserako sistemaren gainean duen eraginari buruz antzemandako mehatxua azaltzeko ere. Aldagai horiek subjektuen jatorri eta administrazio-egoerarekin gurutzatu dira.

Halaber, EAEko lagin garrantzitsu bati buruzko datuak aztertu dira (N=1.787), galdetegi itxien bidez egindako inkestez baliatuz. Horretarako, EAEn bizi diren eta 18 urte baino gehiago dituzten biztanleei elkarrizketa pertsonalak egin zaizkie. Informazioa Ikuspegi Behatokiak jaso zuen 2004ko ekainean eta gure azterlanaren xedeari buruzko iritzi publikoaren estatua deskribatzeko eta horren bidez etorkinek ongizatearen estatuan baldintza berdinetan parte hartzeko traba gehien jartzen dituzten herritarren profilak identifikatzeko erabili da. Gurutzaketa-aldagaiak biztanleriaren lurralde historikoa eta diru-sarreraren maila izan dira.

Ikuspegik egindako inkesta guztietatik datozen datuak SPSS 16 izeneko programa estatistikoaren bidez aztertu dira, Immigrazioaren Euskal Behatokiak datuen bigarren mailako ustiapenerako baimena eman ondoren.

Azkenik, Gizarte Segurantzatik, EINetik eta Gipuzkoako foru-administrazioetatik datozen biztanle-datuei buruzko informazioa jaso da. Denboran zehar sistematikoki bildutako datu horiei esker, etorkinen laneko eta gizarteko egoeraren eta prestazio-sistemarako sarbidearen bilakaera ulertu ahal izan da, eta, ondorioz, Ikuspegiren inkestaren bidez emandako informazioaren osagarri diren datu desberdinak eskuratu dira.

EAEko beste administrazio batzuei prestazioa jasotzen dituzten pertsonen datuak eskatu zitzaizkien arren, urteetan zehar atzerriartasuna ez denez kontuan hartu beste administrazio publiko batzuek egindako datu-bilketetan, informazio hori ezin izan da azterlan honetan sartu, ezinezkoa izan baita azterlan honen aldagai nagusia (atzerriartasuna) aintzat hartzen duen bilakaera-hausnarketarik egitea.

Era berean, ikuspegi kualitatibotik erreparatuta, 30 elkarrizketa sakon egin zaizkie immigrazioaren eta gizarte-bazterkeriaren eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko gizarte-agenteei (Caritas, Gurutze Gorria, CEAR, Izangai, Arrats, Sartu, ESK eta Heldu), etorkinen elkarteetako kideei (Guztion Artean, Mujeres del Mundo, Esperanza Latina, Malen Etxea) eta EAEko foru-administrazioetako administrazio publikoko eta hiru lurralde historikoetako udaletako gizarte-zerbitzuetako agenteei. Halaber, EAEn gizarte-babeserako sistemara sartzeko orduan zailtasun espezifikoak aurkitu dituzten etorkinei elkarrizketak egin zaizkie, herritar protagonistek antzemandako ikuspegia azterlanean jasotzen dela bermatuz.

Elkarrizketa sakonen emaitzak eztabaida-taldeetan landu ziren, emaitzak itzuli eta informazioa egiaztatzeko estrategia gisa, bildutako informazioari sinesgarritasuna eman ahal izateko. Halaber, ustiapen erdi egituratu baterako erabili zen *ad hoc* gidoia diseinatu zen, baina galdera irekiak ere egon ziren, ikerketa-gidoiaren diseinuan aurreikusi gabeko elementuak identifikatzea posible izan zedin.

Laginketa apurka-apurka osatu zen, hau da, ikerketa-prozesuak aurrera egin ahala agente esanguratsu gisa identifikatzen zirenak sartu ziren gizarte-agenteen mapan. Laginketaren tamaina asetaren irizpideak zehaztu zuen. Hots, elkarrizketa berriak egitean informazio berririk lortzen ez zela eta diskurtsoak errepikakorrak zirela egiaztatu zenean eman zitzaion amaiera ikerketari.

Bildutako informazioa edukiak aztertzen dituen ikerketa batean oinarrituta aztertu da, taldeko kideen artean adostutako kategoria-sistemaren bidez. Etorkinei komunikabideetan ematen zaien tratamenduari buruzko espezialistek eta kultura arteko bitartekaritzaren, giza eskubideen, talde-dinamizazioaren eta esku-hartze psikosozial eta komunitarioaren gaineko adituek hartu dute parte talde horretan.

1. KAPITULUA

BERDINTASUN EZA ETA GIZARTE BAZTERKERIA

1. Arrisku- eta ahultasun-faktoreak etorkinen artean

Kontzeptuaren etimologiari erreparatzen badiogu, bazterkeria hitza norbait erkidegotik botatzearekin lotzen dugu, hau da, hemen egon arren instituzionalki bereizita edo bananduta dauden pertsonak edo besteek dituzten eskubide batzuk ukatzen zaizkien pertsona edo/eta taldeak gogorarazten dizkigu. Nahiz eta hasiera batean hitzaren erabilera laneko eta gizarteko faktoreekin lotuta zegoen, egun, gizarte-bazterkeria alor horietatik harago doa, gizartean garrantzitsuak diren beste eremu askotara (etxebizitza, hezkuntza, osasuna, zerbitzuetarako sarbidea, eta abar), gizartean *ez parte hartzea* eta herritarren kategorian “ez sartzea” gunerik gogorrenak direlarik (Laparra, Gaviria eta Aguilar, 1998).

Kontzepzio batzuen ustez, Laparra eta laguntzailerek jaso zuten bezala (2009), baztertuak arau eta bizimodu nagusiak jarraitu nahi ez dituzten pertsonak dira eta pertsona horiek sustatu eta diziplinatu egin behar dira. Azpi-klase bat (*underclass*) osatzen dute eta degradazio moral aurreratuaren ondorioz, kideek ezin dute legezko lan erregularra hartu bizimodutzat, ez eta familia gizarte-erreproduktzioa instituziotzat ere.

Erantzukizun indibidualeko atribuzioen azalpen horien aurka, ikuspegi egituratudunak dauzkagu. Azken horiek berdintasun ezen ibilbide historikoaren barruan ulertzen dute gertakari hau, egiturazko fenomeno gisa, berau sortu eta elikatzen duen sistema ekonomiko eta sozial baten logikari lotuta, uneoro hedatzen den fenomeno dinamikoa bailitzan.

“Bazterkeria” terminoaren iturri den azterketa soziologikoaren tradizio frantsesak fenomeno hau integratze-galeraren gizarte-prozesua dela ulertzen du eta horren barruan sartzen ditu, ez soilik diru-sarrera falta edo lan-merkatuaren urruntzea, baita gizarte-partaidetzaren murriztapena, eta, ondorioz, giza eskubideen galera ere (Laparra, 2001).

Eremu desberdinetan (ekonomia, lana, errenta publikoen mendetasuna, prestakuntza, osasuna eta gizarte-egoitza, harremanak, hiritartasuna eta partaidetza, esanguratsuenak aipatzearren) oztopoak edo arriskuak pilatzeko prozesu gisa, gizarte-bazterkeriak hiru ardatz nagusiren garrantzia azpimarratzen du, gizarteko berdintasun ezak azaltzeko orduan: adina, sexua eta jatorria edo etnia. Berdintasun ezaren ardatz horiek bazterkeria-faktore anitzenekin elkar gurutzatzen dira, egoera eta konbinazio zehatz posible ugari eragiten dituztelarik (Subirats, 2004).

Enpleguaren eskastasuna eta langabeziaren igoera, zalantzarik gabe, gizarte-egituraren aitortza publikoa duten “leku okupagarrien defizitaren” isla dira (Castel, 1997, 146. or.). Atzeraldi ekonomikoko zikloetan, horren ondorioak batez ere *behekoek* pairatu ohi dituztela ikusten dugu. Egun, “behekoak” ez dira jada betikoak; etorkinek, denbora eta eskubide pilatu gutxiago dituztenez (besteak beste), aukera gehiago dute langabezian edo txirotasunean erortzeko, baldin eta krisia eta langabezia luzatu egiten badira (Izquierdo, 2008). Horrez gain, lehen berdintasun ezeko eta eskastasuneko egoerek jasaten zituzten talde espezifikoek ordurako garatuta zituzten beren babeserako, elkarren laguntzarako eta mobilizazio kolektiborako jarraibideak (lantegi bateko langileek, esate baterako); egun, ordea, egoera horiek elkarren artean loturarik ez duten taldeei eragiten diete, nortasun kolektiborik ez dutenei, eta, ondorioz, arazoan, kausen eta konponbide posibleen ikuspegi atomizatu eta banakatua ematen da.

Hori horrela, Tezanosek (2006) dionez, etorkinen artean langabezia igotzeak, lan asko egiteko orduan dauden baldintza eskasak, egoitza-baimenik gabeko atzerritar asko egoten jarraitzeak eta harrera-defizitak gizarteratzeko arazo larriak eragin dituzte. Ondorioz, etorkin asko eskastasun eta gizarte-bazterkeriako prozesuetara hurbiltzen dira, etsaitasun kulturalak eta gizarteko osagai dualizatzaileak areagotzen hasten diren testuinguru orokorrean.

Sistemak egun jasaten duen krisiak nazioarteko dimentsioa duen arren, herrialde bakoitzeko eragina zehatza da, barne-baldintzen, herrialde bakoitzeko ekonomiako alderdi indartsu eta ahulen eta gobernu bakoitzean ekonomiari ematen zaion kudeaketaren arabera. Estatu osoko gizarte eta laneko eremuan honakoa antzeman dugu: a) enpleguaren sorrera eten da; b) langabezia igotzen ari da; c) bazterkeria larriko egoerak igo dira (geroz eta jende gehiago doa larrialdi-zerbitzuetara, besteak beste, Elikagaien Bankura, gizarte-jantokietara, aterpetxeetara, etab.); d) laneko eskastasuna igo da; e) enplegua arautzeko espedienteen aurkezpena igo da; f) soldata, lan-denbora, lan-baldintza eta abarrekin lotutako aldarrikapenak bigarren mailan geratu dira, egoera horretan planteatzea desegokia bailitzan.

Langile atzerritarrek edozein langile autoktonoren arazo berak dituzte, batez ere langabeziaren igoerari eta lan-eskastasunari dagokienez, baina portzentajeak nahiko handiagoak dira etorkinen artean. Krisi ekonomikoen egungo egoeran, *Inmigración y mercado de trabajo. Informe 2010* (Pajares, 2010) txosten berriak adierazten duenez, 2009. urtearen amaieran etorkinen taldeak %29,7ko langabezia-tasa zuen, biztanle autoktonoen %16,8aren aldean. Bestalde, Europako erkidegokoak ez diren langileek lan-baimena eduki behar dute eta baldintza batzuk bete behar dira berau lortu eta berritzeko: a) egoitza eta lanerako baimenaren indarraldian zehar denbora jakin batez kotizatzea; eta b) baimena berritzeko orduan lan-kontratua edukitzea. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, ez da lanerako baimena berritzen, eta, ondorioz, egoitza-baimena ukatzen da berehala, xede-lurraldetik nahitaez irteteko eginbidea ezartzen delarik, herrialdea hamabost eguneko epean uzteko. Baimen iraunkorrak (legezko egoitza bost urtez izan ondoren lortzen da eta ez da aurretik lan-bizitzarik edo kontraturik behar berritzeko) paperen ziurgabetasuna ezabatzen du eta langile atzerritarra autoktonoaren maila berdinerara hurbiltzen du. Baina egoera

horretara iritsi arte, erkidegotik kanpoko langileek, lan-merkatuko gorabeheretatik datozen zailtasunez gain, administrazioan arazo espezifiko, berezko eta partikular asko izaten dituzte, beren egoera are zailagoa bilakatzen delarik. Kasu horretan, zailtasun bi horiek, lan-merkatuko gorabeheretatik datorrena eta administrazioetik datorrena, elkarren artean elikatzen dira eta egoera osoa eskasagoa bihurtzen dute, legez lan egiteko aukera barne (Unzurrunzaga, 2008).

Era berean, egoitza-bazterkeriak nabarmen eragiten omen die atzerritarrei (Cabrera, 2009). Etxebizitza oinarritzko beharra den arren, erosteko prezio neurrigabeen eta azken urteetako alokairu altuaren ondorioz, biztanleen zati handi batek ez dauka ondasun hori eskuratzeko aukerarik. Etxebizitza bat eskuratzeko zailtasuna autoktonoentzat eta atzerritarrentzat berdinak diren arren, azken horiek beren jatorriagatik zailtasun gehiago dituztela ematen du (Jáuregui, 2009). Estatistikako Institutu Nazionalak egindako inkesta baten (2006) arabera, atzerritarrak etxetik gabeko pertsonen %48,5 ziren eta datu hori altuagoa zen aterpetxeetan ostaturik ez zuten pertsonengan, hots, muturreko egoitza-bazterkeria egoeran zeudenengan. Atzerritarrak etxebizitzarik gabeko pertsonen %54 ziren. 2009ko martxoan Madrilén gauzez egindako kontaketa baten arabera, Cabrerak (2009) jasotzen duen bezala, muturreko egoitza-bazterkeria egoeran zeuden pertsonak %59 ziren, eta, %62, aldiz, 2008an Bartzelonan egindako kontaketa. Jatorriari dagokionez, atzerritar gehienak Marokokoak ziren (%16), gero Errumaniakoak (%9) eta Aljeriakoak (%7,5) (EIN inkesta, 2006). Orokorrean, Cabreraren (2009) iradokizunei jarraiki, etxerik gabeko atzerritarrak eta autoktonoak alderatzen baditugu, lehenengoak gazteagok dira, ikasketa-maila altuagoa dute eta gizonak emakumeak baino gehiago dira (etxerik gabeko espainiarren aldean). Hau da, integratzeko baliabide pertsonal gehiago dituzte, baina, hala ere, ez dira nahikoak nazionalitatearen ondoriozko bazterkeriari aurre egiteko. Biztanle autoktonoen kasuan, kalean amaitzeko arrazoiak lan-faltarekin edota lotura aktiboen hausturarekin lotuta egoten dira. Hala ere, atzerritarren kasuan administrazio-egoera, eta, zehazki, irregulartasun-egoera dira oztopo nagusiak, egoera berean dauden biztanle autoktonoen aldean. Dohertyk (2004) iragarri zuen, esparru europarrean, atzerritarrek egoitza-bazterkerian egoteko zuten arrisku geroz eta handiagoa, bai eta etxerik gabeko biztanleen arteko arrisku-egoera ere, nahiz eta etxerik gabeko mugimendu ezkutua ondoz zaila den horretaz jabetzea, besteak beste, euren burua gizarte eta polizia kontrol-agenteengandik eta abar babesteko eta elkarren artean laguntzeko moduagatik. Egoitza-bazterkeriako joera horiek duela urte batzuk antzeman ziren eta egun krisi ekonomikoaren eta enplegu-faltaren ondoriozko arriskuak ere kontuan hartu beharko lirateke.

Etorkinek, batez ere iritsi berriek, autoktonoek baino soldata baxuagoak izaten dituzte batez beste eta sarritan alokairu altuagoak jasan behar dituzte. Horrenbestez, egoitza-zailtasunei aurre egiteko, alokairu partekatuak bilatzen dituzten (Jáuregui, 2009).

Egia da etorkin guztiak ez daudela ahultasun-egoeran edo gizartean baztertuak izateko arriskuan. Egia da, era berean, biztanle autoktono guztiak ez daukatela bazterkeriaren kontrako blindaje bat emango dien posizio sozial, familiar eta indibiduala. Baina jatorria, batez ere erkidegotik kanpoko, gizarte-bazterkeriako arriskuan gehien eragiten duten aldagaietako bat bihurtu dela dirudi. Era berean, kontuan hartu behar da etorkinak ez direla talde homogeneoa; anitzak dira ezaugarri sozial eta demografikoetan, egoera juridiko eta administratiboetan, gizarte eta lanean, familietan, eta abar. Hori horrela, gizarteratzeko aukerak edo zailtasunak hainbat alderdiren arabera dira: zein garaitan iritsi diren, herrialdean dagoen egoera ekonomikoa, migrazio-politikak, adina, sexua, jatorrizko herrialdea eta nazionalitatea, hizkuntzaren jakintza, daukaten gizarte-sarea, bakarrik edo familiarekin ote datozen, ekonomia formalean edo ezkutuko ekonomian ote dauden, eta, batez ere, adierazi den bezala, bere egoera juridiko eta administratiboa.

Gizarte-bazterkeria egoeran dauden biztanleekin lan egiten duten profesional askok diotenez, etorkinek, biztanle autoktonoek ez bezala, ez daukate bazterkeriara eramaten dituzten faktore indibidual edo familiar

ugari: ez da biztanleria kronikoa eta gehienetan beren menpe ez dauden baldintza sozial eta egiturazkoen eragina dute (Montagud eta Torres, 2002).

Zalantzarik gabe, immigrazioaren estatutu juridikoak (arabide orokorra) eta baimen-motak (hasierakoa) areagotu egiten dituzte baztertua izateko aukerak, eta erkidego-arabideak eta egoitzaren berrikuntzak, aldiz, arrisku horren kontrako babesa ematen dute. Lan-eremuan ere aztertu da ahultasun hori: langabezia eta irregulartasun-egoerak dira etorkinak baztertzeko prozesuak sustatzen dituzten bi eszenatokiak. Etxeen osaera desorekatuak, bereziki bakarrik eta isolatuta dauden etorkinen kopuru altuak edo prestakuntza-faltak ere babes-hesiak murrizten laguntzen dute (Izquierdo, 2008).

Bestetik, De Lucas eta Díazen arabera (2006), abiapuntuko oinarrizko premisa bat hartu behar da kontuan: etorkinen, gizartearen eta erakunde-esparruaren arteko egitura-asimetria. Harrera-gizartearen jarrera menderatzailea eta horrek etorkinen taldearekin duen harreman ez-parekidea hainbat faktoreekin lotuta daude, besteak beste, pisu demografikoarekin, gizartearen eta ekonomiaren boterearekin eta kohesioak eta legitimitateak gizarte hartzaileari ematen dioten nortasunarekin, “bestearen” aldean. Halaber, etorkinek harrera-herrialdera egiten duten sarrera arautzen duen esparrua estatuaren eskumena da, eta, horrenbestez, herritarren legezko estatusa eta eskubide-sistema (egoera erregularrean nahiz irregularrean) alderdi bakarrak erabakitzen du. Partaidetza-izaeradun eskubide batzuk ez aitortzea da etorkinak lanean eta gizartean babesik gabe egoteko arrazoi nagusietako bat (Stolcke, 2004) eta hori gizarte hartzailean integratzeko prestutasunari buruzko eztabaida baino lehenagoko kontua da (Pajares, 2005).

Azkenik, Vázquez Aguadoren (1999) arabera, egiturazkoagoak diren faktore-mota hauei psikosozial erako beste batzuk batu behar zaizkie, nortasunarekin eta estigmatizazio-prozesuekin lotutakoak. Molero, Navas eta Moralesek (2001) esandakoaren harira, bazterkeriak prozesu psikosozial jakin batzuk sortzen ditu herritarren artean, orokorrean, “bestearen” egoera justifikatzeko eta kontzientziak lasaitzeko. Opatowen (1990) arabera, pertsonak gizarte-kategoriak eratzen dituzte beren justizia-mailaren barruan, eta, beraz, baztertuak direnak “ez direla merezidunak” ulertzen da. Jende gehienak injustizia baztertzen duen arren, errazago toleratzen dugu injustizia horren biktimei aurretik gizatasuna kendu bazaie eta erkidegotik baztertu badira. Etorkina arrotz bikoitza da: arrotza “aberriarekiko” eta arrotza “kultura familiarrarekiko”, eta horrek marjinazio-egoeraren justifikazioa errazten du. Hori dela eta, egileek diotenez, etorkinek bazterkeria bikoitza jasaten dute: ekonomikoa, txirotasunera kondenatzen dituen, eta psikosoziala, nortasun berdina ez izatean erkidegotik baztertzen dituen, herritarrengandik. Bi bazterkeria-mota horiek, harreman dialektiko baten moduan, elkarren artean indartu eta justifikatzen dira.

Gizarteratzearen Behatokiak egindako *Informe de la Inclusión Social en España 2008* (52-59 or.) izenekoak etorkinentzat ahultasun-faktore bihur daitezkeen laneko eta ekonomiako arriskuak azaltzen ditu atal batean, etorkinak gizarte-haustura berria direla adieraziz. Hori horrela, txostenetik atera daitezkeen datuen arabera, etorkinen txirotasun-portzentajea Espainian jaiotakoena baino nahiko altuagoa da. Neurrizko txirotasunari dagokionez, Espainian jaiotako gizonen %17 eta emakumeen %21 dira txiroak. EB-25etik kanpo jaiotako artean, neurrizko txirotasunaren tasa %26 eta %24 bitartean kokatzen da, hurrenez hurren. Patroi berdina errepikatzen da txirotasun altu eta gogorreko portzentajeetan, nahiz eta Espainian jaiotako pertsonen eta munduko gainerako lekuetan jaiotako arteko tartea handiagoa den muturreko txirotasunaren kasuan. Espainiar jatorriko gizonen %6k eta emakumeen %7k txirotasun altua pairatzen dute; EB-25etik kanpo jaiotako pertsonen kasuan, txirotasun altua bikoitza da (%12 eta %14, hurrenez hurren). Alderik nabarmenenak txirotasun gogorra duten pertsonen artean daude: autoktonoen artean kopurua %3 da, eta, erkidegoko mugetatik kanpo jaiotako artean, kopuru hori hirukoiztu egiten da. Txirotasun-tasa horiek, txostenak dioenez, etxeek gutxieneko bizi-estandarrak mantentzeko beharrezko gastuei aurre egin ahal izateko duten gaitasunean islatzen dira, batez ere. Hori horrela, pertsona autoktonoen %29k adierazten du ezin diela aurre egin aurreikusitako gabeko gastuei eta atzeritarren artean, ordea, %53k.

Txostenean jorratutako beste alderdi bat lan-bazterkeriari buruzkoa da. Ildo horretatik, kontratu-mota eta batz besteko soldata abiapuntutzat hartuta, Espainian jaiotako pertsonen lan-merkatuan duten egoera alderatzen da Europar Erkidegotik kanpo jaio direnen egoerarekin. Eraitzen arabera, aldi baterako kontratazioa ohikoagoa da erkidegotik kanpoko biztanleen artean (gizonen %54 eta emakumeen %58) autoktonoen artean baino (gizonen %27 eta emakumeen %40), eta, gainera, aldeak nabarmenagoak dira soldatei dagokienez: Espainian jaiotako gizonen batez besteko soldata urtean 14.000 eurokoa da eta emakume autoktonoen kasuan 10.200 eurokoa; erkidegotik kanpoko gizonen kasuan urteko batz besteko soldata 11.220 eurokoa da eta erkidegotik kanpoko emakumeena urtean 8.400 eurokoa soilik. Datu horiek guztiak egoera juridiko eta administratibo erregularra duten eta ekonomia formalean sartuta dauden pertsonen buruzkoak dira. Hortaz, talde honetan autoktonoen artean baino eskastasun handiagoa dagoen arren, ezkutuko ekonomian eta sarritan egoera juridiko eta administratibo irregularrean lan egiten duten erkidegotik kanpoko pertsonen baina babes handiagoa dute.

Azkenik, esan beharra dago *Informe de la Inclusión Social en España 2009* izeneko txostenean adierazitakoaren arabera, osasunari eta hezkuntzari buruzkoan, 18 eta 24 urte bitarteko atzerritar gazteen %15k ez duela derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulurik eskuratu eta kopuru hori autoktonoenaren bikoitza dela. Bestetik, derrigorrezko ikasketen osteko titulurik lortu ez duten ikasleen batez bestekoa %31 den bitartean, ikasle atzerritarren artean kopuru hori %44,3ra igozen da.

2. Egungo egoera eta bizi-baldintzak: arrisku-faktoreak

Ikuspegik EAEn bizi ziren etorkinen egoerari buruzko inkesta egin zuen 2008an eta, datu horien us-tiapenean oinarrituta, atal honetan horren gaineko ezaugarriak deskribatu dira, goian aipatutako hiru bazterkeria-ardatz nagusien arabera: administrazio-egoera, egoitza-egoera eta lan-egoera, bakoitzean arrisku-faktore gehien jasaten duten taldeak identifikatuz.

2.1. Administrazio-egoera

Ikuspegiren inkesta horretan eskuratutako datuen arabera, inkesta egiteko orduan etorkin atzerritar guztiak ez zeuden administrazio-egoera berdinean. Gehienak egoera ezegonkorrean zeuden (%42,8 aldi baterako egoitza-baimenekin eta %27,2 egoera irregularrean) eta gutxiengo batek soilik zuen administrazio-egoera erregularizatua eta egonkorra (%15,9k egoitza-baimen iraunkorra zuen, %8,3k espainiar nazionalitatea lortu zuen eta %4,9 Europar Batasuneko estatu-kideetako zen).

Pertsona horien jatorriari dagokionez, aipamen berezia merezi duten hainbat alde aurkitu ditugu:

- Latinoamerikarren artean, egoitza-baimen iraunkordun biztanleak nabarmen gutxiago ziren (%10,3) eta aldi baterako lan- egoitza-baimendunak gehiago (%52).
- Europako Erkidegoko artean, nahiko jende gehiagok zuen egoitza-baimen iraunkorra (%21,4), gutxiagok aldi baterako lan- edo egoitza-baimena (%20,2) eta are gutxiagok egoera irregularra (%7,2).
- Ekialdeko Europatik zetorren jendearen artean, nahiko pertsona gutxiagok zeukaten aldi bate-rako egoitza- edo lan-baimena (%28,5), gutxiagok egoitza-baimen iraunkorra (%4,6) eta gehiago zeuden egoera irregularrean (%61,3).
- Magrebeko biztanleen artean, nahiko jende gehiagok zuen egoitza-baimen iraunkorra (%31,6) eta gutxiagok egoera irregularra (%19,1).

- Sahara azpiko Afrikatik zetozenen artean, nahiko jende gehiago zegoen egoera irregularrean (%32,3).
- Azkenik, Asiako herritarren artean, nahiko jende gehiagok zuen egoitza-baimen iraunkorra (%33,5), gehiagok aldi baterako lan- edo egoitza-baimena (%49) eta gutxiagok egoera irregularra (%13,7).

1. taula. Administrazio-egoera eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|--|---------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Nazionalitate espainiarra | 8,3 | 8,8 | 16,3 | 0,5 | 9,2 | 7,4 | 3,7 |
| Erkidegoko nazionalitatea | 4,9 | 1,4 | 34,9 | 3,0 | 0,4 | 0,0 | 0,0 |
| Egoitza-baimen iraunkorra | 15,9 | 10,3 | 21,4 | 4,6 | 31,6 | 17,9 | 33,5 |
| Aldi baterako egoitza-baimena | 11,4 | 13,9 | 5,7 | 6,7 | 14,0 | 10,0 | 6,8 |
| Aldi baterako egoitza- eta lan-baimena | 31,4 | 38,1 | 14,5 | 21,8 | 25,7 | 32,3 | 42,2 |
| Egoera irregularra | 27,2 | 26,1 | 7,2 | 61,3 | 19,1 | 32,3 | 13,7 |
| Turismoa | 0,9 | 1,4 | 0,0 | 2,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| X ² (30)=1263,466; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Administrazioaren prestazio ekonomikoak eskuratu ahal izateko, neurri handiagoan edo txikiagoan, beharrezkoa da EAEn denbora jakin batez bizitzea eta udal-eroldan erregistratuta egotea. Horrenbestez, biztanlea **zenbat denboraz bizi izan den erkidegoan** (beste aldagai batzuekin batera) oso garrantzitsua bihurtzen da irisgarritasuna neurtzerakoan eta aldagai horren arabera sarbide horretatik baztertuak izateko arrisku gehien duten taldeak identifikatzerakoan.

Ikuspegiko datuak aztertuta, inkesta egin duten pertsonen arteko %52,3 2002 eta 2004 artean iritsi ziren beren orduko bizilekura, %33 2005 eta 2006 artean eta ia %15 2000 baino lehen. Hau da, gehienek, inkesta egin zen unean, bi eta lau urte bitartean zeramatzen finkatuta Euskadin.

Interesgarria da administrazio-egoera etorrera-urtearekin gurutzatzea. Izan ere, egiaztatu daitekeenez, administrazio-egoera erregularrean zeuden pertsonak luzaroago egon ziren Euskadin, eta, beraz, talde horren %36,2 EAEn bizi zen 2000an, aldi baterako baimena zutenen arteko %8,7en edo egoera irregularrean zeuden %1,7en aldean. Datu horietatik ondorioztatu daitekeenez, administrazio-erregularizazioa bizilekuan emandako urteekin lotuta dago. Hala ere, azpimarratzekoa da egoera irregularrean zeuden pertsonen artean %35,4k bi eta sei urte bitartean zeramatza Euskadin bizitzen.

2. taula. Etorrera-urtea eta administrazio-egoera (%)


| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|---|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| 2005 eta 2006 artean (2 urte baino gutxiago) | 33,0 | 17,4 | 22,9 | 62,9 |
| 2000 eta 2004 artean (2 eta 6 urte bitartean) | 52,3 | 46,3 | 68,4 | 35,4 |
| 2000 baino lehen (6 urte baino gehiago) | 14,7 | 36,2 | 8,7 | 1,7 |
| X ² (4)=839,720; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Etorrera-urtea jatorriaren arabera aztertuz gero, kultura-taldeen artean aldeak daudela ikusi ahal izan dugu. Ekialdeko Europatik datozen pertsonak dira beranduen iritsi direnak Euskadira, eta, beraz, zeharka ondorioztatu daiteke irregularrenak direla, beste jatorri batzuetako jendearekin alderatuta.

Magreb, Sahara azpiko Afrika eta Latinoamerikatik etorritako biztanleen artean antzeko joera antzeman zen: batzaz beste 2000 eta 2004 urteen artean iritsi ziren (%51,7, %48 eta %60,8, hurrenez hurren). Europako Erkidegoko jendea zen EAEn denbora gehien zeramana; %35 2000. urtea baino lehen finkatu zen.

1. grafikoa. Etorrera-urtea eta jatorria (%)




X²(10)=341,40; p=0,000

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Etorkinen administrazio-egoera aztertzen dugunean kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsu bat beren bizilekuko erkidegoarekin duten harremana da. Izan ere, eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko aukerarekin lotura estua du alderdi horrek. Horretarako, pertsona horiek EAeko udalerriren batean **errolatuta** egon behar dute.

Inkesta egin genuenean etorkin gehienak EAeko udalerriren batean errolatuta zeuden arren (%89,9), egoera irregularrean zeudenen artean ohikoa zen errolaturik gabeko pertsonak aurkitzea eta pertsona horien administrazio-egoerarekin lotuta dago alde nagusia: horien arteko ia %23,6 ez zegoen udalerriri batean ere errolatuta.

2. grafikoa. Errolda eta administrazio-egoera (%)



Iturri: Ikuspegi, bertan egina.

Jatorriari dagokionez, Asiatik zetozenen arteko %3,1 soilik ez zegoen erroldatuta, eta Europako Erki-degotik eta Ekialdeko Europatik zetozenen artean, ordea, inkestatutako multzoan baino gehiago zeuden erroldatu gabe (%15,9 eta %17,6, hurrenez hurren).

3. taula. Errolda eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|-----------------------------------|---------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Errolda | 89,9 | 92,4 | 84,1 | 82,4 | 90,6 | 88,3 | 96,9 |
| X ² (5)=54,61; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Erroldatuta ez zeudela adierazi zuten pertsonen ea horren arrazoia hauetako zein zen galdetu zitzaient: ez zutela nahi izan edo ezin izan zutela erroldatu, saiatu ziren arren. Heren batek (%33,2) saiatu arren ezin izan zuela lortu adierazi zuen.

2.2. Egoitza-egoera

Bizileku den egoitzaren ezaugarriak sarritan eskatzen dira laguntzak edo gizarte-prestazioak eskatzerakoan aurkeztu beharreko agirietan, batez ere, laguntzen helburua alokairuko gastuak estaltzen laguntzea denean. Inkesta egin zen unean, pertsona horien %76,9 pisu batean bizi zen, bakarrik edo beste batzuekin, %13,8 pisu batean alokatutako logelan bizi zen, %2,6k logela bat zuten lantokian eta %2,9 familia bakarreko etxean bizi zen. Bestetik, %2,5 elkarteren batek emandako pisuan edo pasadizoko zentroetan bizi zen, %1 pentsio edo ostatu batean eta gainerako %0,3a egoera marjinalen, txabola edo kotxe batean.

Jatorriari dagokionez, datuen arabera alde nabarmenak zeuden kultura-taldeetan artean, bakoitzak zeukan **ostatu-motari** zegokionez. Hori horrela, Ekialdeko Europatik eta Magrebetik zetozen pertsonak egoera okerragoan zeuden gainerako pertsonekin alderatuta, hurrengoak Sahara azpiko afrikarrak zirela.

4. taula. Ostatu- edo etxe-mota eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|---|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Familia bakarreko etxea, atxikia | 2,9 | 2,2 | 3,8 | 3,2 | 3,2 | 3,5 | 5,6 |
| Pisu osoa (partekatua edo ez) | 76,9 | 77,7 | 86,2 | 72,3 | 70,3 | 71,7 | 85,7 |
| Pisuan alokatutako logela | 13,8 | 14,8 | 4,4 | 14,1 | 16,7 | 19,1 | 8,1 |
| Logela lantokian | 2,6 | 4,5 | 0,9 | 2,4 | 0,2 | 0,0 | 0,0 |
| Hotela/pentsioa/hostala | 1,0 | 0,3 | 3,5 | 1,1 | 1,1 | 1,3 | 0,6 |
| Elkarte edo antzekoen pisua | 0,5 | 0,3 | 0,3 | 0,8 | 1,3 | 0,4 | 0,0 |
| Txabola, kotxea | 0,3 | 0,0 | 0,6 | 1,1 | 0,4 | 0,0 | 0,0 |
| Pasadizokoen eta etxerik gabekoen zentroa | 2,0 | 0,1 | 0,3 | 5,1 | 6,7 | 3,9 | 0,0 |
| X ² (35)=235,087; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Beste batzuetan bezala, administrazio-egoerak aldeak eragiten ditu pisuetan bizitzeko orduan (partekatuta nahi ez). Hori horrela, pisuetan bizi zirenen arteko %85,7 administrazio-egoera erregular egonkorrean zeuden. Hala ere, egoitza-mota horietan bizi ziren eta tramitazio-fasean zeudenak %79,9 ziren eta egoera irregularra zutenak %64,3. Ondorioz, azken horien artean askoz handiagoa zen logela edo pisu alokatuetan bizi zirenen portzentajea: %23,2, aldi baterako egoera erregularrean zeuden %12,5en eta administrazio-egoera erregular egonkorra zutenen %6,2en aldean.

5. taula. Ostatu- edo etxe-mota eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|---|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Familia bakarreko etxea, atxikia | 2,9 | 4,7 | 2,6 | 1,7 |
| Pisu osoa (partekatua edo ez) | 76,9 | 85,7 | 79,9 | 64,3 |
| Pisuan alokatutako logela | 13,8 | 6,2 | 12,5 | 23,2 |
| Logela lantokian | 2,6 | 0,3 | 3,0 | 4,3 |
| Hotela/pentsioa/hostala | 1,0 | 1,8 | 0,4 | 0,9 |
| Elkarte edo antzekoen pisua | 0,5 | 0,3 | 0,6 | 0,4 |
| Txabola, kotxea | 0,3 | 0,2 | 0,0 | 0,5 |
| Pasadizokoen eta etxerik gabekoen zentroa | 2,0 | 0,7 | 0,9 | 4,8 |
| X ² (14)=226,727; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Etxea **jabetzan** edukitzeari buruzko **arabidearen** arabera, EAEn bizi ziren etorkinen %14,4 zen bere bizilekuaren jabea. Hortik aurrera, alokairu edo azpi-aloairuko modu desberdinak hasten dira, erakunde publiko edo sozialen lagapenetara iritsi arte.

Datuen arabera, etxebizitzaren %75,6 jabeari zuzenean alokatutako etxeak ziren. Ondoren, azpi-alokairuko bi modu zeuden, bat pertsona autoktonoari egindakoa (%3) eta bestea atzerriarrari egindakoa (%4,2); ondoren, lagapenak eta beste era baterako goerak (%2,8).

Jatorriari dagokionez, aldeak egiaztatu ziren jatorri desberdineko taldeen artean. Jabetzadun biztanleen kopurua asko igotzen zen Europako Erkidegoko eta Asiako pertsonen kasuan, %35 eta %30,2, hurrenez hurren. Ez zen gauza bera gertatzen Ekialdeko Europako biztanleekin. Horiek jabetza-mailarik baxuenak (%3,8) eta alokairu-egoera altuenak (%87) zituzten. Halaber, Magreb eta Sahara azpiko Afrikako taldeen arteko elkartasun-egoera nabarmentzekoa da. Izan ere, lagunek edo senideek lagatako portzentajeak altuagoak ziren gainerako taldeetan baino (%2,2 eta %2,8, hurrenez hurren).

6. taula. EAEn etxebizitza edukitzeari buruzko araubidea eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|--------------------------------------|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Jabetzan | 14,4 | 12,0 | 35,0 | 3,8 | 10,0 | 12,6 | 30,2 |
| Jabeari alokatua | 75,6 | 76,1 | 62,2 | 87,0 | 79,2 | 74,0 | 65,4 |
| Espainiar bati azpi alokatua | 3,0 | 3,5 | 0,3 | 3,0 | 3,8 | 4,2 | 0,6 |
| Atzeritar bati azpi alokatua | 4,2 | 5,4 | 0,9 | 4,4 | 2,6 | 4,7 | 3,1 |
| Lagunek/senideek lagata | 1,7 | 2,0 | 0,0 | 1,2 | 2,2 | 2,8 | 0,6 |
| GKEk lagata | 0,0 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Administrazioak lagata | 0,4 | 0,1 | 0,6 | 0,0 | 1,4 | 0,9 | 0,0 |
| Beste batzuk | 0,7 | 0,8 | 0,9 | 0,6 | 0,7 | 0,9 | 0,0 |
| X ² (35)=234,909; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Administrazio-egoera ere oso esanguratsua da. Izan ere, etxebizitzaren jabetzadun kasuak askoz altuagoak ziren administrazio-egoera erregular egonkorra zuten pertsonen kasuan. Administrazio-egoera irregularran zeuden pertsonen azpi-alokairurako sarbide nabarmen eta altua zuten.

7. taula. EAEn etxebizitza edukitzeari buruzko araubidea eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|--------------------------------------|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Jabetzan | 14,4 | 29,7 | 11,2 | 3,0 |
| Jabeari alokatua | 75,6 | 64,7 | 79,6 | 81,3 |
| Espainiar bati azpi alokatua | 3,0 | 1,7 | 3,0 | 4,4 |
| Atzerritar bati azpi alokatua | 4,2 | 1,7 | 3,0 | 4,4 |
| Lagunek/senideek lagata | 1,7 | 1,3 | 2,1 | 1,4 |
| GKEk lagata | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 |
| Administrazioak lagata | 0,4 | 0,6 | 0,2 | 0,6 |
| Beste batzuk | 0,7 | 0,8 | 0,7 | 0,7 |
| X ² (14)=300,783; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Etorkinek beren bizileku zen **etxea partekatzen zuten edo ez** aztertuz gero, datuen arabera gehienak beren familiarekin bizi ziren (%53,5). Bestetik, %22,7k adierazi zuten herrikideekin bizi zela, %10,3k beste nazionalitate batzuetako jendearekin, %6,5ek bakarrik bizi zela baieztatu zuten, %4,4k hemengo pertsonekin eta kopuru osotik %2,7 beste egoera batzuetan bizi ziren.

Jatorriari dagokionez, Asiatik zetozen pertsonak familiarekin bizi ohi ziren (%70) eta ez hainbeste bakarrik (%3,8). Bestalde, Magreb edo Sahara azpiko Afrikako pertsonen kasuan, bakarrik bizi zen jende gehien ageri zen (%8,1 eta %9,5, hurrenez hurren) eta gehiagok partekatzen zuten etxebizitza beste nazionalitate batzuetako pertsonekin (%14,5 eta %21,2), gainerako taldeekin alderatuta. Kopurua baxuagoa zen familia inguruan (%45,6 eta %37,2, hurrenez hurren).

8. taula. Bizikidetz-modalitatea EAEn eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|---|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Ez, bakarrik bizi naiz | 6,5 | 6,4 | 4,7 | 5,5 | 8,1 | 9,5 | 3,8 |
| Bai, nire familiarekin bizi naiz | 53,5 | 56,1 | 52,5 | 56,6 | 45,6 | 37,2 | 70,0 |
| Bai, herrikideekin bizi naiz, nire herrialdeko jendearekin soilik | 22,7 | 18,8 | 35,1 | 20,8 | 24,7 | 27,7 | 24,4 |
| Bai, beste batzuekin bizi naiz, guztiak dira hemengoak | 4,4 | 6,9 | 0,3 | 1,6 | 3,7 | 3,5 | 0,0 |
| Bai, nazionalitate desberdinetako jendearekin bizi naiz | 10,3 | 8,5 | 7,1 | 11,5 | 14,5 | 21,2 | 1,9 |
| Beste egoera batzuk | 2,7 | 3,3 | 0,3 | 4,1 | 3,3 | 0,9 | 0,0 |
| X ² (25)=195,55; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Administrazio-egoeraren egonkortasuna bizitzako beste eremu batzuetara hedatzen da, eta, beraz, administrazio-egoera erregularra zutenen arteko %64,2 bere familiarekin bizi zen eta %18,2 soilik nazionalekin. Bestalde, administrazio-egoera irregularrean zeuden pertsonen kasuan, jende gehiago bizi zen herrikideekin (%32,2) edo nazionalitate desberdinetako pertsonekin (%14,9), beren familiarekin bizi zirenen portzentajea %41,2 zela.

9. taula. Bizikidetzatza-modalitatea EAEn eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|---|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Ez, bakarrik bizi naiz | 6,5 | 7,0 | 7,3 | 4,1 |
| Bai, nire familiarekin bizi naiz | 53,5 | 64,2 | 55,4 | 41,2 |
| Bai, herrikideekin bizi naiz, nire herrialdeko jendearekin soilik | 22,7 | 18,2 | 19,3 | 32,2 |
| Bai, beste batzuekin bizi naiz, guztiak dira hemengoak | 4,4 | 3,7 | 5,0 | 4,2 |
| Bai, nazionalitate desberdinetako jendearekin bizi naiz | 10,3 | 5,6 | 10,1 | 14,9 |
| Beste egoera batzuk | 2,7 | 1,3 | 2,9 | 3,4 |
| X ² (10)=142,306; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

2.3. Lan-egoera

Etorkinak gizarteratzeko eta bizitzeko prozesuan, lanpostu bat lortzeko aukerak berebiziko garrantzia du. Gizarte-babeserako sistemara sartzeko lehenengo bidea profesionala da eta jasotzen den babes-mota norberaren merkatu-motaren arabera da. Hori dela eta, etorkinen merkatu-motari buruzko datuak aztertzea interesgarria izan daiteke.

Herritar autoktonoen arteko diskurtsoetako batek etorkinek ez dutela lanik egiten eta horren ordez gizarte-laguntzei esker bizi direla dio. Ikuspegik emandako datuen arabera, etorkinen **okupazio-mailak** nahiko altuak dira. Izan ere, inkesta egin genuen unean, %68,3 lanean zegoen eta %18,7, aldiz, langabezian.

Etorkinen talde guztietan, aztertutako gurutzaketa-aldagai desberdinak kontuan hartuta, gehienak lanean zeuden. Administrazio-egoera irregularrean zeuden pertsonen artean ere, %54,3 zegoen lanean, nahiz eta langabezia nabarmen hasi zen haien artean, etorkinen multzoari dagokionez (%30,3).

10. taula. Lan-egoera eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|---|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Okupatua (lanean) | 68,3 | 71,6 | 75,4 | 54,3 |
| Langabezian | 18,7 | 12,5 | 15,2 | 30,3 |
| Ez aktiboa (erretiratua, etxeko andrea) | 13,0 | 15,9 | 9,4 | 15,4 |
| X ² (4)=141,626; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Jatorriari dagokionez, Ekialdeko Europako, Magrebeko eta Sahara azpiko Afrikako pertsona-taldeak pizten du arreta, kopuru hori baino okupazio-maila baxuagoak ditu eta: %55,1, %48,4 eta %50,6, hurrenez hurren, lanean zeuden, eta %23,5, %32 eta %41,6, hurrenez hurren, langabezian, taldeen arteko aldeak nabarmenak zirelarik.

11. taula. Lan-egoera eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|---|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Okupatua (lanean) | 68,3 | 76,3 | 79,0 | 55,1 | 48,4 | 50,6 | 86,2 |
| Langabezian | 18,7 | 14,1 | 5,0 | 23,5 | 32,0 | 41,6 | 7,5 |
| Ez aktiboa (erretiraturua, etxeko andrea) | 13,0 | 9,6 | 16,0 | 21,4 | 19,6 | 7,8 | 6,3 |
| X ² (10)=308,71; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Kontratu-motaren ildotik, administrazio-egoera irregularrean zeudenen artean oso ohikoa zen kontraturik gabe lan egitea (%71,9) eta oso arraroa kontratu mugagabeekin lan egitea (%6). Bestalde, administrazio-egoera egonkorra zuten pertsonen artean kontratu mugagabeen (%33) edo aldi baterako kontratuen (%56,1) kopurua altua zen, aldi baterako administrazio-egoera zutenena baino altuagoa (%29,5 eta %57, hurrenez hurren).

Ekialdeko Europatik zetozen pertsonak kontratu gabe lan egiten zuten talderik handiena ziren (%44,1), atzetik latinoamerikarrak zituztela (%32,1), bataz bestekoaren gainetik. Halaber, Ekialdeko Europako pertsonen artean beste taldeetan baino kontratu mugagabe gutxiago antzeman ziren (%10,3).

Europako Erkidegoko eta Sahara azpiko Afrikako pertsonak ziren aldi baterako kontratu gehien zituztenak (%63,1 eta %64,2, hurrenez hurren), gero Asiakoak (%59,8) zeudela. Latinoamerikarren taldea zen aldi baterako lan-kontratu gutxien zuena (%41,2).

12. taula. Kontratazio-mota eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|--------------------------------------|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Mugagabea | 24,8 | 26,7 | 28,6 | 10,3 | 26,5 | 21,1 | 26,8 |
| Aldi baterako | 48,1 | 41,2 | 63,1 | 45,6 | 55,1 | 64,2 | 59,8 |
| Kontraturik gabe | 27,1 | 32,1 | 8,3 | 44,1 | 18,4 | 14,7 | 13,4 |
| X ² (10)=131,241; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

13. taula. Lanpostu-mota eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|-------------------------------------|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Mugagabea | 24,8 | 33,0 | 29,5 | 6,0 |
| Aldi baterako | 48,1 | 56,1 | 57,0 | 22,1 |
| Kontraturik gabe | 27,1 | 10,9 | 13,5 | 71,9 |
| X ² (4)=586,586; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Inkesta eman zitzaien unean langabezia zeuden atzerritarrei **lana bilatzen ote zebiltzan** planteatu zitzaien. Gehienak lan bila zeuden (%84,7), nahiz eta gutxi batzuek azken hilean lanik bilatu ez zutela aitortu zuten (%15,3).

Orokorrean, etorkinen talde guztietan enplegua bilatzeko interes altua antzeman zen, jatorriaren eta administrazio-egoeraren arabera alde nabarmen batzuk azpimarratu ahal direlarik: enplegua bilatzeko prozesu aktiboan Ekialdeko Europako pertsona gehiago (%94,3) eta Europako Erkidegoko gutxiago zeuden (%58,8), eta horien arteko gutxiagok zeukaten administrazio-egoera egonkorra (%72,6).

14. taula. Enplegu-bilaketa aktiboa eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|------------------------------------|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Bai | 84,6 | 85,6 | 58,8 | 94,3 | 80,7 | 85,3 | 75,0 |
| Ez | 15,4 | 14,4 | 41,2 | 5,7 | 19,3 | 14,7 | 25,0 |
| X ² (5)=17,632; p=0,003 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

15. taula. Enplegu-bilaketa aktiboa eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|------------------------------------|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Bai | 84,6 | 72,6 | 88,5 | 86,5 |
| Ez | 15,4 | 27,4 | 11,5 | 13,5 |
| X ² (2)=14,504; p=0,001 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Etorkinek **langabezia** zeramaten **bataz besteko denbora** 4 hilabete ingurukoa zen, asiar jatorrikoen artean pixka bat altuagoa zelarik. Atzetik Ekialdeko Europakoak zeuden, langabezia nahiko denbora gehiago emanda (5 hilabete eta erdi eta 5 artean).

16. taula. Langabezian egondako denbora eta jatorria (hilabeteak)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|-----------------------------|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Denbora langabezian (hilak) | 4,13 | 3,61 | 3,22 | 4,90 | 4,22 | 4,53 | 5,52 |
| F(5,375)=2,507; p=0,030 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

17. taula. Langabezian egondako denbora eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|-----------------------------|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Denbora langabezian (hilak) | 4,13 | 3,74 | 4,01 | 4,50 |
| F(2,368)=1,982; p=0,139 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Langabezian zeuden eta aurretik EAEn lanean aritu ziren pertsonen **ea zergatik geratu ziren lanik gabe** galdetu zitzairen. Erantzunik ohikoena lan-kontratua amaitu zitzaizela eta ezin zutela lanean jarraitu izan zen (%49,6). Bestetik, %19,1ek bota egin zutela adierazi zuen, %17,9k bere borondatez utzi zuen lana eta %13,4k zehaztu gabeko hainbat arrazoi aipatu zituen.

Langabezian dauden pertsona-kopuru osoari zegokionez, **lanpostu-zerbitzuekin** (EIN, Langai, eta abar) **zuten harremanari** buruzko galderak egin zitzaizkien. Harritzekoa da %29,9k baino ez zuela esan zerbitzu horietakoren batean erregistratuta zegoela.

Europako Erkidegoko jendea gehiago ageri zen erregistroetan (%46,7), gero Magrebekoak (%40,3), eta, asiarrak, aldiz, nahiko gutxi agertzen ziren (%81,7 ez zegoen erregistratuta), Ekialdeko Europako ondotik (%84,9).

18. taula. EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua eta jatorria (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|--|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua | 29,9 | 32,3 | 46,7 | 15,1 | 40,3 | 21,9 | 8,3 |
| X ² (5)=24,605; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Normala denez, administrazio-egoera irregularrean zeuden pertsonen artean askoz gehiago ziren zerbitzuetan erregistratuta ez zeudenak: %92,2. Aitzitik, langabezian zeuden eta administrazio-egoera erregular egonkorra zuten pertsonen artean, %57,5 aipatutako erregistroren batean zegoen.

19. taula. EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua eta administrazio-egoera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|--|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua | 29,9 | 57,5 | 44,9 | 7,8 |
| $X^2(2)=113,693; p=0,000$ | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Erakunde horietako erregistroetan izena emanda zeramaten denbora oso aldakorra da, baina batuz bestekoa 8 hilabete ingurukoa dela esan dezakegu. Ekialdeko Europako langabetuek nahiko denbora gehiago zeramaten erregistratuta (15,28 hilabete), Asiakoak (4,37 hilabete), Magrebekoak (5,33 hilabete) edo Sahara azpiko Afrikakoak (6,47 hilabete) baino.

20. taula. EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua emandako denbora eta jatorria (hilabeteak)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|--------------------------------------|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| EINen erregistratua emandako denbora | 7,72 | 8,83 | 10,39 | 15,28 | 5,33 | 6,47 | 4,37 |
| $F(5,136)=2,679; p=0,024$ | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Langabezian zeuden eta administrazio-egoera erregular egonkorra zeukaten pertsonen artean askoz gehiago ziramaten erregistratuta (10,83 hilabete) aldi baterako administrazio-egoera erregularrean edo egoera irregularrean zeudenak baino (6,12 hilabete eta 5,61 hilabete, hurrenez hurren).

21. taula. EINeko lanpostu-zerbitzuren batean erregistratua emandako denbora eta administrazio-egoera (hilabeteak)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|--------------------------------------|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| EINen erregistratua emandako denbora | 7,72 | 10,83 | 6,12 | 5,61 |
| $F(2,139)=4,643; p=0,011$ | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

2. KAPITULUA

ONGIZATEAREN ETA GIZARTE ESKUBIDEEN ESTATUA. ETORKINEN GIZARTERATZEA ETA GIZARTE BABESA

1. Gizarte-babesaren kontzeptualizaziorantz

Estatu modernoek, herritarren aurka jo dezaketen gizarte-arriskuei aurre egin eta gizarte-bazterkeria gainditzeko, gizarte-mugimenduen aldarrikapenen eta ekintza kolektiboaren lorpenez eta ondorioz, batez ere, gizarte-babeserako sistemak lortu dituzte, egun ongizatearen estatu (*welfare state*) gisa ezagutzen dugunaren barruan: estatuko erakunde-multzoa, gizarte-kohesioarekin lotutako gizarte-politikak dituena, gizarte-babesa lortu, bi-zi-baldintzak hobetu eta gizarte-talde desberdinen integrazioa errazteko asmoz, sistema kapitalistak sortutako aberastasun-desberdintasunak jasangarri bihurtuz, Morenok (2003) dioen moduan, eta horiek berez sortzen dituzten gizarte-gatazkak arinduz. Ongizatearen estatuko gizarte-prestazioen bidez, beste gizarte-eskubide batzuk unibertsal bihurtzeko aurrera pausuak eman dira (ikus osasuna, hezkuntza, etxebizitza babesturako sarbidea, eta abar).

Gizarte-babesa, orokorrean, Gizarte Segurantzari egindako ekarpenetik datorrena da, hau da, lan-merkatuarekin lotuta dagoena eta ongizatearen estatuko prestazio nagusiak bideratzen dituena (pentsioen sistema, langabeziako subsidioak, minusbaliotasunak, osasuna, eta abar). Hala ere, iturri horrez gain, ongizatearen estatuko laguntza-politikak edo hondar-politikak ere badaude, eta, duela hamarkada batzuetatik, beren ahaleginak gogortu dituzte txirotasunaren kontra (kotizazio gabeko pensioak, gizarteratzeko gutxieneko diru-

sarrerak, gizarte-zerbitzuak, eta abar). Horrenbestez, gizarte-babeserako eskubidea Gizarte Segurantzatik harago doa eta horren barruan sartzen dira, bai Gizarte Segurantzaren ordaindutakoren araberrako prestazioak eta ordaindutakoaren araberrakoak ez direnak, bai autonomia-erkidegoetatik datozen prestazioak. Sánchez-Uránnek (2006) honela zehazten du gizarte-babesa: “*antolamendu juridikoan hirugarren baten kargura (publikoa nahiz pribatua) aurreikusitako neurri heterogeneo, zehatz edo zehaztugabeen multzoa, gizarte-behar edo -arriku jakin batzuk zuzendu eta prebenitzeko; eta gizarte-estatu baten ohiko estaldura-xedeak diren aldetik, eta konstituzioko aginduaren arabera, gizarte-babes publikoa eta gizarte-babes pribatua daudela adostea*” (265. or). Definizio hori abiapuntutzat hartuta, eta beste sailkapen batzuk egin edo izen desberdinak erabiltzea posible dela, gizarte-babeserako eskubidea oinarriko hiru elementu hauek osatuko lukete: osasun-laguntza, Gizarte Segurantza eta gizarte-laguntza. Horiez gain, Autonomia Pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako gizarte-zerbitzuak eta prestazioak aipatu behar dira.

- a) **Osasun-laguntza:** egungo osasun-sistemari buruzko azterlan xehatua jorratzeko asmorik gabe, nahikoa da Gizarte Segurantzaren sistematik datorrela esatea, nahiz eta bistakoa den egun bi araubideak banatzeko dagoen joera. Horrenbestez, gaur egun Gizarte Segurantzaren osasun-prestazioak Osasuneko Sistema Nazionalaren prestazio izatera pasa dira (Sánchez Jiménez, 2005, 457. or).
- b) **Gizarte Segurantza:** Gizarte Segurantzaren egungo sistemaren bilakaera historikoa, egun daukan arazoak, etorkizunerako joerak... lan honen helburua baino askoz harago doaz. Hori dela eta, gure abiapuntua Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorreko (aurrerantzean GSLO) Testu Bategina onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua da. Hala ere, azterlan honetan zehar behin eta berriz erabiliko diren zenbait kontzeptu deskribatzea komeni da.

Lehenengo eta behin, definizio labur batzuk emango ditugu, arriskuei, egoera babestuei eta prestazioei buruz (Vida Soria, 2006). Arriskutzat jotzen dira gertatuz gero gizartean babesteko beharra sortzen duten gertaera posibleak. Ezaugarri nagusiak honakoak dira: gertaera posiblea izan behar da, aukerarik ez badago ez baitago segurtasun-ezaren sentimendurik; zalantzakoa izan daiteke, hau da, gertatu daiteke ala ez; eta ausazkoa da, hots, pertsona babestuak ez du egoera hori jasan nahi, nahiz eta nahi izateak ere ez duen esan nahi ez denik babestu behar, adibidez, amatasunean edo karga familiarretan. Azkenean, gertaera (arriku) hori jazotzen bada, kaltea sortuko da, ekonomikoki babestu behar den egoera jakin batean. Prestazioa, hortaz, Gizarte Segurantzako antolamenduak babestu beharreko egoera horretako kalteari aurre egiteko ezartzen duen mekanismoa da.

Bigarrenaz, arriskuak profesionalen eta komuneren artean banatzen dira. Lehenengoak lan-istripuei eta gaixotasun profesionaleri buruzkoak dira, eta bigarrenak, aldiz, gainerako kontuei buruzkoak: gaixotasun komunak eta lanekoak ez diren istripuak. Goian aipatutako kontzeptu-banaketari jarraiki, babestutako arrisku-egoerari erreparatzen badiogu, arrisku profesionalak honakoak dira: aldi baterako ezintasuna, ezintasun iraunkorra, heriotza eta biziraupena; bestalde, arrisku komuneren ondorioz babestutako egoerak honakoak dira: aldi baterako ezintasuna, amatasuna, haurdunaldiaren ondoriozko arriskua, ezintasun iraunkorra, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena eta karga familiarrak.

Hirugarrenez, prestazioak ordainketaren araberrakoak izan daitezke edo ez. Lehenengoen helburu nagusia subjektu babestuek beren lanarekin lortzen zituzten errentak ordezkatzeta da. Betekizun nagusia, ondorioz, lanean eta kotizatzen denbora jakin bat egon behar izatea da (gabezia-aldia). Beharizan-egoera egiaztatzea ez da beharrezkoa eta ez da halakorik eskatzen; aurretik kotizatu izana da betekizuna. Prestazioaren zenbatekoa arrisku-motaren araberrakoa

da. Ordainketaren arabera prestazio posibleak aldi baterakoak eta iraunkorrak edo betirakoak izan daitezke, beren iraupenaren arabera (Sánchez Jiménez, 2005). Honakoak dira, hain zuzen ere:

- Aldi baterako prestazioak (subsidoak): aldi baterako ezintasunagatik (GSLO 128-133 art.), amatasunagatik (GSLO 133 bis-133 quinquies art.), haurdunaldiko arriskuengatik (GSLO 134-135 art.), senideek beren kargura duten haurrarenengatik (GSLO 180-181 eta 184-190 art.) eta langabeziagatik (GSLO 207-214 art.).
- Prestazio iraunkorrak edo betirakoak (pentsioak): ezintasun iraunkorragatik (GSLO 137-143 art.), erretiroagatik (GSLO 160-166), alarguntasunagatik (GSLO 164 art.), zurtasunagatik (GSLO 174. art.) eta beste senide batzuen mesedetan (GSLO 176. art.).

Komunenetako bat hartzen badugu adibidetzat, prestazio-mota hauek nola funtzionatzen duten azaltzeko, aldi baterako ezintasunaren kasuan 180 eguneko gabezia-aldia eskatzen da baja aurreko urteen barruan, salbu eta ezintasuna lan-istripu edo gaixotasun profesional baten ondoriozkoa bada. Jaso beharreko portzentajea oinarri arautzaileko %75 da eta 21. egunetik aurrera jasotzen da (1-3 egunen artean ez da kopururik jasotzen eta 4-20 egunen artean %60).

Ordaindukoaren arabera ez den prestazio bat jasotzeko ez da jarduera profesionala egin izanaren betekizuna eskatuko; horren ordez, errentarik ez izatea eta legezko egoiliarra izatea dira eskakizunak. Gai hau gero zehatzago landuko dugun arren, aipatzekoa da Atzerritarren Legeak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorreko 7.3 eta 7.5 artikuluen aurreikuspenari dagokionez egin duen aldaketa. Izan ere, gaur egun, prestazio horiek edozein pertsonak jaso ditzake legezko egoiliarra bada (bere nazionalitatea edozein dela ere) eta bere beharrian-egoera justifikatzen bada. Azpimarratu beharra dago ohikoa dela harrera-herrialdean legezko egoitza aurretik eduki behar izatea, aldi batez, prestazioaren arabera. Ordainketaren arabera ez den erretirorako, hamasei urteren eta prestazioaren sortzapen-urtearen artean hamar urtez legez bizitzeko betebeharra eskatzen da. Ordainketaren arabera ez den ezintasunaren kasuan, bost urteko legezko egoitza eskatzen da. Aldi horretatik bi urte eskaera egin aurre-aurrekoak izan beharko dira, zehazki. Egoitza jarraitua ez da etengo urtebete naturalen buruan laurogeita hamar egun baino gutxiagoz kanpoan egonez gero edo epe luzeagoan, baldin eta behar bezala egiztatutako gaixotasunen baten ondorioz izan bada.

- c) **Gizarte-laguntza:** txirotasun eta eskastasun handieneko egoeratan bizi diren biztanleak babesteko gunea da; lan-zatiketaren isla da eta, babesaren unibertsaltasunerantz aurrera egin duen arren, ez du txirotasun erlatiboaren tasak asko murriztea lotu. Are gehiago, kontuan hartu behar da laguntza-logikaren ondorioz sortutako eskastasun-finkapenerako arriskuen eta gizarte-babesaren arteko dualtasuna (Rodríguez Cabrero, 2004). Rodríguez Cabreroren (2004, 293. or.) esanetan, *“gizarte-babesari buruzko eztabaidek pentsioen sistema publikoaren bideragarritasunari lehentasuna ematen jarraitzen dute, eta gizarteratzeko eta txirotasunaren aurkako borrokatzeko gutxieneko errentei buruzko eztabaidak nekez gaingaitzen ditu interesgarriak eta aztertu beharrekoak diren espazio zehatz batzuk”*. Gizarte-laguntza, babes osagarri gisa, autonomia-erkidegoetara lekualdatu da neurri handi batean eta, horrek, praktikan, ia edukirik gabe utzi du gizarte-laguntza, Gizarte Segurantzak ematen duen babes osagarri gisa.

Orokorrean, gizarte-laguntzak Gizarte Segurantzaren sistematik kanpo geldituko liritekeen babes-teknika dira. Hala ere, beren arauketak sistemaren barruan sartzen ditu, eta, hortaz, gizarte-laguntzek Gizarte Segurantzaren oinarritzko mailan dauden egitura-gabezien barne-konponbide gisa funtzionatzen dutela esan daiteke (Rodríguez Ramos eta beste batzuk, 2009).

Orain arte gizarte-laguntza eta Gizarte Segurantza bereizteko gehien erabili den irizpidea hautazko izaera izan da, hau da, Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren arabera ez ziren prestazioak, adibidez, benetako eskubide gisa ulertzen ziren, eta, gizarte-laguntzaren prestazioak, ordea, hautazkoak ziren eta sarritan aurrekontu-gorabeheren menpe zeuden. Dena dela, gaur egun ikuspegi hori aldatu egin da. Izan ere, eskubide subjektibo gisa osatutako gizarte-laguntzako prestazioak aurki ditzakegu. Hori dela eta, egun, bereizketa irizpide objektiboan oinarritzen da, eta, beraz, Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren arabera ez den prestazioa emango du berau aurretiazko gertakizun bati (erretiroa, ezintasuna, eta abar) buruzkoa bada eta gizarte-laguntzaren prestazioa emango da Gizarte Segurantzaren gorabehera lotuta ez dauden beharrezko-egoerak gertatzen direnean.

Gizarte-laguntzaren eremuan sartutako babes-ereduei dagokienez, Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) gaixoen laguntza ezarri zituen 9/1993 Legegintzako Errege Dekretua aipatu dezakegu (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak hileko 579,11 euroko zenbatekoa ezarri zuen 2009rako). Era berean, maiatzaren 14ko 728/1993 Errege Dekretuan espainiar emigranteentzako garatutako laguntza ere gogoratu behar da, zahartzarorako laguntza-pentsioak ezartzen baititu emigrante espainiarrentzat. Gizarte-prestazioaren beste adibide bat martxoaren 18ko 3/2005 Legekoa da. Bertan, prestazio ekonomikoa aitortzen da Gerra Zibilaren ondorioz adingabe-garaian atzerrira lekualdatu behar izan zuten espainiarrentzat.

d) Gizarte-zerbitzuak: gizarte-zerbitzuen kontzeptu zabala aintzat hartuta, estamentu eta administrazio desberdinek pertsonen ongizate orokorrerako eskaintzen dituzten prestazioak sartuko genituzke. Hala ere, eta azalpen hau osatze aldera, Gizarte Segurantzaren sistemarekin lotuta dagoen kontzeptu mugatu bat komeni zaigu. Horren harira, gizarte-zerbitzuek babes osagarriaren izaera dute eta gizarte-laguntzaren oso antzekoak dira. Alderik nagusiena zera da, gizarte-zerbitzuak talde zehatz batzuei zuzenduta daudela eta gizarte-laguntza, aldiz, banakako pertsonari.

Hirugarren adinekoen eremu zehatzeko gizarte-zerbitzuen prestazioak hirugarren adinekoari arreta emateko gizarte-zerbitzuak dira. Eguneko zentroak eta egoitza-zentroak izan daitezke, edota gizarte-terralismoaren programak eta hirugarren adinekoentzako opor-programak.

Pertsona ezinduen eremuan, eta ezinduak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea garatuz, hainbat laguntza jaso dira, besteak beste, mugikortasunaren subsidioa eta garraio-gastuen konpentsazioa, %33ko ezintasun-maila edo altuagoa duten pertsonari zuzendua, errehabilitaziorako laguntzak, familia-orientaziorako zerbitzuak, etxeko arreta, egoitza, eta abar.

e) Mendetasunaren Legea: gaur egun, autonomia pertsonalaren faltarekin lotutako alderdiei buruz hitz egitean ezinbestekoa da Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aipatzea. Azterlan honen helburua beste bat den arren, lege honek atal zehatz bat merezi du, gizarte-prestazioen eta -zerbitzuen eremuan eskubide berri bat sortu baitu. Autonomia eta Ezinduentzako Laguntzarako Sistemaren (SAAD) bidez, babes eraginkorragoa ezarri nahi da, mendetasun-egoeran dauden subjektuen eskubide subjektiboa eskatuko duena, herritar guztiek oinarritzko babes-mailetan izan ditzaten eskubideak, beren bizilekua edozein dela ere, autonomia erkidegoei gutxieneko babes-maila hobetzeko aukera emango zaion arren.

5. artikulua Legean ezarritako eskubideen titulartasuna zuzenean ematen die Espainiako biztanleei, eta espainiar nazionalitatea ez dutenek *“bete egin beharko dute Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan, nazioarteko itunetan eta jatorrizko herrialdearekin ezartzen diren hitzarmenetan*

ezarritakoa. Espainiar nazionalitatea ez duten adingabeen kasuan, estatuan nahiz autonomia-erkidegoan indarrean dauden Adingabeen Legeetan eta nazioarteko itunetan ezarritakoa beteko da". Edonola ere, atzerritarrak espainiarraren baldintza berberak bete beharko ditu. Honakoak dira, 5.1 artikuluaaren arabera:

- a) Mendetasun-egoeran egotea ezarritako mailaren batean. 39/2006 Legeko 26. artikuluaaren arabera, mailak honakoak izan daitezke: neurrizko mendetasuna, mendetasun gogorra eta mendetasun altua. 39/2006 Legeko 27. artikuluan azaltzen diren baremoen arabera balioesten dira maila horiek. Hiru urtetik beherakoentzako balorazio espezifikoak aurreikusten da (39/2006 Legeko 13 xedapen gehigarria). Baremo horiek apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren eta Imersoren 2007ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren bidez garatu dira.
- b) Espainiar lurraldean bost urtez bizitzea, aldi horretatik bi urte eskaera egin aurre-aurrekoak izan beharko direlarik. Bost urtetik beherakoen kasuan, egoitza-aldia bere zaintzaz edo tutoretzaz arduratzen denari eskatuko zaio.

Hirugarren kapituluaren gai honi buruz egin dugun azterketa zehatzagoari kalterik eragin gabe, oraingoz, Mendetasunari buruzko Legean jasotakoaren arabera, bost urtez legezko egoitza eduki behar da, atzerritar batek laguntza horiek jaso ahal ditzan.

2. Etorkinek ongizatearen estatuari buruz dituzten diskurtsoak

2.1. Etorkinek ongizatearen estatua eskuratzeko duten moduari buruzko gizarte-diskurtsoak

Immigrazioaren eta ongizatearen estatuko parte-hartzearen eremuan entzuten diren gizarte-diskurtsoetako batzuek zera zabaldu dute, ongizatearen estatua immigrazioaren gainean “dei-efektua” duela. Horren arabera, etorkinek beren kabuz estali ezingo lituzketen zerbitzu batzuk doan kontsumitzeko aukera dute, eta, ondorioz, zerbitzuok gehiegi erabiltzeko joera sortzen da.

Diskurtso horiek teoria ekonomiko neoklasikoan oinarritzen dira. Teoria horren aurrekariak immigrazioaren lehenengo teoria sistematikoan aurki ditzakegu (Ravenstein, 1885, 1889) eta horrek immigrazioaren kausak *push factors* eta *pull factors* delakoen uztarketan daudela dio: lehenengoen jendea beren jatorrizko bizilekuetatik ihes egitera bultzatzen dute eta bigarrenek harrera-testuinguru jakin batzuetara erakartzen dituzte.

Nahiz eta neurri batean erakarri eta kanporatzeko faktoreen existentzia logikoa den, immigrazioaren teoria neoklasikoek kritika gogorrak jasan dituzte, etorkinak hotz, etekinzale eta oso arrazionaltzat jotzen dituztelako, kostu eta onuren azterketa eginez. Soziologo, antropologo eta historialariek hori ez dela benetakoa frogatu dute, hau da, etorkinek ez daukatela kalkulu horiek egiteko adinako informazioa eta ez dutela askatasun osoz erabakitzen. Ikerketa desberdinen arabera, migratzeko erabakiak familiaren artean hartzen dira, eta ez norbanakoen eskutik (Taylor, 1987; Stara, 1991). Zalantza-egoeratan, familia batek kide bat beste eskualde edo herrialde batera bidaltzea erabaki dezake, bere errenta eta biziraupen-aukerak handiagotzeko asmoz. Bestalde, etorkinen sareek migratzeko erabakiak hartzeko orduan duten garrantzia ere deskubritu da. Sareek edo gizarte-kapitalak erraztasunak ematen dizkie etorkinei iristen direnean, lana, etxea eta beste laguntza batzuk emanez (Castels eta Millar, 2003), agerikoena aipatu gabe: etorkinek informazio mugatu eta kontraesankorra dute eta mugak asko dituzte, bereziki eremu ekonomiko, politiko eta sozialeko botere-asimetriei dagokienez. Estatu Batuetan egin berri diren ikerketa batzuen arabera, ez dago ebidentzia empirikorik migratzeko erabakiaren eta AEBko estatu federal desberdinek

dituzten gizarte-onuretako egituren eskuzabaltasun-mailaren artean harreman estatistikoki esanguratsua dagoela frogatzeko (Zavodny, 1997).

Aparicio eta Tornosek (2002) egindako azterketan gizarte-zerbitzuetako eta hirugarren sektoreko etorkinek eta profesionalek ongizatearen estatuari buruz dituzten diskurtsoak aztertu nahi dira sakonki, bereziki hezkuntza, osasun, lan-babes eta larrialdi espazialak eskuratzeko aukerari dagokionez. Ikerketan egindako elkarrizketa-azterketek eta eztabaida-taldeek ongizatearen sistemako prestazioen erabilera baloratu eta ikusteko moduari buruzko hiru diskurtso antzeman dituzte: diskurtso humanitarioa, diskurtso teknikoa eta diskurtso politikoa. Lehenengoa etorkinen giza eskubideetan eta beren duintasuna aitortzeko behar inplizituan oinarritzen da; bigarrena, dimentsio instrumentaletik abiatuta, gizarte-zerbitzuen eremuan etorkinek eta solaskideek erabiltzen dituzten bitarteko eta moduen eraginkortasunari buruzkoa da; azkenik, diskurtso politikoa ez da hain ohikoa eta sarritan ikuspegi etiko humanitarioak edo teknokratikoak xurgatzen du, baina beti aztertzen ditu etorkinek ongizatearen estatuarekin dituzten harremanen gizarte-eraginak (ondorioak estatu-ereduaren planoan, inplikazioak botoak lortzeko orduan, eta abar). Azterlanari jarraiki, etorkinak ia beti erabiltzen du diskurtso humanitarioa, eta gizarte-zerbitzuetako eta hirugarren sektoreko agenteak, aldiz, hiru dimentsioetako inplikazioei buruzko ñabarduna zehatzagoak egiten saiatzen dira.

Aipatutako azterlaneko ondorioek diotenez, etorkinek, beren migrazio-proiektua diseinatzerakoan, ez dute gizarte-babeserako sistemako prestazioen eskaintzari eta multzoari buruzko ideia zehatzik; aberastasun ertain edo altuko herrialde europar batean espero daitezkeen osasun-, hezkuntza-, lan- eta larrialdi-zerbitzuak eskuratzeko aukerari buruzko ideia ahul bat baino ez dute. Azterlanean alde txiki batzuk ikusi ziren ongizatearen estatuarekin harremanak izateko moduari dagokionez, aldagai soziokulturalen arabera. Horrenbestez, prestazioen multzoari erreparatuta, egileek honako ondorioak atera dituzte: Magrebetik datozen etorkinek gizarte-zerbitzu eta -prestazioei buruz duten ideia eskubideekin lotuta dago, eta, beraz, aldarrikatzeko joera gehiago dute jarrerak dira; latinoamerikarrek aprobetxatu daitezkeen legezko eskaintza gisa ikusten dituzte zerbitzuok, eta, azkenik, Ekialdeko europarrek mekanismo burokratikoaren bidez lortu beharreko onuratzat jotzen dituzte prestazioak eta bertara sartzen jakitea beharrezkoa dela uste dute.

Halaber, azterlanaren arabera, etorkinek eta hirugarren sektoreko profesionalek ez dute ikuspegi zehatz bat prestazioek ongizatearen estatuaren integrazio-esparruan eragiten dituzten gizarte-ondorioei buruz; horren ordez, prestazioak gertakari gisa ulertzen dira, ez gizarteratzean eta etorkinen hiritartasunean lagun dezakeen prozesuaren parte gisa.

Ongizatearen estatua eusten duten manuak historikoki gizakien arteko lotura-korapiloaren ideiarekin lotuta egon dira, gizakien gizarte-izaeraren eta horrek herritar guztien artean sortzen duen konpromisoaren ondorio gisa. Morenok (2003) dioen bezala, enpatiaren kontzeptu soziologikoak jarrera, itxaropen eta pertzepzioak barneratzeke balio du, eta horien bidez bizitzako arriskuak desindibidualizatu egiten dira eta pertsonak beste batzuekiko duten herritar-betebehar gisa ulertu eta partekatzen dira, elkartasun eta elkarrekikotasuneko harremanean (Gouldner, 1973). Rawls (1971) buru duen pentsamendu liberal parekidearen “jatorrizko posizioaren” eta “ezjakintasunaren beloaren” kontzeptuetan oinarrituta, beharrezkotzat jotzen da oinarritzeko justizia-printzipio batzuk adostea, sozietate osoaren gutxieneko ongizatea lor dadin eta arriskuak ez daitezen indibiduoekin lotu modu isolatuan, baizik ardura partekatzen duen erkidegoan baino arindu ezin daitezkeen arrisku kolektiboko kategorietan (Baldwin, 1990).

Dena dela, ongizatearen estatuko manuak babesten duen erkidegoaren erantzukizun partekatua hiritartasun-izaerari lotuta egon da, ia oso-osorik, babestu nahi diren funtsezko eskubideetan lortu nahi zen unibertsaltasuna hautsiz. Hau da, ongizatearen estatuek babesten dituzten eskubideak, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzerantz bideratuak, aurretik hiritartasun-estatutua lortu duten pertsonak

baino ezin dituzte eskatu, eta, ondorioz, haustura bat sortzen da herritar nazionalen eta atzerritarren artean, erkidegoko eta erkidegotik kanpoko herritarren artean, egoera erregular eta irregularrean dauden pertsonen artean, hau da, “gu” eta “haien” artean.

2.2. Etorkinen integrazioa ongizatearen estatuko eremuetan

Atzerritarren integrazioa eztabaida publikoan suspertzen ari den gaia da, seguru asko behin-behineko gai bat baino gehiago egiturazko kontua bihurtu dela egiaztatu ondoren, halaxe frogatzen baitute azken urteetako etorkinen finkapen-prozesuek. XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako migrazioek ez zuten horrelako kezkarik piztu, etorkinen integratzearako politika espezifikoen plangintza sustatzera iritsiko zenik. Lanaren eskaintza zabalari esker, iritsi berriei lana eman ahal zitzaien eta, horrela, herrialdean sartu eta integratzeko funtsezko gakoa bihurtu zen lana. Hala ere, XX. mendeko 70eko hamarkadatik aurrera, petrolioaren krisiaren atzeraldia hastean, Estatuak ongizatearen erakundeen bidez etorkinak jaso eta babesteko esku hartu behar ote zuen eztabaidatzen hasi ziren (Aparicio eta Tornos, 2002).

Testu akademikoetan nahiz arau juridikoetan, komunikabideetako diskurtsoetan eta erakundeen planetan, integrazioari buruzko kontzeptu desberdinak daude eta horiek alderdi edota ideologietako aukera desberdinei atxikitako integratzearako araudi-eredu desberdinetan oinarritzen dira. Gure ustez, etorkinen integrazioa autoktonoekiko eskubide eta betebeharrak berdina ekarriko lituzkeen prozesu integrala da (bai estatus juridikoan, bai jasotako tratu sozialean), oinarritzko betebeharrak asetzeko aukera ematen duten zerbitzuetara modu parekidean sartu ahal izango dela bermatuz, bestela esanda, gizarte-eskubideak izatea eta partaidetza-eskubidea hedatzea, ez soilik gizarte zibilean, baita harrera-lurraldeko erkidego politikoan ere. Eta horrela, gizartearen eta politikaren boterearen banaketan eta politika publiko deitzen ditugun horien erabakietan parte hartuko litzateke, legitimitate demokratikoaren elementu gisa, hori guztia kulturaren arloan negoziatutako prozesuaren barruan, akulturazioaren edo kultura-desberdintasun garrantzitsuen ezabaketaren aldean (De Lucas eta Díaz, 2006; De Lucas eta Solanes, 2009).

Bestalde, immigrazioaren kontzeptzio instrumentalak, barne-errentagarritasunean pentsatuak eta lan-merkatuko beharretara egokituak, praktikan, inplikazio garrantzitsuak ditu etorkinak harrera-gizartera sartu eta bertan integratzeko prozesurako. Batetik, lurralde hartzaileko ekonomiaren eta gizarte-babeserako sistemaren erreproduktzioari lotutako faktore estrukturalak eta makroekonomikoak eta barneko lan-merkatuaren beharrianak dira migrazio-jarioak on edo txar gisa sailkatzen dituztenak, duten errentagarritasun ekonomikoaren arabera, gizarte hartzaileetara sartzeko aukera gehiago edo gutxiago ezarritik. Bestetik, baldintza kualitatibo eta kuantitatiboetan zein migrazio-jario den egokia eta zein ez zehaztean, inplizituki ezartzen da zein etorkin integratu daitezkeen harrera-gizartean (Martiniello, 2004; De Lucas eta Díaz, 2006). Hau da, immigrazioaren agenda politikoan sarrerarekin lotutako gaiak duten lehentasunak baldintzatu egiten ditu, neurri handi batean, etorkinen integratzearako esparruaren eraikuntza eta politika publiko orokor eta sektorialen diseinua. Politika horien helburua hiritartasun-izaera zehazten duten sarbidea, titulartasuna eta eskubide eta betebeharraren erabilera eta bermea finkatzea da.

Ikuspegi horretatik, atzerritartasun-politikek ez dutela faktore produktiboak eta pertsonak bereizteko sentikortasunik ematen du, etorkinen gizarte-eskubideak produktioarako faktore gisa hartzen baitituzte eta merkatuaren berezkoa ez den beste edozein dinamika alde batera uzten baitute. Hori horrela, immigrazioa lan-merkatuko beste pieza bat bailitzan planteatzea ez da bateragarria pertsonen duintasunetik egiten den irakurketarekin eta urrundu egiten da oinarritzko beharrianen, lankidetzaren eta elkartasunaren printzipioetan oinarrituta ulertzen diren giza eskubideen kontzeptutik.

Adibide bat jartzearen, bistakoa da etorkinen zahartzaroa eztabaida publiko eta zientifikoan gehien aipatzen den gaietako bat dela, migrazioei dagokienez. Duch eta Millánek (1998) azaldu zuten,

migratzaileen fenomenoak aldi baterako lan egiten zetozen eta gero, beren migrazio-proiektua amaitu eta beren jatorrizko herrialdean lasai asko bizitzeko adina diru lortu ondoren, beren herrialdera itzultzen ziren pertsonak osatzen zuten. Hori horrela, beren lanpostua libre uzten zuten etorkin berrientzat, txandak etengabeak ziren sistema batean. Eragiketa hori, ikuspuntu guztietatik begiratuta, onuragarria zen xede-herrialdearentzat; izan ere, lan egiteko prest zeuden pertsonak jasotzen ziren, beren prestakuntzan edo haurtzaroko zaintzan dirurik jarri behar izanik gabe eta, pentsio egokiak ordaindu ondoren, beraietaz ahaztu ahalko ziren, jatorrizko herrialdeetara bueltatzen zirelako beren zahartzaroa edo ezintasuna bertan bizitzeko asmoz. Hala ere, hasieran itzultzeko asmoa nagusi den arren, gehienak azkenean xede-herrialdeetan egonkortzen direla eta finkapen-migrazio izenekoak gertatzen direla egiaztatu da.

Horrenbestez, integrazio-tresnen (osasuna, lana, hezkuntza, etxebizitza, kultura) hartzaileak aurretiaz sarbide-politiken arabera zehaztutako profila du: batetik langile etorkina dago, sistema produktiborako beharrezkoa dena eta langile nazionalen antzeko eskubide zibil eta sozialak dituena, eta, bestetik, nahi ez den etorkina, ez dena errentagarria, lan-merkatutik eta eskubide eta prestazioetatik baztertuta dagoena laguntza humanitarioaren esparruan laguntza-ikuspegiko hondar-prestazioak jasotzeko, horrela, unibertsaltasunaren terminoetan, Añónen (2001, 2004) hitzetan benetako barneratze *testa* deitutakoari eragiten zaiolarik.

3. Osasunerako sarbidea

Atzerritarrek osasun-laguntzarako duten sarbideak eztabaida latzak piztu ditu herrialde askotan, osasun-sisteman nahiz atzerritarren taldeetan ondorio zehatzak eragin dituelarik. Erresuma Batuan, formula unibertsalistetatik formula murriztaileetara pasa zen, Alderdi Kontserbatzailearen eskutik. Izan ere, *overseas visitors* kontzeptua (ohikoak ez diren egoiliarak) ezarri zen gehiegizko erabilera egiten duten onuradun gisa, eta, horrenbestez, osasun-zerbitzuak kobratu zizkieten Erresuma Batuan urtebete baino gutxiagoz bizi ziren atzerritarrei, erabilera-dohaintasuna aldatuz, sistema unibertsalistan hautagarritasuna kontrolatzeko mekanismoekin batera. Frantzia, gizarte zibilak bazterkeriaren aurka borrokatzeko egin zuen presioaren ondorioz (*Loi Couverture Maladie Universelle*, 1999), osasun-sistemaren unibertsalizaziorantz aurrera egitea lortu zen, egoitza-legezketasunaren betekizuna ezabatu ezin izan zuten arren (Moreno eta González, 2002).

Espanian, osasun-sistamarako sarbidearen unibertsalizazioa apurka-apurka ezarri da. 2000. urtean ateratako Atzerritarren Legetik aurrera (4/2000 LO), egoera irregularrean zeuden atzerritarren osasun-sistamarako sarbidea hasi zen. Egun, Atzerritarren Legeko 12. artikulua Espainian dagoen edozein pertsonari osasun-sistemaz baliatzeko bermea ematen dio, etorkinen egoerari buruzko irizpideen arabera estaldura-maila desberdinak ezartzen diren arren. Egoera juridiko eta administratiboari dagokienez, beren ohiko bizilekua den udalerrian erroldatuta dauden atzerritarrek osasun-laguntzarako eskubidea dute, espainiarren baldintza berberetan. Beste baldintza pertsonal batzuei dagokienez:

- a) Espainian dauden hamazortzi urtetik beherako atzerritarrek osasun-laguntzak jasotzeko eskubidea dute, espainiarren baldintza berberetan.
- b) Espainian dauden emakume haurdun atzerritarrek osasun-laguntza jasotzeko eskubidea dute, haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean.
- c) Kasu horietatik at, Espainian dauden atzerritarrek larrialdiko osasun-laguntza publikoa jasotzeko eskubidea dute, gaixotasun larriak edo istripuak izan dituztenean, arreta hori ematen jarraitu eta medikuaren alta lortu arte.

EAEEn, osasun-laguntza arautzen duen oinarrizko araua 26/1988 Dekretua da. Horren bidez, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-laguntza aitortzen zaie baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei (lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerak ez dituztenei), baldin eta Gizarte Segurantzaren sistemaren babesa ez badute eta EAeko udalerriren batean erroldatuta badaude. Bestalde, Immigrazioaren Euskal Planak atzerritarrei osasuna jasotzeko eskubide osoa bermatu behar zaiela ezartzen du, plana zuzentzen duten normalizazio-helburuen barruan. Hala ere, erroldatuta ez bazaude, ezinezkoa da Osasun Txartel Indibiduala (OTT) lortzea eta aukera bakarra Behin-behineko Osasun Txartela izenekoa da. Agiri horrek osasun-laguntza jarraitua bermatzen die larrialdiko mediku-tratamenduren bat behar duten pertsoneri, bai eta adingabeei eta emakumeei ere, azken horien haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean (Zarauz, 2007, 213-214 or.).

Osasunera sartzean legezko mugek izan ditzaketen eraginetatik harago, gutxiengo etnikoen berezitasunen ondorioz beste berdintasun-ez batzuk aurki daitezke eta biztanle gehiengoarentzat edo gehiengoaren eskutik pentsatutako osasun-zerbitzuak jasotzeko oztopo izan daitezke. Hizkuntza eta kulturaren gaineko berezitasunen ondorioz sortzen diren eragozpenak dira horren adibide. Harrera-herrialdeko hizkuntza ezagutu arren, osasun-sistema azpi-kultura partikularra da, antolaketa, logika eta funtzionamendu propioak ditu eta zerbitzuak eskuratzeko orduan oztopa bihur daitezke. Hasierako legezko eragozpenak gaindituta ere, interpretazio okerrek edota, orokorrean, gaizki-ulertuek (osasuneko langileei eta gaixoaren zereginei buruzko praktikei eta itxaropenei dagokienez; osasunaren eta gaixotasunaren kontzeptuei buruzko irudikapen desberdinei dagokienez, eta abar) zailtasunak eragin ditzakete osasun-langileek arreta egokia emateko orduan (Cuadros, 2000; Moreno eta González, 2002).

4. Hezkuntzarako sarbidea

Hezkuntzaren alorrean, Espainiako Konstituzioak pertsonen duintasunari (EK 10. art.) lotutako oinarrizko eskubide gisa (EK 27. art.) jotzen du hezkuntza. Hala ere, atzerritarrek eskubide horretaz gozatzeko duten aukerari dagokionez, hainbat aldaketa gertatu direla aipatu beharra dago. Ildo horretatik, Atzerritarren Legeak, 8/2000 Legearen bidez aldatu zen horrek, konstituzioaren aurkako hainbat errekurtso jasan zituen, 2007. urtearen amaieran ebatzi zirelarik. Besteak beste, Auzitegi Konstituzionalaren azaroaren 7ko 236/2007 epaia eman zen. Hezkuntza dela eta, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3eko 2/2006 Lege Organikoaren arabera, oinarrizko irakaskuntza derrigorrezko irakaskuntza da eta 6 urtetik 12ra bitartean hedatzen da, 18 urtera arte luzatu daitekeelarik. Dena dela, 8/2000 Legeko 9.3 artikuluan egoitzabaimena zeukatenetara mugatzen zen derrigorrezko hezkuntza jasotzeko eskubidea. Ondorioz, Auzitegi Konstituzionalak egoitza-betekizun horren konstituzionaltasuna aztertu zuen eta honakoa ondorioztatu zuen: hezkuntzarako eskubidearen barruan ez da oinarrizko irakaskuntza soilik sartzen, derrigorrezkoa ez dena ere sartzen dira, egoera irregularrean dauden pertsonak barne. Hala ere, Atzerritarren Legeak, 2/2009 Lege Organikoaren bidez egindako azken erreforman, epai hau betearazteko orduan ez du baieztapena horrela ulertu, eta hezkuntzarako eskubidea aitortzen duen arren, 18 urtetik beherakoen artean bereizkeriarik egin gabe, egoitza-baimena edukitzeko betekizuna ezartzen du hamazortzi urte baino gehiago dituzten pertsonentzat, *derrigorrezkoak ez diren gainerako hezkuntza-etapetan parte hartu, dagozkion tituluak lortu eta beken sistema publikoaz baliatzeko*". Nafarroako Parlamentuak adierazi duenez, kontraesana dago artikulua horren eta lehen aipatutako Auzitegi Konstituzionalaren epaiaren artean, eta, ondorioz, konstituzioaren aurkako baliabide bat sustatu du 9.2 artikuluaen aurka. 2010eko apirilaren 14ko Probidentziaren bidez (BOE, 103. zenbakia, 2010-04-29) tramitazioarako onartu du. Edonola ere, artikuluaen edukian arreta jartzea garrantzitsua da. Honakoa dio: *“Espainian dauden hamazortzi urtetik gorako atzerritarrek hezkuntzarako eskubidea dute, hezkuntzari buruzko legedian ezarritakoaren arabera”* (9.2 art.). Artikulua ondoztatu daitekeenez, autonomia-erkidegoen legean aurreikusitakoak baino eskubide altuagoak aitortu ditzake, egoera irregularrean dauden ikasleentzako hezkuntzarako eta beketarako aitortza barne.

Beka eta laguntzen sistemari dagokionez, eta EAEko eremuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak multzoan aipatu ohi ditu atzerritarrek bekak eskuratu ahal izateko bete behar dituzten betekizunak, unibertsitate-arloan urtero deitzen dituen beken deialdian. Betekizun horiek beken eta izaera pertsonalizatuko beste laguntza batzuen sistema arautzen duen uztailearen 28ko 2298/1983 Errege Dekretuan eta Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan adierazitakoekin lotuta daude. Hau da, administrazio-egoera erregularra izateko eskatzen diete atzerritarrei.

Zarauzek (2007) azaldu duenez, eskoletan izena emateko informazio-orrietan, aurkeztu beharreko ziurtagiriaren artean agertu ohi dira errolda-ziurtagiriak. Hori horrela, eskabidea jasotzen duenak, legezko betekizunei buruzko ezagutza handirik ez badu, ez ditu erroldatu gabekoen eskabideak onartzen, agiriak falta direla uste duelako. Horrek azaltzen du zergatik dauden hainbeste kexa adingabeei izena emateko orduan, beren legezko ordezkariak ere egoera irregularrean daudenean.

5. Etxebizitzarako sarbidea

Espainiako Konstituzioak ez du etxebizitzarako eskubidea eskubide subjektibo gisa aitortzen, politika sozial eta ekonomikoa arautu behar duten printzipio gisa baizik. Eta nahiz eta egia den egile batzuek biztanle espainiarren alde egindako printzipio gidaria dela azpimarratzen dutela, etxebizitza, gaur egun, funtsezko elementua da etorkinen integrazio-prozesuan. Halaxe adierazi du Hiritartasunaren eta Integrazioaren 2007-2010 Plan Estrategikoak, etxebizitza aipatzen baitu esku-hartzeko arloen barruan. Honakoa dio: *Etxebizitzaren erronka eraginkortasunez lortzen ez bada, gizarte-bazterkeriako arazoak eta gehiegizko egoitza-kontzentrazioaren hiriguneen sorrera izan daitezke emaitzak, bai eta bizikidetzaren arazoak ere, etorkin-talde desberdinen artean nahiz talde horien eta herritar autoktonoen artean*” (248. or.).

Ioé Kolektiboak Espainiako immigrazioari eta etxebizitzari buruz egindako azterlanaren arabera, etorkinek etxebizitzak eskuratzeko dituzten zailtasunen azpian bi faktore ezkututzen dira: batetik, erosteko ahalmen mugatua; eta, bestetik, eraikuntza-sektoreko azken ziklo hedakorrean dauden geroz eta prezio garestiagoak (Ioé 2005, 214. or.).

Etxebizitzaren alorreko laguntzen aitortza eta horrek Atzerritarren Legean duen isla aztertuz gero, ezinbestekoa da egungo 2/2009 Legearen bidez egindako aldaketa aipatzea. Lege horretako 13. artikulua egoitza iraunkorra duten atzerritarrei soilik ematen die aukera etxebizitzaren gaineko laguntzak jasotzeko, herritar autoktonoen baldintza berberetan. Hori horrela, Espainian bizi diren gainerako atzerritarrei laguntza horiek jasotzeko aukera mugatzen zaie. Proposamena Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta arautzen duen azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretuaren ildoan kokatzen da eta bost urteko legezko egoitza iraunkorra eskatzen da etxebizitza-alokairurako laguntzak jaso ahal izateko. Hala ere, artikulua horrek, hezkuntzarako eskubideari buruzkoarekin batera, atea zabalik uzten du autonomia-erkidegoek etxebizitzarako sarbideari buruzko legeak egin ditzaten, eta, horrela, iraupen luzeko egoiliar iraunkorrak ez direnei etxebizitza lortzeko aukera gehiago ematen dizkie.

Immigrazioaren II. Euskal Planean, halaber, etxebizitza etorkinen integrazio-prozesuko oinarrizko elementu gisa jasotzen da eta Etxebizitza Sailak laguntzen arloan egiten dituen jarduerak EAEko biztanleria osoari eragiten diotela gehitzen da (Planeko 29. or.). Eredu honetan hartu beharreko neurri zehatzen artean, 1. zuzentarauko 1. neurria azpimarratu behar da. Horren arabera, etorkinen taldea etxebizitzak eskuratzeko zailtasun bereziak dituztenen artean sartu behar da, eta, ondorioz, diskriminazio positiborako neurriak hartu behar dira, babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitza eta lurzoruen alorreko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuko bigarren xedapen gehigarriaren arabera. Egundak, dekretu hau beren-beregi indargabetu du babes ofizialeko etxebizitzaren araubide

juridikoari eta etxebizitza eta lurzoruaren alorreko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak. Bertan, ez da berariazko aipamenik egiten etorkinen taldeari buruz; diru-sarrerak egiaztatzeari dagokionez, betekizun batzuetatik salbuetsitako talde espezifiko gisa mantendu dira minusbaliotasunen bat duten pertsonak eta genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeak (19. art.).

6. Gizarte Segurantzako prestazioetarako sarbidea

Gizarte Segurantzaren gizarte-prestazio nagusiak eskuratzeko aukera, funtsean, enpleguaren menpe dago. Izan ere, enplegua da gizarte-eskubideen iturri nagusia Espainiako babes-sisteman. Laneratzeak osasun-laguntza, langabezia eta pentsioen gaineko eskubideak sortzen ditu eta talde baten gizarteratze eta ongizatearen maila adierazteko elementu garrantzitsuenetakoa da. Hau da, Rodríguez Cabreroren (2004) esanetan: *“Gizarte espainiarraren gizarteratzeko gaitasuna eta kalitatea ebaluatzeko irizpideetako bat, Gizarte Segurantzaren babes-ekintza eta ongizatearen estatua Espainiara iristen diren etorkinen artean orokorrean nola hedatzen diren aztertzea da”* (323. or.).

Hainbat arauk berresten dute beharrezkoa dela lan-baimena edukitzea atzerritar batek Gizarte Segurantzaren sistema espainiarrean afiliatu eta alta eman dezan, eta, beraz, ordainketaren arabera prestazioak jasotzeko aukera izan dezan. Sánchez Jiménez irakasleak dioenez (Sánchez Jiménez, 2005, 446. or.), honako arauak dauzkagu:

- a) Gizarte Segurantzaren enpresak inskribatzeari eta Langileen Afiliazioari, altei, bajei eta datu-aldaketei buruzko Araudi Orokorreko 42. artikulua, urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, honakoa dio: *“beren kontura edo besteren baten kontura lan egiten duten atzerritarrek afiliatzeko edo alta emateko aurkezten duten eskabideekin batera, langile espainiarrentzat eskatutako datu eta agiriez gain, lan-baimenaren kopia egokia aurkeztu beharko da, beren jardura Espainian hornitu ahal izateko berau behar duten atzerritarren kasuan”*.
- b) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko eta Migrazioen Antolamenduko zuzendari nagusiek atzerritarren Gizarte Segurantzako afiliazioari, altei, bajei, datu-aldaketei eta kotizazioari buruz ateratako zirkularrak, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioi Idazkaritza Teknikoaren 1998ko otsailaren 20ko Ebazpenaren bidez argitaratuak, 3.1 jarraibidean, honakoa eskatzen du, langileon afiliazioa, altak, bajak eta datu-aldaketak eskatzeko agirien artean: lan-baimen egokia eman, berritu, edo, hala badagokio, aldatu izanaren lan-ebazpenaren kopia, edo lan-baimena lortzeko betebeharretik salbuesteko arrazoia, Atzerritarren Legeko 41. artikuluan horri buruz jasotako kasuen arabera.
- c) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko 2001eko otsailaren 13ko 5-004 Zirkularrak 1. jarraibidean ezarritakoari jarraiki, langile atzerritarrek Espainian garatu nahi badute beren jardura, lan egiteko baimena eduki beharko dute eta ezingo zaie afiliatzeko edo hasieran alta emateko eskabiderik onartu, baldin eta aurretik ez bazaie norberaren konturako edo besteren konturako lan-baimena eman. Halaber, baimena eskatze hutsa ez dela nahikoa jakinaraziko da. Lan-baimena emateko baldintza bete gabe egiten diren afiliazioak eta altak indargabetu egingo dira.
- d) Azkenik, Atzerritarren Araudiak honakoa dio bai 51.12 artikuluan (besteren kontura lan egiteko baimenari buruzkoan), bai 59.11 artikuluan (norberaren kontura lan egiteko baimenari buruzkoan): *“Espainian legez sartu ondoren, langileak bere jardura hasiko ahalko du eta bere afiliazio, alta eta ondorengo kotizazioari ekingo zaie, Gizarte Segurantzari buruzko araudia aplikagarrian ezarritako baldintzen arabera”*.

Nahiz eta goian aipatutako araudi-erreferentziek argi eta garbi adierazten duten aurretik lan-baimena eduki behar dela, arau guztiek ez dute hain argi azaltzen. Horren harira, nahitaezkoa da Atzerritarren Lege Organikoko 36.3 artikulua aipatzea. Artikulu honen idazkuntzak zalantzan jartzen du lan egin ahal izateko aurretiazko baimena edukitzeko betebeharra. Atzerritarren Legeak berak are gehiago nahastu du kontua, batez ere 36. artikuluari buruz egindako idazkuntza desberdinen bitartez.

4/2000 Legea indarrean sartu baino lehen, doktrinaren arabera, baimenik gabe lan egiteak, orduko jurisprudentziaren ondorioetarako, kontratua indargabetzea eragiten zuen. Desadostasunak indargabetze horren ondorioak zehazteko orduan sortzen ziren. Hori horrela, egile batzuek kontratuaren baliotasun osoa defendatzen zuten, horren ondoriozko eskubide guztiak mantenduta, eta, beste sektore doktrinal batek, aldiz, eskubide batzuk mantentzeko defendatzen zuen, lan-istripuen edo gaixotasun profesionalen aurrean babestearekin lotutakoak, hain zuzen ere (Rodríguez Cardo, 2009). Azken postura horrek, doktrinaren artean nagusiena zenak, jurisprudentziaren babesa zuen, Auzitegi Gorenaren 1991eko maiatzaren 28ko eta 1998ko abenduaren 2ko epaiak gailentzen direlarik. Laburbilduz, auzitegien ustez administrazio-baimenik gabe lan egiten zuen eta egoera irregularrean zegoen langile atzerritar baten kontratua indargabea zen, baina horrek ez zuen eragozten istripuen eta gaixotasunen prestazioak jasotzeko eskubidea. Gainera, langileak ordaindu gabeko kuotak kotizatu behar zituen Gizarte Segurantzaren.

Beraz, horrelakoa izan zen egoera 4/2000 Legea iritsi arte. Horrek 1985. urtekoa indargabetu zuen eta 36. artikulua sartu zuen, lehen aipatu ditugun interpretazio-arazoekin. Hala ere, artikulua honek izan dituen bertsio desberdinak aztertzea komeni dela uste dugu. Hasteko, jatorrizko idazkuntzak honakoa zioen: *“atzerritar bat kontratatzen duten langileek aurretiazko baimena eskatu eta lortu beharko dute Lan eta Gizarte Gaien Ministerioan. Enplegu-emaileak ez badauka kontratatze baimen egokia, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik eragin gabe, ez da lan-kontratua indargabetuko, langile atzerritarren eskubideei dagokienez”*. Artikuluak piztu zuen lehenengo zalantza indargabetuta gelditzen ziren eskubideak zehazki zeintzuk ziren jakitea zen. Horren harira, eskubide horiek Gizarte Segurantzarekin lotutakoak zirela interpretatu zitezkeen, gorabehera profesionalak nahiz komunak barne.

Artikuluko bigarren bertsioa azken zatia aldatzen zuen 8/2000 Legearen eskutik etorri zen. Honakoa zioen: *“langileak ez badauka baimen egokia, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik eragin gabe, ez da lan-kontratua indargabetuko, langile atzerritarren eskubideei dagokienez”*. Aldaketa zera zen, baimen-falta langilearekin lotuta zegoela eta ez enpresariarekin.

Azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak, bestalde, honakoa adierazten zuen: *“Atzerritar bat kontratatze, enplegu-emaileak artikulua honetako 1. atalean aipatutako baimena eskatu beharko du. Enplegu-emaileak ez badauka baimen egokia, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik eragin gabe, gizarte-segurantzaren alorrekoak barne, ez da lan-kontratua indargabetuko, langile atzerritarren eskubideei dagokienez, eta ez da eragozpen izango egokitu dakizkion prestazioak eskuratzeko*. Baimen egokiaren falta berriz egotzi zitzaion enpresari, eta, ondorioz, berriz bueltatu zen enplegu-emailearen erretorika, legez eskatutako administrazio-betekizuna ez duen subjektu gisa. Horrek eztabaida doktrinala piztu zuen berriz. Egile batzuen ustez, Cabeza (2008, 13. or.) kasu, administrazio-egoera irregularrean zeuden langileek izan zitzaketen eskubideen artean sartzan ziren gorabehera komunak, eta, beste batzuen aburuz, Rodríguez Cardo (2009) adibidez, egoera irregularrean dauden atzerritarrek gorabehera komunen ondorioz babesa lortzeko modu bakarra *a priori* Gizarte Segurantzaren sistemari sartu ahal izatea eta afiliatzeko eta alta emateko betebeharrak, eta, hala badagokio, kotizazio ordaintzekoak formalizatzea da.

Eta egungo 2/2009 Legea iristen gara. Bertako 36.5 artikulua (lehen 36.3) idazkuntza aldatzen du berriz:

“Lan- eta egoitza-baimena ez edukitzeak, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik eragin gabe, Gizarte Segurantzakoak barne, ez du lan-kontratua indargabetuko, langile atzerritarren eskubideei

dagokienez, eta ez da eragozpen izango langileen babeserako nazioarteko hitzarmenetan aurreikusitako kasuen ondoriozko prestazioak edo egokitu dakizkion beste batzuk eskuratzeko, betiere bere egoerarekin bateragarriak badira. Edonola ere, egoitza- eta lan-baimenik ez duen langileak ezingo du langabeziaren ondoriozko prestaziorik eskuratu”.

Hasteko, idazkuntza berri honek pixka bat gehiago zehazten ditu egoera irregularrean dagoen langileak jaso ditzakeen prestazioak, irailaren 5eko 1041/2005 Errege Dekretuan Gizarte Segurantzaren enpresak inskribatzeari eta Langileen afiliazioari, altei, bajei eta datu-aldaketei buruzko Araudi Orokorrean (urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan) egindako aldaketaren harira, eta, beraz, 42. artikuluari idazkuntza berria ematen dio. Horren arabera, besteren kontura lan egiten duten atzerritarrek Lanaren Nazioarteko Erakundearen 1925eko ekainaren 5eko 19. hitzarmena berretsi badute, Espainian administrazio-egoera erregularrean egon gabe ematen badituzte zerbitzuak eta lanerako baimenik edo hura eskuratzeko salbuespena egiaztatzen duen agiririk ez badute, Gizarte Segurantzaren sistema espainiarrean daudela eta dagokion araubidean alta dutela ulertuko da, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko gorabeheren aurrean babesteko ondorio soiletarako. Jurisprudenziak ere bermatzen du irizpide hori: Auzitegi Gorenaren 2003ko ekainaren 9ko epaiak, Kataluniako Justiziako Auzitegi Nagusiaren 2006ko martxoaren 17ko epaiak eta Madrilgo Justiziako Auzitegi Nagusiaren 2000ko urriaren 19ko epaiak, hain zuzen ere. Horietan xedatutakoaren arabera, lan-baimenik gabe zerbitzuak ematen dituen atzerritarrak lan-istripu bat sufritzen badu, Gizarte Segurantzaren sistemak gorabehera horretarako ezarrita dituen prestazioak jasotzeko eskubidea izango du.

Bigarrenez, langabeziaren prestazioari egiten zaion aipamena garrantzitsua da, Justiziako Auzitegi Nagusietako epai batzuek horren inguruko adierazpen kontraesankorrak egin baitituzte. Horren harira, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-adierazpenak ditugu [2008ko martxoaren 18ko AGE (RJ 2008/2065) eta 2008ko azaroaren 12koa (RJ 2008/5970)], irizpideak bateratzen dituztenak langabeziaren prestazioa ukatze aldera, eta, beraz, lege berriak, jurisprudentzia horren ildotik, eztabaidari amaiera ematen dio, lehen azaldutako eran.

Laburbilduz, Atzerritarren egungo Legeak, 36.5 artikuluan emandako idazkuntzan, egoera irregularrean dagoen pertsona batek eskuratu ahal dituen prestazioak mugatzen ditu, baimen egokia izan gabe lan egiten duen kasuetarako. Bestalde, atzerritar mota horientzako gorabehera profesionalen ondoriozko prestazioak jasotzeko eskubidea adierazten duen jurisprudentzia indartzen da. Horren harira, Auzitegi Gorenaren 2010eko urtarrilaren 21eko epaia eta Alfonso Mellado irakasleak (2010) horren gainean egin dituen oharrak azpimarratu behar dira. Epai honetan, egoera irregularrean dagoen atzerritar batek baimen egokia zuen beste pertsona bat ordezkatzean jasandako istripuaren ondorioz ezintasun iraunkorraren pentsioa jasotzeko eskubidea ote duen eztabaidatu da. Eta auzitegiak pentsioa ukatu zuen arren, enplegu-emailea zelako baimena lortzeaz arduraz behar zena (eta hark baimena zuela pentsatuz jokatu zuen), administrazio-egoera irregularrean dagoen atzerritarrak lan-istripuaren eta gaixotasun profesionalen ondoriozko prestazioa jasotzeko eskubidea duela ulertzen da. Azkenik, guztiz kontrakoak diren bi boto zehatz azpimarratu behar dira. Batek egoera irregularrean dagoen etorkinari prestazioa ukatzearen alde egiten du eta besteak epaien kasuan ezintasunaren pentsioa aitortu behar dela uste du.

Eta atal hau ixteko, gai honen kasuan oso interesgarria den beste epai bat jorratuko dugu. Auzitegi Gorenaren 2010eko martxoaren 9ko Epaia da, denboran lehen aipatutakoaren hurbil dagoena, nahiz eta bestea Sala Orokorrean batutako Lan Arloko Salak eman zuen. Hemen, Laugarren Salak zati batez baiesten du hildako langilearen alargunak egindako eskaria eta heriotzaren laguntza eta alarguntasun eta zurtzasunaren prestazioak jasotzeko eskubidea aitortzen du, legez ezarritako zenbatekoan. Kasuan azaltzen den Dominikar Errepublikako nazionalitateko langileak ez zuen lan- eta egoitza-baimenik eta beste herrikide baten agiriak aurkeztu zituen enpresan, bere nortasuna bereganatuz. Horrela, Gizarte Segurantzaren lan-kontratua eta alta izapidetu ziren, ordezkaturako langilearen datuekin. Langilea lan-istripu baten ondorioz hil zen.

Auzitegiak dioenez, Gizarte Segurantzaren alta ematea ez da beharrezkoa lan-istripuaren ondoriozko arriskuak estaltzeko. Ondorioz, hildakoaren alargunari eta umeei ezin zaie agiri faltsuak erabiltzeagatik zigorra ezarri, ez zituztelako beraiek faltsutu. Kasu honetan, heriotzaren ondoriozko erantzukizuna ez dagokio enpresari, bere betebeharrak guztiak bete baitzituen; horren ordez, mutualitateak hartu beharko ditu beregain istripuaren ondoriozko arriskuak.

7. Gizarte Segurantzako gizarte-babeserako afiliazioa eta sarbidea

Legezko interpretazioa alde batera utzita, eta prestazio hauen alderdi sozialari dagokionez, Rodríguez Cabrerok (2004) honako alorrak aztertu zituen 1998 eta 2001 urteen artean: atzerritarren araubideen banaketa eta estaldura, ezaugarri sozial eta demografikoak, jatorria, lurralde-kokapena, kotizazio-araubideak, eta kontratu-mota edo sektore produktiboa bezalako ezaugarriekiko harremana. Gizarte Segurantzako kotizazio-araubideren batean alta emanda dagoen biztanleria egoitza-baimena duten eta Espainian lan egiten duten langileek osatzen dute nahitaez. Hori dela eta, afiliatutako biztanleria aztertuta Gizarte Segurantzak administrazio-egoera erregularrean dauden etorkinei eskaintzen dien estaldura ezagut dezakegu, nahiz eta ezin dugun antzeman ezkutuko ekonomian lan eginez gizarte-babesaren gune nagusitik kanpo gelditzen den talde garrantzitsu honen errealitatea. Carpiok (1999) 1996 eta 1997 artean egindako inkestan kalkulatu zuenez, erkidegotik kanpoko biztanleriaren kasuan, lan informalaren tasa %28,9koa zen. Egoitza-baimenik ez zutenen taldea ia %80koa zen.

Cabreroren azterlaneko emaitzek agerian utzi zuten erkidegotik kanpoko atzerritarren kopurua igo egin zela 1998 eta 2001. urteen artean, hazkunde-garaian (1997-2001) etxeko zerbitzuetan, nekazaritzan, ostalaritzan eta eraikuntzan (besteak beste) zegoen eskariaren ondorioz. Hori horrela, erregularizazio-prozesuek ekonomia informaleko espazioak murrizteko bidea ireki zuten. 1998an, etorkinen taldea afiliatuen arteko %1,7ra iristen zen, eta, 2001ean, aldiz, portzentaje hori %3,8ra igo zen, 2002an %4,7ra eta 2004an %5etik gorakoa zen. Era berean, hazkunde nabaria egon zen erkidegotik kanpoko atzerritarren afiliazioan, erkidegokoekin alderatuta, eta horrek agerian utzi zuen, egileak berak dioten bezala, erkidegotik kanpoko langileak behar zirela, nekazaritza eta etxeko laguntzaren sektoreetan eta zerbitzuen eta eraikuntzaren alorreko Gizarte Segurantzaren Araudi Orokorreko okupazioetan lanpostuak estaltzeko.

Dena dela, azterlan honen iradokizunari jarraiki, afiliazio-tasen igoera lan-egonkortasuna neurtzen duten beste aldagai batzuekin batera aztertu behar da, lan-merkatuko sarrera- eta irteera-prozesu etengabeen aldi baterako kontratazio handia antzeman baita. Horrek, neurri batean, zalantzan jarriko lituzke etorkinak gizartearen eta gizarte-babeseko sistemetan integratzeko prozesuak. Gainera, azterlaneko emaitzek diotenez, gizarte eta demografiako banaketari dagokionez, atzerritar afiliatuen profila, orokorrean, honakoa da: gizonezkoa (Filipinak, Peru, Dominikar Errepublika edo Kolonbiako biztanleen kasuan salbu, emakumeak gehiago baitira gizonak baino) eta gaztea, 25 eta 39 urte bitartekoa, erkidegotik kanpoko atzerritarren %60ren kasuan.

Jatorriari dagokionez, azterlanak aldaketa nabarmena antzeman zuen erkidegotik kanpoko atzerritarren artean, lehen ere adierazi den bezala, Europako biztanleak (erkidegotik kanpokoak) eta Latinoamerikakoak (2001ean, afiliatutako erkidegotik kanpoko biztanleen %60 baino gehixeago) nagusi zirela. Egileak, emaitza horien bidez, beste iturri batzuek (erregularizazio-prozesuek, adibidez) egiaztatzen dutena berresten du: bilakaera bat egon da afiliazio-prozesuetan, bereizkeriaz edo isilpeko hautaketaz jokatzeko baitute Latinoamerikako eta Europako erkidegotik kanpoko biztanleen alde, Afrikatik (eta batez ere Magrebetik) datozen biztanleei kalteak eragiten dizkietelarik lan-merkatu formalera eta kontribuzioaren menpeko babes-sistemara sartzeko aukerei dagokienez.

Jakinarazi denez, halaber, nahiz eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten erkidegotik kanpoko atzerritarren kopurua nabarmen igo den ikertutako urte horietan zehar, egia da, oraindik ere, lan-eremu oso zehatzetan biltzen direla, nekazaritzan eta etxeko zerbitzuetan, esate baterako. Kotizazio-araubideaz gain, erkidegotik kanpoko langile atzerritarrek dituzten kontratuen %70 aldi baterako zirela azaldu zuen kontratu-motari buruzko azterlanak, seguru asko lan-espazioen behin-behinekotasun indartsuaren ondorioz. Horrek alde nabarmen eta kaltegarria adierazten du erkidegotiko atzerritarren aldean.

Gizarte Segurantzaren ondoriozko prestazioei dagokienez (osasun-laguntza, langabezia, seme-alaben babesa, pentsioak, eta abar), Cabrerok zera dio: 2001ean, erkidegotik kanpoko atzerritarrek jasotzen zituzten prestazioak eskasak ziren langabeziari dagokionez, baina osasun-estaldura erkidegotik kanpoko atzerritarren %88ra iristen zen.

EAEEn, atzerritarrek Gizarte Segurantzaren esparruan gizarteratzeko eta laneratzeko dituzten bideek Cabrerok Espainia osorako antzemandako jarraibide antzekoak jarraitu dituzte, batez ere latinoamerikarrek gainerako taldeekin alderatuta (erkidegotik kanpoko europarrak barne) duten egoera abantailatsuari dagokionez. Erkidegotik kanpoko europarrek, izan ere, ez dute gizarteratzeko eta laneratzeko egoera bereziki onuragarria.

Honako taulan ikus daitekeen bezala, 2001 eta 2008 urteen artean EAEEn atzerritarrei egindako kontratuak nabarmen igo dira: 2001ean 19.000tik 2008an 107.000ra pasa dira, hau da, %461 igo dira. Hala ere, igoera hori desberdina da atzerritarren jatorriaren arabera. Nahiz eta talde guztien kontratu-kopurua igo egin den, pisu erlatiboa ez da bera: latinoamerikarren taldea da atzerritarren kontratuei dagokienez nabarmen igo den bakarra, gainerako taldeetan pisu erlatiboa mantendu edo murriztu egin baita. Halaxe gertatu da erkidegotiko biztanleen kasuan (8 puntu galdu ditu), Magrebeko atzerritarren kasuan (7 puntu baino gehiago galdu ditu) edo erkidegotik kanpoko europarren kasuan (3,5 puntu). Bitartean, latinoamerikar jatorriko biztanleen pisua ia bikoiztu egin da, 20 puntu igo direlarik.

**22. taula. EAEEn kontratatutako pertsonen jatorria
(EAEko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan/Enpleguko Institutu Nazionalen
erregistratutako/ jakinarazitako kontratazioa), 2001-2008**

| JATORRIA | URTEA | | | | | | | | | |
|----------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|----------------|---------------|----------------|---------------|
| | 2001 | % | 2004 | % | 2006 | % | 2007 | % | 2008 | % |
| EB | 6.307 | 33,04 | 11.895 | 25,79 | 17.383 | 21,68 | 25.993 | 25,95 | 26.786 | 25,01 |
| Erkidegotik kanpoko Europa | 1.077 | 5,64 | 2.539 | 5,50 | 5.718 | 7,13 | 2.214 | 2,21 | 2.316 | 2,16 |
| Magreb | 4.367 | 22,87 | 7.750 | 16,80 | 11.703 | 14,60 | 15.831 | 15,80 | 16.857 | 15,74 |
| Gainerako Afrika | 1.915 | 10,03 | 5.708 | 12,37 | 8.573 | 10,69 | 11.751 | 11,73 | 11.149 | 10,41 |
| Asia | 847 | 4,44 | 1.657 | 3,59 | 3.578 | 4,46 | 3.571 | 3,56 | 4.113 | 3,84 |
| Latinoamerika | 4.184 | 21,92 | 16.061 | 34,82 | 32.495 | 40,53 | 39.936 | 39,86 | 45.181 | 42,18 |
| Gainerako Amerika | 140 | 0,73 | 163 | 0,35 | 204 | 0,25 | 171 | 0,17 | 161 | 0,15 |
| Gainerako mundua | 159 | 0,83 | 275 | 0,60 | 346 | 0,43 | 570 | 0,57 | 427 | 0,40 |
| Herrigabeak | 95 | 0,50 | 83 | 0,18 | 167 | 0,21 | 146 | 0,15 | 123 | 0,11 |
| GUZTIRA | 19.091 | 100,00 | 46.131 | 100,00 | 80.167 | 100,00 | 100.183 | 100,00 | 107.103 | 100,00 |

Iturria: EIN, bertan egina.

Pentsa genezake etorkinen kontratuak igo egin direla jatorri-talde horietako atzerritarrek gure herrialdean duten presentziak edota erregularizazioak gora egin duten heinean. Dena dela, hurrengo taulan (22. taula) ikus dezakegun bezala, kontratuak ez ziren gizarte- eta kultura-jatorri desberdinetako pertsonen hazkuntzarekin batera igo era proportzionalean. Erkidegotik kanpoko Europatik eta, neurri txikiagoan, Magrebetik etorri diren atzerritarrak izan dira, hain zuzen ere, kontratuak beren biztanleria potentzialaren azpitik igo dituztenak. Prozesu honetan onura gehien dituen biztanleria, zalantzarik gabe, latinoamerikarren taldea da, kontratuen kopuruko igoerak ia bikoiztu egin baitu EAEn dauden biztanleen hazkundera edo presentzia.

23. taula. Biztanleei egindako kontratu-kopuruaren igoerari buruzko tasaren eta EAEn atzerritar talde batzuek izandako hazkunderari buruzko tasaren arteko aldea, 2001-2008 aldian, jatorriaren arabera

| JATORRIA | Kontratu-kopuruaren igoerari buruzko tasa (%) | Biztanle-hazkunderari buruzko tasa (%) | Kontratu-kopuruaren igoerari buruzko tasaren eta biztanle-hazkunderari buruzko tasaren arteko aldea (%) |
|----------------------------|---|--|---|
| Erkidegotik kanpoko Europa | 115,04 | 431,94 | -316,90 |
| Magreb | 286,01 | 338,25 | -58,24 |
| Gainerako Afrika | 482,19 | 303,23 | 178,96 |
| Asia | 385,59 | 300,76 | 84,83 |
| Latinoamerika | 979,85 | 509,93 | 469,92 |
| GUZTIRA | 461,01 | 432,50 | 28,51 |

Iturria: EIN, bertan egina.

Gauza bera gertatzen da kontratu-motaren arabera neurtutako lan-egonkortasunarekin. Hau da, atzerritarren talde batzuk, beren jatorriaren arabera, errazago lortzen ari dira kontratu mugagabe batek eskaintzen dituen egonkortasuna eta lan, lege, gizarte eta ekonomiako estaldura, aldi baterako kontratuarekin alderatuta. Jarraian azalduko dugun taulan, 2008an atzerritarrei egin zitzaizkien 10 kontratu mugagabe bakoitzeko 6 latinoamerikarrei egin zitzaizkiela ikusi ahal izango dugu. Gainerako taldeek beren pisu erlatiboa galdu edo mantendu dute eta Magrebetik etorritako herritarren kasuan jaitsiera esanguratsua egon da.

24. taula. EAEn epe mugagabeen kontratatutako pertsonen jatorria (EAeko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan/Enpleguo Institutu Nazionalen erregistratutako/jakinarazitako kontratazioa), 2001-2008

| JATORRIA | 2001 % | 2004 % | 2006 % | 2007 % | 2008 % |
|----------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| EB | 6,38 | 3,29 | 1,77 | 2,27 | 2,12 |
| Erkidegotik kanpoko Europa | 9,61 | 8,14 | 13,63 | 3,68 | 4,04 |
| Magreb | 19,74 | 14,71 | 9,90 | 11,89 | 11,75 |
| Gainerako Afrika | 8,56 | 7,08 | 5,36 | 6,51 | 7,47 |
| Asia | 22,53 | 17,20 | 15,24 | 17,31 | 15,67 |
| Latinoamerika | 30,92 | 46,63 | 52,35 | 56,84 | 57,59 |
| Gainerako Amerika | 1,05 | 0,97 | 0,57 | 0,52 | 0,38 |
| Gainerako mundua | 0,96 | 1,43 | 0,65 | 0,81 | 0,76 |
| Herrigabeak | 0,26 | 0,55 | 0,53 | 0,18 | 0,22 |
| GUZTIRA | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Iturria: EIN, bertan egina.

Langabeziaren gaineko kopuruek ere eragin desberdin hori diagnostikatzen dute atzerritarren artean, beren jatorriaren arabera. Biztanleen kopuru osoei dagokienez, Afrikatik datozenak dira langabezia gehien jasaten dutenak, bai Magrebekoek, bai Afrikako gainerako herrialdeetatik datozen pertsonak. Gainera, alde handia dago talde afrikararen eta gainerako taldeen artean. Langabeziaren tasa erlatiboa ere handiagoa da erkidegotik kanpoko europarrentzat latinoamerikarrentzat baino.

25. taula. 2008an EAeko EINeko bulegoetan erregistratutako etorkinak, 2008an zuten biztanleriaren aldean, jatorriaren arabera (%)

| JATORRIA | Etorkinak EAEN | EINen erregistratutako etorkinak | EINen erregistratutako etorkinak, beren biztanleria-presentziarekin alderatuta (%) |
|----------------------------|----------------|----------------------------------|--|
| | 2008 | 2008 | |
| Erkidegotik kanpoko Europa | 3.431 | 332 | 9,68 |
| Magreb | 13.932 | 2.440 | 17,51 |
| Gainerako Afrika | 6.371 | 1.319 | 20,70 |
| Asia | 5.831 | 304 | 5,21 |
| Latinoamerika | 54.827 | 4.603 | 8,40 |
| GUZTIRA | 84.392 | 8.998 | 10,66 |

Iturria: EIN, bertan egina.

Laburbilduz, eta Cabrerok adierazitakoaren ildotik, EAEn ere esan dezakegu lan-merkatuan integratze-ko prozesua nabarmen onuragarriagoa dela Latinoamerikatik datozen atzerritarren kasuan, gainerako taldeekin alderatuta.

3. KAPITULUA

GIZARTE ZERBITZUETARAKO SARBIDEA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N ETA HIRUGARREN SEKTOREA

1. Kontzeptu-mugaketa

Gizarte-zerbitzuak, Casadok (2007) dioen bezala, Estatuetakoz gizarte-politikaren barruan “ongizatearen aldeko ekintzak” garatzen dituzten ongintza eta gizarte-laguntzako erakundeen menpe dagoen jarduera-adarra dira eta, Rodríguez Cabreroren (2002) hitzetan, gizarte-babeseko azken sarea osatzen dute, hau da, ongizatearen estatua sartzeko azken bidea. Gizarte Segurantzatik kanpoko babes-sistema espezifiko gisa eratzen dira, baina, era berean, erantzukizun publiko, bermatu eta unibertsala dute. Sistema antolatu honek bi helburu ditu: 1) batetik, ongizatearen estatua izenekoan lortutako kotak mantendu eta sakontzea, gaur egun oraindik ere biztanleria-sektore garrantzitsuei eragiten dieten gabezia larrien estaldurako erantzukizun publikoa eta ongizatearen estatuko oinarriak defendatzeko apustu irmoa eginez; 2) bestetik, beharizanik larrienen estaldura eta arreta bermatzea, gizartean kaltetuen eta baztertuen daudenen diskriminazio positiboaren irizpidea aplikatuz (De la Cal Barredo, 2005).

Gizarte-zerbitzuen barruan sartzen dira, funtsean, harremanetarako laguntza edo babes hurbila ematen duten prestazio ekonomiko eta teknikoak eta beste jarduera batzuk, gabeziak eta gaitasun-garapena estaltzeko, autonomia pertsonalarekin, gizarte-babesarekin eta erkidegoko integrazioarekin lotuta (Casado eta Guillén, 2005).

Giza eskubideei dagokienez, eta, zehatzago, gizarte-eskubideekin lotuta, eskubideak “zehazteko prozesuko” etapa honetan (Vicente Giménez, 2006, 43. or.) eskubide berri bat izendatzen hasi da: “gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa”. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 25.1 artikuluan ere aipatu da, honela dioenean:

“Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diona, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere”.

(1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 25.1 artikulua)

Eskubide hori 1961eko Europako Gizarte Gutunean jasotzen da zehatzago. Bertan, Europako Kontseiluko kide diren gobernu sinatzaileek, giza-eskubideak jasotzeko aukera arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, jatorri nazional edo gizarte-jatorriaren arabera bereizkeriarik gabe bermatu behar dela kontuan hartuz eta biztanle-kategoria guztien bizi-maila hobetu eta ongizatea sustatzeko ahalegin guztiak kolektiboki hedatzeko asmoz, “gizarte-zerbitzuen onuretarako eskubidea” adosten dute 14. artikuluan. Hori horrela, gizarte-zerbitzuez baliatzeko eskubidea benetan bete ahal dela bermatzeko, kontratugileek honakoa adosten dute: a) gizarte-zerbitzuen metodoak erabiliz erkidegoko banakoen eta taldeen garapena eta ongizatea sustatuko duten eta gizarte-ingurura egokitzeko laguntza emango duten zerbitzuak bultzatu eta antolatuko dira; eta b) banakoen edo ongintzako erakundeen edo bestelakoen partaidetza indartuko da, zerbitzu horiek sortu eta mantentzeko orduan.

Azkenik, 2007an Estrasburgon sinatutako Oinarritzko Eskubideen Gutunak, Lisboako Itunaren bidez Batasun osoan lotesle izaera hartu zuenak (Polonioan eta Erresuma Batuan salbu), Gizarte Segurantzako prestazioetarako eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidearen eskubidea aitortzen du 34.1 artikuluen bidez.

2. Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea Atzerritarren Legean

Beste atal batean adierazi dugunez, Atzerritarren Legeak atzerritarrek Gizarte Segurantzako prestazioetara duten sarbidea aipatzen du 10. artikuluen bidez. Atal honetan, aldiz, 14. artikuluko gizarte-zerbitzuetarako sarbideari buruzko beste artikulua bat izango dugu aztergai, “Gizarte Segurantzarako eta gizarte-zerbitzuetarako eskubidea” izenburupean. Honakoa dio:

“1. Espainian bizi diren atzerritarrek Gizarte Segurantzako zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko eskubidea dute, espainiarren baldintza berberetan.

2. Atzerritar egoiliarrek gizarte-zerbitzu eta -prestazio orokor eta oinarritakoetarako nahiz espezifikotarako eskubidea dute, espainiarren baldintza berberetan. Edonola ere, ezgaitasunen bat duten atzerritarrek, hamazortzi urte baino gutxiago badituzte eta ohiko etxebizitza Espainian badute, beren egoera fisiko edo psikoak eskatzen dituen tratamendu, zerbitzu eta zaintza bereziak jasotzeko eskubidea izango dute.

3. Atzerritarrek, beren administrazio-egoera edozein dela ere, oinarritzko gizarte-zerbitzu eta -prestazioak jasotzeko eskubidea dute”.

Artikulu honetako lehenengo atalak 10.1 artikuluen edukia errepikatzen du (Gizarte Segurantzarako sistamarako sarbidea). Ondorioz, doktrinak bereizi egiten ditu 10.1 artikulua, ordainketaren arabera prestazioetarako sarbideari buruzkoa, eta 14.1 artikulua, ordainketaren arabera ez diren prestazioei buruzkoa. Bestetik, Atzerritarren Legeko 14. artikulua bi subjektu-motari buruz hitz egiten du: batetik

atzerritar egoiliarak daude, Espainian eskaintzen diren gizarte-zerbitzu eta -prestazio orokor eta oinarritzkoetarako nahiz espezifikotarako eskubidea izango luketenak, espainiarren baldintza berberetan, eta, bestetik, atzerritar guztiak, beren administrazio-egoera edozein dela ere, oinarritzko gizarte-zerbitzu eta -prestazioetarako eskubidea soilik izango luketenak.

Doktrinak asko kritikatu duen artikulua da; zentzugabekeria izugarria dela ere adierazi da. Íñiguez Hernándezen (2000, 107. or.) arabera, lau hutsune-mota azpimarratu daitezke: beste artikulua batzuetan erabilitakoez bestelakoak diren irizpideak erabiltzen ditu eremu subjektiboa zehazteko orduan; arauketan gizarte-zerbitzu deiturikoak eta Gizarte Segurantzaren prestazioak biltzen ditu, nahastura sortuz, tratamendu bereizia jaso beharko luketen gai desberdinak baitira; ez du kontuan hartzen lehenengoen gaineko estaldura legegile eta administratiboa ez dela estatu-mailakoa, baizik eta autonomikoa eta, kasu batzuetan, tokikoa; eta, azkenik, orokorrean hitz egiten du gizarte-zerbitzuei buruz, izenburu bereko beste artikulua batzuek bertan sartu daitezkeen gaiak arautzen dituzten arren, eta, beraz, artikulua iluna eta aplikatzeko zaila da.

Azken alderdi horri dagokionez, araudi autonomikoa ere ez du izen homogeneorik zerbitzu-mota desberdinak zehazteko: oinarritzko zerbitzuak eta espezifikoa bereizten dira Gaztela eta Leonen, orokorrak eta espezializatuak Gaztela Mantxa, Madril eta Errioxan eta erkidegokoak eta espezializatuak Valentzian. EA Eren kasu zehatzean, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak prestazio ekonomiko, tekniko eta teknologikoei buruz hitz egiten du 14. artikuluan eta, 22. artikuluan, Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoari buruz hitz egitean, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak aipatzen ditu.

Atzerritarren Legearen erreformari buruzko 2/2009 Lege Organikoa onesteko prozesuan jasotako kritikak gorabehera, terminologia berdina erabili da, honakoa gehituta: minusbaliotasunen bat duten 18 urtetik beherakoek, beren administrazio-egoera edozein dela ere, Espainian badute ohiko egoitza, beren egoera fisiko edo psikikoak eskatzen dituen tratamendu, zerbitzu eta zaintza bereziak jasotzeko eskubidea izango dute. Artikulu honen zuzenketa desberdinetan talde hori sartze aldera azaldu den arrazoa adingabe horien egoera lazgarria izan da, ofizialki ez baitzitzaie beren minusbaliotasun-maila aitortzen, ez zirelako legezko egoiliarak. Zuzenketa horietan adierazitako beste proposamen bat zera zen, genero-indarkeriaren biktima izan diren eta administrazio-egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek artikulu horretan sartzea, ezin baitute Gizarteratzeko Errenta Aktiboa eskuratu, ezin dutelako enplegurik eskatu, Erkidegotik kanpoko langile atzerritarrek enpleguko zerbitzu publikoetan eta lanpostu-agentzietan izena emateko duten aukera arautzen duen Lan eta Gizarte Gaiaren azaroaren 22ko 3698/2006 Aginduan berariaz azaldutakoari jarraiki (291. zenbakidun BOE, 06-12-06koa). Azken proposamen hori ez da onartu eta iluntasun terminologikoa ondorio nabarmenak eragiten jarraitzen du zigortzailea bezalako alderdi erabakigarrietan.

2.1. “Oinarritzko prestazioaren” kontzepturako hurbilketa

Eremu autonomikoan atzerritarren araudiko oinarritzko prestazioaren kontzeptura gehien hurbiltzen den prestazio-mota zehazte aldera, gizarteratzeko gutxieneko errentak aipa ditzakegu, araudi autonomiko desberdinetan gizarte-soldata, gutxieneko diru-sarreraren subsidioa, eta abar izena dutenak. Nolanahi ere, prestazio-mota honetan legedi autonomiko desberdinen artean dauden aldeak azpimarratzea garrantzitsua da. Horretaz arduratu da Miguel Laparra (2009), Euskadiz gain Nafarroan, Madrilen eta Asturiasen kontzepzio bereizia dagoela adieraztean.

Doktrinaren eztabaidarekin jarraituz, Sánchez Jiménezek (2005, 456. or.) Enplugues Mota eta De Lorenzo Segrelles (2001) eta Moreno Pérez (2001, 264. or.) aipatzen ditu, gizarteratzeko gutxienezko errentak bizi-

rauteko oinarrizkoak direla eta beraz oinarrizko prestazioen barruan sartu beharko lirатеkeela defendatzen dutenen artean. Honakoa diote: “Atzerritarren Legeko 14.3 artikuluan erabilitako «oinarrizko prestazioak» kontzeptu ilun eta anbiguoari buruzko interpretazio ebolutibo eta teleologiko egokiari esker, eta bortxakeria eta boluntarismo hermeneutikorik gabe, erraz atera daiteke ondorio hau: Gizarte zibilizatu eta ekonomikoki garatu batean, bizirauteko gutxieneko errenta baino oinarrizkoagoa den zerbitzu publikoko prestaziorik *ba al dago?*”. Bestalde, Fernández Orrico (2002) eta Mecader Uguinak (2001), besteak beste, errenta horiek atzerritar erregularrek baino ez lituzketela jaso behar adierazten dute. Horren harira, errenten edukia eta aplikazio-eremua lurraldean nolabait finkatuta dauden egoiliarrei zuzenduta daudela azaltzen dute.

Atzerritarren arauko oinarrizko prestazioen barruan gizarteratzeko gutxieneko errentak sartzen ote diren ala ez zehazteko orduan irizpide argirik ez dagoenez, autonomia-erkidego batzuek prestazio horiek aitortzen dizkiete administrazio-egoera irregularran dauden atzerritarrei eta beste batzuek ez. Ondorioz, berdintasunaren printzipioa urratzen da. Hausnarketa horren ildotik, aipatu beharra dago autonomia-erkidego bakoitzak gizarte-zerbitzuen alorrean duen araudi espezifikoak ez duela berariaz aipatzen eskubide horren aitortza; horren orde, nazioarteko itun edo hitzarmenetan edo indarreko legedian orokorrean adierazitakoa hartzen du oinarriztat edo oinarrizkoaz bestelakoa den premiazko arreta jasotzen du. Jarraian, oraintsu onetsitako lege batzuetan jasotako adibide batzuk aztertuko ditugu.

GALIZIA. Galiziako gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 3ko 13/2008 Legea. 5. artikulua. Gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskubidearen titularrak.

“1. Galiziako gizarte-zerbitzuen sistemara sartzeko eskubidea izango dute Galiziako udalen batean erroldatuta dauden Europar Batasuneko estatu-kideetako herritarrek, eta sistemako programa, zerbitzu eta prestazio desberdinetan parte hartzeko eskubidea izango dute, beren beharrezan balorazio objektiboaren arabera.

2. Galiziako edozein udaletan erroldatuta dauden atzerritarrek Galiziako gizarte-zerbitzuetara sartzeko aukera izango dute, indarreko legedian, eta, hala badagokio, aplikagarriak diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan ezarritakoaren arabera.

3. Gainera, Lege honetan araututako prestazio eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea izango dute aurreko kasuetan egon ez arren beharrezan-egoeran edo larrialdi sozial edo humanitarioan daudenek”.

ARAGOI. Aragoiko gizarte-zerbitzuei buruzko ekainaren 30eko 5/2009 Legea. 4. artikulua. Gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubideen titularrak.

“1. Lege honetan ezarritako gizarte-zerbitzuen sistemara sartzeko eskubidearen titularrak izango dira espainiarrak, Europar Batasuneko gainerako estatu-kideetako nazionalak eta atzerritar egoiliarak, betiere Aragoiko Autonomia Erhidegoko udalerriren batean erroldatuta badaude.

2. Aurreko atalean azaltzen ez diren eta nazionalitate espainiarra ez duten pertsonak Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko estatu-legedian, nazioarteko itunetan eta jatorrizko herrialdearekin ezartzen diren hitzarmenetan ezarritakoa bete beharko dute.

3. Edonola ere, Aragoi premiazko pertsona, familiar edo sozialean dauden pertsonak gizarte-zerbitzuen sistemako prestazioak eskuratu ahal izango dituzte, egoera horri arreta emateko. Egoera gizarte-zerbitzuetako profesionalek baloratuko dute, larritasun, eskastasun eta premiaren arabera”.

KATALUNIA. Gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 11ko 12/2007 Legea. 6. artikulua. Gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskubidearen titularrak.

“1. Gizarte-zerbitzuen sistema publikora sartzeko eskubidearen titularrak dira Kataluniako udalerriren batean errolatuta dauden Europar Batasuneko estatu-kideetako herritarrak.

2. Gizarte-zerbitzuen sistema publikora sartu ahalko dira 2. atalean zehaztutako baldintza betetzen ez duten pertsonak, baldin eta oinarrizko beharizan pertsonalen bat badute, atzerritarren gaineko legedian ezarritakoaren arabera”.

ERRIOXA. Errioxako gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 22ko 7/2009 Legea. 5. artikulua. Gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskubidearen titularrak.

“1. Lege honetan ezarritako gizarte-zerbitzuen Errioxako Sistema Publikora jotzeko eskubidearen titularrak izango dira Errioxako udalerriren batean bizi diren Europar Batasuneko estatu-kideetako nazionalak, bai eta legezko egoitza Errioxan duten atzerritarrak ere.

2. Legezko egoitzarik ez duten atzerritarrek Zerbitzu eta Prestazioen Katalogoan aitortutako lehen mailako zerbitzuak jasotzeko eskubidea izango dute, haurrak babesteko eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko babes-eremuan ezartzen diren zerbitzuez gain”.

GAZTELA MANTXA. Gaztela Mantxako gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 16ko 14/2010 Legea. 2. artikulua. Eskubidearen titularrak.

“Gizarte-babeserako eskubidearen titularrak dira, Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren esparruan:

a) Gaztela Mantxako Autonomia Erkidegoaren lurraldean bizi diren egoiliar guztiak. Ondorio horietarako, egoiliar-izaera hori egiaztatu beharko da, gizarte-txartelaren bidez, edo, halakorik izan ezean, eskualdeko udalerriren batean errolatuta egotea egiaztatzen duen agiriren baten bidez.

b) Emigratu aurreko azken helbidea Gaztela Mantxan izan duten emigranteak, Lege honetan aitortzen diren eskubideez baliatzeko aukera behin betiko itzultzeko bidea denean, arauz xedatutakoaren arabera”.

GAZTELA ETA LEON. Gaztela eta Leongo hiriritasunaren errenta bermatua arautzen duen abuztuaren 30eko 7/2010 Legea. 2. artikulua. Ereku subjektiboa.

“Hiritasunaren errenta bermatua jasotzeko eskubidea dute, Lege honetan ezarritako modu eta baldintzetan:

a) Gaztela eta Leongo hiritar-izaera dutenek, Autonomiako Estatutuan ezarritakoren arabera.

b) Auzotasun administratiboa Gaztela eta Leongo Erkidegoan duten atzerritarrek, legedia aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan”.

Gizarte-zerbitzuen alorreko legedia autonomikoaren eremutik kanpo arauzko erreferenteren bat ezartzen saiatzeko orduan, Atzerritarren Legeak prestazio oinarrizko eta espezifikoaren artean egiten duen bereizketa hori erabiltzen dituzten bi agiri aurkitu ditugu.

Batetik, 1988an Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren eta gobernu autonomiko desberdinen (EAE-koa barne) artean sinatu zen hitzarmen-programa, tokiko korporazioetako gizarte-zerbitzuen oinarrizko prestazioak garatzeko, Olmo Fernández-Delgadok (2000) aipatu bezala. Programa honek koordinazio-tresna izaera dauka autonomia-erkidego desberdinetatik arautzen hasia zen gaian. Bertan adierazten

denez, hitzarmenaren ondorioetarako gizarte-zerbitzuen oinarriko prestaziotzat joko dira informazio eta orientaziokoak, etxeko laguntzakoak, prebentzio eta gizarteratzekoak, ostatukoak eta bizikidetzakoak.

Sánchez Jiménezek (455. or.) adierazitako bigarren erreferentziak Gizarte Zerbitzuen, Familien eta Minusbaliotasunen Estatuko Idazkaritza zaharra aipatzen du. Honakoa dio: *“oinarrizko gizarte-zerbitzuak herritar guztiei zuzendutakoak dira, beren ezaugarri sozial edo demografikoak edozein direla ere, beraz, garatzen dituzten jarduerak unibertsalak dira”*. Gaineratzen duenez, *“arretako lehen maila osatzen dute, edozein eskari edo beharriaren erantzun hurbil gisa, jarduera-eremua lurralde batera mugatzen dira -herritarrek hurbil eta erraz eskuratu ditzaten-, eta bat datoz Gizarte Zerbitzuen Zentroek beren jarduerak garatzen dituzten inguru batekin”*. Eta gizarte-zerbitzu espezializatuei dagokienez (ALko zerbitzu espezifikoen baliokideak), honakoa xedatzen du: *“Gizarte-zerbitzuen sistemako bigarren maila osatzen dute, Legean ezartzen dituen sektore zehatz eta bereziei zuzentzen zaizkie, eta bai prestazioek bai zerbitzuek xede mugatu eta zedarritua dute. Sarritan, sektore-izaera dute beren antolaketari dagokionez, biztanletalde zehatzen ezaugarri eta beharriaren berezi eta komunei ematen baitie arreta, gizarte-zerbitzu orokorren jardueren osagarri gisa. Eta berau ezartzeko, bai eta zerbitzuok planifikatu eta kokatzeko ere, beharriaren kokalekua eta banaketa bezalako irizpideak gailentzen dira”*.

Azpimarratzekoa da gizarte-prestazio bat eskuratzeko eskubideak ondorio garrantzitsuak dituela Atzeritarren Legeko atal zigortzailean. Lege horretako 57.5.d) artikulua arabera, ez zaie kanporatzeko zigorra ezarriko *“...gizarteratzen edo laneratzen laguntzeko prestazio ekonomiko publikoa jasotzen duten onuradunei”*. Administrazio-egoera irregularrean dagoen atzeritar bati kanporatzeko espedientea zabaltzen bazaio Espainian egoera irregularrean egoteagatik, gizarte-prestazioa jasotzeak galarazi egingo du berau kanporatzea. Horregatik da garrantzitsua eskubide hau zehaztea. Egun, izan ere, legedia autonomikoaren arabera, atzeritarrek (egoera irregularrean egonda ere) horrelako prestazioen bat jasotzen badu, inguruabar hori alegatu ahalko du kanporatzeko espediente baten aurka egiteko orduan.

Prestaziook, beste zerbitzu batzuetara sartzeko atea direnez, menpekota den eta ikuspuntu sozialetik ia ikusi ezin den leku instituzionala dute. Normalean, gure gizartean txiroenak diren sektoreek jotzen dute bertara, hau da, eskastasun-egoeran bizi direnek eta Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio nagusiak eskuratzeko aukerarik ez dutenek. Nahiz eta XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan zerbitzu horietara hurbiltzen diren etorkinak gutxiengo baina ez ziren, 2000. urtetik aurrera talde honen presentzia igo egin da estatu-mailako gizarte-zerbitzuetan. Igoera horren arrazoiak honakoak dira: batetik, krisi sozial eta ekonomikoan dauden herrialdeetatik etorri diren eta dagoeneko herrialdean finkatuta dauden migrazio-jarioen igoera; bestetik, administrazio-egoera irregularrean dauden biztanleekiko tratua normalizazioa, eta, azkenik, gizarte-zerbitzuetako oinarriko prestazioen aitortza, 4/2000 Legearen ondoriozko errolda-ziurtagirien bidez.

3. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaile den biztanleriaren profil sozial eta demografikoak: normalizazioari buruzko eztabaidak eta eskari espezifikoak

Montagud eta Torresek (2002) ikerketa bat egin zuten Valentzian gizarte-zerbitzuak erabiltzen zituzten etorkinen profilari buruz, bai eta horrek planteatzen zituen eskariei eta aurkitzen ziren irisgarritasun-zailtasunei buruz. Adierazi dutenez, administrazio-egoerari dagokionez, eta 4/2000 Legeari eta egindako bi erregularizazio-prozesuei buruzko eztabaidatik abiatuta, ohikoa da gizarte-zerbitzuetan administrazio-egoera irregularra duten biztanleak egotea, eta, horrek, egileen ustez, “normalizatorako” faktore bat osatzen du. Gizarte-zerbitzuetako baliabide publikoetarako sarbidea eta tratamendua normalizatzeko joerak apurka-apurka erabilerarekiko beldurra eta prebentzioa ezabatu ditu, eta, horri esker, administrazio-kontrolerako agente gisa ikustetik, baliabide ireki gisa ikustera pasa dira, administrazio-egoera edozein dela ere.

Jatorrizko nazionalitateari dagokionez, azterlanean Latinoamerikako herritarrak agertzen dira gizarte-zerbitzuetan ordezkariak handiena duten talde gisa, Ekialdeko Europatik datozenekin batera. Egileek antzeman dutena, hala ere, Magreb, Sahara azpiko Afrika eta Txinako biztanleen ordezkariak urria da. Azpi-ordezkariak hori azaltzeko aipatzen diren arrazoiak honakoak dira: a) Latinoamerikako biztanleena baino profil maskulinoagoa eta karga familiar gutxiagorekin; b) gizartean eta kulturaren errotutako arrazoiak, zeintzuen arabera gizarte-zerbitzuetara jotzea ez den jatorrizko kulturako ohitura eta gizarte-beharrizanak eta zailtasun ekonomikoak hobeto ebazten diren familia hedatuen eta gizarte-sare propioan; c) gizarte-zerbitzuetako prozedura burokratiko eta administratiboari buruzko disfunczioak eta gaizki-ultuak, eta abar. Gainera, egileek azpi-ordezkariak honen atzean generoaren kontua egon daitekeela diote. Adierazi dutenez, gizarte eta kulturako errealitate batzuetan, oraindik ere indar handia du gizonak administrazio-harremanetan izan behar duen rola eta rol horrek gatazkak sor ditzake gizarte-zerbitzuetako administrazioko langileria gehiena osatzen duten emakumeekin, erabiltzailearen eta profesionalaren arteko harremanean, nolabaiteko mendetasun hierarkikoa duen harreman pertsonalean oinarrituta.

Ildo horretatik, talde bakoitzaren jatorria, jatorrizko kultura eta gizarteratze- eta soziabilitate-mota garrantzia handiko faktore diskriminatzaileak dira, gizarte-zerbitzuetara sartzeko orduan. Gizarte-sareak eta elkartasun-harremanak (erkidego-funtzionamendun pisu partekatuek, erkidego-sistema, ekonomia informaleko sistema eta bizirauteko beste erkidego-estrategia batzuk, besteak beste) gizarte-zerbitzuak erabiltzearen alternatiba gisa jotzen dira talde horien artean (Magreb, Sahara azpiko Afrika edo Txinatik datozenak). Asiatik datozen etorkinen kasuan, adibidez, arazo pertsonal baten ondorioz estres-egoera bati aurre egin behar badiote, beren ohiko estrategia beren kabuz konpontzea da, lagun edo senideengana jo aurretik. Ondorioz, gizarte-zerbitzuak oso gutxitan erabiltzen dituzte, erkidegoko lider edo zaharregana jo ondorengo azken baliabide gisa soilik (Zhang, Snowden eta Sue, 1998). Afrikako etorkinen kasuan, bestetik, lehenengo eta behin senide eta lagunengana jotzen dute eta ongizate pertsonala lortzeko orduan eragin hobea izaten dute (Martínez García et al., 1996; Maya et al., 1999; Martínez García et al., 2000).

Etorkinek gizarte-zerbitzuetan egiten dituzten eskariei dagokionez, Montagud eta Torresen azterlanak baliabide ekonomikoen falta azpimarratzen du. Hori dela eta, etorkinek laguntza ekonomiko zehaztu gabeak eskatzen dituzte, aurretik aholkularitza eman dien sare bat duten pertsonen kasuan salbu. Horiek prestazio ekonomiko zehatzagoak eskatzen dituzte. Laguntza ekonomikoak sarritan etxebizitza-beharrizanetarako izaten dira eta etxebizitza horiek, gehienetan, partekatuek edota azpi alokatuek dira. Alokairu-kontratuko titulartasunari dagokionez, gizarte-zerbitzuen eskutik eskatzen diren laguntzak eman ahal izateko, desegokitasun argia planteatu ohi da beharrizan eta prestazioen artean. Izan ere, gutxitan dator bat kontratuko titulartasuna laguntzaren beharrizan- eta eskari-egoerarekin.

Hori horrela, nahiz eta gizarte-zerbitzuak diren ongizatearen estatura sartzeko biderik malguenak, malgutasun hori ez da beti etorkinen errealitateara egokitzen eta biztanleria horrek autoktonoek baino arazo gehiago jasaten ditu gizarte-zerbitzuetara modu normalizatuan jotzeko orduan. Azterlan desberdinen arabera, gutxiengo etnikoek gutxiagotan jotzen dute gizarte-zerbitzuetara eta, beraz, gutxiago erabiltzen dituzte (Frank eta Faux, 1990; Griffith, 1984; Leslie, 1992; Mui, 1996; Zhang, Snowden eta Sue, 1998).

Espainiako biztanleek ezagutza eskasa dute gizarte-zerbitzuei buruz (Cabezas, Vieto eta Aznar, 1996), baina etorkinen kasuan, informazio-defizitez gain, zerbitzuen erabiltzaileen artean ordezkariak duten portzentajea biztanlerian duten presentziaren azpitik egon ohi da. Kulturalki anitzagoak diren gutxiengoak “mateo efektua” izenekoaren eraginpean egongo lirakeke gizarte-zerbitzuetan, hau da, erraztasun handiagoz joko lukete prestazioetara informazio hobea, sare egituratuagoa edo eskumen pertsonal gehiago dituztenek. Hori horrela, paradoxikoki, beharrizan handiagoak dituztenek oztopo gehiago dituzte egoera hobean daudenean baino. Ildo horretatik, dirudienek gutxiago erabiltzeak ez du esan nahi beharrizana baxuagoa denik, baizik eta beste faktore batzuek esku hartzen dutela zerbitzuetara jotzeko orduan.

Etorkinen espezifikotasunek eztabaida interesgarria planteatu dute “aniztasunetik normaltasuna lortzeak” eragiten dituen zailtasunen inguruan. Etorkinek biztanle-sektore homogenea osatzen dute gizarte-sarera sartzeari dagokionez, hau da, harrera-erkidegoak etorkinen gainean duen ideari dagokionez. Hala ere, etnia, kultura eta nazionalitateek osatzen duten aniztasuna kontuan hartu beharra dago, eta, batzuetan, erabakigarria izan daiteke esku hartzeko aukeratarako. Gehien aztertu den oztopoetako bat idiomatikoa izan da, nahiz eta badakigun ez dela nahikoa hitzak ulertzea; horien zentzua ulertu beharra baitago. Pertsona etorkin batek laguntza ekonomiko bat eskuratzeko aukera edo ezintasuna ondo ulertzea garrantzitsua den bezala, besteak beste, zerbitzu horietako langileek etorkinek planteatzen dizkieten beharrianak eta beren benetako egoera psikosozial, familiar eta juridikoa ondo ulertzea ere funtsezkoa da. Oztopo horiez gain, gizarte eta kulturako faktoreek eta jokamoldeek sortzen dituzten zailtasunak ere kontuan hartu behar dira, hau da: Administrazioarekiko eta beren profesionalerekiko harreman-moduak eta ohiturak, ugalketa-kulturaren eta genero-harremanen desberdintasunak (lehen ere azaldu den bezala), adingabeen arreta egokia zer den bakoitzarentzat, eta abar. Gizarte-zerbitzuak ez dira oso sentikorrak kultura-aniztasunarekiko eta ez dira egokiegia xede-biztanleriaren beharrianetarako (Zhang, Snowden eta Sue, 1998). Halaber, zerbitzu horien gehiegizko burokratizazioaren ondorioz, kultura arteko bitartekoen eta interpreteen figura indartu behar izan da, egoera horiek arintzen saiatzen baitira, zailtasunak zailtasun.

Bestalde, Alquézarrek (1998) dioenez, egia da etorkinen portzentaje garrantzitsu batek egoitza-egonkortasuna duela, baina egia da, era berean, beste kasu askotan, lurraldean geratzen direnen artean, etxebizitza-aldaketak, partekatzen duten pertsonen kopurua edo inguruabar pertsonalak oso aldakorak dira. Ondorioz, egoera indibidual edo familiarrei aurre egin behar zaienean, ezin dira egonkortasunaren ikuspuntutik erreparatu, egoera zirkunstantzial gisa baizik, eta, horren harira, esku hartzeko tresnen berehalako eskuragarritasuna eta presazko arreta kontuan hartu beharreko alderdiak dira, zerbitzuon garapenari dagokionez. Gizarte-zerbitzuen sistema lurralde bateko egoitza-aldia edo errola bezalako irizpideen inguruan kokatzen denez, inguruabar horrek muga handiak eragiten ditu baliabide eskuragarriak aplikatzeko orduan, ez soilik atzerriko etorkinei, baita lurralde zehatz baten egoitza egonkorraren baldintza betetzen ez duen edozein pertsona edo familiari ere. Ondorioz, egoera zirkunstantzial bat da eta herri batean dauden pertsonak baztertu egiten dira. Mugikortasun altuak gizarteratze-prozesuen eraginkortasuna eta prestazio ekonomikoetarako sarbidea eragozten ditu, normalean lurraldeko egonkortasunarekin lotuta daude eta.

Azkenik, gizarte-zerbitzuen aurrekontu-mugak ere zerbitzuetara jotzeko arrisku-faktore gisa identifikatu dira, baina, batez ere, gizarte-behar larriak dauden biztanle autoktonoekiko baliabide-lehiatik eratorritako arriskuei eta horrek sor ditzakeen arrazakeria-arriskuei dagokienez. Halaber, kontuan hartu behar da bazterkeria- eta gaitzespen-sentimenduak ez direla biztanle autoktonoen ondarea soilik; talde batzuetako kideen eta beste kide batzuen artean ere ageri daitezke. Hori dela eta, talde horiek integratzeko dituzten zailtasunei (harrera-erkidegoan onartuak edo baztertuak izatearekin lotuta) aurre egiteko beharrianak planteatu da, gizarte-zerbitzuek tolerantzia, elkartasuna eta bizikidetzaren bezalako baloreak sustatzeko hartu behar duten rolaekin batera.

4. Gizarte-zerbitzuak EAEn

4.1. Araudi-aurrekariak

EAEko gizarte-zerbitzuei buruzko lehenengo legea 1982ko maiatzaren 20an onetsi zen eta gizarte-zerbitzuen hasierako sistema bat arautzea zuen xede. 1984an, Txirotasunaren aurka Borrokatzeko Plana onestean, indartu egin zen. Bestalde, 1989ko gizarte-zerbitzuen mapak oinarritzko gizarte-zerbitzuak planifikatzeko tresna gisa finkatzen dira.

Lehenengo arau honen ostean Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea etorri zen. Horrek lehenengo aldiz sartu zituen unibertsaltasunaren eta arreta pertsonalizatuaren printzipioak, lege-mailan.

Lege-ibilbide horretan, eta antolaketa-eremuaren barruan, gizarte-zerbitzuen alorrean funtzioak zehazteari buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua azpimarratu behar da. Helburua gai horren gaineko eskumenak erakunde autonomikoaren eta hiru aldundien artean banatzeko modua argitzea zen, bi printzipiotan oinarrituta: jarduera-unitatea eta mendetasun-maila. Hori horrela, aldundiak 60 urtetik gorako mendeko pertsonen eta adin horietatik beherako minusbaliotasundun pertsonen zaintzaz arduratuko ziren, eta, udalek, aldiz, mendetasunik gabeko pertsonen ardura izango zuten. Egindako ahaleginak eta dekretu honen onespenez lortutako adostasunak gorabehera, gizarte-zerbitzuen sistemaren konplexutasunak ito egin ditu, neurri batean, ezarritako helburuak.

Eskubideak aitortzeko eremuan, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea azpimarratu behar da, legegintza-ekimen herrikoiaren bidez onartua. Horren bertute nagusia “Oinarrizko Errentaren” kontzeptua herritar guztiei berariaz eta argi zuzendutako prestazio gisa sartzea da. 6. artikulua honakoa dio: “*Euskal Autonomia Erkideko udalerrietako edozeinetan erroldatutako pertsonak*”. Artikulu hori, hala ere, indargabetuta dago egun, Diru-sarrerak bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legea onetsi ondoren.

4.2. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera, ongizatearen estatu “*moderno, aurreratu eta bermatzailean*” oinarritzen da, kudeaketa eta koordinaziorako tresnak dituela, hiru administrazio-maila eskudunen arteko antolaketa bermatzeko, hirugarren sektorearekiko lankidetzaz indartzeko, babeserako sare informalak eusteko, ukitutako pertsonen partaidetza antolatua sustatzeko, sistemen artean (gizarte-osasuna, gizarte-lana, gizarte-egoitza, Gizarte-hezkuntza, gizarte-justizia, gizarte-kultura eta beste batzuk) koordinazio eta lankidetzarako espazioak osatzeko eta biztanle guztiek hiritartasun osoa izan, gizarte-justizia sustatu eta bazterkeriaren egitura-kausak jorratuko dituen gizarte-politika garatzeko.

EAEko gizarte-zerbitzuek prestazio tekniko, ekonomiko eta teknologikoak kudeatzen dituzte. Prestazio teknikotzat jotzen dira informazioa, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa, bitartekotza, etxeko arreta, arreta pertsonala, gizarte, hezkuntza eta psikologiako esku-hartzea, gizarte-laguntza eta gizarteko arreta juridikoa xede dutenak. Prestazio ekonomikoak pertsona edo bizikidetzaz-unitateei une jakin batean edo lantzean behin egiten zaizkien diru-entregak dira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako funtsezko helburuak lortzeko. Honakoak sartzen dira barruan (16.2):

- “a) gizarteratzea edota autonomia errazteko prestazioak, bai eta larrialdiko edo gizarte-premiako, mendetasuneko edo babes-gabeziako egoeren ondorio ekonomikoak estali edo arintzekoak ere;*
- b) gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babestu eta konpentsatzeko prestazioak, era autonomoan moldatzeko eta gizarteratzeko babesa behar duten pertsonak zaintzeaz arduratzen diren familientzat;*
- c) laguntza tekniko berreskurazinetara jotzen laguntzeko prestazio teknologikoak lortzeko edo ohiko bizikidetzaz-inguruan egokitzapenak egiteko banakako prestazioak;*
- d) zerbitzu pertsonalekin lotutako banakako prestazioak, erabiltzaileak erabili ahal dituen baina aldi batez sarbidea bermatu ezin duten gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen*

Katalogoko prestazio edo zerbitzuaren ezaugarri antzekoak dituen prestazio edo zerbitzu bat lortzeko erraztasunak emate aldera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarik kanpo; eta

e) gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko xedeen barruan ezar daitezkeen beste prestazio ekonomiko batzuk. Azkenik, prestazio teknologikoen barruan sartzen dira laguntza teknikoak errazteko eta inguru fisikoan egokitzapenak egiteko xedea dutenak, erabiltzaileen ohiko bizilekuan eskuragarritasun-oztopoak ezabatze aldera”.

12/2008 Legeko 1. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera unibertsala aitortzen du eta, adierazten duenez, elementu nagusia gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aitortzea da, hiritartasun-eskubide legez. Eskubide hau aitortzen zaie “*Euskal Autonomia Erkidego udalerrietako edozeinetan legez eta benetan bizi diren eta erroldatuta dauden pertsonak*”. Sarbidea eskatu aurreko 12 hilabeteetan zehar era jarraituan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren pertsonak ere aplikatzen zaie. Euskal administrazio publikoari aurretiazko erroldako epe luzeagoak eta beste betekizun osagarri batzuk ezartzeko aukera ematen die. Halaber, Autonomia Erkidegoan dauden baina errolda-betekizunak betetzen ez dituzten pertsonak informazio, balorazio, diagnostiko eta orientaziorako zerbitzuetara jo ahalko dute, Legean ezarritakoaren arabera.

Gizarte-zerbitzuen gaineko eskumen autonomikoa, orokorrean, Euskadiko Autonomia Estatutuko 9.2 artikulua ezartzen duen betebeharrean kokatzen da. Izan ere, artikulua horren arabera, euskal botere publikoek pertsonen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak izateko baldintzak sustatu eta oztopoak ezabatzeko neurriak hartu behar dituzte. Euskal administrazio publikoaren arteko eskumena banaketa, bestalde, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezartzen da. Legeak foru-organoei esleitzen die beren lurraldearen barruan erakunde komunak araudia betearazteko ardura, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak zuzentzeko ekintzari kalterik eragin gabe. Berezitasun horren ondorioz, gizarte-zerbitzuen gaineko eskumena hiru administrazio-mailatan bana daiteke: maila autonomikoan, foralean eta tokikoan.

4.3. Diru-sarrerak bermatzeari buruzko 13/2008 Legea

Prestazioen gaineko funtsezko beste araua abenduaren 23ko 13/2008 Legea da, Diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzkoa. Indarrean dagoen lege horrek indargabetu egin zituen Gizarte-bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Giza Eskubideen Gutuneko 6, 7 eta 8. artikulua.

Bi lege luze horien edukitik etorkinak gizarte-zerbitzuetara eta prestazioetara jotzeko duten aukerarekin lotutako alderdiak baino ez ditugu landuko. Hasteko, 12/2008 Legeko 3. artikulua gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen titularrak zeintzuk diren zehazten du:

“1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legeko eta benetako bizilekua bertan badute.

2. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira sistemaz baliatu ahal izateko eskubidea egin aurre-aurreko 12 hilabete jarraituetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon direla eta benetako bizilekua bertan izan dutela egiaztatzen duten pertsonak”.

Lehenengo irakurketa eginda ikus dezakegunez, goian aztertu ditugun beste arau autonomiko batzuek ez bezala, euskal legeak ez ditu nazioarteko hitzarmenak aipatzen atzerritarrek gizarte-zerbitzuetara duten

sarbidea zehazteko orduan. Talde hori berariaz aipatzen ez duenez, egindako interpretazioak honako bi betekizunak bereiztera eraman gaitu: artikuluko lehenengo paragrafoan aipatutako *“errolldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute”* eta bigarren paragrafoan aipatutako *“errolldatuta egon direla eta benetako bizilekua bertan izan dutela”*. Hori horrela, bigarren paragrafo hori egoera irregularrean dauden atzerritarrei buruz ari dela esan genezake, hau da, legezko egoitzarik ez dutenei buruz, eta, beraz, benetako bizilekua izan behar dute eta 12 hilabete aurretik errolldatuta egon behar dute. Hala ere, legeak ez du zehazten zer den *“benetako bizilekua”* edo egoitza. Horretarako, babes ofizialeko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurzuaren alorreko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 18.4 artikulura jo beharra dago. Honakoa dio: *“Benetako egoitza errolldaren helbidekoa dela ondorioztatuko da, kontrakorik frogatu ezean. Ondorio horietarako, Dekretu honetako 2.2 artikuluan ohiko etxebizitza iraunkorrari buruz adierazitako kontzeptua joko da benetako egoitzatzat”*. Era berean, 2.2 artikulua honela zehazten du ohiko etxebizitza iraunkorra: *“bizikideen etxebizitza-beharrizanak modu zuzen eta berehalakoan asetzen dituen, eta, gainera, legezko helbidea dena, eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko lekua denez gero”*. Artikulu horrek honakoa gaineratzen du: *“etxebizitza jakin batek ohiko helbide izateari utzi diola ondorioztatuko da, baldin eta 3 hilabete jarraituz okupaturik gabe badago, etxebizitza horrek ohikoa eta iraunkorra izaten jarraitzen duen egiaztatu ahal izateko kausa justifikaturik gabe”*.

Errodatze-aldiei dagokienez, arauak aldi luzeagoak eskatzen ditu zerbitzu jakin batzuetarako, besteak beste, etxeko laguntza-zerbitzu, ostatu-zerbitzu, eguneko zentro eta abarretarako, bai eta prestazio ekonomikoetarako ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa arautzen duen 22. artikuluko 1.2, 1.9, 2.2, 2.3, 2.4, 2.5, 2.7.2 eta 3. atalei jarraiki, hurrenez hurren. Hori horrela, ezin da aurretiazko erroldatzeari buruzko betekizun osagarririk ezarri, aipatutako katalogoko beste zerbitzu batzuetan. Azken hori azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, gizarte-zerbitzuen sail eta katalogoak (lan hau idazterakoan egiteke daudenak) ezingo dutelako artikulua honetan ezarritakoez bestelako sarbide-betekizunik ezarri.

Orain arte aztertutakoa laburbilduz, gizarte-zerbitzuen sarbidea ezartzen duen artikulua idazkuntza aurreko 1996ko Legekoa baino ilunagoa eta nahasiagoa dela azpimarratu behar da. Izan ere, legezko eta benetako egoitza bereizten ditu eta gizarte-zerbitzuen katalogoari buruzko araudiaren geroko garapenaren menpe uzten du administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen Lege honetan araututako zerbitzu guztietara duten sarbidea indargabetzeko betekizunak sartzeko aukera.

18/2008 Legeari dagokionez, ez du titulartasun orokorrik ezartzen; horren ordez, prestazio bakoitza aztertu beharra dago. Hori horrela, 16. artikulua honakoa xedatzen du, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez: *“Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titular izan ahalko dira, Lege honetan modalitate bakoitzerako aurreikusitako baldintzetan, honako betekizunak batzen dituzten pertsonak:*

a) Bizikidetzaren unitate bat eratzea, arauz zehazten diren aurrerapena eta salbuespenak kontuan hartuta.
b) Prestazioa eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta benetako egoitza edukitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetako egoitza edukitzea eskabidea aurkeztu den data baino gutxienez urtebete lehenago.

Aurretiazko gutxienerako aldi hori betetzen ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon eta benetako egoitza izan beharko dute aurreko hamar urteetako bost urte jarraituz”.

Ikus dezakegun bezala, *“benetako egoitzaren”* kontzeptua erabili da berriz, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean bezala, legezko eta legez kanpoko egoitzaren artean bereizkeriarik egin gabe. 18/2008 Legeak garatzen duen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE) buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 9.2 artikulua benetako egoitzaren kontzeptua errepikatzen du. Gure azterlanaren xedeari dagokionez, 147/2010 Dekretu horretako 5.1 artikulua azpimarratu behar da. Izan ere, *“bizikidetzaren unitate”* zer jotzen den zehazteko orduan, ezkontidea baztertzen du unitate horretatik, etorkinen kasuan, baldin eta

pertsona hori ez bada estatuko lurralderen batean bizi, eta, betiere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren al-deko txostena jaso bada. Dena dela, dekretuak, idazkuntza nahiko nahasian, bizikidetzaren unitatea hamabi hilabetez mantentzeko aukera ahalbidetzen duela dirudi, salbuespen kasuetan beste hamabi hilabetez luza daitekeelarik.

Etxebizitzaren prestazio osagarriari dagokionez (29. art), DBE baten titular direnek lor dezakete prestazio hori eta ez du interpretazio-arazorik planteatzen. Etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 12ko 2/2010 Dekretuak ere ez du horren gaineko berrikuntzarik aipatzen. Gizarte-behar larrietarako laguntzen kasuan (44. art.), benetako egoitzaren betekizuna eskatzen da berriz eta diru-laguntza bat dela adierazten da, hau da, ezin dela eskubide subjektibo gisa eskatu. Benetako egoitzaren betekizuna Gizarte-behar Larrietarako Laguntzei buruzko urtarilaren 18ko 4/2011 Dekretuko 4. artikuluan errepikatzen da.

Orokorrean, ezin dugu esan egungo araudia aurrerapen bat denik 1988ko aurrekoaren aldean, batez ere kontuan hartzen badugu 18/2008 Legeak indargabetu egin dituela Gizarte Zerbitzuen Gutuneko 6, 7 eta 8. artikulua, eta, bereziki, 6. artikulua, berariaz eta modu argian Oinarrizko Errenta eskuratzeko betekizun bakarra erroldatzea zela adierazten zuena.

5. Hirugarren sektorea eta etorkinak

Udaletako gizarte-zerbitzu publikoekin batera, gizarte-ekintzaren eremuan eta etorkinekiko lan eta ekintzaren eremu espezifikoa lan garrantzitsua egiten duten gizarte zibileko erakundeak ere badaude. Solanesek (2006, 37. or.) dioen bezala, kontuan hartzen baditugu Administrazioak gizartean eskatzen diren eskari guztiei erantzuteko dituen zailtasunak, ez da harrizkoa estatuaren eta gizarte zibilaren artean komunikaziorako eta harremanetarako bideak ezartzea. Hirugarren sektorea osatzen duten erakundeen barruan, hau da, eremu publiko eta pribatuak ez diren erakundeen barruan, heterogeneotasun handia dago immigrazioaren eremuan, administrazio publiko, eliza eta sindikatuekin harreman estua duten erakundeetatik hasi eta hiritarren, auzokideen eta abarren elkartasunarekin lotzen diren horietara arte. (Mollevi, 2002, 481-485 or.).

Administrazio desberdinen jardura osatuz, hirugarren sektoreak garrantzia berezia lortu du etorkinen zerbitzuak eta prestazioak kudeatzeko orduan. Bai tokiko eremuan, bai autonomikoan, hainbat lankidetzaren hitzarmen sinatu dira gizarte-zerbitzuen kudeaketan parte hartzen duten erakunde, elkarte eta organizazioekin, nahiz eta lankidetzen mugaketa ez den beti formala eta argia (Solanes, 2006, 42. or.).

Bestalde, gizarte-zerbitzuetako zentro pribatuek funtzio erabakigarria dute beharriari eta eskariei erantzuteko orduan eta gero etorkinak gizarte-zerbitzuetara orientatzeko orduan. Hori horrela, eremu publiko eta pribatuaren baterako jardura honetan (formala edota informala), hirugarren sektoreak beregain hartzen duen funtzio garrantzitsuenetako bat etorkinari informazioa eta lehenengo harrera ematearena da. Gainera, erakundeek lan garrantzitsua egiten dute zerbitzu juridikoak ematen, besteak beste, erregularizaziorako, familia batzeko prozeduretarako eta abarretarako legezko bideen gaineko aholkularitza, bai eta gizarte-zerbitzu erlatiboak ematen ere, adibidez, eskubide eta prestazio batzuetarako sarbidea.

Ramírez de Mingok (2004) adierazi duenez, harrera-fasean, informazioa hedatu eta helarazteko duen garrantziagatik, gizarte-ekimeneko erakundeak izan dira protagonista nagusiak. Etorkin askok badakite Caritas, UGT, CCOO, Gurutze Gorria... bezalako erakundeak daudela eta horietara jotzen dute lehendabizi. Beste baliabide publiko batzuek, gizarte-zerbitzu orokorren sareak edo osasun-zentroetako gizarte-langileek, adibidez, eragin garrantzitsua dute, baina nahiko murriztagoa.

Halaber, Costa del Solen afrikarrek eta asiarrak gizarte-zerbitzuen gainean zuten ezagutzari eta horien erabilera-ereduei buruz egindako azterlan batean (Maya, 1999), ezagutza hori nahiko mugatua zela

egiaztatu zen. Elkarrizketatutako pertsonen %20 baino zen gai etorkinei zerbitzuak ematen dizkien 3 edo 4 erakunde bat-batean aipatzeko, eta are murriztagoa zen udaletako gizarte-zerbitzuetan eskainitako prestazio zehatzen bat zerrendatzeko gai zirenen taldea. Erakunderik ezagunenak Gurutze Gorria eta Eliza katolikoa ziren. Azterlanetik ondorioztatu daitekeenez, eremu publikoan zerbitzu horiek dauden arren, etorkinek erraztasun handiagoz pentsatzen dute hirugarren sektoreko erakundeengan, harrera-beharrizanen baten aurrean erantzuteko gizarte-agente gisa.

Hirugarren sektoreko gizarte-erakundeetara hurbiltzen diren etorkinei buruzko ikerketa berrietan (Martínez de Taboada, Arnosó eta Elgorriaga, 2006, 2008), egoera desberdinak bereizi ziren jokamolde psikosozialaren, kontrolaren pertzepzioaren eta gizarte-baliabideetarako sarbidearen arabera, horrek gizarte-autonomia handiagoa edo txikiagoa eragiten duelarik. Horren harira, honakoak bereizi ziren: a) desorientazio eta hauskortasun handiagoa islatzen zuten pertsonak, beren jokamoldea mendetasuna zela (harrerako gizarte-zerbitzuetara jotzen duten biztanleen profila); b) orientazio eta indar handiagoko pertsonak, jokamolde aktiboagoa zutenak eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua garatzeko laguntza bilatzen zutenak; eta c) beren egoerari zuzenean aurre egiteko jokamoldea zuten pertsonak, laguntzako gizarte-zerbitzuen menpe ez zeudenak eta gizartean autonomoak izatea lortzen zutenak (autonomia).

EAEren testuinguruan egindako geroagoko beste azterlan batzuetan (Arnosó, Martínez de Taboada, Elgorriaga eta Otero, 2007; Martínez de Taboada, Arnosó eta Elgorriaga, 2008), 2003, 2005 eta 2007an Gipuzkoako Gurutze Gorriko harrera-zerbitzuetara joan ziren etorkinen jarioak aztertu ziren. Bost urte horietan zehar egondako aldaketei esker, migrazio-proiektuaren bilakaera edo geldialdia nahiz laguntza-programetan egiten dituzten berariazko eskariak azaltzen dituzten aldagaiak zehaztu ahal izan dira.

Etorkinen ezaugarri sozial, demografiko eta pertsonalen harira, harrera-zerbitzuetan profil gaztea antzeman zen eta gizonak emakumeak baino gehiago ziren, 2007an aldea aurreko urteetan baino handiagoa izanik. Jatorri komunena Magreb zen, gero Latinoamerika, eta, neurri txikiagoan, Ekialdeko Europa, Sahara azpiko herrialdeak eta Ekialde Ertaina. Horrela, harrera-zerbitzuetara hurbiltzen ziren biztanleetan bi profil nagusi identifikatu ziren: Magrebeko gizonak eta Latinoamerikako emakumeak.

Beren jatorrizko herrialdeko prestakuntza- eta lan-baldintzei dagokienez, ikasketarik ez zuten eta emigratu aurretik langabezian zeuden pertsonen kopurua igo egin zela egiaztatu zen. Hau da, jatorrizko herrialdeko egoera geroz eta zailagoa zela eta inguru berrian gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak konplikatuak zirela ikus zitekeen.

Horrez gain, luzetara egindako azterketan etorkinak harrera-zerbitzuetara jotzeko geroz eta gehiago atzeratzen zirela antzeman zen: 2003an, EAEen bizitzen zeramaten lehenengo urtean hurbiltzen ziren, eta, 2005etik aurrera, aldiz, tarte hori urtebete eta erdira edo bi urtera igotzen zen. Zerbitzu horien mendetasun eza baldintza positibotzat jotzen da migrazio-proiektuaren garapenean eta bazterkeriaren aurka babesteko faktorea izan ohi da. Hala ere, gizarte-inpotentziaren egoera errepikakorrean ez aurrera ez atzera gelditu izanaren isla denean, ezin da interpretazio positiborik egin.

Urteetan zehar ezaugarri pertsonal batzuk irmoak izan direla egiaztatu da: egoera zibila (non ezkongabeak nagusi diren) eta guraso diren pertsonen kopurua (%40 inguru). Hala ere, 2007an alde nabarmenak antzeman ziren etorkinen egitura familiarrean: jende gutxiagok zituen bikotekidea edota senideak hurbil eta jende gehiagok ez zuen bikotekidea eurekin batera. Egitura familiarri buruzko aldagaiaren garrantzia zera da, jende gutxi hurbil izatea lotuta egon daitekeela gizarte berrian babes eta laguntza txikiagoa izatearekin, eta, beraz, gizartean baztertua izateko arriskuak gehitu daitezkeela.

Horren harira, herrikideen edo beste etorkin batzuen eskutik jasotako babes baxua dela frogatu da. Babes hori, biztanle autoktonoen kasuen, apur bat altuagoa da. 5 urteetan zehar, harreman eta babesaren

mailak aldatu egin dira. 2005. urtean, zehazki, kultura-talde bereko pertsonetik harremana, jatorrizko lurraldean nahiz gizarte hartzailean, handiagoa zen 2003an eta 2007an baino. Beren herrikideen eta gipuzkoarren eskutik jasotako babes-maila, bestetik, igo egin zen 2003tik 2005era eta 2007an. Etorkinak gizarte hartzailearekin identifikatzen ote ziren ere aztertu zen eta identifikazio hori ertaina zela ikusi zen, hau da, anibalentea zela. Batetik, ez ziren beren bizileku zen gizartearen parte sentitzen, baina, bestetik, ez zuten beren burua hortik kanpo sentitzen. Halaxe adierazi zuten 2005ean eta 2007ean, aldagai hori neurtu zen urteetan.

Lan-egoeraren ildotik, langabezia-tasak oso altu egon ziren aztertutako aldi osoan zehar. Egia da tasa hori denboran zehar aldatu egin zela: 2005ean langabezia %79,2tik %59,2ra jaitsi zen, eta, beraz, hobekuntza handia eragin zuen eremu horretan; hala ere, 2007an lanik gabeko pertsonen portzentajea berriz igo zen %72,8ra. Hau da, ikus dezakegun bezala, langabezia arazorik larrienetakoa zen talde horrentzat eta egun egoera are larriagoa da, krisi ekonomikoa eta lan-murrizketa anitzak bistakoak diren eta etorkizunerako ikuspegi murrizak dituen gizarte honetan.

Etxebizitza, esan bezala, bazterkeriaren aurka babesteko faktore garrantzitsua da eta horri harira egoera urte batetik bestera aldatu egin zela antzeman daiteke. Pertsonen erdia alokairuko pisuetan bizi da eta portzentaje hori egonkor mantentzen da 2003tik. Hala ere, ostatuari buruzko egoerarik eskasak desberdinak dira denboran zehar: kalean edo marjinazio-egoeran bizi ziren pertsonen kopurua igo egin zen 2003tik 2005era, egun arte mantendu delarik. Erakundeetan bizi diren pertsonen kopurua igo egin da denborak aurrera egin ahala. Etxebizitzarekin zailtasunak zituzten pertsonen portzentajea gehituko bagenu, %52,1 izango litzateke 2003an, %36 2005ean eta %43,8 2007an. Langabeziarekin gertatu zen bezala, 2005ean egoera hobetu egin zen, eta 2007ean berriro okertu zen. Hau da, etxebizitza harrera-zerbitzuetara jotzen duen herritar askorentzat estali gabe dagoen oinarriko beharrezana da. Gogorarazi beharra dago babes-faktore hori behin eta berriz aipatu dela aurreko azterlanetan (Martínez-Taboada, Arnoso eta Elgorriaga, 2006). Hori horrela, azterlanotan adierazitakoaren arabera, marjinazio-baldintzetan bizi diren, kalean lo egiten duten edo erakunde edo GKEk eskainitako ostatuen menpe dauden pertsonen arrisku gehiago dute paralizatze psikologiko eta soziala jasateko.

Ondorioz, harrera-zerbitzuetara jotzen duten etorkinen beharrezan eta eskari nagusiak, egindako eskarien arabera eta aldi guztietan eskatutakoak kontuan hartuta, honakoak dira: enplegua, estatua eta gizarte-laguntza (%79,1, %60,1 eta %58,5, hurrenez hurren). Dena dela, beharrezan horiek ez dira berdinak izan hiru aldietan. 2003an eta 2005ean lehentasunezko eskari gisa mantendu ziren arren –intentsitate desberdinarekin– 2007an egoitza eta eroldari buruzko agirien dokumentazioarekin lotutako eskariak gailendu ziren, enplegua eta ostatuarekin batera. Halaber, laguntza medikorako eta informaziorako beharrezana igo egin zen (pertsonen kopuru erdia, gutxi gorabehera, aurreko urteetako %20-30ekin alderatuta).

4. KAPITULUA

ETORKINEK ESKUBIDETARA ETA GIZARTE PRESTAZIOETARA DUTEN SARBIDEA ETA IRITZI PUBLIKOA

1. Gizarte-babeserako sistemen gainean antzemandako mehatxua

Immigrazioak gizarte hartzailearengan duen eragina interpretatzerakoan (kultura-desberdintasunak, aurreiritziak, eta abar), etorkinaren gizarte-eraikuntza sarritan gizarte eta kulturako planteamendu funtzionalez elikatzen da. Hala ere, immigrazioaren gaineko gizarte-ordezkaritzak faktore objektiboek ere baldintzatzen dituzte: lan-merkatuaren ezaugarriak, ekonomia informala, langabeziaren gorabeherak, eta helburu desberdinei erantzuten dieten legegintza-neurriak, besteak beste.

Horren harira, gizartean immigrazioaren gainean dauden erreakzioak ikusita, funtsezko bi eragin-ardatz aipa ditzakegu oinarri gisa: batetik, “baldintza materialak”, etorkinen eta autoktonoen artean lehia edo osagarritasuneko egoerak sor ditzaketenak, eta, bestetik, “faktore instituzionalak”, iritzi publikoak etorkinari buruz duen irudia osatzen laguntzeaz gain, etorkinen legezko estatusa objektiboki zehazten laguntzen dutenak, gure ongizaterako “aukera-eremu” gisa.

Etorkinek autoktonoekin dituzten harremanak eta inguruabarrak beren migrazio-proiektua lortzearen aldeko motibazio- eta gainditze-iturria izan daitezke, edo, bestalde, integrazio-prozesuaren inguruko baliabide sozial eta psikosozialen nola-baiteko egitura-defizita finka dezakete (Taboada et al., 2008).

Biztanle autoktonoek bazterkeria-logikak garatzen dituzte etorkinen aurka, hiru dimentsioetan oinarrituta: herritarren segurtasuna, kultura-nortasuna eta baliabideengatikoa. Diskriminazio positibo izenekoa, etorkinek autoktonoen aldean duten gizarte-desabantaila aritzeko tresna gisa, funtsezko diskurtso-ardatza bihurtzen da immigrazioari dagokionez, batez ere biztanle onuradunen kopurua igo eta banatu beharreko baliabideen kopurua murriztu egiten denean.

Ikuspegi horretatik abiatuta, immigrazioari buruzko lau gizarte-diskurtso bereizi ditzakegu, gutxienez. Lehenengoa ikuspegi instrumentalari buruzkoa da, hau da, sarbidea ahalbidetzen da, baldin eta lan-merkatuan funtzio erabilgarria badute eta gizarte-babeserako sistemaren finantzei eusteko errentagarriak badira (eta, gainera, posible bada, gutxi erabiltzen badituzte). Bigarrenez, ikuspegi lehiakorra genuke. Horren arabera, etorkinak gure baliabideez baliatzen diren kidetzat soilik joko lirateke, eraikuntza horretan duten partaidetza aitortu gabe. Hirugarrenez, estatuko laguntzak jaso ahala gure kulturara egokituko direla eta gure ongizatearen estatura sartuko direla ulertzen dutenak daude. Eta, azkenik, laugarren ikuspegiari jarraiki, gizarte-prestazioetara eta eskubideetara sartzea gizarte-ordena bermatzeko modua dela ulertzen da, immigrazioaren, bazterkeriaren eta delinkuentziaren arteko zuzeneko lotura egiten baita.

Gizarte autoktonoak etorkinen gainean lehentasuna duela pentsatzea (“*etxeok lehengo*”) diskurtso xenofoboaren oinarritzko elementua da. Gizartearen nahira egokitzen ez dela onartuta ere, sarritan argi eta garbi baztertzen da “lehentasun bera” emateko aukera.

Searsek (1998, 2005) zehaztuko lituzkeen arrazakeria sinbolikoko premisen artean, beren aldarrikapenetan gehiegi eskatzen duten gutxiengo etnikoenganako antagonismoa eta beren aldeko tratamenduenganako erremina azpimarratzen dira. Halaxe frogatzen duten Ioé Kolektiboak (1995), Pérez Díaz, Álvarez Mirandak eta Gonzálezek (2001) edo González eta Álvarez Mirandak (2005) egindako ikerketa kualitatiboek.

Espainiako herritar autoktonoek baiezko ekintza izenekoenganako kritika adierazten dute (gizarte-eskalan posizio txarrena duten etorkinei ematen zaien laguntza ekonomikoei deitzen zaie baiezko ekintza), batez ere, gizarte-zerbitzuak edo antzeko laguntzak eskatzen dituzten egoera batetik erreparatzen denean. Batzuetan, tratatu positibotzat jotzen den jarrera batek gizartea arrazista bihurtu dezakeela ere baieztatu da.

“Lehenengo etxeok” diskurtso nazional eta familistak indarra hartzen du, Ioéren (1995) lan aitzindariari jaso zen bezala. Interpretazio aurreratua baietsi egiten da; arrazakeriaren aurkako diskurtsoak dituzten posizioak arrazista bihurtu daitezke, baliabide eskas eta garestiak dauden egoeratan lehentasuna nazionaleri eman behar zaiela defendatzen ez bada (ez soilik lana, baita etxebizitza babestua, gizarte-laguntzak eta osasuna ere). Ioék zehaztutako “nazionalismo protekzionistak” ez du “txiroen” babesa soilik, maila erdiko biztanleak ere horren alde agertzen dira, zuzenean edo zeharka.

Etorkinei ez zaie funtsezko gizarte-eskubideak eskuratzeko aukera ukatzen (osasun-arreta edo hezkuntza, adibidez), hori krudela litzateke; hala ere, etorkinei zenbait prestazio jasotzeko aukera bermatzen dieten neurriek autoktonoengan eragin negatiboak dituztela interpretatzen baldin bada, orduan sortzen da gatazka. Hori horrela, eresketa-maila baxua duten etorkinen kopurua igo ahala, neurri horien aldeko gizarte-babesa murriztu egiten da, eta, beraz, jaso ahal diren laguntzak eta gizarte-prestazioak ere gutxiago dira.

Immigrazioaren aurkakoa den diskurtso horretan, atzerritarra autoktonoaren berezko baliabideak kontsumitzen dituen etorkin txiro gisa identifikatzen da, aberastasun-sortzaile gisa beharrean. Etorkina lehiakide bihurtzen da eta nazionaleri berez edo jaiotza-eskubidez espero duten lehentasunezko tratua galtzeko beldurra pizten die.

Allportek adierazi zuen (1954/1977) eta geroko azterlanek baietsi zuten bezala (Giles eta Evans, 1986; Bobo, 1988; Quillian, 1995), baliabide mugatuak lortzeko lehiak aurreiritzi etnikoak sortzea dakar. Hori horrela gaketat jotzen da xenofobia sortzeko orduan (Cea D’Ancona, 2005; Cea D’Ancona et al., 2008)

eta Hargreaves eta Leamanek (1995:21) egindakoen antzeko baieztapenak eragiten ditu: *“egungo arrazakeriak Europakoak ez diren gutxiengo etnikoak iraindu ditu eta arerio sinpletzat (eta ez legitimotzat) jotzen dira, baliabide eskasak lortzeko borrokan”*.

Lehiak taldearen barruko elkartasuna hobetzen du, baina, aldi berean, lehian dauden taldeen arteko etsaitasuna areagotzen du. Immigrazioaren kasuan, zehazki, etorkinen presentzia igotzen da eta horrek herrialdera sartzeko mugak jartzeko edo herrialdetik botatzeko nahia pizten du, batez ere integrazioarako lehentasuna ematen zaiela uste denean.

Baliabideen aldeko lehiak harreman estua du etorkinen bolumenaren gaindimentsionalizazioarekin, gizarte-hartzaileak etorkinen bizi-baldintzei buruz duen pertzepzio sarri desitxuratuarekin. Lehia gehien sortzen duen baliabidea, zalantzarik gabe, lana da, batez ere herritar espainiarren artean langabezia-tasa eta lan-eskastasun altuak dauden testuinguruan.

Lanpostua galtzeko beldurrak era desberdinean eragiten du autoktonoek okupatzen duten okupazio-segmentuaren arabera: lanpostu kualifikatuenetan ez da bazterkeriarik antzematen eta enpresa publikoetako langileek ere ez dute immigrazioa mehatxu gisa planteatzen. Aitzitik, langile ezegonkorrek zuzeneko lehia gisa ikusten dute immigrazioa lana banatzeko orduan, etorkinak egoteak sektore osoko lan-baldintzak okertzen dituela uste baitute.

EAEEn, Ikuspegik (2004) egindako inkestetako emaitzen arabera, gehiengoak (%83,5) uste zuen etorkinen etorrerak gehiago eragingo ziela txiroei aberatsei baino eta ideia horrek intentsitatea handiagoa zuen Gipuzkoan (%85,4) eta Bizkaian (%84), Araban baino (%78,8).

Horren harira, taula honetan ikus daitekeen bezala, Bizkaiko biztanleek etorkinen etorrerarekin soldatak jaitsi ote ziren beldur ziren (%37,6), arabarrak edo gipuzkoarrak baino neurri handiagoan (%32,9 eta %32,2, hurrenez hurren).

Gizarte-laguntzen sarbideari dagokienez ere, alde nabarmenak ageri dira lurraldeen arabera: Arabako biztanleen erdiaren ustez, etorkinak iristeak zaildu egin zitzakeen gizarte-laguntzetara jotzeko aukerak (%51,2), Bizkaiko biztanleen ustez (%47,2) baino neurri handiagoan, eta are gehiago Gipuzkoaren aldean (%40,4).

Osasunaren saturazioari buruzko ondorioen beldurrari dagokionez, mehatxu hori nabarmen indartsuagoa zen Araban (%51,1), batez ere Gipuzkoako gizartearen beldur askoz txikiagoarekin alderatzen badugu (%27,6).

Hala ere, hezkuntzaren kalitateari buruz antzemandako ondorioek beldur gutxien sortzen zutela zirudien: EAEko biztanleen arteko %19,1ek soilik uste zuen etorkinen etorrerak eragingo ziela, nahiz eta lurraldeen araberako azteketan Gipuzkoa zen, berriz ere, beldur gutxien zuena (%13,4), Araba eta Bizkaiaren azpitik (%20,2 eta %22,6, hurrenez hurren).

Lana bilatu edo mantentzeko edo etxebizitza bat eskuratzeko aukeren ondorioen harira, euskal biztanleen beldurra %35,2koa eta %35,7koa zen, hurrenez hurren, lurraldearen araberako alderik antzeman ez zen arren.

26. taula. Antzemandako mehatxua (autoktonoen artean) eta lurralde historikoa (%)

| | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Guztira | |
|---|-------|----------|---------|-------------|--------------------------------|
| Lana bilatu edo mantentzea | 34,4 | 34,1 | 36,2 | 35,2 | $\chi^2(2)=0,972$; $p=0,615$ |
| Soldata baxuagoa kobratzea | 32,9 | 32,2 | 37,6 | 34,9 | $\chi^2(2)=6,18$; $p=0,046$ |
| Etxebizitza bilatzea | 33,5 | 36,2 | 36,3 | 35,7 | $\chi^2(2)=1,097$; $p=0,578$ |
| Ospitaleetako itxarote-zerrenda | 51,1 | 27,6 | 38,3 | 37,3 | $\chi^2(2)=61,442$; $p=0,000$ |
| Kalitate gutxiagoko hezkuntza | 20,2 | 13,4 | 22,6 | 19,1 | $\chi^2(2)=22,52$; $p=0,000$ |
| Gizarte-laguntzetarako sarbidea | 51,2 | 40,4 | 47,2 | 45,7 | $\chi^2(2)=12,935$; $p=0,002$ |
| Gehiago eragiten die txiroei, aberatsei baino | 78,8 | 85,4 | 84,0 | 83,5 | $\chi^2(2)=7,952$; $p=0,019$ |

Iturri: Ikuspegi, bertan egina.

Alderik handienak elkarrizketatutako pertsonen hileroko diru-sarreraren arabera izan ziren: orokorrean, baina ez beti, herritarren diru-sarrerak zenbat eta baxuagoak izan, orduan eta beldur gehiago zioten atzerritarren etorrerak lana bilatzeko edo mantentzeko, soldata baxuagoak kobratzeko eta etxebizitza bilatzeko orduan izango zuen eraginari.

Halaber, azpimarratzekoa da, atzerritarren etorrerari dagokionez, ospitaleetako itxarote-zerrenda handiagoak, hezkuntzako kalitate baxuagoa edo gizarte-zerbitzuetarako sarbide okerragoa gehien espero zuten pertsonak soldatarik baxuena zutenak zirela. Diru-sarrera altuak zituztenek, aldiz, alde nabaria ageri zuten soldata ertainak edo ertain altuak zituztenen aldean, honako taulan ikus daitekeen bezala.

27. taula. Antzemandako mehatxua (autoktonoen artean) eta diru-sarrearen maila (%)

| | Gehienez 600 € | 601 eta 1.800 € artean | 1.801 eta 3.000 € artean | 3.000 € baino gehiago | Guztira | |
|--|-------------------|------------------------------|--------------------------------|-----------------------------|-------------|--------------------------------|
| Lana bilatu edo mantentzea | 47,4 | 35,1 | 32,9 | 29,1 | 35,7 | $\chi^2(3)=22,775$; $p=0,001$ |
| Soldata baxuagoa kobratzea | 47,3 | 35,5 | 31,5 | 23,1 | 35,6 | $\chi^2(3)=15,900$; $p=0,001$ |
| Etxebizitza bilatzea | 49,1 | 34,2 | 35,1 | 30,8 | 35,6 | $\chi^2(3)=25,26$; $p=0,000$ |
| Ospitaleetako itxarote-zerrenda | 52,7 | 32,5 | 35,2 | 57,7 | 35,5 | $\chi^2(3)=48,218$; $p=0,000$ |
| Kalitate gutxiagoko hezkuntza | 33,1 | 17,6 | 22,5 | 39,2 | 20,4 | $\chi^2(3)=70,309$; $p=0,000$ |
| Gizarte-laguntzetarako sarbidea | 56,5 | 42,8 | 48,1 | 50,0 | 45,1 | $\chi^2(3)=12,328$; $p=0,006$ |
| Gehiago eragiten die txiroei aberatsei baino | 82,1 | 86,6 | 80,8 | 73,3 | 84,9 | $\chi^2(3)=11,674$; $p=0,009$ |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Mehatxua ez da autoktonoen artean soilik antzematen. Etorkinek ere beren estatusa mehatxupear sentitu dezakete atzerritar berriak iristean; hau da, talde arteko mehatxua dago (herritar autoktonoen eta herritar etorkinen artekoa), baina talde barruko mehatxua ere (herritar etorkinen artekoa). Ikuspegik emandako inkestetako datuen arabera, orokorrean, talde barruko ikuspegitik antzemandako mehatxua baxuagoa zen, eta, oro har, etorkinei ez zien gehiegi arduratzen beste herrialde batzuetako atzerritarren etorrerak modu negatiboan eragin ziezaieketen.

Arloei dagokienez, arduraren handiagoa zegoen laneko segurtasunarekin eta etxebizitzarekin lotutako oinarrizko esferetan, osasunari eta hezkuntzari lotutakoetan baino. Ondorioz, soldata baxuagoak kobratzeko, etxebizitza bilatzeko edo lana bilatu edo mantentzeko aukeraren beldur zirela antzeman daiteke. Ospitaleetako itzarote-zerrenden igoyerari edo hezkuntzako kalitate baxuagoari buruzko arduraren askoz txikiagoa zen.

Datu horiek etorkinen jatorriaren arabera aztertuta, eremu guztietan latinoamerikarrak ziren beste atzeritar batzuen etorreraren aurrean mehatxu handiena antzematen zutenak.

28. taula. Antzemandako mehatxua (etorkinen artean) eta jatorria

| | Guztira | Latinoamerika | Magreb | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Sahara azpiko Afrika | Asia | |
|---------------------------------|-------------|---------------|--------|--------------------|------------------|----------------------|------|---------------------------|
| Lana bilatu edo mantentzea | 2,12 | 2,29 | 1,86 | 2,00 | 1,98 | 2,06 | 1,91 | F(5,2964)=14,049; p=0,000 |
| Soldata baxuagoa kobratzea | 2,15 | 2,33 | 1,84 | 2,06 | 2,00 | 2,03 | 1,89 | F(5,2944)=16,441; p=0,000 |
| Etxebizitza bilatzea | 2,16 | 2,33 | 1,71 | 2,02 | 2,10 | 2,16 | 1,78 | F(5,2887)=20,704; p=0,000 |
| Ospitaleetako itzarote-zerrenda | 1,88 | 2,02 | 1,76 | 1,71 | 1,75 | 1,71 | 1,65 | F(5,2855)=12,070; p=0,000 |
| Kalitate gutxiagoko hezkuntza | 1,73 | 1,81 | 1,69 | 1,64 | 1,65 | 1,67 | 1,62 | F(5,2803)=3,387; p=0,005 |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Administrazio-egoerari dagokionez, egoera irregularra zuten pertsonak zeuden nahiko arduratuago eremu guztietan, eta mehatxuaren pertzepzioa jaitsi egiten zen, administrazio-egoeraren egonkortasuna igo ahala.

29. taula. Antzemandako mehatxua (etorkinen artean) eta administrazio-egoera

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra | |
|------------------------------------|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|---------------------------|
| Encontrar o mantener el trabajo | 2,13 | 1,80 | 2,18 | 2,37 | F(2,2914)=59,531; p=0,000 |
| Cobrar menos sueldo | 2,15 | 1,81 | 2,22 | 2,39 | F(2,2893)=59,100; p=0,000 |
| Encontrar vivienda | 2,16 | 1,85 | 2,25 | 2,29 | F(2,2834)=40,572; p=0,000 |
| Listas de espera en los hospitales | 1,88 | 1,70 | 1,93 | 1,94 | F(2,2809)=14,756; p=0,000 |
| Enseñanza de menor calidad | 1,73 | 1,59 | 1,72 | 1,89 | F(2,2755)=17,105; p=0,000 |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Emaitza horiei jarraiki, etorkinek beste etorkin batzuen aldean duten legezko desabantailaren gizarte-egoera da mehatxua sortzen duena atzeritar berrien edo beste batzuen etorreraren aurrean. Izan ere, seguru asko euskal gizartearen finkapen-espazioak lortzeko borroka gisa jasotako mehatxua da. Hau da, gutxiengo taldeen arteko lehiari buruz ariko ginateteke.

1.1. EAEko gizarte-eskubide eta -prestazioetarako sarbideari buruzko balorazioa

Mehatxu-pertzepzio horrek eragina du autoktonoak etorkinekin partekatze prest dauden eskubideen balorazioan. Autoktonoak etorkinei eskubideetarako sarbide normalizatua ahalbidetzeko prest ote dauden aztertzean, honakoa ondorioztatu ahal izan da:

- **Osasun-laguntzarako** eskubideari dagokionez, gehiengoaren ustez pertsona orok dauka osasunera jotzeko eskubidea (%73,2), bere egoera juridiko eta administratiboa edozein dela ere, nahiz eta biztanleen laurden batek (%25,3) pentsatzen zuen eskubide hori administrazio-egoera erregularrean dauden herritarrentzat soilik izan behar dela. Posizio horiek nabarmenagoak ziren Araban (%29,8), Bizkaian (%23,6) edo Gipuzkoan (%24,9) baino.
- **Hezkuntza publikoaren** ildotik, euskal biztanleen ustez (%67,3), eskubide hori pertsona ororen esku egon behar da, nahiz eta biztanleen herenak (%31,2) pentsatzen zuen etorkin erregularizatuak baino ez zutela izan behar bertara jotzeko eskubidea. Azpimarratzekoa da Gipuzkoan jende gehiago egon zela sarbide orokorraren kontra, beste lurralde batzuekin alderatuta asko izan baitziren eskubide horren aurka egin zutenak (%42,5).
- Sarbide orokorraren mugak nagusi ziren **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak** bezalako gizarte-laguntzen kasuan: %60,8ren aburuz, administrazio-egoera erregularizatuak dauden pertsonak soilik izan behar dute eskubide hori eta %17,8k zioen etorkinek ez luketela laguntza horietarako sarbiderik izan behar, legezko egoeran egonda ere. Hain muturrekoak diren posizio horiek arabarren (%24) eta bizkaitarren (%22,7) artean ziren nagusi, gipuzkoarrek batez bestekoa orekatzen zuten bitartean (%7,4).
- Antzeko zerbait geratzen da **babes ofizialeko etxebizitzaren** alorrean: euskal biztanleriaren %59,9ren ustez, onuradunek administrazio-egoera erregularra izatea nahitaezkoa da. Halaber, igo egin da etorkinek inola ere gizarte-eskubide hau izateko eskubiderik ez dutela dioten pertsonen portzentajea, administrazio-erregulartasuna alde batera utzita (%25,4). Jarrera horiek askoz bistakoagoak ziren Bizkaian (%29) eta Araban (%28,8), Gipuzkoan baino (%18,4).
- Gauza bera geratzen da **laguntza juridikoari** dagokionez: euskal biztanleen heren baten iritzi (%31,9) pertsona orok, bere administrazio-egoera edozein izanda ere, laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea du, baina portzentaje altu batek (%62,6) pentsatzen zuen eskubide hori administrazio-egoera erregularrean zeuden pertsonak soilik aplikatu behar zitzaizela. Kasu horretan, bizkaitarrak ziren (%7,1) eta gero arabarrak (%6,7) muga gehien jartzen zituztenak, egoera erregularrean zeudenentzat ere, gipuzkoarren gainera. Gipuzkoarrak izan ziren sarbide orokorra ahalbidetzearen aldeko jarrera gehien izan zituztenak.

30. taula. Gizarte-prestaziorako sarbideari buruzko balorazioa (autoktonoen artean) eta lurraldea (%)

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | |
|---|-------|---------|----------|-------------|--------------------------------|
| Osasun-laguntza | | | | | |
| Guztiek | 67,6 | 74,9 | 74,0 | 73,2 | $\chi^2(4)=10.912$; $p=0,028$ |
| Erregularizatuek | 29,8 | 23,6 | 24,9 | 25,3 | |
| Batek ere ez | 2,6 | 1,5 | 1,1 | 1,5 | |
| Eskola publikoa | | | | | |
| Guztiek | 64,1 | 76,2 | 56,2 | 67,3 | $\chi^2(4)=82.331$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 33,8 | 22,4 | 42,5 | 31,2 | |
| Batek ere ez | 2,1 | 1,4 | 1,3 | 1,5 | |
| Gizarte-laguntza: Oinarrizko Errenta, GLL | | | | | |
| Guztiek | 17,5 | 18,4 | 27,9 | 21,5 | $\chi^2(4)=88.87$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 58,4 | 58,9 | 64,7 | 60,8 | |
| Batek ere ez | 24,0 | 22,7 | 7,4 | 17,8 | |
| Babes Ofizialeko Etxebizitza | | | | | |
| Guztiek | 13,4 | 14,9 | 15,1 | 14,7 | $\chi^2(4)=28.260$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 57,8 | 56,1 | 66,5 | 59,9 | |
| Batek ere ez | 28,8 | 29 | 18,4 | 25,4 | |
| Laguntza juridikoa | | | | | |
| Guztiek | 30,3 | 26,7 | 40,4 | 31,9 | $\chi^2(4)=48.087$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 63 | 66,6 | 57,3 | 62,6 | |
| Batek ere ez | 6,7 | 7,1 | 2,3 | 5,5 | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Biztanleen diru-sarreraren arabera aldeei dagokienez, nabarmenenak gizarte-laguntzei, babes ofizialeko etxebizitzetara eta laguntza juridikoari buruzko eskubideenak direla ikus daiteke.

- Gizarte-laguntzetarako sarbide orokorra diru-sarrera handiagoak zituzten biztanleek (%24) babesten zuten gehiago eta hileroko 600 eurora iristen ez zirenek gutxiago (%14,7). Azken horiek ziren eskubide hori babesteko traba gehien jarri zituztenak, pertsona erregularizatuak kasuan ere. Talde honen %32ren ustez, etorkin batek ere ez zuten eskubide hori izan behar.
- Babes ofizialeko etxebizitzarako eskubidea ukatzen zutenen artean, diru-sarrera baxudun biztanleak are gehiago ziren, etorkinak egoera erregularrean egonda ere (%45). Diru-sarrera altuagoak zituztenen artean, %14,5ek zeukan jarrera hori.
- Gauza bera gertatzen da laguntza juridikoaren babesaren kasuan, nahiz eta sarbidearen mugak ez ziren muturrekoak talde batean ere ez: diru-sarrera gutxien jasotzen zituztenen arteko %13,3ren ustez, etorkin batek ere ez luke laguntza juridikorako eskubidea izan behar, eta, diru-sarrera altuagoak zituzten pertsonen artean, %2,1ek soilik uste zuen hori.

Halaber, alde nabarmenak ageri dira osasun-laguntzarako eta eskola publikorako eskubidearen alorrean, nahiz eta alde horiek neurtuagoak diren lehen aipatutako eskubideen kasuan baino.

- Diru-sarrera altuagoak dituzten pertsonen %3,8k uste du etorkin batek ere ez duela bermatuta izan behar osasunerako eskubidea eta %67,3 agertu zen sarbide orokorraren alde. Portzentaje hori igo egiten da diru-sarrera baxuagoak dituztenen artean (%77,6), baina portzentajea antzekoa da sarbide hori edozein etorkini (administrazio-egoera edozein izanda ere) ukatuko lioketen pertsonen kasuan (%2,9).

31. taula. Gizarte-prestaziorako sarbideari buruzko balorazioa (autoktonoen artean) eta diru-sarrerren maila (%)

| | Gehienez 600 € | 601 eta 1.800 € arteak | 1.801 eta 3.000 € arteak | 3.000 € baino gehiago | Guztira | |
|---|-------------------|------------------------------|--------------------------------|-----------------------------|-------------|-----------------------------|
| Osasun-laguntza | | | | | | |
| Guztiak | 77,6 | 74,4 | 79,6 | 67,3 | 75,4 | $X^2(6)=12,503$; $p=0,052$ |
| Erregularizatuek | 19,5 | 24,4 | 19,4 | 28,8 | 23,3 | |
| Batek ere ez | 2,9 | 1,1 | 1 | 3,8 | 1,3 | |
| Eskola publikoa | | | | | | |
| Guztiak | 67,1 | 69,7 | 68,7 | 70,6 | 69,3 | $X^2(6)=13,785$; $p=0,032$ |
| Erregularizatuek | 28,9 | 29,4 | 30,3 | 29,4 | 29,5 | |
| Batek ere ez | 4 | 0,9 | 1 | 0,0 | 1,2 | |
| Gizarte-laguntza: Oinarrizko Errenta, GLL | | | | | | |
| Guztiak | 14,7 | 21,7 | 23,9 | 24,0 | 21,5 | $X^2(6)=40,792$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 53,3 | 65,0 | 57,2 | 62,0 | 62,7 | |
| Batek ere ez | 32 | 13,3 | 18,9 | 14,0 | 15,8 | |
| Babes Ofizialeko Etxebizitza | | | | | | |
| Guztiak | 8,6 | 15,3 | 13,9 | 16,7 | 14,5 | $X^2(6)=43,145$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 46,4 | 62,9 | 60,5 | 68,8 | 61,3 | |
| Batek ere ez | 45 | 21,8 | 25,7 | 14,6 | 24,2 | |
| Laguntza juridikoa | | | | | | |
| Guztiak | 26,7 | 31,5 | 42,8 | 52,1 | 33,4 | $X^2(6)=49,13$; $p=0,000$ |
| Erregularizatuek | 60,0 | 64,3 | 52,8 | 45,8 | 61,5 | |
| Batek ere ez | 13,3 | 4,3 | 4,3 | 2,1 | 5 | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

2. Estereotipo eta errealitatea: prestazio ekonomikoaren, aholkularitza-zerbitzuen eta prestakuntzaren erabilera
2.1. Gizarte-babeserako sistemaren gehiegizko onura

Estereotipo negatibo bat dago, etorkinak “gure” ongizatearen estatuaren etekinak hartzeraz eta gizarte-zerbitzuak erabiltzeraz datorrela dioena (Montagud eta Torres, 2002). Era horretako baieztapenek laguntza-mota oro eskatzen duen pertsonaren irudia eraikitzen dute eta laguntzen sistema publikoaren menpe dagoen erabiltzailearen ideia finkatzen dute.

Ikuspegik autoktonoei buruz emandako datuen arabera, gehienak (%80,4) ados edo oso ados daude etorkinek gizarte-babeserako sistemari etekin gehiegi hartzen diotela dioten sinismenarekin, batez ere Araban eta Gipuzkoan, Bizkaiaren aldean. Halaber, iritzi hori are nabariagoa da diru-sarreraz baxuagoak dituzten pertsonen artean.

32. taula. Autoktonoen iritzia atzeritarrek gizarte-babeserako sistematik onura gehiegi hartzen dituztela dioten adierazpenari buruz, lurraldeen arabera (%)

| | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia | Guztira | |
|---|-------|----------|---------|-------------|----------------------------|
| Onura gehiegi hartzen dituzte gizarte-babeserako sistematik | 82,2 | 82,3 | 76,9 | 80,4 | $X^2(2)=7,353$; $p=0,025$ |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

33. taula. Autoktonoen iritzia atzerritarrek gizarte-babeserako sistematik onura gehiegi hartzen dituztela dioen adierazpenari buruz, diru-sarreraren mailen arabera (%)

| | Gehienez 600 € | 601 eta 1.800 € artean | 1.801 eta 3.000 € artean | 3.000 € baino gehiago | Guztira | |
|--|-------------------|------------------------------|--------------------------------|-----------------------------|-------------|-----------------------------|
| Onura gehiegi hartzen dituzte gizarte-babeserako sistematik | 86,6 | 82,4 | 74 | 77,5 | 81,2 | $\chi^2(3)=13.338; p=0,004$ |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Ikuspegik euskal biztanleen jarrera, balore eta pertzepzioei buruz egindako beste ikerketa batzuetatik atera den ondorioetako bat zera da, euskal biztanleen zati bat euskal administrazioetatik baztertuta sentitzen dela eta administraziook etorkinen alde ahalegin guztiak egiten dituztela uste duela, bertako talde kaltetuen beharrianak kontuan hartu gabe. Hala ere, euskal administrazioek behin eta berriz adierazi dute ez dela egia atzerriko etorkinek gizarte-laguntzak bereganatzen dituztela; gutxiengo batzuk hartzen dituzte edo hartu dituzte prestazio ekonomiko desberdinen onurak (Eusko Jaurlaritza, 2008).

2.2. Laguntza ekonomikoen pertzepzioa

Ikuspegiren inkestetako datuek jakinarazi dutenez, iraganean edo landa-lanak egitean gutxiengo batzuek baino ez zituzten hartu laguntza ekonomikoen onurak.

Egia da azken urteetan gizarte-prestazioetara jotzen duten etorkinen portzentajea igo egin dela, seguru asko lan-bazterkeriak estatistiketan duen presentzia igo egin delako. Nahiz eta administrazio publikoek ez duten era sistematikoan jaso laguntzak jasotzen dituzten pertsonen profila eta administrazio-egoera, azken hamarkadako bilakaeraren joera zein izan ahal izan den azaltzen digun informazioa daukagu. Dena dela, datu horiek ez lukete berretsiko, ez eta babestuko ere, etorkin gehienak gizarte-prestazioetatik bizi direla dioen adierazpena (Moreno eta Aierdi, 2008).

Gipuzkoan 2000. urtetik 2008ra eman ziren lehenengo Oinarrizko Errentak adibidetzat hartuz gero, 2000. urtean berau kobratu zuten atzerritarrak %4,6 ziren arren, 2004an kopuru hori igo egin zen (emakida guztien arteko %27,5) eta 2008an %23,6ra jaitsi zen berriz.

Jatorriaren arabera aldeak aztertzen baditugu, 2008an era honetako prestazioen erdia baino gehiago Latinoamerikako pertsonak jaso zuten, atzetik Magrebeko eta erkidegoko herritarrak zeudela. Hiru talde horien artean jaso zituzten 10 prestazio bakoitzeko 9. 2000. urteko datuak erreparatzen baditugu, talde horiek jaso zituzten 10 prestazio bakoitzeko ia 9. Baina bilakaeran ageri den alderik garrantzitsuena latinoamerikarrek hartutako pisu espezifiko handiagoa da, Europar Batasunetik datozen biztanleen pisu erlatibo baxuagoaren aldean. Aldaketa hori 2000 eta 2004 urteen artean nabari da eta hurrengo urteetan mantendu egin da.

34. taula. Oinarrizko Errentaren emakiden bilakaera Gipuzkoan (2000-2008), jatorriaren arabera

| | 2000 (%) | 2004 (%) | 2006 (%) | 2007 (%) | 2008 (%) |
|----------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| EB | 32,65 | 14,77 | 17,41 | 15,51 | 15,51 |
| Erkidegotik kanpoko Europa | 2,04 | 4,92 | 2,83 | 5,06 | 5,06 |
| Magreb | 18,37 | 15,69 | 19,84 | 18,99 | 18,99 |
| Gainerako Afrika | 8,16 | 1,85 | 4,05 | 5,38 | 5,38 |
| Asia | 0,00 | 2,46 | 1,62 | 2,53 | 2,53 |
| Latinoamerika | 36,73 | 60,00 | 53,85 | 52,22 | 52,22 |
| Gainerako Amerika | 2,04 | 0,31 | 0,40 | 0,00 | 0,00 |
| Gainerako mundua | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,32 | 0,32 |
| GUZTIRA | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Era berean, laguntzako prestazioekin jarraituz eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboen onuradun diren atzeritarrei buruzko datuen arabera, azken hamarkadan errenta horiek gehien erabili behar izan dituzten taldeak Latinoamerika eta Magrebeko herritarrak izan dira. Datu horiek guztiak laguntzako prestazioekin alderatzen baditugu, epe berean, Europako Erkidegoko pertsonen kopurua Magrebeko biztanleen gainetik hazi dela ikus dezakegu. Bi prestazio-mota horietan ikus daiteke Europako Erkidegoko, Asiako eta Sahara azpiko Afrikako herritarrek askoz gutxiago erabiltzen dituztela gizarte-laguntza horiek.

35. taula. Laguntza-prestazioen (Gizarteratzeko Errenta Aktiboa edo RAI, adibidez) onuradun diren atzeritarrak EAEn, 2001-2009an, jatorriaren arabera

| | 2000 (%) | 2004 (%) | 2006 (%) | 2007 (%) | 2009 (%) |
|----------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| EB | 38,83 | 20,36 | 19,02 | 25,61 | 18,30 |
| Erkidegotik kanpoko Europa | 2,91 | 7,69 | 8,36 | 1,78 | 2,15 |
| Magreb | 25,24 | 28,96 | 25,65 | 24,72 | 29,94 |
| Gainerako Afrika | 10,68 | 9,95 | 7,78 | 8,02 | 10,02 |
| Asia | 1,94 | 0,00 | 0,86 | 1,34 | 1,84 |
| Latinoamerika | 19,42 | 32,13 | 38,33 | 38,08 | 37,28 |
| Gainerako Amerika | 0,97 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,21 |
| Gainerako mundua | 0,00 | 0,45 | 0,00 | 0,00 | 0,10 |
| Aberrigabeak | 0,00 | 0,45 | 0,00 | 0,45 | 0,16 |
| GUZTIRA | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Iturria: EIN, bertan egina.

36. taula. Ordainketaren araberako prestazioen onuradun diren atzerritarrak EAEn, 2002-2009an, jatorriaren arabera

| | 2000 (%) | 2004 (%) | 2006 (%) | 2007 (%) | 2009 (%) |
|----------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| EB | 43,10 | 20,77 | 16,50 | 21,48 | 26,42 |
| Erkidegotik kanpoko Europa | 2,93 | 5,64 | 9,05 | 2,93 | 2,73 |
| Magreb | 23,01 | 23,76 | 21,88 | 24,33 | 20,23 |
| Gainerako Afrika | 12,97 | 11,38 | 10,94 | 11,95 | 11,83 |
| Asia | 1,67 | 3,20 | 2,78 | 3,40 | 3,72 |
| Latinoamerika | 14,64 | 34,92 | 38,02 | 35,18 | 34,53 |
| Gainerako Amerika | 1,26 | 0,33 | 0,24 | 0,17 | 0,36 |
| Gainerako mundua | 0,42 | 0,00 | 0,12 | 0,17 | 0,09 |
| Aberrigabeak | 0,00 | 0,00 | 0,47 | 0,38 | 0,09 |
| GUZTIRA | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 | 100,00 |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

2.3. Aholkularitza-zerbitzuen erabilera

Ekonomiako eta gizarteko laguntzez gain, gure erkidegoan atzerriko etorkinei zuzendutako zerbitzu jakin batzuk daude, era guztietako informazioa eskaini ahal izateko. Ikuspegiren laginketako datuen arabera, horiek erabili dituzten etorkinak gutxi batzuk baino ez dira izan. Erabiltzaileen artean, jatorriari dagokionez, ekialdeko Europako biztanleak gailentzen dira, horiek baitira zerbitzu-mota hau gutxien erabili dutenak (%19,7). Bestetik, Europako Erkidegoko biztanleak izan dira gehien erabili dutenak (%41,2), atzetik latinoamerikarrak (%39,3) eta Sahara azpiko afrikarrak (%38,5) daudela.

37. taula. Aholkularitza-zerbitzuren baten erabilera, jatorriaren arabera (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia |
|---|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|
| Aholkularitza-zerbitzuren baten erabilera | 35,3 | 39,3 | 41,2 | 19,7 | 30,5 | 38,5 | 31,4 |
| X ² (5)=61,379; p=0,000 | | | | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Administrazio-egoerari dagokionez, egoera irregularrean zeuden biztanleak ziren aholkularitza-zerbitzu hori gutxien erabiltzen zutenak.

38. taula. Aholkularitza-zerbitzuren baten erabilera, administrazio-egoeraren arabera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra |
|---|-------------|----------------------------|----------------------------------|--------------------|
| Aholkularitza-zerbitzuren baten erabilera | 35,3 | 40,1 | 36,5 | 29,0 |
| X ² (1)=23,803; p=0,000 | | | | |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Zerbitzu horietara jo zutenek, batez ere eskola-hezkuntzarekin (%73,5), etxebizitzarekin (%70) eta lan eta prestakuntzarekin (%59,7) lotutako informazioa edo aholkularitza eskatu zuten. Osasun-arloko laguntza edo legezko laguntza behar zutenak gutxiago izan ziren, %51 eta %47,5, hurrenez hurren. Jatorriari dagokionez, alde nabarmenak antzeman dira informazio eta aholkularitzako era guztietan: legea, lana eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta eskola.

39. taula. Aholkularitza, laguntza edo informazioaren eskaera-mota, jatorriaren arabera (%)

| | Guztira | Latinoamerika | Europako Erkidegoa | Ekialdeko Europa | Magreb | Sahara azpiko Afrika | Asia | |
|--------------------|-------------|---------------|--------------------|------------------|--------|----------------------|------|-------------------------------------|
| Legea | 47,5 | 45,1 | 66,9 | 32,9 | 47,5 | 40,9 | 54,0 | X ² (5)=30,933; p=0,000 |
| Lana, prestakuntza | 59,7 | 56,8 | 74,3 | 63,0 | 57,6 | 53,9 | 66,0 | X ² (5)=16,666; p=0,005 |
| Etxebizitza | 70,8 | 73,0 | 83,1 | 54,2 | 58,7 | 61,6 | 84,0 | X ² (5)=38,396; p=0,000 |
| Osasuna | 51,0 | 52,1 | 30,9 | 44,4 | 63,8 | 56,2 | 58,0 | X ² (10)=34,481; p=0,000 |
| Eskola | 73,5 | 72,5 | 89,7 | 45,1 | 80,6 | 72,4 | 66,0 | X ² (5)=53,119; p=0,000 |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

Europako erkidegotik datozen biztanleak ziren lege, lan eta prestakuntza, hezkuntza eta etxebizitzaren alorreko informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak gehien erabili zituztenak. Ez zen gauza bera gertatu osasunaren gaineko informazioari zegokionez, aholkularitza-mota horren barruko eskari gutxien izan zuen taldea izan baitzen. Bestalde, Ekialdeko Europatik datozen pertsonak ziren lege, eskola eta etxebizitzari buruzko informazio gutxien jaso zutenak, baina lan eta prestakuntzari buruzko informazioa gehiago eskatu zutenak, portzentajea etorkinen taldearen batz bestekoaren gainetik zegoela.

Administrazio-egoerari dagokionez alde nabariak daude. Legezko gaiei buruzko informazioa eskatzeko zerbitzuak gehien erabili zituztenak egoera erregular egonkorrean (%56,4) edo egoera irregularrean (%47,4) zeudenak izan ziren. Lan eta prestakuntzari eta etxebizitzari buruzko informazioa eskatu zutenen artean, aldiz, egoera irregularrean zeuden pertsonak ziren nagusi (%66,7 eta %75,6, hurrenez hurren).

40. taula. Aholkularitza, laguntza edo informazioaren eskaera-mota, administrazio-egoeraren arabera (%)

| | Guztira | Egoera erregular egonkorra | Aldi baterako egoera erregularra | Egoera irregularra | |
|--------------------|----------------|-----------------------------------|---|---------------------------|----------------------------|
| Legea | 47,5 | 56,4 | 40,6 | 47,4 | $X^2(2)=19,96$; $p=0,000$ |
| Lana, prestakuntza | 59,7 | 54,5 | 59,5 | 66,7 | $X^2(2)=8,631$; $p=0,013$ |
| Etxebizitza | 70,8 | 71,8 | 67,7 | 75,6 | $X^2(2)=4,904$; $p=0,086$ |
| Osasuna | 51,0 | 48,7 | 51,3 | 52,1 | $X^2(2)=,810$; $p=0,667$ |
| Eskola | 73,5 | 71,4 | 72,9 | 76,7 | $X^2(2)=2,044$; $p=0,360$ |

Iturria: Ikuspegi, bertan egina.

5. KAPITULUA

GIZARTE AGENTEEN BEGIRADA, ETORKINEK GIZARTE ESKUBIDE ETA PRESTAZIOETARA DUTEN SARBIDEARI DAGOKIONEZ

1. Prestazioen erabilerari buruzko pertzepzioak

Elkarrizketak aztertuta ondorioztatu ahal izan denez, jendeak, eta, batez ere gizarte-bazterkerian dauden autoktonoek, uste dute atzerritarren aldeko diskriminazio positiboa egiten dela eta atzerritarrek besteren kontura eta autoktonoei dagozkien baliabideak kontsumituz bizi direla.

“Jende kaltetuaren artean arrazakeria handia dago. Diskriminazio positiboa dagoela eta laguntzak hemengoei beharrean etorkinei ematen zaizkiela uste dute.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Euskal Autonomia Erkidegoan egoera irregularran dauden etorkinei ez zaiela laguntza-sisteman sartzeko traba handirik jartzen eta horrek estatuko gainerako lekuetan banatutako atzerritarren artean “dei-efektua” duela pentsatzen da. Bestalde, etorkinek gizarteko laguntza edo prestazioen sistema gehiegi erabiltzen dutela dioten gizarte-diskurtsoen aurka, atzerritar gehienak lan egitera datozela eta askorentzat gizarte-laguntzak ko-bratzen egotea beren migrazio-proiektuan atzera egitea dela baieztatzen da. Etorकिन elkarteko kide diren elkarrizketatuen artean, batez ere, gutxi batzuk bizi direla gizarte-laguntzei esker

eta gehienek lan-merkatu formalean edo ezkutuko ekonomian egiten duten lanari esker bizirauten dutela adierazi da.

“Argi utzi nahiko nuke jendeak ez duela laguntzak lortzeko emigratzen, hemen laguntzaren bat edo beste lor dezaketela dakitelako: jendea lan egitera dator, bizimodua atera eta aurrera egitera. Batzuek diotenaren kontra, lan egitera datoz, eta ez laguntzak jasotzera”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Denetarik dago. Laguntza bizitzeko moduak ere desberdinak dira. Batzuei ez die ardurara beti laguntzak jaso eta besteren kontura bizitzeak eta beste batzuek lan egin nahi dute, laguntzarik kobratu gabe (...). Laguntzak utzi, independente bihurtu eta lan bat eduki dezaketenean, hala egiten dute”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Administrazio publikoetako agenteak ideia horrekin ados dauden arren, gizarte-prestazioetan oinarritutako estrategia ekonomikoak garatzen dituzten talde batzuk ere aipatzen dituzte. Horrela, harrera-gizarteetan bizitzeko dirua lortzeaz gain, beren jatorrizko herrialdeetara bidalketak egiteko ere ateratzen dute, hasitako migrazio-proiektuari lotutako talde-erantzukizunak betez. Batzuek ez dute begi onez ikusten estrategia horien helburua eta “iruzur” gisa jotzen dituzte. Hor horrela, kontrol-tresna handiagoak eta eraginkorragoak eskatzen dituzte. Bestalde, beste diskurtso ulerkorrago batzuen ustez logikoa da, zaila baita gizarte-laguntzei esker mantentzea eta kontuan hartu behar baitira talde horrek familia-proiektua bete ahal izateko egin dituen ukoak.

2. Bazterkeria-arriskua eragiten duten faktoreak

“Egun bizi dugun krisi ekonomikoak norbaiti eragingo badio, atzerritarrei izango da, batez ere erkidegotik kanpokoei”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Duela hamarkada batzuetatik biztanleria-sektore hau gizarte-bazterkeriaren aurpegiak bistakoena dela dio literaturak eta elkarrizketek hori berretsi besterik ez dute egiten. Halaxe erakusten dute gaur egun gizarteko ahultasun-egoerarik drastikoenetan daudenak gizarteratzeko eta horiei lehenengo harrera emateko gizarte-baliabide publiko eta pribatuetan dauden atzerritar ugariak.

Lanaren eta egoitza-baimenaren arteko lotura egoera honetan negatiboki eragin duen elementuetako garrantzitsuenetakoa izan dela dirudi. Izan ere, azken urteetan, seguru asko krisi ekonomikoaren ondorioz, igo egin dira egoitza-baimenen ukapenak, Legean eskatutako kotizazio-aldiak bete ez direlako, borondatezko bajetan ezkutatuta lanetik bota dituztelako eta, lan-kontratuak desegin ostean, atzerritarrek ez dutelako EINeko zerrendetan izena eman, lan-eskatzaile bezala.

“Une honetan, krisiaz gain, lana eta egoitza-baimena legez lotuta daudela ikusten ari gara: lana galtzean, egoitza-baimena galtzen dute. Migrazio-prozesua normala (ez erraza) izan den kasuetan, hori guztia hausten ari da”.

(Foru-mailako administrazio publikoa)

Dirudienez, irregulartasun-egoera da elkarrizketatuek bazterkeriaren arrazoi nagusi gisa aipatzen duten aldagaia, batez ere herritar autoktonoen bazterkerian esku hartzen duten faktoreekin alderatzen badugu.

Hori horrela, elkarrizketetan jasotakoaren arabera eta gehien iritziari jarraiki, gizarte-bazterkeria osoan dauden edo gizarte-baliabideak eta gizarteratzeko dinamikak erabiltzen ari diren atzerritarren profila ez da autoktonoena bezain betirakoa, eta, orokorrean, ez dute hainbeste arazo izaten alkoholarekin edo bazterkeria betiko bihurtzen duten faktoreekin. Hala ere, etorkinek administrazio-irregulartasunaren egoeratik eta lan- eta egoitza-baimena berritzetik datozen arazoei egin behar diete aurre, eta, ondorioz, autoktonoek ez dituzten aparteko zailtasunak dauzkate gizarteratzeko orduan.

“Nire ustez, herritar autoktonoak eta etorkinak alderatuz gero, azken horiek betiko bihurtzeko arrisku gutxiago dute, urteetan zehar hemen bizi diren eta alkohol, kontsumo, familiako desegituratze larri eta abarrekin lotutako arazoak dituzten autoktono batzuek baino. Etorkinei hasieran gehiago kostatzen zaie gizarteratzea, beren egoera normalizatzea, baina beren agiriak erregulatzea lortzen dutenean, gizarteratzeko prozesuak askoz azkarragoak dira”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Gainera, atzerritarrek autoktonoek baino gizarte-sare eskasagoak dituzte. Nahiz eta egia den atzerritarren artean elkartasun-lotura irmoak sortzen direla, horiek ez dute babes-maila berdina eragiten autoktonoek dituzten gizarte eta familiako loturekin alderatuta, azken horiek normalean finkatuagoak eta gizarte-posizio hobean egoten dira eta. Horrenbestez, atzerritarren artean elkartasun-izla desberdinak bereiz daitezkeen arren (egoitza-babesa, karguko familiaren zaintzaren kudeaketa partekatua, eta abar), baliabide horiek arinago akitzen dira, babesa ematen duen pertsonaren egoera pixka bat hobea izan arren, sarritan eskasa eta ahula delako hala ere.

“Etorkinen erronketako bat gizarte-sare indartsua eraikitzea da. Sareak badituzte, baina eskasagoak dira; ezin dira alderatu autoktonoek dituzten gizarte-sareekin, lagun eta senide gehiago baitituzte hurbil. Horrek gizarte-ahultasun handiagoa ematen die”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

3. Oinarrizko beharrianak eta harrera-fasea

Bazterkeria-egoeran dauden atzerritarrek dauzkaten beharrianak anitzak dira eta gizarteratzeko fase desberdinetan eta horietaz arduratzen diren erakundeetan antola daitezke. Hori horrela, lehenengo harrera-fasean, eremu publikoko baliabide eta prestazioak eskuratu ahal izateko beharrezko erroldatze-aldiak bete arte itxaron bitartean, baliabide desberdinek estaltzen dituzte oinarrizko beharrianak, besteak beste, elikadura, garbitegia, osasun-txartelen tramitazioa eta atzerritarrak gizarte-babeserako sistemako gizarte-baliabideen zirkuituan sartzeko lehenengo tramiteak. Halaber, egoera irregularrean dauden atzerritarrekin ere egiten da lan beren estatusa erregulatzekeko estrategiarik onenak bilatzen, gizarteratzeko prozesu normalizatuak bizkortu eta eremu publikoko prestazio ekonomikoen mendetasuna saihesteko: dokumentazioa, etxebizitza eta lana ageri dira jarduera horiek zuzentzen dituzten beharrian nagusi gisa.

Prestakuntza-ikastaroak = gizarteratzeko eta laneratzeko bidea

Prestakuntza-ikastaroak integrazio-prozesu normalizatuak errazten dituzten aukeretako bat dira. Lan-merkatu sartu ahal izateko, lanbide jakin bateko prestakuntza eta trebakuntzaz gain, ikastaroek egonkortasun psikosoziala eman eta egoera erregularizatzen lagun dezakete, finkatzen diren heinean. Dena dela, kritiketan jasotakoaren arabera, ikastaroak ez daude beti lan-merkatuak eskatzen dituen profil profesioletara bideratuta eta, ondorioz, krisi-egoera kontuan hartuta, arrakasta zailagoa izan daiteke.

“Igeltserotza, pintura eta abarri buruzko ikastaro eta tailerrak eskaintzen dira, baina badakigu eraikuntzaren sektorea erori egin dela, eta, hortaz, irteten direnean ez dute lanik aurkitzen. Prestakuntza-eskaintza lan-merkatuaren errealitatera egokitu beharko litzatekeela uste dut. Horrela, prestakuntzaren ostean gizarte-laguntzen menpe egotea saihestuko litzateke”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Egungo ikastaro eta tailerren eskaintza berrikustea, plazak handitzea eta aniztasun gehiago sortzea beharrezkoa dela iradoki da. Horrez gain, kasu batzuetan eskatzailearen profila ez da beti lan-merkatuaren beharrianetara egokitzen, Sarturen memorian (2008) ikus daitekeen bezala: *“Erabiltzaile etorkinaren batez besteko profila Afrikako iparraldeko gizona da, 16 eta 45 urte bitartekoa, bikoterik gabea, lan-merkatuan profesionalki gaituta dagoela adierazten duen prestakuntza profesional aitorturik ez duena”*. Kontuan hartu beharreko beste alde bat, kasu batzuetan, irakasleen eta tailer-eskaintzaren nagikeriak dira, lan-merkatuaren errealitatera egokitzen ez direnak. Hala eta guztiz ere, prestakuntza-emaitzen aprobetxamendua gehien zailtzen duena prestakuntzan dauden pertsona askoren administrazio-egoera da. Izan ere, tailerretan parte har dezaketen arren, lan-baimenik ez badute ezingo dute tailer askok ahalbidetzen dituzten praktikak egin eta lan-mundura sartzeko aukerak zapuztu egingo dira. Ondorioz, emaitza, batzuetan, tailer ugari egiten dituzten pertsonen horien zentzua galtzea da, hau da, tailerrak egitearen helburu nagusia –lanpostua lortzea– zapuzten denean, horiek erabiltzeaz nazka daitezke.

4. Gizarteratzearen begirada murrizak

Elkarrizketetatik ondorioztatu daitekeenez, gizarteratzearen alorrean geroz eta txikiagoa da gizarte-zerbitzuek daukaten jarduera-eremua, bazterkeria-egoeran dauden taldeen normalizazioa jorratzeko. Hortaz, gizarte-langileak prestazio ekonomikoen kudeatzaile huts bihurtzen dira eta gizarte-zerbitzuetatik egin beharko liratekeen beste zeregin batzuk ahazten dira. Zereginak jasotzen ditu Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduko Legeko 6. artikulua, besteak beste: gizarte-beharrizanak antzematea, elkartasuna eta bizikidetzaren sustatzea, erkidegoko gizarte-partaidetza bultzatzea, gizarte-ongizatearekin, gizarteratzearekin eta gizarte-kohesioarekin lotuta, hainbat mekanismoren bidez eta beste sistema eta politika publiko batzuekiko lankidetzaren eta koordinazioaren. Gizarte-zerbitzuen zeregin geroz eta ekonomizistagoaren ondorioz, erabiltzaileak kexatu egiten dira gizarte-langileen bidez gizarte-prestazioak lortzea zaila dela esanez. Azken horiek, hala ere, araudi eta administrazio eskudunek ezarritako sarbide-mugak bete behar dituzte.

“Guri noiz iruditzen zaigu integratuta dagoela, dirurik eskatzen ez digunean? Bilbon oso gogoko izan nuen hitzaldi bat entzun nuen. Gizarte-langileak ez lirateke dirua banatzeaz arduratu behar. Dirua enpleguaz arduratzen den norbaitek bideratu beharko luke, hots, lanik ez daukazunean dirua emango lizuke egoera zuzentzeko”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“(…) Eta gero beste laguntza orokorrak ditugu, laguntza ekonomikoak, Oinarrizko Errenta. Geroz eta betekizun gehiago eskatzen dira. Nik ulertzen dut dekretuek eskakizun batzuk jaso behar dituztela diruaren banaketa bidezkoa izan dadin, baina non dago gizarte-langileak adierazi dezakeen egoera? Pertsona batzuen kasuan beharrian-egoeran daudela ikusten dugu, eta betekizunak direla medio ezin dute laguntzarik jaso, beharrian duten arren”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

EAEko Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko gizarte-zerbitzuen egiturak jaso dituen kritiken artean honakoak azpimarratzen dira: a) etorkinaren errealitateari eta gizartean, lanean, justizian eta adminis-

trazioan integratzeko beharriaz buruzko ikuspegi partzial eta banatua; b) esku-sartzearen eremu espezifikotik haragoko ezagutza falta, eta, ondorioz, kasuan kasuko laguntza edo prestazioa eman ahal izateko beste baliabide batzuetara bideratzeko zailtasunak, batez ere, Gizarte Segurantzarekin zerikusia duten eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik kudeatzen ez diren horiei dagokienez; c) atzeritartasunaren aldagaia tartean duten alderdi guztiei buruzko ezagutza falta, batzuetan egoera horretan dagoen pertsonak laguntza jakin batzuk jasotzeko eskubidea duen ala ez jakin gabe, eta, kontsulta-unea informazio hori deskubritzeko den arren, etorkinen taldearen lan egiteko araudiaren eta atzeritartasunaren aldagaien gaineko ezagutza eskasa erakutsiz.

Arartekoak oraintsu argitaratu du txostena, *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari* buruz (Arartekoa, 2010). Bertan, gabezia batzuk jaso dira, besteak beste, esku hartzeko ereduaren kopuru altua (udalak adina, txostenaren arabera), langile-igoeraren etendura, finantzazioaren gaineko heterogeneotasuna eta administrazio-lanen gehiegikeria, gizartean esku hartzeko lanen aldean. SIISek, txosten honetako laguntzaileak (SIIS, 2010), Zerbitzuan aldizkarian aipatu duen eta lan honen xedearekin zuzenean lotuta dagoen ondorioa azpimarratu nahi dugu:

“Aldaketa hau alde batera utzita, erabiltzaileen profilari eta oinarrizko unitateen gizarte-irudiari buruzko alderdi problematiko batzuk agertu dira: beste erakunde batzuen eskutik, oinarrizko gizarte zerbitzuek kudeatu behar dituzten prestazioak oker, arinegi edo azaletik hedatzeari buruzko arazoak; talde jakin batzuei, batez ere gutxiengo etnikoei prestazioak ematearen kontrako erreakzioen hazkuntza; eta bere eskubideen gainean oso jakitun eta arduratsua den baina neurri handi batean bere betebeharrak eta erantzukizunak ezagutzen ez dituen erabiltzailearen profilaren agerpena (bestalde, jarrera hau bateragarria da profil konformista eta esker onekoarekin, ez soilik emandako zerbitzuen kalitateari dagokionez, baizik eta gizarte zerbitzuak eskertu beharreko prestazio onuragarritzat jotzen dituenarekin eta horien gainean ezin dela exijentziarik planteatu uste duenarekin, haren ustez edonola ere eskerrak eman behar baitira)”.

(SIIS, 2010, 26. or.)

Gizarteratzearen eremuan lan egiten duten administrazio publiko eta erakunde pribatuek eta esku-men-sare konplexuek zailtasunak sortzen dituzte, erakundearen arteko sarea eta laguntza, prestazio eta administrazio eskudunen sorta ulertzeko orduan. Ildo horren harira azaldu litezke oinarrizko gizarte zerbitzuek aipatzen dituzten ondorezak. Izan ere, beraiek ez dira prestazioak ematen dituztenak; beren lana laguntzak kudeatzera mugatzen da eta prestazioak ematen ez direnean ez du beraiekin zerikusirik, betekizunekin baizik, nahiz eta, azpimarratzen dutenez, zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona askok ez dituzten alde horiek ulertzen eta beraiek jotzen dituzten prestazio horien ezezkoei erantzuleak. Hori horrela, atzeritarrak kexatu egiten dira laguntzarik ematen ez dietelako, ustez beraiek ez dutelako nahi edo diskriminazio kontuengatik.

4.1. Babes eta ongizatearen sistema kultura arteko errealtateetara ez egokitzea

Atal honi dagokionez, eta prestazioak eta administrazioarako harremanak gizarte eta kulturako errealtate desberdinetan ikusteko modu desberdinei jarraiki, etorkinek prestazio eta gizarte-ongizatearen sistemara sartzeko zailtasun batzuk dituzte, kultura-txokea eta kultura artekotasunaren maneia kausa.

Txoke horiek, bereziki, errealtate desberdinetatik familia-egiturak ulertzeko moduekin eta, batez ere, migrazio-proiektuak horietan duten eraginarekin lotuta daude. Hori horrela, kasu batzuetan guraso harremanik izan ez arren praktikan hala funtzionatzen duten familiak ikus ditzakegu adingabeen kargura, adingabea zaintzen dutenek familiarekin laguntasun-loturak edo bestelakoak dituztelako. Hala ere, ikuspegi autoktonoaren egitura itxiak ezin du ulertu nola egon daitezkeen haur bat beste batzuen edo

familia zabalaren zaintzapean. Egoera horrek, zalantzarik gabe, ez du bat egiten familiak prestazioak lortzeko bete beharreko araudiarekin, odolkidetasuna frogatu egin behar baita gizarte-laguntzak jaso ahal izateko. Gauza bera gertatzen da poligamia araututa daukaten gizarte eta kulturako errealitateen kasuan, emakume bat baino gehiago izan baitaitezke ezkontidearen ondoriozko alarguntasun-pentsioaren onuradun, elkarrizketetan azaldu den bezala. Argi dagoena da gizarte-babeserako sistemak gaitasun urria duela herritar berriek planteatzen dituzten errealitateetara egokitzeko. Hori horrela, elkarrizketetan ongizateren estatuak duen zorrotzasuna islatu da.

“(…) Legea –orokorrean– eta laguntzak –zehazki– eskuliburuko adibideetarako pentsatuta daude: nik, nire familiarekin, laguntza eskatuko dut; baina hori ez dator bat banatuta dauden familien migrazio-errealitatearekin. Hau txokedun kasu garrantzitsu bat da: Marokoko gizon bat hemen dago eta bi edo hiru emakume ditu (hemen, adibidez, bat eta beste biak Marokon). Bat baino ezin du familia batu, horixe baitio Atzerritarren Legeak. Madrilen instantzia altuetan tramite mordoa egin behar duen emakumeari buruz azaldu dudana ere beste adibide bat da. Nire ustez, argi eta garbi adierazten du kultura anitzeko errealitate hori ez dela ongizatearen estatuan islatzen”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Ildo horretan, baliabide edota prestazioen ibilbidea eta logika ez ulertetik etorritako hainbat oztopo ere antzeman ziren. Batzuetan, eskatzen ari den dokumentazioa zein den eta inprimakiak nola bete behar diren ulertzea zaila izaten da, batez ere hizkuntza bera ez duen jendearentzat. Eta konplikazio hori are handiagoa da, bereziki, gizarte-zerbitzuetan kudeatzen ez diren prestazioen kasuan, gizarte langileak ez daudelako bertan aurkeztu beharreko ziurtagiriari buruzko azalpenak eta tramitazioak errazteko. Ikus ahal izan dugun bezala, sarritan atzerritarrek lotsa sentitzen dute tramitazio hori ulertzen ez dutelako eta lotsa hori traba bihur daiteke beharrezko dokumentazioari eta prestazioari buruzko informazio gehiago eskatzeko orduan. Erkidego etniko eta kultural batzuekin, beharrezkoa izan liteke agirien eta kudeaketa administratiboaren zentzua azaltzea, batzuetan estatuarekiko eta administrazioarekiko harremanak oso desberdinak izan baitaitezke. Ondorioz, kontuan hartuta talde batzuek bezero gisako eruedetatik datozela eta horietan laguntzak eta beste ondasun batzuk legez kanpoko metodoen bidez lor daitezkeela, agiri bat erosi eta ordainduz, besteak beste, prestazio jakin bat jasotzeko prozesu burokratiko oso bat jarraitu behar dela ulertzea zaila izan daiteke. Izan ere, tramitearen arrakasta kudeaketa hori egiten duen profesionalaren borondatearen esku dagoela uste da eta horrek harreman oso konplikatuak sortzen ditu *profesionalaren* eta *hartzaillearen* artean. Azken horrek, prestazio eta prozesuen sistemaren erudia ondo ezagutzen ez duenez, bidegabekeria bat dela pentsa dezake eta biktima sentimendua gara dezake eskubidetzat jotzen duen zerbait ematen ez dion administrazioaren aurrean.

“(…) Eta, gainera, laguntzak jasotzeko beharrezkoak diren agiri guztiak. Kontua da ea gai garen azaltzeko zergatik bete behar dituzten agiri horiek guztiak, batzuek ez baitute ulertzen autobuserako txartela eskatzeko, adibidez, eskaera bat eta hainbat agiri bete behar izatea (...)”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Afrikakoak gehiago arduratzen nau, estatua aurrean duen poliziaren borondatea baita... eta horrek gero, hemen, oso deseroso sentiarazten du gizarte-langilea. Zuk nahi bazenu emango zenidake. Eta batzuk drogaz lepo daude eta batzuetan beldurra ematen dute...”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Era honetako egoerek nolabaiteko *burn outa* sortzen dute etorkinen frustrazioa jasotzen duten profesionalen artean eta horrek bazterkeria eta konfiantza faltako giroa sortzen du, administrazioaren eta atzerritarren arteko harremanak zailduz.

Hori horrela, beharrezkotzat jotzen da gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak ondo baino hobeto ezagutzea zein unetan dauden eta zein den jasoko duten prestazio bakoitzaren zentzua, hau da, beren bizitzako proiektuan eragiten duten ondorioen jabe eta beren ibilbidearen protagonista izan behar dira, eta ez bazterkeria eta mendetasun-egoeraren dauden biktima pasibo hutsak, beren prestazioak gizarte-agenteei kudeatzen dituztelarik.

Tramitazio-prozesuetan parte hartzeko aukerak frustrazio-sentsazioari aurre egitea eta bere ibilbideko aurrerapenak ikustea ahalbidetzen dute, eta, horretarako, ondo ulertu behar da zirkuitu osoa, prozesuak mantendu eta arrakastaz amaitu ahal izateko, prestazioen sistema betirako bihurtzea saihestuz. Nahiz eta kontu hau autoktonoen kasuan ere aplikatzen den, beharizan honek aparteko garrantzia du atzerritarren kasuan, esan bezala estatuaren ordezkapenak eta administrazioerikiko eta prestazioerikiko harremana oso desberdinak dira eta.

Onuradunen partaidetza sustatzeko aukeratutako formulak “gizarteratzeko hitzarmenak” izenekoak izan diren arren, horiek ez dute balorazio positiborik elkarriketatutako gizarte-agenteen artean. Batzuen ustez beharrezko tresnak dira, etorkinak gizarteratzeko prozesuen erantzuleak izan daitezten. Izan ere, tarteka laguntza eta gizarte-zerbitzuen sarbideari gehiegi eskatzen diotela kritikitzen da. Hala ere, elkarriketatutako gehienek, administrazio publikoko agenteak barne, kritika gogorak egin zituzten hitzarmenon gainean, formula horrek sarbidea erraztu baino gehiago trabatu egiten zuela esanez eta eskubideak batzuetan betetzeko ezinezkoak diren eta etorkinak eskastasun-egoerara bultza ditzaketen betebeharren baldintzapean zeudela argudiatuz.

“Gure aburuz, aberrazioa da ikuspuntu guztietatik: teknikoki, juridikoki eta eskubide aldetik. Iruzur honen ondorioz, norbait zerbait egitera behartzen da, gero eskubide izena dutenak kobratu ahal izateko. Betebeharrak eta eskubideak batera. Guk esaten genuen bezala, gizarteratzeko hitzarmenak iritsi arte ezagutzen genuen horrelako gauza bakarria soldadutza zen: Espainia babesteko eskubidea eta betebeharra”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Era berean, gizarte zerbitzuetako profesionalak orokorrean kultura artekotasanarekiko profesional sentikor gisa agertzen dira, atzerritarrekiko elkar ekintzan uneoro ikasten ari baitira. Baina, hala ere, tarteka profesional zenbaitzuk nolabaiteko konfiantza falta ageri dute talde honen egoerek planteatzen duten errealitatera (desberdina bera) begira eta ikasteko prestutasun gutxi dute. Aipatu beharra dago, dena den, salbuespenak direla horiek, eta ez joera orokorra.

“Gizarte-langileekin egiten dugun prestakuntzetan batzuetan ikus daiteke hori. Esate baterako, bitartekotza-taldeak gizarte-langileei jakinarazi zien bi abizen errepikatzen direnean aitaren abizena falta dela esan nahi duela, hau da, amaren abizenak soilik dituztela. Horrek ama ezkongabea dela adierazten du eta gizarte-ikuspegia aldatzen du. Orduan gizarte-langile batek esan zuen hori baino ez zitzaioala falta, bi abizenak berdinak ote diren ikusi behar izatea. Ez da hain konplikatu eta lan-tresna bat da, baina pertsona batzuek sentikortasun gutxi dutela jartzen du agerian. Buruek, sentikortasun gutxien dutenak nortzuk diren jakitean, prestakuntzetara joateko aukeratzen dituzte”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Etorkin batek planteatzen duen egoera baten ondorioz gizarte-zerbitzuetako langileek autoktonoekin erabiltzen dituzten eskemak apurtu behar badira, konfiantza falta sortu daiteke, eta, ondorioz, etorkinak, epaitua sentitzean eta inork sinisten ez duela pentsatzean, hitzordura ez bueltatzea erabaki dezake, berriz ere egoera hori jasan behar ez izateko. Hau da: gizarte-langileek erkidegoko edo gizarteko (oro har) kide gisa dituzten estereotipo eta aurreiritziek oztopoak eragin ditzakete zerbitzuen sarbide eta kalitatean, eta,

beraz, “gu autoktonoak” *versus* “zuek atzerritarrek” bezalako terminoak erabiltzera irits daiteke. Horrez gain, beren zeregina betetzean, botere eta hierarkiako harremanak sor daitezke “profesionalaren” eta “erabiltzailearen” artean, eta, atzerritartasuna kontuan hartuta, gizarte-distantziako elementuak gehitzen ditu: “gu, autoktonoak, laguntza-emaileak” *versus* “zuek, atzerritarrek, gizarte zerbitzuen kontsumitzaileak”. Laguntza-diskurtsoetan oinarritutako prestazioez hitz egitean, jasotzeko eskubideaz beharrean, estatus baxuagoan jartzen dira erabiltzaileak, beren estigma areagotuz. Hori dela eta, gizarte-ahultasuneko egoeran dauden atzerritarrei jatorriaren (batetik) eta marjinazioaren (bestetik) ondoriozko estigmak batu behar zaizkie. Elementu horiek eragin psikosozialak izango lituzkete eta gizarte-laguntza edota -prestazioak jaso ahal izateko beharrezko ibilbideekin jarraitzea zailduko lukete.

Kultura artekotasunaren eta genero-ikuspegiaren erabilerari aipamen berezia egin behar zaio. Izan ere, batzuetan, emakume etorkin batzuk gizarte-laguntzak edo prestazioak tramitzatzeko asmoz hurbiltzen direnean gizarte-zerbitzuetara, beren bikotekidearen eskutik etortzen dira, gizonak bihurtzen direlarik kudeaketako protagonista, nahiz eta berez emakumeak diren interesdun nagusiak. Arrazoia, edo, justifikazioa, honakoa da: gizonak, batzuetan, hobeto menperatzen dute xede-herrialdeko hizkuntza eta gizarte-zerbitzuetako inprimakiak ez daudenez hizkuntza guztietan, itzultzaile-lanak egin behar dituzte emakumeen aurrean, eta, ondorioz, azken horiek autonomia galtzen dute laguntzak edota prestazioak tramitzatzeko orduan. Kasu honek are ardura gehiago pizten du indarkeria matxistaren biktimei diren emakume etorkinen kasuan. Izan ere, araudiak generoan oinarritako indarkeriaren biktimei zuzendutako prestazioak jasotzeko ezartzen dituen oztopoez gain, laguntza-zerbitzuetara hurbiltzeko eta salaketa edo konpainiarako prozesuak hasi ahal izateko aparteko zailtasunak dituzte. Emakumeen eskubideei lotutako alderdietan ageri da zailtasun gehien, unibertsaltasuna eta kultura artekotasuna bateragarri bihurtzeko orduan. Izan ere, gizarte-agenteez erresistentzia gogorra erakusten dute azaldutakoa bezalako egoerei aurre egiteko.

“Bost urtez defendatu dugu ez dugula emakume arabiarrentzako hizkuntza-talderik diruz lagunduko, ordutegi guztietan klase mistoak ditugula (...) gizartea mistoa delako eta guk, administrazioa garen aldetik, pertsona oro integratu eta denen arteko harremanak sustatu behar ditugulako. Baina beraiek zera esaten dizute, ez doazela klasera bertan gizonak daudelako. Egoera ikusita, luze pentsatzen ari gara ea gure irizpide propioak urratu behar ditugun. Batzuen ustez hobe da normalizazioa apur bat sakrifikatzea, guztiz alfabetatu gabeak diren eta 15 urtez udalerrian bizi diren emakume arabiar nagusi hauei alde zaharretik irteten uzteko, zubi bat eskainiz, nahiz eta horrek asko gogaitzen gaituen. Baina, noski, beste batzuek atzera pausurik eman behar ez dela diote”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Horrek guztiak eztabaida bat pizten du: gizarte-zerbitzuen normalizazioa *versus* atzerritarrentzako baliabide bereziak sortzeko beharrezana. Gai horren inguruan, adostasuna berretsi da baliabide bereziek dituzten arriskuei buruz eta normalizazioaren alde egin da, honakoak lortzeko: a) integrazioa eta b) etorkinekiko diskriminazio positiboan oinarritutako talde arteko gatazkak saihestea. Normalizazioa lortzeko, hala ere, kultura artekotasuna ondo maneiatu behar da, zeharka. Horrela, atzerritarrek eta autoktonoek berezitasun desberdinak dituztela aitortu behar da eta errealitate horretara egokitu behar gara, gizartean beren presentzia normalizatuz, batez ere atzerritartasuna tartean duten alderdietan, funtsezko aldagaia baita talde honen ahultasun-egoeran. Ondorioz, kultura arteko bitartekariak eta interpreteek egindako lana estimatzen da, nahiz eta udalerrri batzuetan halakorik izatea zaila den.

Adierazitakoaren arabera, kultura artekotasunaren eta atzerritartasunaren gaineko prestakuntza jasotzeaz gain, laneko zeharkako elementu gisa, administrazio eta kudeaketako zereginak eta gizarteratzeko eta erkidego-lanerakoak bereizi behar dira, azken hori gizarte-langileek egin beharreko rolaengandik espero delarik.

5. Eskuragarri dagoen informazioa eta dokumentazioa

Gizarte-prestazioak jasotzeko aldagai garrantzitsuenetakoa horiei buruz eskuragarri dagoen informazioa da. Elkarrizketak beste zailtasun batzuk iradoki dituzte horiei eta beren erabilerari buruz eskuragarri dagoen informazioari dagokionez. Hasteko, nabarmentzekoa da, maiz, bazterkeria-egoeran dauden herri-tarrek erakunde eta elkarte desberdinetara jotzen dutela laguntzak eskatzeko, eta, horietako bakoitzean espedienteak irekitzeaz gain, aurkeztu beharreko dokumentazio eta betekizun guztien adostasun falta medio, batzuetan nahasmenduak sortzen dira laguntzak eskuratzeko moduen gainean.

Halaber, eskuragarri dagoen informazioa hedatzeko modua ere kontuan hartu beharra dago. Sarritan, pertsona batek prestazio bat lortu ahal izan badu, beste pertsona batzuek ere eskuratu dezaketela zabal daiteke, baina horretarako zein betekizun bete behar diren azaldu gabe. Hori dela eta, beste pertsona batek ez baditu eskatutako betekizunak betetzen eta prestazioa jaso ezin badu, bidegabekeria sentazioa eman dezake, batzuek eskuratu ditzaketelako eta beste batzuek ez, nahiz eta azken horiek araudiaren arabera ez dituzten betekizunak betetzen. Zurrumurruak eta betekizunei buruzko informazio iluna kausa, honelako akatsak eta ondorioak sor daitezke, informazio-orriak erabiltzaileen ama-hizkuntzan ez egotea ahaztu gabe. Hori guztia kontuan hartuta, argi dago informazio ulergarri (hizkuntza desberdinetan), argi eta bateratua beharrezkoa dela.

“Sestako emakume batek etorkinek dena dakitela esaten zuen; berak garbitzen egin duela aurrera bere alabekin eta etorkinak hegazkinetik irten eta dena dakiela. Baina ez da egia, ez dute hainbeste informazio”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Jendeak badaki laguntzak daudela, baina ez daki nora jo behar duen horiek eskuratzeko. Informazio falta handia dago”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Kasu batean, paperak zituen eta lanean zebilen Kolonbiako emakume bat izan dugu. Oso txarto zegoela ikusi genuen. Gaixotasun baten ondorioz atzamarrak barrurantz zituen eta hori sendatu egin daiteke, baina medikuak lana 3 hilabetez utzi behar zuela esan zion. Berak ez zuen halakorik nahi. Gero ulertu ahal izan genuen bere herrialdean ez dagoela Gizarte Segurantzarik eta ez zekiela gaixo egonez gero zein eskubide zituen. Arazoa zen ez zuela lanerako eta gizarte-babeserako sistema ezagutzen. Zaila da pertsona bati jakin behar duen oro azaltzea, beraiek ez dakitela imajinatu ere egin ezin dituzun gauzak hemen ohituraz egiten direnean”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Bestalde, pentsa liteke eskatzaileari ez zaiola behar duen informazio guztia ematen edo ez zaiola eskura dituen aukera guztien berri ematen, hau da, behar duen laguntzari buruzko informazioa soilik ematen zaiola, eta, beraz, pertsonak hala eskatzen ez badu, ez zaiola beharrezko informazio osoa jakinarazten.

“Ohikoa de honakoa esatea: ‘gizarte-langileak ez dit lagundu nahi’. Gizarte-langileak ezetz esaten duena balitz bezala. Kontua da jendeak ezagutza falta duela. Laguntzak prozeduren gainekoak baino ez dira: non eskatu behar den, zein agiri eraman behar den, zenbat denbora itxaron behar den ebazpenerako eta bakoitzaren funtzioa zein den. Gizarte-langilearen funtzioa tramitea egitea da, ez ebaztea... Gehienek, ordea, honakoa diote: ‘gizarte-langileak gogoko nau edo ez nau gogoko’”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Kontua da oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ez dagoela esku hartzeko eredu bateratu bat, eta, hortaz, dispertsio handia sortzen dela prestazio desberdinei buruzko informazioa eskaintzean. Arartekoak EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoerari buruz egindako txostenak dioenez, terminologia komuna ere falta da eta horrek eragin negatiboa du eskaintzen den informazioaren kalitatean.

Halaber, egiaztatu ahal izan denez oinarrizko gizarte-zerbitzuetan kudeatzen ez diren laguntzak dira informazio eskuragarri eta erabilgarri gutxien dutenak atzeritarrentzat, batez ere, Gizarte Segurantzako eremukoei dagokienez. Izan ere, gizarte-langileek beharrezko agiriak zeintzuk diren zehazten dute eta erreferentzia-puntu hurbilena dira oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik tramitatzen diren prestazioen kasuan, baina ez horietan kudeatzen ez diren laguntzei dagokienez.

Berez, adierazpen askotan antzeman da gizarte-langile askok konpromiso estua dutela era sortzailean oztopo jakin batzuk saihesteko eta prestazioen sistemara jotzeko zailtasunak dituzten atzeritarrei gizar-teratzeko eta bazterkeria-egoeratik irteteko formulak bilatzeko. Dena dela, zorte kontua da, kudeaketaren arrakasta pertsona bakoitzari suertatzen zaion gizarte-langilearen eta horrek dakarren arbitrariotasun inplizituaren esku dago. Horrenbestez, ezinbestekoa da prestazio desberdinak eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak eta sarbide betekizunak jorratzen dituen araudi zehatza izatea eta profesional eta onuradunek horren gaineko ezagutza zabala eskaintzea.

Era berean, erakunde eta administrazio desberdinek era koordinatuan egiten badute kasu baten jarraipena, sarbidea erraztu eta zailtasunak saihestu daitezke, dauden aukerak partekatu egiten direlako eta horretarako bitartekoak jartzen direlako, ahalegin bikoitzak egin gabe. Halaber, kultura arteko bitartekariak, konpainia egiteko duen funtzioan, berebiziko garrantzia du gizarte eta kulturako kode desberdinen ondorioz sortutako gaizki-ulertu posibleen aurrean eta bi hizkuntza ondo ez ulertzean egindako interpretazio okerren aurrean bitarteko lanak egiteko. Konpainiak konfiantza ematen dio erabiltzaileari, erakunde publikoekin harremanak ezartzeko dituen beldurrak saihestu eta ulermena errazten du.

6. KAPITULUA

ARAUDIAN ETA ETORKINEN PROFIL SOZIAL ETA DEMOGRAFIKO ETA JURIDIKO ETA ADMINISTRATIBOAN ERROTUTAKO ZAILTASUNAK

1. Gizarte-laguntzak eta -prestazioak eskuratu eta mantentzeko zailtasunak

Gizarte-laguntza edo -prestazioen kudeaketan lan egiten duten gizarte-agenteekin egindako elkarrizketetan, batetik, sarbidean jatorriaren ondoriozko diskriminaziorik ez dagoela adostu da, eta, beren-beregi jakinarazi da, batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten profesionalei dagokienez, pertsona guztiek baldintza berdinetan jotzen dutela horietara.

“Sarbidean etorkin izateagatik diskriminaziorik ez dagoela esango nizuke. Betekizunak berdinak dira guztientzat eta arreta berdina ematen zaie guztiei”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Edonola ere, gizartratzearen eremuan murrizketa eta oztoporako joera dagoela aitortu da, baina horrek atzerritarrei eta autoktonoei era berdinean eragiten die, nahiz eta lehenengoek beren agiri-egoeraren ondoriozko zailtasun bereziak dituzten. Hirugarren sektoreko agenteak dira (baina ez horiek bakarrik) sarbidean zailtasun zehatz gehien islatzen dituztenak. Hori horrela, praktikan berdintasun ezeko dinamikak sortzen dituzte eta etorkinek gizarte-prestazio edota -laguntzak eskatu, eskuratu eta mantentzeko orduan aurkitzen dituzten arazo praktiko eta zehatzen elementuetara hurbiltzen gaituzte.

“Prestazioak berdinak izango dira guztientzako. Txarrena betekizunen interpretazioa da; hor dago tranpa”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Hurrengo paragrafoetan, honakoak jasoko dira, zehazki: a) araudian eta etorkinen profil sozial eta demografiko eta juridiko eta administratiboan errotutako zailtasunak; b) atzerritarren laneko eta bizilekuko egoeraren ondoriozkoak; c) prestazioen kudeaketatik sortutakoak; eta d) babes-sistamarako sarbideari eragingo lioketen zailtasun psikosozialak.

2. Geroz eta murriztaileagoa den araudia: terminologiaren zehaztasun falta

Dirudienez, joera politiko eta alderdikoi batzuek sarbidea murrizten dute eta horrek kezka piztu du agenteen artean. Izan ere, gizarte-zerbitzuetara jotzeko errolda-denborak handitu dira, sarbidea egoera juridiko eta administratibo erregularrean dauden herritarrengana soilik mugatu da eta egoitza erregularreko geroz eta antzinatasun-urte gehiago eskatzen dira horien onuradun izan ahal izateko. Jakinarazi denez, krisi ekonomikoko garaietan laguntza eta prestazioen murrizketak bereziki eragingo dio etorkinen taldeari eta hori izan da, hain zuzen ere, azken araudi autonomikoa idatzi aurreko zirriborroetan mahai gainean egon den asmoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduko Legea idaztean, zehazki. Horrenbestez, asmo horiek justifikatu dira, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoa delako orain ere egoera juridiko eta administratibo irregularrean dauden atzerritarrei laguntza eta prestazioak jasotzeko aukera ematen diena.

“Murrizketa hau berariazkoa da, kontzientea. Eta kasualitatea, gainera, integratuz jotzen dugunaren hanka guztiak murrizten ari garela. Integrazioa ez baita Auzitegi Konstituzionalak pertsona irregularren greba-eskubidea aitortzea –oso ondo, eskerrik asko–. Lanik egin ezin badute, zertarako aitortzen zaie hori? Integrazioa etxebizitzarako sarbidea, lanerako sarbidea, laguntzetarako sarbidea da. (...) Atzerritar irregularrek gizarte-laguntzetara duten sarbidea oso kontu gatazkatsua izan da beti. Kataluniak eta Nafarroak laguntza horien aukera baztertu dute. Eta azkenengo euskal araudi hau idaztean, atzerritar irregularrak laguntza horietarako sarbideetik kanpo uzteko aukera planteatu da. Zein zen aitzakia? Irregularrak mantentzen zituzten bakarrak zirela eta, zergatik jarraitu behar da ba onguraren irabazleak izaten? Azkenean ez da kendu, baina era zehaztugabea idatzi da, nahita: bereizi egiten ditu legezko egoiliarak eta legez kanpokoak. Legezko egoitza eta benetako egoitza. Bereizketa hori, hasteko, txarra da, kontrakoa baita: benetako egoitzak ematen dio bide gizarte-hiritartasuna egiaztatu ahal izateari”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Nahiz eta legearen azken idazketan murrizketa hau ez den gauzatu, azken hamarkadetan gizarte-bazterkeriaren eremuan lan egiten aritu diren gizarte-plataforma eta erakundeen ahaleginari esker izan dela aipatu da, eta, hala ere, azken idazketak ez du asetasun handirik piztu gizarte-ahultasuneko egoeran dauden etorkinekin lan egiten duten agenteen artean. Legearen gaineko kritika nagusiak araudi desberdinetan erabilitako terminologiaren iluntasunarekin lotuta daude. Izan ere, zehaztasun falta horren ondorioz, zenbaitzuen ustetan nahita egin dena, bidegabekeriak sor daitezke laguntzak eskuratzeko orduan, araudia udaletako politika eta erregelamenduetan islatzen den moduaren arabera. Nolanahi ere, terminologiako anbigutasun horrek atzerritarrei baino ez die eragiten, autoktonoentzat ahulak ez diren administrazio-egoerei buruzkoak dira eta.

Zehazki, 3. artikulua idazketa aipatu da. Horren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskubidearen titular izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko edozein

udalerritan errolatuta dauden eta legezko eta benetako egoitza duten pertsonak. Legezko egoitzaren betekizuna ez dator bat Immigrazioaren Euskal Planak garatzen duen izatezko hiritartasunaren asmoe-kin eta zehaztasun ez hori da, hain zuzen ere, arriskutsua dena atzerritarrek baldintza berdinetan parte hartzeko sortu daitezkeen bidegabekerietara begira, beren erregularitasun-egoera juridiko eta administra- tiboan edozein dela ere, eta EAEn benetan bizi direla (legedia eta artikulua horren terminologiari jarraiki) adierazten duten ziurtagiriak eta errola-betekizunak bete arren. Halaber, argitasun falta kritikatu da gizarte-prestazioaren kontzeptua mugatzean, oinarritzko prestazioen eta prestazio espezifikoaren arteko bereizketa egitean eta aipatutako legea betetzeko atzerapenean. Lege horrek erakunde publikoak na- hasten ditu gizarte-zerbitzuen sailari buruz idaztean, eta, horren ordez, zehaztasun hori argitu eta egoera irregularrean dauden etorkinen sarbiderako betekizunak eta baldintzak zehaztu beharko lituzke.

“Inork ez daki zeintzuk diren oinarritzko zerbitzuak. Hori da inork ez dakiena. Atzerritarren Legearen arabera, legez kanpoko etorkin errolatuak Gizarte Segurantzako oinarritzko zerbitzuak jasotzeko eskubidea du, baina, zeintzuk dira? Hori da galdera; inork ez dizu ezer esaten. Osasunaren gaia, adibidez, beste artikulua batean dago. Eusko Jaurlaritzak unibertsala dela baina ez doakoa dio. Ez dauka zentzurik. Administrazioak zehaztu egin beharko luke zer den oinarritzko Gizarte Segurantzarako eskubidea eta nola zehazten den errealitatean”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Horren harira, elkarrizketek gizarte-zerbitzuetako prestazioetarako sarbidearen eskubide subjektiboa aipatu dute eta hori aurrerapen handia dela adierazi dute, eskubideen unibertsalizazioaren alde egiten baitu, nahiz eta zalantzati ageri diren horietatik kudeatzen diren prestazio ekonomikoak (Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak, zehazki) aurrekontu-horniduren menpe daudelako, eskubide honek ematen dituen bermeen aldean. Horrela adierazten dira eskubide subjektibo hori gauzatzeko moduari buruzko ardura eta horrek dauzkan inplikazio urriak, prestazioak kudeatzeko orduan. Horren harira, eta batez ere EAEn gizarte-bazterkeriaren kontrako foro edota sareetan parte hartu duten erakundeei dagokienez, Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak eskubide subjektiboaren parte izateko beharrezko ageri da, horrela aurrekontu-arrazoien muga ezabatuko delarik. Alderdi hori aldarrikatzeko arrazoi berezi bat egun etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak dira (bereziki atzerritarren kasuan, jabeek alokatzeko zailtasunak gehiago jartzen dizkietelako, abalaz edukitzeko treba gehiago dituztelako, eta abar).

“Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak aurrekontuaren menpeko eskubide dira, ez dira eskubide subjektiboa. Ondorioz, aurrekontu-hornidura iristen ez bada, eta hori gertatu ohi da, laguntza horiek murriztu egiten dira. (...) Gertatu izan da etxebizitza Gizarte-behar Larrietarako Laguntzaren hornidura ia guztiarekin geratzea, alokairua ordaintzeko bitartekorik ezin zutenei ordaindu behar zitzaielako. Eta ez denez eskubide subjektiboa, beti dago presio handia”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Gaur egun, aurreko adierazpenak Etxebizitzaren prestazio osagarriari (EPO) buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuarekin lotu behar dira. Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea garatze aldera idatzitako dekretu honek prestazio hori jasotzeko eskubide subjektiboa sustatu eta, beraz, sortzen du. Gizarte-behar Larrietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan araututako Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak (GLL) DBE eta EPOren osagarri eta laguntzaile izatera pasatzen dira. Prestazioaren izaera kontribuziozkoa eta finalista mantendu egiten dira, udal bakoitzeko aurrekontu-gordailuaren arabera. Horren harira, 4/2011 Dekretuak programara atxikitako urteko bitartekoak udalei banatu eta helarazteko prozedura ezartzen du. Prozedura hori aplikatuz, sailak urteko hainbat agindu argitaratu ditu, banaketa-irizpideak ezarriz. 2011. urterako, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Agindua eman da.

Prestazio guztiei eragiten dien alderdi garrantzitsu bat honakoa da: Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak (Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak barne) eskatu ahal dituzten bizikidetzak unitateak bi dira gehienez. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak ezartzen duen bizikidetzak-unitateen muga horrek zailtasun gehiago jartzen ditu prestazioak eskuratzeko orduan autoktonoekin alderatuta, etorkinen artean ohikoak baitira azpi-alokairuko egoerak. Horri buruz zehatzago mintzatuko gara erroldatzeko zailtasunak jorratzean.

3. Administrazio-irregularitasuneko egoera

Elkarrizketatuko pertsonak aipatu duten lehenengo oztopoetako bat araudiak ezartzen duena da: egoera irregularrean dauden etorkinei, nagusiki, prestazioak eskuratzeko aukera galarazten diena. Nahiz eta irregularitasun-egoerak hainbat prestazio eskuratzeko galarazten duen, elkarrizketek honakoak lortzeko zailtasunak baino ez dituzte identifikatu: a) egoera irregularrean dauden eta indarkeria matxistaren biktima diren emakume atzerritarrentzako prestazioak; eta b) egoera irregularrean dauden eta minusbalotasunen bat duten atzerritarrentzako prestazioak.

3.1. Indarkeria matxistaren biktima diren emakume atzerritarrek, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa eskuratzeko eskubiderik ez dutenak

Elkarrizketetan egoera irregularrean dauden eta indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen taldeak pizten duen ardurak jaso da, besteak beste. Indarkeria matxistaren biktima den emakume atzerritarrek indarkeria bikoitza jasaten duela adierazi da: erasotzaileak egindakoaz gain, legediaren diskriminazioa jasan behar du, etorkin-izaera biktimarenaren gainetik jartzen baitu. Etorkinaren elementuak eraldatu egiten ditu bai funtsezko eskubideen joera unibertsalista, bai Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 18ko 1/2004 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aldarrikatzen den unibertsaltasuna. Elementu hori hautsi egiten da atzerritarrei eskubide berdinak aitortzeari dagokionez, eta, zehazki, estatuak genero-indarkeriaren gainean dituen laguntza eta prestazioak eskuratzeari dagokionez. Abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretuak 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoa arautzen du, betekizun gisa enplegu-eskatzailera izateko ezarritik. Laguntza ekonomikoa Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (GEA) izenekoan zehazten da, otsailaren 25eko 205/2005 Errege Dekretuak araututakoan. Hala ere, egoera irregularrean dagoen emakumeak, ezin duenez enplegurik eskatu (erkidegotik kanpoko langile atzerritarrek enpleguko zerbitzu publikoetan eta lanpostu-agentzietan izena emateko aukera arautzen duen Lan eta Gizarte Gaien azaroaren 22ko 3698/2006 Aginduak beren-beregi debekatzen baitu), ezin du GEA eskuratu. Bazterkeria hori Atzerritarren Legearen erreformari buruzko 2/2009 Lege Organikoa onesteko tramitean azaldu zen, azterlan honen beste atal batean luze garatu dugun 14. artikulua eztabaidatzean. Laburbilduz, legebiltzarreko talde batzuek adingabeak diren eta minusbalotasunen bat duten atzerritarren antzeko trataera eskatzen zuten, hau da, beren-beregi aitortzea beren egoera fisiko edo psikikoak eskatzen zituzten tratamendua, zerbitzuak eta zaintza bereziak. Baina emakumeak aukera horretan ez sartzean, mugatu egiten da GEA lortzeko aukera, bereziki ahula den talde batengan (egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek), 2009. urteko urtarilean Ministroen Kontseiluak onetsi zuen Planean (Atzerritar etorkinen arteko genero-indarkeriari erantzuteko eta indarkeria prebenitzeko 2009-2012 plana) adierazten den bezala.

EAEren eremuan, Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 3ko Agindua aipa dezakegu. Horrek 2007ko azaroaren 29a aurreko Agindua indargabetzen du eta Babes Integralerako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan genero-indarkeriaren biktima diren

emakumeentzako aurreikusitako laguntza ekonomikoa eman eta ordaintzeko prozedura ezartzen du. Bai indarreko aginduak bai indargabetuak muga bera jartzen dute, laguntza hori eskuratzeko betekizun gisa honakoa aipatzen baitute 2.c artikuluan: *“lana eskuratzeko zailtasun bereziak izatea, Enpleguko Zerbitzu Publikoaren Txostenaren bidez egiztatuko delarik”*.

Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako laguntzak eskuratzeko zailtasunak ere antzekoak dira. Bestalde, Biktimei Laguntzeko Lege horretako araudiko (maiatzaren 23ko 738/1997 Errege Dekretua) klausula batek laguntza horiek jasotzeko aukera galarazten die egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrei, berez betetzeko zailak diren baldintzak bete arren. Kalte-ordaina lortzeko, adibidez, bere gorputz-osotasuna edo osasun fisiko edo mentala kaltetzen zuten lesio larriak jaso izana adierazten duen eta sei hilabetetik gorako behin-behineko ezintasuna edo behin betiko ezintasuna zehazten duen epai irmoa egiaztatu behar da. Laguntzak jasotzeko eragozpen horren arrazoia, elkarrizketatuen arabera, erregelamenduak “ohiko egoitzaren” kontzeptuari buruz egindako interpretazio murriztailea da, “egoitza erregularizatuarekin” alderatzen baitu.

“Larrialdi eta premiazko laguntzei dagokienez, guk hemen ematen dugu larrialdirako laguntza ekonomikoa. Guztiek eskuratu dezake, egoera erregularrean egon zein ez. Premiazkoa dela jotzen da emakumea etxetik irten den unean. Haurrak egon zein ez, eta ez digu beren administrazio-egoerak ardua. Guk beste laguntza batzuk tramitatu arteko kudeaketak egiten ditugu, baina arazoa gero dator. Arazoa beti dator gero, beste laguntzekin: egoera erregularrean ez dauden pertsonak ezin dute genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoa jaso eta ezin duten EINen izena eman. Hori beti gertatu izan da horrela”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

“Arazo nagusia da egoera irregularrean dauden emakumeek ez dutela GEArak jasotzen. Hori da arazo nagusia, halaxe ezartzen baita legean. GEAn sartu ezin izan dutelako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek izaten duten ibilbidea ere komentatu beharrekoa da”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

“Betekizunetako bat, eta hori da atzerritar irregularrek duten arazoa, enplegu-eskatzaila izateko betekizuna da. Izan ere, GEAn asmoa lana bilatu arte eta lan-munduan egon arte behin-behineko laguntzatxo ematea da. Eta lan-mundura sartzeko modua, noski, enplegu-eskatzaila izatea da. Hor dugu emakume atzerritar irregularraren kontra egiten duena.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Emakume atzerritar irregularrak ezin du lanik eskatu, ez daukalako paperik, eta paperik ez badu, ezin du GEA eskuratu. Praktikan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuari dagokionez, egia da nolabaiteko irtenbidea baduela. Azkenean gizarte-langileek larrialdizko arrazoiaren ondoriozko oinarritzko errenta tramitatzen diete, hori egia da, baina espainiar estatuko beste eremu batzuetan ezin da irtenbide hori aplikatu eta hori arazo larria litzateke”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Ikus dezakegun teknikariek azaldutako mugak nola islatzen diren atzerritarrek beren esperientziei buruz egindako lekukotzetan. Hona hemen:

“Boliviakoa naiz. 2005. urtearen amaieran iritsi nintzen Donostiara, nire senarrarekin batera. 2007ko maiatzean arazo bat izan zuen senarrarekin: jo egin ninduen, tratu txarra eman zidan. Bere familiak Bolivian geratu ziren nire bi seme-alaben aurkako errepresaliak hartuko ote zituen beldur nintzen, eta, ondorioz, nire herrialdera bueltatu behar izan nuen. Gero, nire bi seme-alabekin itzuli nintzen. Nire senar ohiarekin harreman oro saihesteko, Iruñean erroldatu nintzen. Gero azaldu zidaten tratu txarrak jasan dituztenentzako laguntza bat dagoela, baina egun, paperik ez daukadanez, ezin dut eskatu (Gizarteratzeko Errenta Aktiboari buruz ari da). Bestea ere ezin du eskatu, Oinarrizko Errenta, Euskal Autonomia Erkidegoko errolda galdu bainuen. Era berean, gizarte-finkapena eskatu nezakeela azaldu zidaten, baina nire seme-alaben bila irten behar izan nintzenez, hiru urteko egonaldia eten zen eta gizarte-finkapenagatiko baimena eskatzeko eskubidea galdu nuen. Hori besterik ezin dut egin, utziko balidate. Izan ere, nire senar ohiak alde egin du eta auzi-iheslariaren aitortpena egin du. Ondorioz, oraindik ezin da tratu txarren epaiketa egin”.

“Marokokoa naiz. Espainian nago 2001. urtetik. Bi seme-alaba ditut, bat hemen jaioa. Biek dute egoitza-baimena, nire senarrak familia batu baitzuen. Hala ere, urte guzti hauetan zehar nik ezin izan dut nire egoera aldatu, senarrak ez baitzuen nik lan egiterik nahi. Beti egin zuen horren aurka eta ez zidan paperak egiten uzten. Eta lana aurkitzea kostatzen zait, oraindik ez dudalako hizkuntza ondo ulertzen eta oso gutxi irtetzen naizelako. 2007. urtearen erdialdean, nire senarrak jo egin ninduen, baina ez nuen urruntze-agindua lortu, ez eta egoitza-baimena ere (Atzerritarren Araudiko 39. artikulua kausa). Gero, Oinarrizko Errenta eman zidaten, baina hilabete asko pasa ziren hori baino lehen eta lagun batek lagundu behar izan zidan etxearekin eta diruarekin. Azkenean, duela hilabete batzuk paperak lortu nituen, finkapenaren bidez. Horren aurretik izan nuen beste arazo bat ere, pasaportea irauungi zitzaidanean. Berritu egin behar nuen, eta, horretarako, nire senarrak egin behar zuen tramitea, baina urruntze-agindua zuenez, ezin zen aurrera egin, eta Maroko Kotsulatuak nire senarrak egon beharra zuela zioen¹”.

Elkarrizketetako lekukotzetan ikus daitekeen bezala, tratu txarren egoeratan atzerritartasun-egoera tratu txarren gainetik dago.

Minusbaliotasuna, irregulartasun-egoerak eta gizarte-prestazioak

Era berean, minusbaliotasun fisiko nahiz mentalen bat duten etorkin irregularrak prestazioak jasotzeko duten aukera are zailagoa da, hainbat oztopo aurki baititzakete osasun-arretako baliabide espezializatuak eta minusbaliotasunaren ondoriozko prestazio ekonomikoak eskuratzeko orduan. Atzerritarren Legeko 14. artikulua arabera, Espainian legezko egoitzarik ez duen etorkinak oinarrizko prestazioak baino ezingo ditu lortu. Etxeko indarkeriaren biktima izandako emakumeei buruzko atalean azaldu den bezala, Atzerritarren Legearen erreformari buruzko 2/2009 Lege Organikoa onesteko tramitean hainbat zuzenketa aurkeztu ziren minusbaliotasunen bat zuten pertsonen eta etxeko indarkeriaren biktima izandako emakumeei baliabide espezializatuak lortzeko sarbidea arintzeko, hau da, Atzerritarren Legeak prestazio espezifikoko gisa zehazten dituenak (oinarrizkoen aldean) baimentzeko. Legebiltzarreko eztabaidaren ostean, Atzerritarren egungo Legeak, 2/2009 Lege Organikoa emandako idazketan, minusbaliotasunen bat duten etorkinak sartu ditu, baina soilik adingabeen kasuan. 2/2009 Lege Organikoa egiten duen eransketak honakoa dio, zehazki: “Edonola ere, minusbaliotasunen bat duten

¹ Tratu txarrak jaso zituen emakume honek beste arazo bat ere jasan behar izan zuen. Izan ere, Kotsulatuaren arabera tratu txarren ondoriozko kondena ez du ondorioz Marokoko Legean eta, lege horri jarraiki, senarrak baino ezin zituen emaztearen eta seme-alaben pasaportean berritu. Azkenean, senarrak laguntzea erabaki zuen.

atzerritarrek, hamazortzi urte baino gutxiago badituzte eta ohiko etxebizitza Espainian badute, beren egoera fisiko edo psikoak eskatzen dituen tratamendu, zerbitzu eta zaintza bereziak jasotzeko eskubidea izango dute”. Laburbilduz, legezko egoitzarik gabeko adingabeak salbu, ezingo dira eskuratu ez soilik minusbaliotasunaren ondoriozko ordainketaren arabera prestazioak eta ordainketaren arabera ez direnak, ez eta prestazio-hartzaile izan ahal izateko beharrezko minusbaliotasun-ziurtagiriak lortzeko balorazio egokia ere.

“Gizarte Segurantzari buruzko Legean minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako laguntzak dauden arren, minusbaliotasunaren ziurtagiri medikoa izatea beharrezkoa da. Hori epaimahai medikoaren eskumena da, foru-aldundietan tramitatzen da eta ebaluatuko duen lehenengo alderdia aitortpena eskatu duen pertsonaren egoera juridiko eta administratiboa izango da. Egoera erregularrean ez badago, ezin izango du azterketa hori egiteko aukerarik izan”.

(Udal-mailako administrazio publikoa)

Bestalde, gai hauetaz hitz egiterakoan ezin dugu ahaztu Autonomia Pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Mendetasunari buruzko Legea izenez ezaguna. Lege honen helburua, hitzaurrean adierazitakoari jarraiki, Espainian hiritartasun-eskubide berria aitortzea da: autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eskubidea, Autonomia eta Ezinduentzako Laguntzarako Sistema (SAAD) sortuz. Dena dela, etorkinek eskubide garrantzitsu honetaz baliatzeko orduan Espainiako lurraldean 5 urtez legezko egoitza eduki izanaren betekizuna egiaztatu behar dute. Hori guztia, nahiz eta minusbaliotasun-maila aintzatesi, aitortu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak ez duen bazterkeria horren gaineko berariazko aipamenik egiten. Azkenik, kontuan hartu gaitasunen eta autonomiaren balorazio ezak galarazi egiten duela ez soilik prestazio ekonomikoak eskuratzea, baizik eta baita eguneko zentroa edo errehabilitazio psikosoziala bezalako beste baliabide batzuk lortzea ere, Mendetasunari buruzko Legean aurreikusitakoak.

Gizarte-babeserako sistemara sartzeko zailtasun bereziak jasaten dituzten atzerritarren lekukotzetan ere antzeman daiteke horrelako zerbitzuak.

Legearen garraztasuna nabaria da, ez baitio lan-mundu babestura sartzeko aukera ematen minusbaliotasunen bat duen pertsonari, ez daukalako lan-baimenik, eta, era berean, ezin du lan-merkatu ez babestura sartu, mendetasun fisiko bat duelako. Baina mendetasun hori aitortuta ez duenez, merkatu normalizatuan mugitzen saiatu behar da, eta horrek are zailago egiten du kontratua lortzea.

“Kasu honetan M.E.ri buruz ari gara. 2005. urtearen amaieran iritsi zen Ekuadorretik, bere ahizparen iloba zaintzera. Minusbaliotasun fisiko baten ondorioz ezin du lan-mundu normalizatuan sartu. Hala ere, egoera erregularrean dagoenez, aldundiko zerbitzu teknikoek ez zioten bere minusbaliotasun-maila baloratu eta kalifikatu, eta, beraz, ez zuten gizarteratzeko enpresa batek kontratatu ahal izateko txostena egin. Zirkulu hori eteteko modu bakarria enpresak salbuespen bat egin eta urtebeteko kontratua eskaintzea da, minusbaliotasuna egiaztatu ez arren, horrela lan- eta egoitza-baimena lor ditzan, finkapenagatik. M.E.k egun arazo berriak ditu. Izan ere, une honetan bere baimena berritzeko zailtasunak ditu eta bere minusbaliotasun-maila berrikusteko espediente bat hasi behar duen arren, zerbitzu teknikoek ez badute hori egiten, duela lau urteko egoera berean egongo da”.

4. Laneko eta egoitzako egoeraren ondoriozko zailtasunak

4.1. Langabezia estaltzen ez duten lan-sektoreak: etxeko araubideko langileak

Gizarte-babeserako sistemara sartzeko ahultasuna antzeman da lan- eta egoitza-baimena eduki arren Gizarte Segurantzako Etxeko Langileen Araubide Berezian dauden pertsonen kasuan, ez baitaude estatuak bideratzen dituen langabezia-prestazioak lortzeko aukerarik. Nahiz eta oztopo hau ez den atzerritarrena bereziki, emakume atzerritarren ordezkari handia dago lan-sektore honetan, etxeko zerbitzuetan, alegia. Kontingenteen kontratazioaren bidez lortutako lan-baimenetan ikusi ahal izan denez, azken urteetan zehar emandako kontratu gehienak zerbitzuen sektorean izan dira, batez ere etxeko langileen kasuan, eta erkidegotik kanpoko etorkinen lan-espazioa merkatuko segmentu bakoitzean balorazio txarrean duten enplegetara mugatu da. Alde batetik, emakumeen kontratazio gehien dauden segmentuaren barruan, hots, zerbitzuen sektorean, etorkinak erregularizatzeko aukerak etxeko langileen lanbideetara murrizten dira, batez ere adinekoak zaintzeari dagokionez. Hori horrela, emakumeen lan-egoerak emakume etorkinen lan-sektore nagusiko lan-legediaren eragina du: Etxeko Langileen Araubide Berezia (abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege Dekretua, etxeko zerbitzuaren lan-harreman berezia arautzen duena). Soldatapeko beste edozein sektoretan pentsaezinak liratekeen aparteko lan-baldintzak legeztatzen dituen araudi diskriminatzailea da. Etxeko Zerbitzuak jorratzen dituen funtzioak askotarikoak dira, etxeko lanak eta pertsonen zaintza barne: *“Lan-harreman berezi honen xedea dagokion etxean edo etxerako egindako zerbitzu edo jarduerak dira, etxeko lanetako modalitateetako edozein izan daitezkeela, esate baterako, familiako kideak edo etxebizitzan bizi direnak zaindu, lagundu edo zuzentzea, edota haurtzaindegi, lorezaintza, ibilgailuen gidaritza eta antzeko lanak, baldin eta etxeko lanen multzoko parte gisa garatzen badira* (1424/1985 Errege Dekretuko 1. artikulua). Legedia honek merkatuan eskatu daitezkeen gutxieneko lan-baldintzak arautzen ditu, ahozko kontratuak ezartzeko legezko aukera onartzen du, bai eta enplegu-emaileak nahierara lanetik bidaltzeko aukera ere, Lanbide arteko Gutxieneko Soldata gutxieneko ordainsari gisa aitortzen du eta barne-araubidean lanean ari diren pertsonen mantenua eta ostatua %45 (gehienez) murrizteko aukera azaltzen du. Hau da, lan-esplotazioa sustatzen duten lan-baldintzak arautzen ditu.

“Neska honek urte asko daramatza etxeko langile gisa lanean. Diru gutxi irabazten du eta ez da iristen, baina ezin du daukan lana utzi. Ezingo luke langabezia kobratu, daukan araubideak ez baitu eskubide hori ematen. Eta hori etxeko eremuan lan egiten duten emakume etorkin askori gertatzen zaio”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

4.2. Egoitza-baimena eta gizarte-prestazioak berritzea: arriskuaren eta aukeraren artean

Egoitza- eta lan-baimenen eta gizarteratze-prozesuak hasi, eta batez ere, denboran zehar mantentzeko zailtasunek sortzen duten inplikazioen arteko egungo loturan, batzuetan, atzerritarren legediak gizarte-prestazioen mendetasuna uzten dute formula bakarrenetako gisa, etorkinek beren legezko egoitza-baimenak berritu ahal izateko. Horren arabera, gizarte-prestazioak jasotzen dituzten pertsonen beren baimena berritu dezakete, Atzerritarren Legeko 38.5 artikuluari jarraiki. Edonola ere, legezko egoitza edukiz gero errazagoa da lana bilatzea, administrazio-egoera irregularrean egotean baino. Hori bai, gizarte-laguntzen bidez (EAEren kasuan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izan ohi da) lan- eta egoitza-baimena berritzeak hainbat arazo planteatzen ditu praktikan. Ondorioz, azpimarratzekoa da, adibidez, ematen den baimenaren iraupena prestazioaren araberkoa dela. Bestetik, eta berritzen den baimen horren estaldurapean senideak daudenean, Gobernuko Ordezkariordeztzak bizi-bitarteko nahikoa ez direla

ulertzen du, eta, beraz, baimena ukatu eta irregulartasunera bueltatzen da. Langabeziaren ondoriozko prestazioari dagokionez, zehazki, egoera zital bat gertatzen da baimena berritzean. Izan ere, Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak (antzinako EIN) baimena berritzeko eskatzen du prestazioa onartu ahal izateko, eta, aldi berean, Gobernuko Ordezkariordeztarentzat beharrezkoa da langabezia kobratzen ari dela egiaztatzea, baimena berritze aldera. Ohiko kasuen zerrenda honekin amaitzeko, eta beste egoera batzuk aurkitzea posible delarik, aipatzekoa da egoera batzuetan prestazio-mota horien hartzailea den pertsonak aukeratu egin behar duela ea fikziozko lan-kontratua aurkeztuko duen berritzeko berme gehiago izan ditzan, laguntzak galdu ahalko dituen arren.

Azkenik, Atzerritarren Legeko zigor-eremuari dagokionez, 57.5.d) artikulua honakoa dio: ez zaie kanporatzeko zigorrak ezarriko Espainian gertatutako lan-istripu edo gaixotasun profesional baten ondoriozko lanerako behin betiko ezintasunagatiko prestazioaren onuradun direnei, ez eta langabeziagatiko ordainketaren araberako prestazioa jasotzen dutenei edo gizarteratzea edo laneratzea xede duten laguntzako prestazio ekonomiko publikoaren onuradun direnei ere. Kanporatzeko debeku hau aplikatzearen ondorio praktikoak oso garrantzitsuak dira. Ohikoa izaten da egoera irregularrean dagoen eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen atzerritar bati kanporatzeko espedientea irekitzea egonaldi irregularrean egoteagatik. Horregatik da garrantzitsua argi eta garbi zehaztea egoera irregularrean dauden atzerritarrek prestazio-mota hau jasotzeko duten eskubidea. Horrez gain, Atzerritarren Legeko 14. artikuluko interpretazio-arazoak ere zehaztu behar dira, lehen ere azaldu ditugunak.

“Ezarrirako diskurtsoaren arabera, atzerritarrek gehiegi erabiltzen dituzte gizarte-laguntzak; hori da premisa. Ba nik bestelakoa diot: Atzerritarren Legeak behartzen ditu atzerritar asko gizarte-laguntzen menpe egotera.

Atzerritar batek lan-kontratua behar du baimena berritu ahal izateko, baina kontratu hori oso eskasa baldin bada, ez da Legean eskatutako gutxienekoetara iristen eta batzuetan laguntzen bidez eustea beste irtenbiderik ez du.

Baimen-berrikuntzek, Atzerritarren Legeak eta Atzerritarren Araudiak diotenez, posible da baimen bat berritzea atzerritarrek gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzaren bat jasotzen baldin badu, edo horrelako zerbait. Hemen, beraz, Oinarrizko Errentak berebiziko garrantzia du”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Laguntza horien bidez baimenak berritu daitezke, baina, hala ere, ez da idealena. Izan ere, legeak onartzen duen arren, praktikan berrikuntza bat ukatu egin daiteke, baldin eta Oinarrizko Errentaren prestazioa baino ez badaukazu. Gainera, bere baimena berritzen ari bada, esaterako, langabeziaren subsidioa jasotzen duelako, bere baimenaren iraupena langabeziaren prestazioan duen aldiaren araberkoa izango da soilik. (...) Familia batzeko saiakerak egiten ari direnentzat ere beharbada ez da onuragarria, Ordezkariordeztak honakoa izango baitu: ‘Nola mantenduko duzu norbait zuk zeuk bizirauteko laguntza behar baduzu?’ (...) Gainera, Atzerritarren Legeari eta araudiari jarraiki, gizarteratzeko eta laneratzeko errentak jasotzen dituen pertsona bat ezin da kanporatua izan, baina, praktikan, atzerritarren brigadak ez du hori sinisten, batez ere Estatuko gainerako lekuetan pertsona irregular batek inoiz ezin dituelako laguntza horiek jaso, eta, ondorioz, irregularrarentzako salbuespen oso onuragarria dela uste dutelako”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

4.3. Adin kontua: 18 eta 23 urte bitarteko hutsunea²

Prestazioen eremuan 18 eta 23 urte bitartekoek duten hutsunea ere adierazi da. Izan ere, etorkinen kasuan adingabeak babes-sistematik pasatutako jendea izaten da eta adinez nagusi bihurtzean, babesik gabe gelditzen dira, sarritan beren dokumentazioa tramitatu gabe, eta, ondorioz, gizarteratze eta laneratze normalizatu lortzeko egoitza- eta lan-baimenak eduki gabe. Adin-tarte honetako herritarrak estaltzeko prestazio ekonomikoak onesten joan diren arren (ibillbide luzeagoa du Bizkaian, gainerako foru-aldundietan baino), elkarrizketetan aipatu den bezala, ez da nahikoa, batez ere ematen zaien zenbateko urriagatik. Hori dela eta, adingabeak babesteko sistemak ez duela horiek adinez nagusi bihurtzean daukaten ahultasun-egoera aurreikusten ondorioztatu da. Aitortu beharra dago muga hori autoktonoen artean ere ageri dela, nahiz eta kalean dauden gazteen artean atzerritarrak nagusi diren, Magrebetik datozenak batez ere.

“Arazoa, orain, adinez nagusi bihurtu eta etxerik gabe gelditzen diren horiena da. Emantzipazio-plazak falta direnez, kalean daude, ostatua izateko laguntzarik gabe, eta, asko, inolako agirik gabe, haurrak babesteko zaintzapean egon badira ere”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

“Orain, adin edo errolda kontuengatik Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidea ez duten pertsonak aztertzen dituen prestazio ekonomiko berria jarriko dugu martxan. Oinarrizko Errentaren %80 izango da. Gizarteratzeko hitzarmen bat eskatuko da eta emantzipazio-pisuak hortik kanpo egongo dira”.

(Foru-mailako administrazio publikoa)

5. Errolda eta benetako egoitza frogatzea

Zalantzarik gabe, errolda da gizarte-agenteen artean gehien aipatzen den benetako zailtasuna eta herritarrek konpondu beharreko arazo nagusia da, gizarte-prestazioen onuradun izateko eskatzen diren oinarrizko betekizunetako bat baita. Azpimarratu egin da betekizun hori pertsona guztiek bete behar dutela, beren jatorria edozein dela ere, eta horrenbestez, ezin dela atzerritarrentzako oztopo berezia denik esan. Baina atzerritarrek erroldatzeko daukaten zailtasunak ukaezinak dira, nahiz eta egia den prestazioen erabilzaila autoktonoek ere oztopo hori gainditu behar dutela.

“Gainera, Administrazio publikoko laguntzetarako, errolda beharrezkoa da eta, gauzak dauden bezala, oso zaila da errolda lortzea. Batez ere logela bat nahi badute inork erroldatu nahi ez dituen pisuak baino lortu ezin duten pertsonentzat. Izan ere, pisu horietan batzuetan dagoeneko badago besteren bat laguntza jasotzen duena edo, beharbada ez du bizigarritasun-baimenik izango, edo, batek daki, mila arrazoi egon daitezke”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Kontuan hartu behar da, era berean, mugikortasuna etorkinen bereizkerietako bat dela, batez ere finkatu edota integratzeko lehenengo fasean. Horrek gizarte-prestazioak eskatu ahal izateko errolda-egonkortasuna zailtzen du, eta, nola ez, zaila da antzinatasun-hilabete jakin batzuk edo alokairu-kontratuak edukitzea, besteak beste. Sarritan, hirugarren sektoreko erakundeek etorri berrientzako erroldak sustatzen dituzte beren egoitzetan, gizarte-zerbitzuen sarera sartzeko erraztasunak izan ditzaten. Hala

² Elkarrizketak egiterako uanean, Gipuzkoako Foru Aldundiak oraindik ez zuen onetsi 18 eta 23 urte bitarteko gazteentzako prestazio ekonomikoa (Gizarteratzeko laguntza ekonomikoa arautzen duen uztailaren 28ko 29/2009 Foru Dekretua, 157. zenbakidun GAO, 09-08-21ekoa). Edonola ere, talde horrekiko antzemandako beharrianak islatzen ditu.

ere, lotura handiagoa izan ohi dute osasun-txartela lortzeko aukerarekin, laguntzen eskatzaile izateko benetako aukerarekin baino.

“Gu gizarte-errolak egiten ari gara, jendeak osasun-txartela behar duelako eta erregularizazio-gaiak direla eta. Printzipioz, hiru hilabeterako egingo dugula esaten diegu; hiru hilabeteren ondoren arrazoi horiek izaten jarraitzen badute, luzatu egiten ditugu. (...) Baina jendeak benetako errolak behar ditu errentak eskatu ahal izateko”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Kontua da prestazio jakin batzuk eskuratzeko orduan ezinbestekoa dela ohiko egoitza eta alokairu-kontratua errolarekin bat etortzea eta betekizun hori ez da etorkinen errealtatera egokitzen. Asko helbide batean bizi eta beste batean errolatuta daude, kasurik onenean herri berdinean, edo, gutxienez, autonomia erkidego berean, baina batzuk EAEn bizi eta lanean ari dira, nahiz eta oraindik beste autonomia-erkidego batzuetan errolatuta jarraitzen duten. Hirugarren sektoreko erakundeen bidez egiten den errolak arazoak ere baditu. Lehenengo errolaren modalitatea da, “fikziozko errola” gisa sailkatzen dena Udalei udal-errolaren kudeaketaren gaineko jarraibide teknikoak emateari buruzko 1997ko uztailaren 21eko Ebazpenaren arabera (BOE, 1997.07.25). Bertan, azpi-etxebizitzaren eta “marjinatuen” arazoa ageri da, fikziozko helbideetan errolatu ahal izateari dagokionez. Ebazpenaren arabera, etxebizitzarik ez edukitzeagatik edo bestelakoengatik errolatzea ezinezkoa baldin bada, gizarte-zerbitzuei egoeraren berri eman behar zaie, errola-mota hori baimentzeko ardura beraiena da eta. Hala ere, eta ezin hobeto araututa dagoen figura hori gorabehera, udal askok ez dute errola-mota hori onartzen. Horren adibide da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2010eko martxoaren 29ko epaia da, Arabako SOS Arrazakeriak Vitoria-Gasteizko Udalaren kontrako jarritakoa. Epaia mamia, beste alderdi batzuk tartean dauden arren, erakundearen gizarte-egoitzan lauhun pertsona ingururen errola onartzea da. Nahiz eta epaimahaiak ez duen gaia sakon epaitzen, epaiaren arrazoia SOS Araba bezalako erakunde bati atzerritarrek beren errolarekiko eskubideak defendatzeko legitimitatea ez aitortzea da.

Errolatzea izugarriko zailtasuna da etorkinentzat: maizter askok beren jabetzak alokatzeko jartzen duten baldintza bertan errolatu ezin dela da, eta, horrenbestez, etorkinek beste estrategia batzuk bilatu behar dituzte errolatu ahal izateko. Etxebizitzaren eta errolaren kontua benetako arazoa da herritarrentzat, orokorrean, eta etorkinentzat, bereziki, aintzat hartzen baditugu espekulazio izugarria, tokikoek eta etorkinek egindako azpi-alokairuetan gertatzen diren gehiegikeriak eta bidezko eta zuzenbide osoko kontratua eta errola duen logela bat eskuratzeko zailtasuna. Zalantzarik gabe, elkarrizketek diote Gobernuak edota Etxebizitza Sailak horren gaineko zerbait egin behar lukeela aspaldi, etxebizitza-kontratuak egiten dituztenek beren betebeharrak guztiak bete ditzaten.

Batzuetan, jende askok, elkartasuna medio, bertan bizi ez ziren pertsonak errolatu ditu etxean, eta, egun arazoak jasaten ari dira asko, elkartasun horren ondorioz benetan existitzen ez den diru-sarrera baten gaineko zergak ordaindu behar baitituzte, errola horregatik kobratzen eta alokatzen ari direla uste delako. Halabeharrez, jendeak uste du alokairu irregularretan, kontraturik gabekoetan eta errolatze ezintasuna dutenetan esku hartzen ez bada, zigortu eta jazarri egiten direla etorkinei eskubide horiez jabetzeko aukera ematen dieten estrategiak. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, Atzerritarren Legearen erreformari buruzko 2/2009 Lege Organikoan arau-hauste berri bat sartzean. Izan ere, 53.2 artikulua arau-haustetzat jotzen du: *“atzerritar bati udal-errolan izena ematea horretarako gaitutako etxebizitzaren titularra denaren eskutik, baldin eta etxebizitza hori ez bada atzerritarren benetako etxebizitza”*. Dirudienez artikulua honek ez du kontuan hartzen errolaren oinarri den araudi erreferentea, ez eta etorkinen inguruan dauden gizarte-arazoak eta errolatzeko dituzten zailtasunak ere. Lehenengoari dagokionez, abiapuntua Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legeko 15. artikulua da: *“Españian bizi den pertsona oro behartuta dago bere ohiko bizileku den udalerriko errolan izena ematera”*. Errola, beraz, eskubidea

eta betebeharra da, aldi berean. Hori dela eta, Toki Erakundeen Lurralde Mugapenari eta Biztanleriari buruzko Araudiko 72. artikulua izen-emate okerregatiko baja xedatzen du eta, era berean, 73. artikulua udalari aukera ematen dio bere udalerrian bizi ohi diren eta bertan izena emanda ez dauden pertsonen erroldako alta aitortzeko, ofizioz, auzokide gisa.

Dena dela, aurrekari horiek aintzat hartuta, aipatutako legeak are gehiago estutu du egoera, zailtasun gehiago jarri baititu atzerritarren erroldarako, horrek dakartzan ondorio larriekin. Ezin dugu ahaztu erroldan izena emateak osasuna, hezkuntza, gizarte-prestazioak... jasotzeko eskubidea bezalakoak errazten dituela. Errolda, era berean, finkapenagatiko baimena lortzeko nahitaezko hiru urteko egonaldia egiaztatzeko betekizuna da eta funtsezko elementua izan da aurreko erregularizazio-prozesuetarako. Horren harira, gogora ditzagun 2005. urteko azken normalizazio-prozesua eta erroldaren interpretazio judiziala, ez egonaldirako proba bat gehiago bailitzan, baizik eta prozesu horretan parte hartzeko betekizun gisa.

“Bilboko neska batek jendea zeukan etxean erroldatuta eta fikziozko alokairu-kontratua ere egin zien, laguntzak eskuratu ahal zituzten. Baina, noski, orain zergen ondorioz kristoren dirutza ordaindu behar du, nahiz eta berak ez duen inolako diru-sarrerarik jaso, ez zelako inori gelarik alokatzen ari. Elkartasunagatik egin zuen, emakume horrek ezin zuelako benetan bizi den lekuan alokairu-kontratu bat lortu”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

5.1. Ohiko etxebizitzaren ezaugarriak eta bizikidetzaren ondoriozko arazoak

Esan bezala, bizileku den etxebizitzan erroldatzea da etorkinentzako betekizun zailenetakoa, eta etxebizitza eta bizikidetzaren unitatea elkarren artean hertsiki lotutako bi kontzeptu dira, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) titulartasuna ezartzeko orduan.

Nahiz eta maiatzaren 25eko 47/2010 Dekretuak, lehen aipatutakoak, bizikidetzaren unitate bat deskribatzen duten kasuen zerrenda luzea ezartzen duen 5. artikuluan, praktikan azpi-alokairua asko erabiltzen den ostatu-modalitatea da etorkinen artean. Gainera, sarritan azpi-alokairu horrek ez ditu hala jo ahal izateko legezko baldintzak betetzen (azpi-alokairuaren kontratua falta da, alokairua justifikatzeko ordain-agiriak falta dira, eta abar). Gabezia horiek kausa, are zailagoa da etxebizitza bat partekatzen duten pertsona edo familia desberdinek bizikidetzaren unitate bereizi eta ezberdinak osatzen dituztela egiaztatzea.

Bestalde, 147/2010 Dekretuak etxebizitza bakoitzeko prestazio-kopuruari buruz ezartzen duena (10.2 artikulua) aipatzea garrantzitsua da. Horren arabera, bi bizikidetzaren unitatek edo gehiagok etxebizitza bera partekatzen badute, etxebizitza edo ostatu horri eman ahalko zaizkion Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioak gehienez bi izango dira, betiere prestazioa lortzeko baldintzak betetzen badira.

Azkenik, Atzerritarren Legeko betekizunekin harremana duten eta familia batzeari buruzkoak diren beste arazo batzuk aipatu behar ditugu. Zehazki, familiara batuko den pertsonaren bizileku izango den etxebizitza batzen ari den familia-unitateko pertsonak baino ez okupatzeko betebeharra. Batzuetan, betekizun horren ondorioz, erroldatik kendu behar dira familia-inguru horretatik kanpoko pertsonak, edo familiakoak izan arren egoera irregularrean daudenak, atzerritarren bulegoak beren administrazio-egoera ikertuko duen beldur dira eta.

“Logela bat azpi alokatzen dien pertsonak ez die kontratu bat egin. Mutilak bere semea batu behar du eta horretarako bera baino ezin da agertu erroldatuta etxebizitza horretan. Baina gauzak dauden moduan egonda, bertan bizitzea beste irtenbiderik ez dute. Topatu ahal izan duten onena da”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Gainera, bizikidetzaren unitatea osatzeko betekizun hori oso konplikatu da etxebizitzak partekatzea ohituta dauden herritarren artean, familia-loturarik ez duten pertsonekin ere bizi direlarik, bai gastuak murriztu ahal izateko, bai kontratua duen etxebizitza bat alokatzea zaila delako.

Laburbilduz, DBI edo Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) jaso ahal izateko, errolda eta etxebizitza edo logelaren alokairu-kontratua behar dira, duintasuneko gutxienekoak beteko dituen, eta agiri horiek edukitzean baino ezingo da jo laguntza eta prestazioen sistemara, babeserako eta zerbitzuetarako sistema herritarrei gutxieneko baldintzak horiek bermatzeko moduan egokitu beharrean. Eraitza honakoa da: laguntza eta prestazioak eskuratu ahal izateko, ezin da muturreko ahultasun-baldintzetan egon, baizik eta egoera estuan, baina alokairu bat ordaindu ahal izateko moduan. Hau da, ahultasun-egoera geroz eta handiagoa, orduan eta zailtasun gehiago laguntzak eskuratzeko. Arartekoak 2009. urteari buruz egindako urteko txostenean Bizkaian gertatutako kasu bat jaso zuen (Arartekoa, 2010, 484. or.), non Eusko Jaurlaritzari kontsulta bat egin zitzaion, jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikoak falta zituela egiaztatze eskakizunari buruzko informazioa eskatuz. 2010. urteari buruzko txostenean (Arartekoa, 2011, 406-407 or.) berriz azpimarratu da arazo hori, etorkinek gizarte-prestazioak eskuratzeko dituzten zailtasun berezien artean. Atzerritar batek izan ditzakeen egoera anitzak (errefuxiatua, zaintzapean egon zen gaztea, eta abar) eta sarritan beren jatorrizko herrialdean justifikazio horiek tramitzatzeko zailtasunak aipatu dira. Halaber, zalantza jarri da ea zergatik ez den exijentzia hori aplikatzen autoktonoen artean (adibidez, Hendaian etxebizitza bat erostean).

6. Prestazioen kudeaketaren ondoriozko zailtasunak

6.1. Jatorrizko herrialdeetan egin beharreko tramiteak

Egindako elkarrizketetan jatorrizko herrialdean egin behar diren tramiteak aipatu dira, aparteko zailtasuna baitira etorkinentzat. Batzuetan, jatorrizko herrialdean existitu ere egiten ez diren administrazioek eman beharreko agiriak edo herrialde horretako administrazioek erregistratzen ez duten informazioa eskatzen dira.

Oinarrizko tramiteen artean pasaporte eskuratzeko beharrezkoak ageri da, eta, hori ez da inoiz lortu edo berritzeko erraza. Kasuistika askotarikoa den arren, kasurik ohikoenak egoera irregularrean dauden pertsonak pasaporte eskuratu edo berritzeko asmoz beren enbaxadara jotzen dutenekoak dira. Aljeria, Errusia eta Ukrainako enbaxada eta kontsulatuak, zehazki, traba asko jartzen dizkiete beren herrikideei, egoera irregularrean badaude. Horrek egoera latzak eragiten ditu, besteak beste, ordezkariordetzak ez duenean finkapen-eskaera bat onartzen pasaporte indarrean ez dagoelako, eta, alderantziz, enbaxada edo kontsulatuak ez duenean pasaporte bat ematen, atzerritarra erregularizatuta ez dagoelako. Indarreko pasaporte ez edukitzea beste eremu batzuetara ere hedatzen da. Udalean erroldatzeko orduan, esate baterako, oso zorrotz interpretatzen dira Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeko 16. artikuluan ezarritako betekizunak, eta, beraz, pasaporte indarrean egoteko eskatzen da. Ez dute “identifikazio nahikoa” bezalako irizpiderik erabiltzen erroldatu ahal izateko.

Horren harira, jatorrizko herrialdean jabetzak edo diru-laguntzak egiaztatze eskatzen duten gizarte-prestazio edota -laguntzekin ere arazoak egoten dira. Erakunde publikoetako agenteek agiri hori eskatu beharra justifikatzen dute, autoktonoen aldean diskriminazio positiborik ez egiteko (baliabideen lehian oinarritutako jarrera xenofoboak saiheste aldera) eta prestazioekin iruzurrak egotea saihesten saiatzeko. Diru-sarrerak edo jabetzak egiaztatze betekizun horiek autoktonoei ere eskatzen zaizkie. Gizarte-laguntzak jasotzen dituzten atzerritarrek kopuru horiek ez dituztela xede egokirako erabiltzen esaten da; horren ordez, beren jatorrizko herrialdeetara bidaltzen dituztela, bertan behin betiko etxebizitzak egin ahal izateko. Aurreiritzi horrek ondoeza sortzen du autoktonoen artean.

“Dokumentazio hori eskatu behar dugu, autoiktonoek diru-sarrerarik ez dutela egiaztatzen dugun bezala. Hala egingo ez bagenu, diskriminazio positiboa egiten ari garela esango ligukete. Horrenbestez, beharrezko tramiteak gauzaten dira egiaztapen horiek egiteko eta horrela gatazkak saihesten ditugu”.

(Foru-mailako administrazio publikoa)

Gizarte-erakundeek ardura handia ageri dute agiri horiek eskatzeari dagokionez, zailtasuna autoktonoentzat baino askoz handiagoa baita, batez ere demostrazio negatiboa dela kontuan hartuta. Diotenez, Gizarte Segurantzako babes-sistema nagusitik datozen prestazioen kasuan, kontribuzio-alderdiari dagokionez, kotizatu izanak normalean prestazioak jasotzeko eskubiderako zigilua ematen du, baina bermatutako gutxieneko errenten sisteman, ordea, dokumentazioa frogatu beharra laguntza eskatzen duen pertsonaren kontra doa, diru-sarrerarik ez duela egiaztatu behar baitu. Nabarmentzekoa da dokumentazio hori ez dela udalerrri guztietan eskatzen, eta, maizen Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatzen bada ere, praktika hori orokortzen hasi da Bizkaian eta Araban.

“Bai, bai, Bizkaian ere dokumentazio hori eskatzen ari direla iritsi zaigu. Hori berria da; lehen ez zen halakorik eskatzen. Dirudienez ohikoa zen hori Gipuzkoan, baina orain beste lurralde batzuetara ere hedatu da. Horri nola aurre egin aztertu beharko da orain. Izan ere, gauzak konplikatu egiten ditu”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Gizarte Segurantzako gizarte-babeserako sistemaren erretiro-pentsioak ere aipatu behar dira. Horren harria, Espainian lan egiten duen atzerritar batek bere jatorrizko herrialdean kotizatu duena gehitzeko (erretiro-pentsioa kobratze aldera), bi herrialdeen arteko akordioa izan behar du. Egun, 20 herrialderekin sinatu dira horrelako akordioak: Andorra, Argentina, Australia, Brasil, Kanada, Txile, Kolonia, Ekuador, Amerikako Estatu Batuak, Filipinak, Maroko, Mexiko, Paraguay, Peru, Dominikar Errepublika, Errusia, Tunisia, Ukraina, Uruguai eta Venezuela.

Jatorrizko herrialdean eskatu beharreko dokumentazioaren artean, adingabeak kargupean dituen ezkontza-egoeren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta tramitatzean eskatu ohi dena azpimarratu behar da. Kasu horietan, dibortzioaren ziurtagiria eta haurren eta gurasoen arteko harremanen erregularizazioa aurkeztu behar dira, normalean zaintza ez duen ezkontideak pensioak eman behar dituelarik.

Era berean, jatorrizko herrialdean eskatu beharreko dokumentazioaren artean dago gurasoei eskatu ohi zaiena. Gurasoak, normalean, kargupean seme-alabak dituzten emakume etorkinak dira. Hori horrela, beste familia-unitatea nortzuek osatzen duten adierazten duen dokumentazioa aurkeztu behar da, nahiz eta sarritan beste guraso-kideak seme-alabak aitortu arren ez dagoen beraiekin harremanetan eta ez duen beren mantenu ekonomikoan laguntzen. Hala ere, maiz pentsatzen da ezkontideak familia-kargekin laguntzen diola eta ondorio hori desegiteko, behintzat laguntzeko eskatu zaiola egiaztatu beharra dago.

Betekizun horretaz arduratzeko, Nazio Batuen “Atzerrian Elikagaiak eskuratzeko Hitzarmena, Nueva Yorken egina 1956ko ekainaren 20an” izenekoaren babespean araututako elikagai-ekintza egin behar da. Hitzarmen horretan oinarrituta, “Elikagaiak jasotzeko eskubidea justifikatzen duen agiria” aztertu behar da eta, Espainiatik kanpo dagoen senar edo emaztearen datuak eduki ezear, agiri horrek baimena emango dio Nazioarteko Lankidetzeta Juridikoa (Elikagaiak) izeneko erakunde bitartekoari, beste ezkontidea bilatzeko.

Betekizun hori karga burokratikoa da etorkinarentzat eta oinarritzko gizarte-zerbitzuentzat, sarritan ez baitakite argi zein tramite jarraitu behar duten eta horien azken xedea zein den. Ez dio ardura elikagai-

ekintza ez bada ondo burutu, kontua saiatu izana egiaztatzea da. Horrek, era berean, zalantza pizten du, nazioarteko lege-prozeduraren erabilera Nueva Yorkeko hitzarmenean jaso ziren helburuez bestelakoe-tarako egin ez ote den pentsaraziz.

“Adibide zehatzak daude. Esate baterako, gero bere familia ekartzeko asmoz datorren emakumearena. Seme-alaba bat duen emakumeari, Oinarrizko Errenta tramitatzeke, haurraren zaintza edo pentsioa eskatzen diote, gurasoak banatuta badaude. Gai horiek ez dute trataera bera herrialde guztietan: batzuetan jendea bereizi egiten da, bakoitza bere aldetik doa eta gero logikoa da prozedura judizialak hasi behar izatea, prestazioa jaso ahal izateko. Baina kontua konplikatu egiten da...”

(Hirugarren sektoreko agentea)

Azkenik, etorkinek gurearen aldean oso desberdinak diren legedidun herrialdeetatik datozenen bete ezin dituzten baldintzekin zerikusia duen kasu bat planteatuko dugu. Mongoliako herritar bat da eta han seme-alaben zaintza beti amarentzat izaten da (horren antzekoa geratzen da Errusia edo Ukrainakoekin ere). Hori horrela, banaketa edo dibortzioa ezartzen duten epaietan ez da inoiz ageri inguruabar hori eta zaintzaren ardura norena den egiaztatzeke orduan arazoak sortzen ditu.

7. Zailtasun psikosozialak

Halaber, praktikan egoera irregularrean dauden etorkinentzat benetako oztopoak diren elementu batzuk antzeman ziren. Gipuzkoako hiriburuan arratsaldean Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuetara (GLUZ) sartzerakoan, adibidez, hiriko udaltzaingoaren instalazioak zeharkatu behar ziren. Horrek erresistentzia asko eragiten zizkien egoera irregularrean zeuden etorkinei, subjektiboki uste baitzen oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta polizia-agintariak koordinatuta zeudela eta azken horiek jotzen ziren kanporatuak izateko aginduen sustatzailatzat.

“Nik Magrebeko gazte bat lagundu behar nuen GLUZera eta, noski, udaltzaingoa zeharkatu genuenean, ez zuen ezer ulertzen: GLUZeko langile guztiak poliziak zirela iruditzen zitzaion. Joateko esaten zidan, hobe zela han ez egotea, kamerak jarrita zeudela eta seguru bera fitxatzen ari zirela. Bera egoera irregularrean dago eta badakigu udaltzaingoak sarekadak egin dituela gazte asko atxilotuz, agiriak behar bezala ez edukitzearren. Nik lagundu ez banu, noski, inoiz ez litzateke GLUZera sartuko. Ez bera, ez beste asko”

(Hirugarren sektoreko agentea)

Elkarrizketatutako gizarte-erakundeetako pertsonak diotenez, horrelako egoerek kanporatuak izateko eta datu pertsonalak poliziaren fitxategietara pasatzeko beldurrak gogorarazten dituzte, urteetan zehar etorkinen artean zabalduak. Eta erakundeok ahalegin handiak egin behar izan zituzten etorkinei gizarte-zerbitzuetara beldurrik gabe jo zezaketela ulertarazteko, horrek ez baitzuen kanporatuak izateko aukerarik emango. Baina esan bezala, saiakera hori hutsean geratzen da deskribatutakoa bezalako egoeren ondorioz. Hori horrela, egora horiek zaintzeko beharrezana adierazi zen, zerbitzuetara jotzen dutenen segurtasuna bermatuz eta espazio fisiko berdinetatik sartu behar izatea saihestuz. Dena dela, iritzi horiek zentro horretan lan egiten dutenekin alderatuz gero, segurtasun txoke bat azaltzen da. Izan ere, udaltzaingoak sarrera zaintzen badu, gizarte-langileek jasan ditzaketen arriskuei aurre hartuko litzaike, batzuetan sustantzia toxikoen kontsumo altua daukaten pertsonak iristen baitira larrialdiko zerbitzuetara. Langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko estrategia berriak bilatzea da garatu beharreko lanetako bat, egoera irregularrean dauden pertsonen oztoporik ez jartzeko.

Bestetik, atzerritar askok bizirauteko duten kale-egoerari lotutako zailtasun batzuk antzeman ziren. Horren harira, talde hori datu publiko batzuek balioetsitakoa baino askoz handiagoa dela diote elkarrizketek. Eta beharizan-egoera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago dira babeserako sistemara sartzeko dauden trabak.

“Izugarria da baina zenbat eta gauza gutxiago izan, orduan eta konplikatuagoa da gizarte edo egoitzako baliabideak eskuratzea. Hau da, baztertuta egon behar da, baina ez hainbeste”.

(Hirugarren sektoreko agentea)

Okupaziorik gabe egoteak (lanik gabe, batzuetan prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukerarik gabe, eta abar), nahiz eta jende ugari lan egiteko adinean egon, hutsunea sortzen du jardueretan eta harridura denbora pasatzeko moduan. Horrenbestez, erritmoa eta antolaketa-denbora nahastu egiten dira. Gizarterbitzuekin ezarritako data eta ordu zehatza gogoratzea ez da beti erraza eta profesionaleri kritikak egiten zaizkie hitzorduetan oso zorrotzak direlako eta ez dituztelako kaleko bizitzaren inplikazioak ulertzen.

Atzerritar gazteak aipatu behar dira bereziki. Asko adingabeak babesteko sistematik datoz eta ezin izan dute beren administrazio-egoera arautu, horrenbestez, 18 eta 23 urte bitartean daudenean, lehen ere azaldu dugun bezala, ezin dituzte prestazio ekonomiko egonkorak jaso eta ezin dira lan-merkatu formalean sartu, beren egoera irregularra medio.

Hain baldintza larrietan bizirautearen gogortasuna eta etsipena haztegi bihur daitezke, nahiz ez beti, sustantzia toxikoen kontsumoa edo nahasmendu psikosoziala bezalako arazoak agertzeko. Hori horrela, pertsonak, bere bizitzaren kontrola galtzen ari dela sentituz, gizarteratzeko ibilbideak hasteko zailtasun bereziak izango ditu. Aurreko paragrafoetan jaso den bezala, gizarte-ahultasunaren osagaiak konplexuagoak omen dira autoktonoengan (betirako profilak dituzte), atzerritarrengan baino, eta irregulartasun-egoera da itxuraz gehien bultzatzen duena azken horren bazterkeria. Hala ere, kalean dagoen atzerritar bati alkohol, estufefaziente eta buru-osasuneko beste nahasmendu batzuen ondoriozko arazoak gehitzen zaizkio eta egoera horretatik irteteko aukerak eta baliabideak konplexuagoak dira autoktonoentzat baino. Desintoxikatze baliabideetan familia-sareak edo egoitza-sareak edukitzea eskatzen da eta, kalean dauden pertsonak sartu ahal izan direla jakin badakigun arren, etorkinek ez daukate funtzio hori bete dezakeen seniderik, are gutxiago egoera horretan. Drogarik kontsumitzen ez duen pertsona batek bete dezake zeregin hori, baina atzerritar horiek gizarte-sare gutxiago dituzte figura hori aurkitu ahal izateko. Horrez gain, zerbitzu horiek diotenez, erabiltzaile atzerritar gehienek porrot egiten dute prozesu terapeutikoan. Ildo horretatik, porrota eragiten duten kausak zeintzuk diren identifikatzen laguntzen duen diagnostiko bat egin daiteke, errua ez dela erabiltzailearena soilik ulertzeko. Figura erreferente baten falta, bakardadea eta etorkizuneko ikuspegiaren falta, beren administrazio-egoera erregularizatu ezin duten erabiltzaileen kasuan, arrazoietakoz batzuk izan litezke. Zailtasun horiek esanguratsuak dira gizarte-prestazio eta baliabideetako asko eskuratu eta mantentzeko orduan.

GIZARTE PRESTAZIO ETA LAGUNTZEN KATALOGOA

Jarraian aurkeztuko dugun gida edo katalogoak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden (Estatuko esparrutik nahiz administrazio autonomikoaren esparrutik bideratutakoak) oinarritzko baliabide eta prestazio sozial eta ekonomikoei buruzko informazioa jasotzen du.

Estatuko esparrutik bideratutakoen artean, Estatuaren Gizarte Segurantzatik datozenak sartzen dira, ordainketaren arabera diren eta ez diren modalitateetan, besteak beste, ordainketaren arabera langabezia-prestazioan, langabeziaren subsidioan, alarguntasun-pentsioan, ezintasun-laguntzan, eta abar. EAEko berariazko baliabide eta prestazioen artean sartzen dira, bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzen Prestazio Osagarria, Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak eta Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integralean jasotakoaren osagarri den laguntza.

Katalogoa bi agiritan egituratzen da. Lehenengo agiriak koadro bat jasotzen du, lehenengo kontsulta egiteko funtsezko lau markagailuak azpimarratuz:

- Legezko egoitzaren betekizuna.
- Egoitza-aldi zehatzen betekizuna (legezko egoitzaren aurretiazko betekizuna badago, urte edo hilabete horiek legezko egoitzakoak direla ulertzen da).
- Gizarte Segurantzako kotizazioaren aurreko hilabete edo urteak, prestazioaren titular izan ahal izateko.
- Aztertzen den prestazioaren berariazko beste betekizun batzuk.

Lehenengo kontsulta honen ondoren bigarren agiria dago, prestazio bakoitzari buruzko definizio zehatzagoa, sarbide-betekizunak eta beharrezko agiriak jasotzen dituena, oharren atal batez gain. Betekizunetako bakoitza 1etik 3rako eskalan neurtu da, etorkinak katalogo hau osatzen duten gizarte-prestazioak jasotzeko orduan duen zailtasun-mailaren arabera. 1. mailak autoktonoen antzeko zailtasuna adierazten du. 2. mailak etorkinek autoktonoek baino sarbide-zailtasun gehiago dituztela esan nahi du. Eta azkenik, 3. mailak aurretiazko legezko egoitza-aldia luzeegia denez sortu ohi den zailtasun garrantzitsua islatzen du gehienetan. Izan ere, jatorrizko herrialdean zailtasunak daude agiri jakin batzuk lortzeko edo, beste kasu batzuetan, prestazio jakin batek izaera unibertsal eta ez baztertzaila duen arren, egoera irregularrean dauden etorkinen sarbidea mugatua da.

Azkenik, aipatzekoa da katalogoan ez direla autonomia-mailako prestazioak jaso, ezagunenak direla uste baita. Bestalde, eta katalogoaren izaera praktikoa kontuan hartuta, alde batera utzi dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeko benetako egoitzaren betekizuna bezalako gaiak, lan honetan luze eta zabal garatu direnak, hain zuzen ere.

I. DOKUMENTUA

| GIZARTE SEGURANTZARAKO ESTATU-PRESTAZIOAK | | | | |
|--|-----------------|---------------|--------------------------|---|
| PRESTAZIOA | LEGEZKO EGOITZA | EGOITZA-ALDIA | KOTIZAZIO-ALDIA | BESTE BETEKIZUNAK |
| Langabeziaren prestazioa kontribuzio-mailan | BAI | | 12 hilabete | |
| Langabeziaren prestazioa asistentzia-mailan | BAI | | | Ordainketaren araberako prestazioa agortuta izatea eta familia-erantzukizunak edo 45 urte baino gehiago edukitzea. |
| Kartzelatik ateratzeagatik subsidioa | BAI | | | Kartzelan sei hilabete baino gehiagoz egotea, langabeziarako eskubiderik ez edukitzea eta EINen izena emanda egotea. |
| Erretiroa kontribuzio-mailan | BAI | | 15 urte | |
| Ordainketaren araberako ez den erretiro-pentsioa | BAI | 10 urte | | Diru-sarrera nahikoak ez izatea eta 65 urte baino gehiago edukitzea. |
| Behin betiko ezintasuna | BAI | | 180 egunetik 15 urtetara | 65 urtetik beherakoa izatea. 4 ezintasun-mota: ezintasun partziala, osoa, absolutua eta handia. |
| Istripu edo gaixotasun komunaren ondoriozko ezintasuna | BAI | | 180 egun | Istripuagatik ez da aurreriazko kotizaziorik eskatzen. |
| Laneko istripu edo gaixotasunaren ondoriozko aldi baterako ezintasuna | EZ | | | Egungo ALek (36.5 art.) eta jurisprudentziak eskubide hori aitortzen diote lan-baimenik gabe lanean aritu denari. |
| Ordainketaren araberako ez den ezintasun-pentsioa | BAI | 5 urte | | %65etik gorako minusbaliotasuna eta diru-sarrerarik eza. |
| Alarguntasun eta biziraupenagatik prestazioak | BAI | | 500 egun | Lan-istripu edo gaixotasun profesionalagatik ez da aurreriazko kotizaziorik eskatzen. |
| Alarguntasun- edo zurtzasun-pentsioa | EZ | | | 18 urtetik beherako seme-alabak, urtebeteko ezkon bitzta eta diru-sarreraren justifikazioa. Lan-istripuan hildako atzeritar irregularra edo alargun irregularra barne (10.03.09ko AGE). |
| Senideen aldeko subsidioa | EZ | | | 22 urtetik gorako seme-alaba edo neba-arrebak, pensionista izan gabe eragilearekin 2 urtez bizi izan direnak. |
| Lan-istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko kalte-ordainak | EZ | | | Oro harreko kalte-ordaina. Alarguntasun-pentsioaren antzeko betekizunak. |
| Jatorrizko herrialdera itzultzeko prestazio ekonomikoa | BAI | | | Hiru urtetan ez itzultzea. |
| Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoko Gizarteratzeko Errenta Aktiboa | BAI | | | 45 urte baino gehiago edukitzea, enplegu-eskatzaila izatea, diru-sarrerak faltan izatea. |
| Emantzipazioaren Oinarrizko Errenta | BAI | 5 urte | | Behin betiko baimena edukitzea eta 22 eta 30 urte artekoa izatea. |
| Mendetasunaren Legetik bideratutako Prestazioak | BAI | 5 urte | | |

| PRESTAZIO AUTONOMIKOAK | | | | |
|---|-----------------|---------------|-----------------|--|
| PRESTAZIOA | LEGEZKO EGOITZA | EGOITZA-ALDIA | KOTIZAZIO-ALDIA | BESTE BETEKIZUNAK |
| Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) | EZ | Urte 1 | | 2 DBE mota: Gizarteratzeko Oinarrizko Errenta eta Diru-sarreran Errenta Osagarria. |
| Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) | EZ | Urte 1 | | Gehienez 2 EPO bizikidetz-unitateko. |
| Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak (GLL) | EZ | 6 hilabete | | |
| Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoa, 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan aurreikusitakoa. 10.03.03ko Agindua | BAI | | | EiNen txostena eskatzen da, eta, beraz, legezko egoitza. |

II. DOKUMENTUA

| LANGABEZIAREN PRESTAZIOA KONTRIBUZIO-MAILAN | |
|--|----------------------------------|
| <p>DEFINIZIOA: Kontribuzio-mailako langabeziaren prestazioak langabezia-egoera estaltzen die lan egin nahi duten arren beren enplegua aldi batez edo behin betiko galdu dutenei, edo lanaldiaren gutxienez heren bat murriztuta dutenei, langabeziako legezko egoera gisa ezarritako kausen ondorioz.</p> | |
| <p>SARTZEKO BETEKIZUNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan- eta egoitza-baimena. 3 - Gizarte Segurantzari, langabeziagatik kontingentzia aurreikusteko duen araubide batean kide izan eta altan egotea edo alta parekoan. 1 - Langabeziako legezko egoeran egotea. 2 - Langabezia-egoeraren edo kotizatze beharra eten zen unearan aurreko sei urteen barruan gutxienez hamabi hilabeteko epea estalita edukitzea. 1 - Kasuan kasu erretiro-pentsiorako eskubidea izateko eskatzen den ohiko adina ez izatea beteta, salbu eta langileak ez badauka horretarako eskubiderik eskatutako kotizazio-aldia egiaztatuta ez duelako edo lan-harremana eten edo lanaldia murriztu bada, enplegua arautzen duen espedientean baimendutako eran. 1 - Bateriaezintasun-kausetako batean ere sartuta ez egotea. 1 | <p>ARRISKU ADIERAZLEA</p> |
| <p>AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskaera, dagokion enplegu-bulegoan. 1 - Prestazio-eskaera, enplegu-bulegoak ematen duen eredu normalizatuan. 1 - Langabeziako legezko egoera edo halakotzat jotzen den egora, hala badagokio, egiaztatzen duen agiria. 2 - Azken 6 hilabeteetan lantokia izan diren enpresen ziurtagiria edo ziurtagiriak. 1 - Jarduera-konpromisoaren eredu ofiziala. 1 - Identifikazio eta afiliazioko agiria. 1 - Familia-kargen eta errenten aitortzea, eredu normalizatuan, enplegu-bulegoak emango duena, prestazioaren muga-ondoreetarako. 1 - Helbideratze-inprimakia prestazioaren kontuan, langileak ordainketa-sistema hori aukeratzen baldin bada. 1 | <p>ARRISKU ADIERAZLEA</p> |
| <p>OHARRAK: Egoitza-baimenaren berrikuntza ukatuta egonda eskatzen bada prestazioa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emateko arazoak sortzen dira.</p> | |

LANGABEZIAREN PRESTAZIOA ASISTENTZIA-MAILAN

DEFINIZIOA: Asistentzia-mailako babes honen barruan prestazio ekonomiko bat ematen da eta Gizarte Segurantzari osasun-laguntza, familia-babesa eta, hala badagokio, erretiroaren prestazioen gaineko kotizazioa ordaintzen zaio.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- | | ARRISKU
ADIERAZLEA |
|---|-------------------------------|
| - Lan- eta egoitza-baimena. | 2 |
| - Langabezian eta langabeziako legezko egoeran egotea. | 2 |
| - Enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea, lan-eskaintza egokitik baztertu gabe eta sustapen, prestakuntza edo moldaketa profesionaleko ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe, justifikatutako kausaren bat badago salbu. | 3 |
| - Jarduera-konpromisoa onestea. | 1 |
| - Inolako errentarik ez edukitzea, lanbide arteko gutxieneko soldataren %5etik gora, aparteko ordainketei dagokien zatia kanpo. | 1 |

Gainera, honako egoeraren batean egon beharko da:

- | | |
|--|----------|
| - Ordainketaren araberako prestazioa agortuta edukitzea eta familia-erantzukizunak izatea. | 1 |
| - Ordainketaren araberako prestazioa agortuta edukitzea eta 45 urte edo gehiago izatea, familia-erantzukizunik eduki ez arren. | 1 |
| - 24 hilabeteko langabezia-prestazioa agortuta edukitzea eta 45 urte edo gehiago izatea. | 1 |
| - Kartzelatik aske gelditzea, gutxienez 6 hilabetez askatasunik gabe egonda. Delitu gisa tipifikatutako gertaerak egiteagatik, Barneratze Zentro batean sartu eta handik askatu dituzten adingabeak barne, betiere, sei hilabete edo gehiagor askatasunik gabe egoteaz gain, askatzen diren unean 16 urte baino gehiago badituzte. Halaber, droga-mendetasunaren ohitura kentzeko tratamenduren bat egin duten pertsonak ere sartzen dira, betiere tratamendua sei hilabetekoa edo luzeagoa izan bada eta askatasunik gabeko zigorra barkatu bada. | 3 |
| - Ezintasuneko pentsiodun izaera galtzea, hobetu egin delako. | 1 |
| - Langabezia-egoeran geratzean ez edukitzea estalita ordainketaren araberako prestazioa jasotzeko gutxieneko kotizazio-aldia. | 1 |
| - 52 urte baino gehiago edukitzea, aurreko egoeretakoren batean egotea, betekizun orokorrak betetzea, langabeziagatik lan-bizitzako 6 urtez gutxienez kotizatzea eta Gizarte Segurantzaren ordainketaren araberako prestazioa jasotzeko betekizun guztiak betetzea, adina salbu. | 1 |
| - Langile finko etena izatea eta orokorrean eskatutako betekizunak betetzea. | 1 |

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- | | ARRISKU
ADIERAZLEA |
|--|-------------------------------|
| - Subsidio-eskaera, eredu normalizatuan. | 1 |
| - Eskatzailearen, ezkontidearen eta eskaeran bere kargupean agertzen diren seme-alaben identifikazioa, jatorrizko eta indarreko agirien bidez. | 2 |
| - Atzerritarren Nortasun Txartela (ANT) edo bere jatorrizko herrialdeko nortasun-agiria, Europako Espazio Ekonomikoko herrialde batekoa edo Suitzakoa bada. Edonola ere, Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ). | 1 |
| - Familia-liburua edo agiri baliokidea, atzerritarren kasuan. | 2 |
| - Minusbaliotasun-mailaren ziurtagiria, Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo dagokion autonomia-erkidegoko organoak emana, edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (INSS), Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, pentsiodun izaera aitortzen duena ezintasun iraunkor oso, absolutu edo handiagatik, edo erretiro izaera aitortzen duena zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo gaitasunik ezagatik. | 1 |
| - Harrera formalizatzekeo ebazpen judiziala edo idatzia, lurralde bakoitzean adingabeak babesteko ardura duen erakunde publikoaren baimena eta harreraren ondorioen data jasotzen dituen. | 1 |
| - Banaketa edo dibortzioa arautzen duen hitzarmena edota epaia, halakorik balego. | 1 |

OHARRAK:

Kartzelan egon diren pertsonak ezin izan dute baimena berritu edo iraungi egin zaie, delitu bat egiteagatik. Kargupean senideak dituela egiaztatzekeo arazoak, eskatzailearekin bizi ez eta jatorrizko herrialdean daudenean.

ORDAINKETAREN ARABERAKO EZ DEN ERRETIRO-PENTSIONA

DEFINIZIOA: Erretiroaren prestazioak, ordainketaren arabera modalitatean, pertsona baten diru-sarreraren galera estaltzen du, baldin eta ezarritako adina izanda, bere konturako edo besteren konturako lana lagatzen badu, bere lanbidezari amaiera emanez, edo bere lanaldia eta soldata murrizten baditu, legez ezarritako moduan.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Egoitza-baimena. **ARRISKU ADIERAZLEA**
1
- 65 urteak beteak izatea. Edonola ere, betekizun hori pentsioa altan edo pareko egoeran egon gabe eskuratu nahi denean eskatuko da. Gutxieneko adina gutxitu edo aurreratu egin daiteke, altan edo pareko egoeran dauden langileentzat soilik, kasu jakin batzuetan¹. **1**
- 15 urteko kotizazio-aldia, horietatik 2 eskubidea sortu aurre-aurreko 15 urteen barruan egon beharko direlarik. **2**
- Atzeritarren kasuan, jatorrizko herrialdeko langileak aitortuak izan daitezten, Gizarte Segurantzaren alorrean Espainiarekin bi alderditako hitzarmena² duen herrialde batekoa izan behar da eta Espainian legezko egoitza eduki. **3**

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Eskaera-eredua. Eredua desberdina izango da erkidegoko araudiko ereduaren arabera edo nazioarteko hitzarmenetako ereduaren arabera eskatzen den kontuan hartuta. **ARRISKU ADIERAZLEA**
1
- Egoitza-baimena edo NANA. **1**
- Kotizazioak egiaztatzen dituzten agiriak. **1**
- Enpresa kotizazioak sartzera behartuta badago, kotizazioari buruzko ziurtagiria, azken enpresek beteak. **1**
- Onuraduna kotizazioak sartzera behartuta dagoena bada, azken hilabeteetako ordain-agiriak. **1**
- Onuraduna langabezia-egoeran badago, EINeko ziurtagiria. **1**
- Osasun-laguntzaren ondoretarako, familia-liburua, ezkontuta egonez gero. **1**

ORDAINKETAREN ARABERAKO EZ DEN ERRETIRO-PENTSIONA

DEFINIZIOA: Ordainketaren arabera ez den erretiro-pentsioak prestazio ekonomikoa, doako laguntza mediko edo farmazeutikoa eta gizarte-zerbitzu osagarriak bermatzen dizkie erretiro-egoeran edo beharizan-egoeran dauden herritarrei, nahiz eta ez den kotizatu, edo ordainketaren arabera pentsiorako eskubidea izateko adina kotizatu ez bada. Ordainketaren arabera ez den erretiro-pentsioaren onuradun izan daitezke legezko egoitza Espainian duten espainiarrak edo beste herrialdeetako nazionalak.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Espainiako lurraldean bizitzea eta hamar urtez hala egitea, hamasei urte bete direnetik pentsioaren sortzapenera bitarteko aldian, horietatik bi urte eskaera-data baino aurre-aurrekoak eta jarraituak izan beharko direlarik. **ARRISKU ADIERAZLEA**
2
- Diru-sarrera nahikorik ez edukitzea. **1**
- Hirurogeita bost urte edo gehiago edukitzea. **1**

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Eskaera, inprimaki normalizatuan beteak. **ARRISKU ADIERAZLEA**
1
- Beste herrialde batzuetako nazionalen kasuan, pasaporte edo egoitza-baimenaren fotokopia edo familia-unitateko kide guztien NANaren fotokopia. **2**
- Interesdunaren aitortpena, helbidean bizi diren beste pertsonetik bizikidetzari dagokionez. **2**
- Interesdunaren aitortpena, errenta eta diru-sarrera propioei dagokionez, eta, hala badagokio, unitate ekonomikoko kideetako bakoitzari dagokionez. **2**

OHARRAK:

Azpi-alokairuko egoerak eta senideak jatorrizko herrialdean.

³ Erretiro aurreratua 69 urtetik aurrera, mutualista izaera edukitzeagatik; erretiro aurreratua 61 urtetik aurrera, mutualista izaera eduki gabe; erretiro partziala; erretiro berezia 64 urterekin; Meatzte Estatutuetako langileen, aireko eta trenbideko langileen, artisten, zezen-profesionalen eta suhiltzaileen erretiroa; erretiro malgua; %45eko minusbalioetasun-maila edo altuagoa duten langile ezinduen erretiroa.

⁴ Bi alderditako hitzarmenak: [Andorra](#), [Argentina](#), [Australia](#), [Brasil](#), [Canadá](#), [Chile](#), [Colombia](#), [Ecuador](#), [Estados Unidos](#), [Filipinas](#), [Japón](#), [Marruecos](#), [México](#), [Paraguay](#), [Perú](#), [República Dominicana](#), [Rusia](#), [Túnez](#), [Ucrania](#), [Uruguay](#), [Venezuela](#).

EZINTASUN IRAUNKORRA

DEFINIZIOA: Ordainketaren araberako prestazio ekonomikoa, gaixotasun edo istripu baten ondoriozko prozesu patologiko edo traumatikoaren bat izatean bere lan-gaitasuna seguru asko betirako murriztua edo ezeztua izan duen pertsona baten soldata edo lanbideko errenten galera estali ahal izateko. Ezintasun-maila desberdinek sortzen dituzten prestazioak araubide orokorreko eta araubide berezietako ekintza babeslearen barruan sartzen dira, kasuan kasu dagokion araudian ezartzen diren berezitasun eta salbuespenekin. Horiekin batera, Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Derrigorrezko Aseguruaren (ZBDA) ezintasun-pentsioa ere badago.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Lan- eta egoitza-baimena. **ARRISKU ADIERAZLEA**
- Alta Gizarte Segurantzari. **1**
- 65 urtetik beherakoa izatea. **1**
- Kotizazio-aldia: 180 egun ezintasun partzialaren aurreko 10 urteetan; 20 urteen eta ezintasun osoaren artean igarotako denboraren laurden bat eta 15 kotizazio-urte, ezintasun absolutu eta handiaren kasuan. **2**

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Lan- eta egoitza-baimena. **ARRISKU ADIERAZLEA**
- Kotizazioak sartzeko betebeharra duena enpresa bada, kotizazioari buruzko ziurtagiria, azken enpresek betea. **1**
- Kotizazioak sartzeko betebeharra duena interesduna bada, azken hilabeteetako ordain-agiriak. **1**
- Langabezian badago, EINEK emandako ziurtagiria. **1**
- Ezkontuta badago, familia-liburua eta senide guztien NANA. **2**
- Lan-istripuaren edo gaixotasun profesionalaren administrazio-partea. **1**
- Aurreko urteko benetako soldaten enpresa-ziurtagiria. **1**

BESTE AGIRI BATZUK:

- Enpleguko Zerbitzu Publikoko (EZP) edo beste organismo eskudunetako enplegu-eskatzaillearen txartela, subsidio gabeko eta nahi gabeko langabezia-egoeran badago. **1**
- Bere autonomia-erkidegoko osasun publikoko zerbitzu eskudunak egindako historial klinikoa edo, hala badagokio, zerbitzu horretako ikuspen medikoaren txostena. **1**
- Sei hilabetetik gorako aborturen bat edo beren bizitzako 24 orduak baino lehen hildako seme-alabaren bat eduki badu, existentzia hori jasotzen duen erregistro zibilaren ziurtagiria. **1**
- Familia-liburua, ziurtagiri literala edo erregistro zibileko aktak, eskatzaillearekiko ahaidetasuna egiaztatzeke. **2**
- Udalaren ziurtagiria, eskatzaillearekiko bizikidetzaren egiaztatzeke (ezkontide eta seme-alabei ez zaie eskatzen, funtzionarioak hala ezartzen badu). **1**
- Familia-harreraren epai judiziala edo ziurtagiria, autonomia-erkidegoak egina. **1**
- Banaketa edo dibortzioaren epai judiziala; seme-alaba adingabeen zaintza, eta, hala badagokio, ezkontidearentzako konpentsazio-pentsioaren zenbatekoa edo seme-alaben elikagaiengatikoko urterokoa jasotzen dituen. **2**
- Atzeritarrek Espainian duten ohiko egoitza egiaztatzea, udaleko errolda-ziurtagiriaren edo egoitza-txartelaren bidez, funtzionarioak beharrezkotzat jotzen baldin badu. **1**

ALDI BATERAKO EZINTASUNA

DEFINIZIOA: Aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoak diru-sarrera falta estaltzen ditu langileak, istripu edo gaixotasun bat medio, ezin badu aldi batez lan egin eta Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza behar badu. Aldi baterako ezintasunen egoeratzat jotzen dira: a) gaixotasun komun edo profesional baten eta istripu batean (lanekoa zein ez) ondoriozkoak, langileak ezin duenean lanik egin eta Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza jasotzen duenean; b) gaixotasun profesionalagatiko behaketa-aldiak, laneko baja eskatzen dutenak.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Lan- eta egoitza-baimena. **ARRISKU ADIERAZLEA**
1
- Kausaren egunean afiliatuta eta altan edo egoera parekidean egotea, Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza jaso eta lanerako ezinduta dagoen bitartean. **1**
- Kausaren aurre-aurreko 5 urteen barruan 180 eguneko kotizazio-aldia estalita edukitzea, gaixotasun komun kasuan. Istripuaren (lanekoa zein ez) eta gaixotasun profesionalaren kasuan ez da aurreko kotizazio-aldirik eskatzen. **1**

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Pasaporte, edo, hala badagokio, jatorrizko herrialdean indarrean dagoen nortasun-agiria eta Zerga Administrazioeko Estatuko Agentziak eskatutako AIZ, ordainketa-ondoretarako. **ARRISKU ADIERAZLEA**
1
- Araubide bereziko eta besteren konturako langilea: lantoki izan dituen azken enpresetako ziurtagiria. **1**
- Baja-partea eta bajaren konfirmazioa. **1**
- Langilea eskuordetutako ordainketatik badator, enpresak ordaindu zuen azken konfirmazio-partearen hurrengoa. **1**
- Alta medikoa sortu bada, altaren parte medikoa. **1**
- Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren (LI eta GP) parte, enpresak beteak, hala badagokio. **1**
- Lan-harremana bukatu dela egiaztatzen duten agiriak. Amaiera aldi baterako ezintasuneko lehenengo 15 egunetan gertatzen bada, lan-kontratua eta luzapenak. Lanetik botaz gero, botatzearen gutuna, adiskidetze-akta edo epaia. **1**

BESTE AGIRI BATZUK:

- Jardueraren egoerari buruzko aitortpena, Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileentzako soilik. **1**
- Nekazaritzako Araubide Bereziko eta besteren konturako langileen kasuan, benetako lanaldiak egitearen egiaztatzea. **1**
- Familia-liburua eta minusbaliotasunaren ziurtagiria, lan-harremana iraungi denean, ordainketaren araberako langabezia-mugak aplikatzeko kontuan hartu beharreko seme-alabekin. **2**
- Hamar langiletik beherako enpresa: eskaera aurreko komunikazioa beharrezkoa da, gutxienez 15 egun arinago, enpresak hurrengo hilabete naturaleko lehenengo egunetik aurrera ordainketa zuzeneko betebeharra INSSri ematen diola adieraziz. **1**

ORDAINKETAREN ARABERAKOA EZ DEN EZINTASUN-PENTSIOA

DEFINIZIOA: Ordainketaren araberakoa ez den ezintasun-pentsioak prestazio ekonomikoa, doako laguntza mediko edo farmazeutikoa eta gizarte-zerbitzu osagarriak bermatzen dizkie ezintasun-egoeran edo beharrian-egoeran dauden pertsoneri, nahiz eta ez den kotizatu, edo ordainketaren araberako pentsiorako eskubidea izateko adina kotizatu ez bada.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

| | ARRISKU ADIERAZLEA |
|---|-------------------------------|
| - Lan- eta egoitza-baimena. | 1 |
| - Espainiar lurraldean bizitzea eta hala bost urtez egotea, aldi horretatik bi urte eskaera egin aurre-aurrekoak eta jarraituak izan beharko direlarik. | 1 |
| - %65eko minusbaliotasun-maila edo altuagoa, minusbaliotasun-ziurtagiriarekin. | 1 |
| - Diru-sarrera nahikorik ez edukitzea. | 1 |
| - Hamazortzi urte edo gehiago eta hirurogeita bost baino gutxiago edukitzea. | 1 |

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

| | ARRISKU ADIERAZLEA |
|--|-------------------------------|
| - Eskaera, inprimaki normalizatuan bete. | 1 |
| - Beste herrialde batzuetako nazionalen kasuan, pasaporte edota egoitza-baimenaren fotokopia edo familia-unitateko kide guztien NANaren fotokopia. | 2 |
| - Interesdunaren aitortpena, helbidean bizi diren beste pertsonetikiko bizikidetzari dagokionez. | 1 |
| - Interesdunaren aitortpena, errenta eta diru-sarrera propioei dagokienez, eta, hala badagokio, unitate ekonomikoko kideetako bakoitzari dagokionez. | 1 |
| - Ezintasun-mailaren ziurtagiria indarrean, halakorik badu (herritarrek kontsulta hori baimentzen badu, ez da aurkeztu beharko) edo ezintasun judizial absolutua. | 1 |
| - Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitate ekonomikoko kide bakoitzaren lan-bizitza. | 1 |
| - Bizikidetzaren unitate ekonomikoa osatzen duten kideen egiaztagiria: errolda kolektiboa edo bizikidetzaren ziurtagiria. Zentro batean biziz gero, zentroko zuzendariaren ziurtagiria, sarrera-data eta iraupena adierazten dituen. | 1 |
| - Bizikidetzaren unitate ekonomikoko kideen baimena, fitxategi publikoen atal honetako datuak batzeko, egiaztatze aldera. | 2 |
| - Jatorrizko herrialdeko enbaxadaren ziurtagiria, bere herrialdean pentsiorik jasotzen ez duela egiaztatuz. | 2 |

Dokumentazioa eskatzaileak eta bizikidetzaren unitate ekonomikoko 16 urtetik gorako gainerako kide guztiek aurkeztu behar dute.

BESTE AGIRI BATZUK:

| | |
|---|---|
| - Dagozkion udal-erroldeetako ziurtagiriak, Legez ezarritako urteetan zehar (errolda historikoa) Espainian bizi dela egiaztatzen dutenak. | 1 |
| - Baliabide ekonomiko propioak: errentaren aitortpena (herritarrek eskaera-inprimakian kontsulta hori baimentzen badu, ez da hori aurkeztu beharko); nominak, bekak eta bestelakoak; bizikidetzaren unitate ekonomikokoaren osaera (errolda kolektiboa); EINen eguneratutako ziurtagiria; INSSren ziurtagiria, eskatzailearen eta bizikidetzaren unitate ekonomikoko gainerako kideen pentsioko zenbatekoa egiaztatzen duena, edo ziurtagiri negatiboa. | 1 |

HERIOTZA ETA BIZIRAUPENEN PRESTAZIOAK

DEFINIZIOA: Heriotza eta biziraupeneko prestazioak familia-nukleoko pertsonen heriotzak sortzen duen beharrian ekonomikoa konpentsatzea dute xede. Eman daitezkeen prestazioak, kasuen arabera, honakoetako batzuk dira: alarguntasun-pentsioa; aldi baterako alarguntasun-pentsioa; zurtasun-pentsioa; senideen aldeko pentsioa; senideen aldeko subsidioa, heriotzagatik laguntza; LI eta GPgatik kalte-ordainak.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

| | ARRISKU ADIERAZLEA |
|---|-------------------------------|
| - Gizarte Segurantzaren afiliatuta eta altan egotea, kotizatzen, gutxienez 500 egunez heriotza aurre-aurreko 5 urteetan, baldin eta heriotza gaixotasun komun baten ondoriozkoa bada. | 2 |
| - Heriotza istripu bat medio gertatu bada (lanekoa zein ez) edo gaixotasun profesionalen baten medio izan bada, ez da aurretiazko kotizazio-aldirik eskatuko. | 1 |
| - Altan ez dauden pertsonak, gutxienez 15 urteko kotizazio-aldia egiaztatu badute. | 1 |

ALARGUNTASUN-PENTISIOA

DEFINIZIOA: Hildakoaren ezkontide edo izatezko bikote izan diren pertsonak, besteren batekin ezkondu ez badira. Eragileari eskatutako betekizunetz gain, onuradunek beste betekizun espezifiko batzuk egiaztatu behar dituzte egoera jakin batzuetan, alarguntasun-pentsioa jasotzeko.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Seme-alaba komunak edukitzea.
- Ezkontza heriotza baino urtebete lehenago ospatzea. Ezkontza-loturaren iraupen hori ez da eskatu, baldin eta berau ospatu den datan izatezko bikote gisa elkarrekin bizitako aldia eta ezkondata egondako aldia batuta emaitza bi urtetik gorakoa bada.
- Diru-sarrerak egiaztatzea: heriotza aurreko urte naturalean zehar, diru-sarrerak ez dira izango horien eta eragileak tarte horretan izandakoen batura baino %50 gehiago, edo %25, baldin eta alarguntasun-pentsiorako eskubidea duten seme-alaba komunak badaude; edo, bestela, heriotzaren unean indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) zenbatekoa baino 1,5 aldiz baxuagoa izan beharko dira diru-sarrerak. Betekizun hori gertaeraren unean eta pentsio jasotzean mantendu beharko da. Aipatutako mugari dagokionez, 0,5 aldiz igoko da indarreko LGSren kopurua, bizirik dagoenarekin bizi den eta zurtzasun-pentsioa jasotzeko eskubidea duen seme-alaba bakoitzeko.

ARRISKU ADIERAZLEA**1**
2**1****AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

- Eskatzailearen, legezko ordezkariaren eta eskaeran agertzen diren gainerako pertsonen nortasunaren egiaztagiria, indarrean dauden agirien bidez.
- Hildakoaren heriotza-aktari buruzko ziurtagiria.
- Adingabeko eskatzailearen legezko ordezkariak, hala badagokio, edo emantzipazioa egiaztatzen duten agiria.
- Hildakoa ez bazen pentsioduna: azken hilabeetako kotizazio-oinarriak, hildakoaren lantoki izan den edo diren azken enpresen ziurtagiriaren bidez, eta kuoten ordain-agiriak, horiek ordaintzeko betebeharra bazuen; EEZPk edo autonomia-erkidegoko organismo eskudunak emandako ziurtagiria, langabezia bazegoen.
- Hildakoarekin ezkondata egonez gero: familia-liburua edo atzerriko agiri baliokidea, behar bezala legezatu eta zigilatua, eta, hala badagokio, itzulia, hildakoarekiko ezkontza eta eskatzailearen egungo egoera zibila egiaztatzen dituen; hildakoaren heriotza eragin zuen gaixotasun komunaren hasiera-data jasotzen duen ziurtagiri medikoa, funtzionarioak beharrezkotzat jotzen badu.
- Hildakoarengandik berezita edo dibortziatuta bazegoen eta ezkontza indargabetu bazen: egoera hori egiaztatzen duen epai judiziala eta berau arautzen duen hitzarmena.
- Hildakoaren izatezko bikotekidea bazen eta heriotza 2008-01-01 ostekoa izan bada:
 - Bikotea bere autonomia-erkidegoko edo bizilekuko erregistroan eratu izanaren ziurtagiria, edo, hori egiaztatzen duen notario-akta edo agiri publiko nahikoa.
 - Eskatzailea hildakoaren izatezko bikotekidea zen bitartean ez zegoela beste pertsona batekin ezkondata edo berezita egiaztatzen duten erregistro zibileko aktak.
 - Udaleko errolda-ziurtagiria, heriotza aurre-aurreko 5 urtez (gutxienez) edo ezkontza ospatu aurreko aldietan (hala badagokio) hildakoarekin bizi izan dela egiaztatzen duena.
 - Eskatzailearen eta hildakoaren diru-sarreraren egiaztagiria, heriotza aurreko urte naturalari dagokionez, eta eskatzailearen heriotzaren urteari dagokionez, PFEZen gaineko aitortpena, edo, bestela, soldaten nominak, banku-erakundearen agiria, eta abar aurkeztuta.
 - Heriotza 2008-01-01 baino arinagokoa izan bada, heriotza aurre-aurreko 6 urteetan hildakoarekin bizi izan dela egiaztatzen duen udalaren errolda-ziurtagiria baino ez da aurkeztu behar.

ARRISKU ADIERAZLEA**1****1****1****1****2****2****1****OHARRAK:**

Arazaok, hildakoa emakume batekin baino gehiagorekin ezkondata bazegoen. 2010eko martxoaren 9ko AGE. Alarguntasun- eta zurtzasun-pentsioa ematen dio atzerriar irregular baten alargunari, lana lortzeko beste herrikide bat (lan-baimena zuena) ordezkatzeko bazuen.

ZURZTASUN-PENTSIONA

DEFINIZIOA: Zurztasun-prestazioa jasotzeko eskubidea dute eskubide hori aitortu zaion hildakoaren seme-alaba naturalek nahiz bere bikotekideak ekarritako seme-alabek, beste ezkontza batean jaiok izan arren, betiere bi ezkontideek (hildakoak eta bizirik dagoenak) gutxienez bi urte badaramatzate ezkontuta eta ekarritako seme-alabak beraiekin bizi izan badira aldi horretan eta ez badute Gizarte Segurantzako beste prestaziorik jasotzen. Gainera, legedia zibilaren arabera, hildakoaren seme-alaba ez naturalek zurztasun-pentsioa jaso ahal izan dezaten, ez dute beren zaintzaz arduratu daitekeen beste seniderik izan behar.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- 18 urtetik beherakoak, edo adin horretatik gorakoak, baldin eta ezintasun iraunkor absolutua edo ezintasun handia badaukate.
- 18 urte baino gehiago eta 22 urte baino gutxiago, edo 24 baino gutxiago, gurasoetako bat ere bizirik irteten ez bada, baldin eta ez badute beren kontura edo besteren baten kontura lan egiten, edo, hala egin arren, lortzen dituzten diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren %100ari dagokion urteko zenbatekoa baino baxuagoak badira.
- Gurasoen heriotzaren ondoren jaiotako seme-alabak.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

1

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Alarguntasun-pentsioan aurkeztu beharreko berdinak

- Familia-liburua edo seme-alaben jaiotza-akten zatia buruzko ziurtagiria edo atzerriko agiri baliokidea.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

2

OHARRAK:

2010eko martxoaren 9ko AGE.

SENIDEEN ALDEKO SUBSIDIOA

DEFINIZIOA: Helburua hildakoarekin bizi ziren eta ekonomikoki bere menpe zeuden senide jakin batzuen beharrian-egoera konpontzea da. Subsidioaren onuradun izango dira 22 urtetik gorako seme-alaba edo neba-arrebak, ezkongabeak, alargunak, juridikoki bereziak edo dibortziatuak, baldin eta pentsiodun izateko baldintzak egiaztatu gabe, eskatutako betekizunak betetzen badituzte.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Hildakoarekin eta bere lepotik bizitzea bera hil baino 2 urte lehenago, edo bizikide zen senidearen heriotzaz geroztik, heriotza epe horren barruan gertatu bada.
- Pentsio publikorako eskubidea ez izatea.
- Baliabide ekonomiko propioak ez izatea eta elikagaiak emateko aukera eta betebeharra duten seniderik ez edukitzea.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

1

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Hildakoaren heriotza-aktari buruzko ziurtagiria.
- Udalaren errolda-ziurtagiria, heriotza aurre-aurreko 2 urteetan hildakoarekin bizi dela egiaztatzen duena.
- Gurasoen heriotzari buruzko ziurtagiria, prestazioa hildakoaren biloba edo neba-arrebentzat eskatzen bada.
- Onuradun eskatzailearen diru-sarreraren egiaztagiria, PFEZaren aitortpen, soldataren nomina edo beste bitartekoren bat aurkeztuz, eta elikagaiak emateko betebeharra duen pertsonaren diru-sarreraren egiaztagiria.
- Alarguntasun-pentsioa duen eta bizirik irten den onuradunik edo hildakoaren umezurtzik ez dagoela egiaztatzeko agiriak, funtzionarioak hala eskatzen badu.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

1

1

2

OHARRAK:

2010eko martxoaren 9ko AGE.

**LAN-ISTRIPUAREN EDO GAIXOTASUNAREN ONDORIOZKO KALTE-ORDAINA,
HERIOTZA EKARRI DUENEAN**

DEFINIZIOA: Oro harrean ematen den kopurua da. Ez da aurretiatzko kotizazio-eperik eskatzen.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak ezin ditu gaixotasun komunari aplikatu dakizkion betekizun espezifikoak bete.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**
1

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**Alarguntasun-pentsioan aurkeztu beharreko berdinak**

- Familia-liburua edo seme-alaben jaiotza-akten zatiri buruzko ziurtagiria edo atzerriko agiri baliokidea.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

2

OHARRAK:

2010eko martxoaren 9ko AGE.

JATORRIZKO HERRIALDERA ITZULTZEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

DEFINIZIOA: Neurri honen bitartez, langabezia-egoeran dauden eta Espainiarekin Gizarte Segurantzaren gaineko alderdi bitako hitzarmena sinatu duten erkidegotik kanpoko herrialdeetatik datozen etorkinek bermatu egin ahal dute langabezia-prestazioa kapitalizatuz itzuliko direla. Langile etorkinak ordainketaren araberako langabezia-prestazioaren parekoa den zenbatekoa jasoko du, bi epetan: %40 Espainian, eskubidea aitortu zaionean, eta gainerako %60a jatorrizko herrialdean, prestazioaren lehenengo ordainketa egin denetik 30 eta 90 egun natural bitartean.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Gizarte Segurantzaren gainean Espainiarekin alderdi bitako hitzarmena sinatuta duten erkidegotik kanpoko 20 herrialdeetakoren bateko nazionala izatea: Argentina, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, Ekuador, Egipto, El Salvador, Filipinak, Honduras, Mauritania, Mexiko, Maroko, Panama, Nikaragua, Paraguay, Peru, Dominikar Errepublika, Errusia, Tailandia eta Yemen.
- Ordainketaren araberako langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea aitortua izatea eta dagokion enpleguko zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- Bere jatorrizko herrialdera 30 egun naturaleko epean itzultzeko eta Espainiara gutxienez hiru urtetan ez bueltatzeko konpromisoa hartzea.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**
1

1

1

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- 2. ordainketa kobratzean, zuzenean entregatu beharko du atzeritarren nortasun-txartela eta lanerako eta egoitzarako baimena iraungiko zaizkio. Iraungipen honek batutako senideei ere eragiten die, baimen independenteak badituzte salbu.
- Interesduna, EINEk ordainketa aurreratua onartu diola jakin bezain pronto, Etorkinak Integratzeko Zuzendaritza Nagusiko Immigrazioaren eta Emigrazioaren Estatuko Idazkaritzarekin jarri beharko da harremanetan, telefono-zenbaki honetan: 902-882120.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**
1

1

GIZARATERATZEKO ERRENTA AKTIBOA

DEFINIZIOA: Programa honetan enpleguko politika aktiboak sartzen dira, laneratzeko aukerak areagotzeko asmoz, eta prestazio ekonomikoko ordainketa ere barne da, gizarateratzeko errenta aktiboa izena duena, soldata-ordainketarik ez duten enplegu-politika aktiboan gaineko ekintzak egitearekin lotuta.

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Berrogeita bost urte beteta edukitzea eta enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea, etenik gabe, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko bulegoan, hamabi hilabete edo gehiagoz.
- Langabeziagatiko prestazio edo subsidioak edo Nekazaritza Errenta jasotzeko eskubiderik ez edukitzea eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75i dagokion hileko zenbaketa baino gehiagoko errentarik ez izatea, aparteko bi pagen zatia kenduta.
- Programan onartua izateko eskubidea eskatu aurreko 365 egun naturaletan Gizarateratzeko Errenta Aktiboaren onuradun ez izatea, salbu eta %33ko minusbalioetasun-maila edo altuagoa egiaztatzen badute edo etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen badute.
- Administrazio eskudunaren eskutik genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatuta duten edo enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden langileak ere onuradun izan daitezke, betiere betekizun guztiak badituzte, adina eta azken hamabi hilabeteetan izena emanda egotea salbu.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

1

3

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Eskatzailleak, ezkontideak eta seme-alabek eskaera aurreko hilabetean lortutako diru-sarreraren egiaztatzea, hala badagokio.
- Genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen epai judiziala, babes judizialeko agindua, Ministerio Fiskalaren txostena edo administrazio publiko eskudunaren ziurtagiria, programara genero-indarkeriaren biktima izateagatik sartuz gero.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

OHARRAK:

Egoera irregularran dagoen emakume atzerritarra ezin da Gizarateratzeko Errenta Aktiboaren onuradun izan, enplegu-eskatzaillea izan ezin delako.

MENDEASUNARI BURUZKO LEGETIK DATOZEN PRESTAZIOAK

DEFINIZIÓN: Es el derecho a la promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia mediante la creación de un Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD).

SARTZEKO BETEKIZUNAK:

- Espainiarra izan edo legezko egoitza Espainian izatea.
- Edozein adin; baina 3 urtetik beherakoan adinean berezitasun batzuk daude.
- Autonomia Pertsonala sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legean ezarritako taldeetakoren baten mendetasun-egoeran egotea.
- Espainiar lurraldean (EBko nazionalentzako berezitasuna) bizitzea eta hala egotea bost urtez, aldi horretatik bi urte eskaera egin aurre-aurrekoak izan beharko dira direlarik. Bost urtetik beherakoan kasuan, egoitza-aldia bere zaintzaz edo tutoretzaz arduratzen denari eskatuko zaio.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

1

3

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Lurralde historiko bakoitzean araudi berezia dago, agirien zerrendak bertan ezartzen direlarik.

- Araba: 39/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera onartzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dituena.
- Gipuzkoa: 320/2007 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, mendetasunaren egoeraren balorazioak baremoa eta hori finkatzeko jarduketara prozedura zehazten dituena (82. zenbakidun GAO, 2007ko apirilaren 27koa).
- Bizkaia: 74/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko prozedura arautzen duena.

**ARRISKU
ADIERAZLEA**

1

1

OHARRAK:

2012ko otsailaren 18tik aurrera balorazio-baremoak aldatuko dira, Autonomia Pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako mendetasun-egoeraren balorazio-baremoa onesten duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua indarrean sartzen denean.

ONDORIOAK

1. Kontzeptuak argitzeko beharra

Etorkinek EAEko gizarte-prestazio eta -zerbitzuetara duten sarbidea aztertzean, nahitaezkoa da aurretik gizarte-bazterkeria, gizarteratzea edo gizarte-zerbitzuen terminoa bezalako kontzeptuak mugatzea. Gai honi buruzko literaturak ondorio batera garamatza: ez dago halako terminoei buruzko definizio bakarrik. Gizarte-babesa kontzeptualizatzeko zeregin horretan, osasun-laguntza, Gizarte Segurantza, gizarte-laguntza, gizarte-zerbitzuak eta Mendetasunari buruzko Legea sartu ditugu. Azken eremu hori sartzea ezinbestekotzat jo dugu, Autonomia Pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea onesteak aldaketa handia eragin baitu gizarte-zerbitzuen panoraman, ordura arte existitu egiten ere ez zen eskubide berri bat sortuz.

Aipatzekoa da, bestetik, goian deskribatutako eremu desberdinetatik gizarte-prestazio ekonomikoak jorratuko direla lan honetan, prestaziozko gizarte-zerbitzuei buruzko alderdiak, zerbitzu horien finantziazioa edo gizarte-zerbitzu espezializatuak alde batera utzita, oso interesgarriak diren arren, ezinezkoa bailitzateke honelako azterketa batean guztiak lantzea.

2. Administrazio-maila desberdinek gizarte-zerbitzu eta -prestazioen zerrenda osatzeko orduan duten eragina eta araudiaren bilakaera jarraitua

Nahiz eta EAEko gizarte-prestazio edo -zerbitzu gehienek legedia administrazio autonomikoak ezartzen duen, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean prestazio ugari aurki ditzakegu, eta

gizarte-laguntzatik eta gizarte-zerbitzuetatik datozen prestazioen eremu zehatzean autonomia-mailatik datozenekin uztartzen dira. Horren lekuko dira azterlan hau egiteko orduan autonomia, foru eta udaletako administrazioek Gizarte Zerbitzuen Lege berria garatzeko gizarte-zerbitzuen saila prestatzeko prozesuan izan dituzten eztabaidak.

Horren harira, 2008. urtearen amaieran gizarte-zerbitzu eta -prestazioen eremuan funtsezko bi arau onetsi zirela gogoratu beharra dago: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta Diru-sarrerak bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legea. Gero, lege horiek garatzen dituzten dekretu batzuk argitaratu dira, besteak beste, etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua. Aurreko horri Gizarte Zerbitzuen 2010-2014 Plan Estrategikoa batu behar zaio. Helburua Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen mapa ezartzea da, lurralde autonomiko osoko antolamendu-oinarriak esparru horren barruan zehazteko.

Azkenik, azterlan honen xedea kontuan hartuta, ezinbestekoa da beste araudi-aldaketa garrantzitsu bati buruz hitz egitea: Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren erreformari buruzko 2/2009 Lege Organikoari buruz, hain zuzen ere. Laburbilduz, egiteke dagoen gizarte-zerbitzuen sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko Etorckinei Arreta emateko Zerbitzua (HELDU) desagertzeak gizarte-zerbitzuetan eragin duen antolaketa berriak edo 2/2009 Legearen araudiaren garapenak argi eta garbi adierazten dute araudia bilakaera etengabea jasaten ari dela.

3. Arrisku eta ahultasuneko faktoreak EAEko etorkinen artean

Etorkinen artean langabezia igotzeak, lan asko egiteko orduan dauden baldintza eskasak, egoitza-baimenik gabeko atzerritar asko egoten jarraitzeak eta harrera-defizitak gizarteratzeko arazo larriak eragiten ari dira. Langile atzerritarrek edozein langile autoktonoren arazo berak dituzte, batez ere langabeziaren igoerari eta lan-eskastasunari dagokienez, baina portzentajeak nahiko handiagoak dira. Zalantzarik gabe, immigrazioaren estatutu juridikoak (arabide orokorra) eta baimen-motak (hasierakoa) areagotu egiten dituzte baztertua izateko aukerak, eta erkidego-arabideak eta egoitzaren berrikuntzak, aldiz, arrisku horren kontrako babesa ematen dute. Faktore espezifikoak aztertuz gero, lan honetan hauexek azpimarratu dira:

3.1. Administrazio-egoera

Etorkinen erdia baino gehiago egoera erregularrean dago: gutxiengoa Europar Batasuneko herrialdeetako- ren bateko nazionalak dira edo espainiar nazionalitatea lortu dute, eta ia erdiak aldi baterako lan- edota egoitza-baimena dute. Hala ere, administrazio-egonkortasuna xede-herrialdean bost urtez bizi ondoren soilik lortzen da, eta, beraz, etorkinen heren batek baino ez ditu baimen iraunkorra, nazionalitatea edo Europako egoiliar-txartela. Gehienak egoera ezegonkorrean daude: etorkinen ia erdiak urtebetez bizitzeko aurretiazko betekizuna betetzen du eta herena administrazio-egoera irregularrean dago.

Etorkinen administrazio-egoera edo legezko egoitza-egoera aztertzean kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat bizileku duten erkidegoarekiko harremana edo beren eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea dira. Ildo horretatik, erroldak adierazten du integrazioa zenbaterainokoa den. Izan ere, erroldatuta egon gabe ezin dira gure erkidegoak eskaintzen dituen gizarte-onurak eskuratu. Etorkin gehienak erroldatuta dauden arren, horien hamarren bat baino gehiago ez dago erroldatuta, batez ere egoera irregularrean dauden atzerritarren artean (%23,6 ez dago udalerrri batean ere erroldatuta). Herritar horiek oinarrizko gizarte-eskubide jakin batzuk (larrialdietakoak barne) eskuratzeko zailtasunak izango dituzte.

3.2. Egoitza-egoera

EAEko etorkin gehienak pisu batean bizi dira, besteren batzuekin edo bakarrik. Ondoren, gela bat alokatuta dutenak daude eta beste batzuk beren lantokian dute logela (egoera irregularrean dauden pertsonengan ikusi da azken hori, batez ere). Elkarrekin emandako pisuetan edo muturreko bazterkeria-baldintzetan bizi direnak gutxi batzuk baino ez dira. Egoera horretan daudenen artean gizon gehiago dago, batez ere Ekialdeko Europakoak edo Magrebekoak, atzetik Sahara azpiko afrikarrak daudela. Kontratuaren bidez justifikatu ezin diren azpi-alkairuak eta azpi-etxebizitza arazo larria dira gizarte-prestazioak eskuratzeko beharrezko betekizunak betetzeko orduan.

3.3. Lan-egoera

Sarritan esaten da, autoktonoen artean hedatuta dauden aurreiritzi okerren artean, atzerritar etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi direla, lan egin beharrean. Hala ere, azterlaneko emaitzen arabera argi dago etorkinek okupazio-maila nahiko altuak dituztela, nahiz eta ez dauden beti lan-egoera egonkorrean. Egoera irregularrean dauden pertsonen artean ere, gehienek lan egiten dute, nahiz eta langabezia-tasak altuagoak diren gainerako etorkinekin alderatuta. Magreb, Sahara azpiko Afrika eta Ekialdeko Europatik datozen pertsonak nabarmentzekoak dira, zailtasun gehiago baitituzte lana bilatzerakoan. Azken talde horrek, halaber, kontratu gabeko lan-harreman gehien ditu.

Dena dela, krisi ekonomikoak panorama berria marraztu du gizartean eta etorkinek eragin berezia jasan dute. Azpimarratu beharra dago hemen azaltzen diren datuak krisi-garaia bete-bete jasan baino lehenagokoak direla.

Langabezian zeuden atzerritar etorkinei dagokienez, gehienak lan bila ari ziren, eta, beraz, beren itxaropenak lotuago zeuden lana bilatzearekin, gizarte-laguntzak kobratzeari esker bizitzearekin baino. Hori aintzat hartuta, eta langabeziako iraupenari dagokionez, bataz bestekoa 8 hilabeteko ingurukoa bada ere, langabezian zeuden Ekialdeko europarrek zeramaten denbora gehiago egoera hartan, Asia, Magreb edo Afrikako etorkinekin alderatuta.

Bilakaerari erreparatzen badiogu, herritarren datuek baietsi egin dute lan-merkatu formalera sartzen diren etorkinen profil-hautaketari buruzko hipotesia: batez ere Latinoamerikako biztanleak izan dira lan-merkatu horretara sartu direnak. Bestalde, Ekialdeko Europakoak, eta, neurri txikiagoan, Magrebekoak izan dira kontratuak batez bestekoaren azpitik igo dituztenak.

4. Etorkinak ongizatearen estatura sartzeari buruzko araudi-mugak eta gizarte-diskurtsoak

Etorkinek jasotzen dituzten gizarte-prestazioei buruz egiten duten diskurtsoen abiapuntua dei-efektua izeneko da, hau da, etorkinen etorrera lurralde jakin batean eskaintzen diren prestazioekin lotzen da. Hala eta guztiz ere, gauzatutako ikerketa enpirikoek hipotesi hori ezesten dute. Edonola ere, hemen daudenean, nahiz eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidea ez den beren migrazio-proiekturako erabakigarria, argi dago sarbide hori errazagoa izango dela integrazio-politika on bat egin bada, hots, autoktonoek dituzten eskubide eta betebeharretan berdintasuna bermatzen bada (estatus juridikoan nahiz jasotako gizarte-tratuan) eta oinarrizko beharrianak edo, bestela esanda, gizarte-eskubideak asetzeko zerbitzuetara aukera berdinetan sartu ahal bada.

Sartzeko berdintasun-helburu hori ezarrita, zerbitzu eta prestazio jakin batzuetan betetzen ote den aztertuko dugu:

4.1. Osasunerako sarbidea

Ez dirudi legezko eragozpen berezirik dagoenik atzerritarrek osasun-zerbitzuak eskuratzeko orduan, batez ere atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Legea onetsi ondoren. Dena dela egonaldi-epea (90 egun) igaro arte itxaroteko beharraren ondorioz, Osasun Txartel Indibiduala eskuratzeko ez da berehalakoa, eta horrek sarbide normalizatua ez duten egoera batzuk eragin ditzake.

4.2. Hezkuntzarako sarbidea

Auzitegi Konstituzionalak argi eta garbi ezarri du atzerritar guztiek hezkuntza arautua eta ez arautua jasotzeko eskubidea dutela, beren legezko egoera edozein izanda ere. Hala eta guztiz, 2/2009 Legearen bidez Atzerritarren Legean egindako azken erreformak ez du bide hori jarraitzen. Bereizi egiten dira 18 urte baino gehiago dituztenak eta derrigorrezko hezkuntza edo bekak jasotzeko asmoa dutenak, beren erregulartasuna albo batera utzita, eta 18 urte baino gehiago dituztenak, zeintzuentzat nahitaezkoa den legezko egoitza izatea.

4.3. Etxebizitzarako sarbidea

2/2009 Lege Organikoaren bidez sartutako beste mugetako bat etxebizitzaren gaineko laguntzak jaso ahal izateko legez bost urtez bizitzeko baldintzari buruzkoa da. Edonola ere, legezko muga hau alde batera utzita, zailtasun askori egin behar die aurre etorkinak, etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Hala ere, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeari buruzko EAEko legean etorkinen taldea ez da ageri bereziki kaltetuta dauden taldeen zerrendaren barruan.

4.4. Gizarte Segurantzako prestazioetarako sarbidea

Legezko egoitzaren betekizuna ordainketaren arabeko prestazioak eta ordainketaren arabekoak ez direnak jasotzeko ezartzen da. Lan-harremana egiaztatzea, nahitaezko kontratua izan gabe ere, funtsezkoa da lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko prestazioak aitortu ahal izateko.

5. Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea Atzerritarren Legean

Aparteko kapitulua merezi du Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2004 Legeak gai honi buruz egiten duen arauketak, batez ere 10 eta 14. artikuluetan. Hori horrela, azken artikulua horrek oinarrizko prestazioaren eta prestazio ekonomikoaren kontzeptuak erabiltzean planteatzen duen nahasmendu terminologikoa azpimarratu beharra dago, beste araudiek ez baitituzte termino horiek erabiltzen. Ondorioz, “oinarrizko prestazioaren” kontzeptua azaldu behar da, Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta edo antzekoa (autonomietako araudietan jasotakoa) oinarrizko prestazioz jatzeko eta, beraz, egoera irregularrean dauden atzerritarrei berau eskuratzeko erraztasunak eskaintzeko. Hala ere, gai honen harira, azken arau autonomikoei buruzko azterketa ez oso sakonak era sistematikoan islatzen du laguntza-mota hauek eskuratzeko legezko egoitza-betekizuna.

Gizarte-zerbitzu hauek erabiltzen dituzten herritarren profil sozial eta demografikoei dagokienez, azterlanen arabera Latinoamerikatik datozen biztanleek dituzte ordezkaritarik handienak gizarte-zerbitzuetan, Ekialdeko Europako biztanleekin batera. Egileek antzeman dutena, hala ere, Magreb, Sahara azpiko Afrika eta Txinako biztanleen ordezkaritza urria da. Etorkinek gizarte-zerbitzuetan egiten dituzten eskariak direla eta, laguntza ekonomikoekin lotutakoak gailentzen dira.

6. Estereotipo eta errealitatea: iritzi publikoa eta etorkinek gizarte-prestazio eta eskubideetarako duten sarbidea

“Lehenengo etxeokak” aldarrikatzen duen diskurtso nazional eta familista indar handiz ezartzen da iritzi publikoaren artean eta igo egiten da egungo krisi ekonomikoaren egoeran. Immigrazioaren aurkakoa den diskurtso horretan, atzerritarra autoktonoaren berezko baliabideak kontsumitzen dituen etorkin txiro gisa identifikatzen da, aberastasun-sortzaile gisa beharrean. Horrenbestez, etorkina lehiakide bihurtzen da eta nazionalei berez edo jaiotza-eskubidez espero duten lehentasunezko tratua galtzeko beldurra pizten die.

Mehatxu-pertzepzio horrek eragina du autoktonoak partekatzeko prest dauden eskubideen balorazioan. Ildo horretatik, etorkinek eskubideak era normalizatuan eskuratzeari dagokionez autoktonoek duten prestutasuna aztertuz gero, honakoa azpimarratu behar da:

- Osasun-laguntzarako eskubideari dagokionez, herritar gehienek ustez guztiok izango beharko genuke osasunerako eskubidea, egoera juridiko eta administratiboa edozein dela ere.
- Hezkuntza publikoari dagokionez ere, euskal herritarrek guztientzat eskuragarri egon behar dela pentsatzen dute, neurri txikiagoan bada ere.
- Sarbide orokorraren mugak esanguratsuagoak dira Oinarrizko Errenta (egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) edo Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak bezalako gizarte-laguntzen kasuan: gehiengoaren iritzi administrazio-egoera erregularizatuan dauden pertsonak soilik eduki behar dute aukera hori. Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan ere joera antzekoa da. Euskal herritar gehienek uste dute ezinbesteko betekizuna dela administrazio-egoera erregularra edukitzea onuradunen profilean, gipuzkoarrek jarrera permisiboena dutelarik. Gauza bera geratzen da doako laguntza juridikoari dagokionez.
- Euskaldun gehienek aburuz, etorkinen etorrerak gehiago eragingo die txiroei aberatsei baino. Orokorrean, nahiz eta ez beti, herritarrek zenbat eta diru-sarrera gutxiago, orduan eta beldur gehiago diote etorkinen etorrerari, batez ere lana aurkitu edo mantentzeari, soldata gutxiago kobratzeari eta etxebizitza eskuratzeari dagokienez (herritarren heren batek baino gehiago dauka beldur hori).
- Herritarren diru-sarreraren araberako aldeei dagokienez, sarbide unibertsala neurri handiagoan babesten dute diru-sarrera handiagoa dutenek eta neurri txikiagoan, ordean, hileroko 600 euro baino gutxiago kobratzen dituztenek.

Estereotipoak direla eta, etorkinek gizarte-babeserako sistematik gehiegizko onurak jasotzen dituztela da nagusia, laguntza jaso eta zerbitzuak erabiltzeari dagokienez. Hala ere, etorkinen gutxiengoak jasotzen ditu edo jaso izan ditu tokiko, foruko, autonomietako eta estatutako administrazioek gure udal, lurralde historiko, erkidego edo estatuan bizi diren eta bertan erroldatuta dauden pertsonen eskaintzen dizkien prestazio ekonomiko desberdinak.

Beren lan-prestakuntza osatzeko eta hizkuntzak ikasteko laguntzetan egin duten erabilera handiagoa izan da. Etorkinen erdiak baino gutxiagok erabili du informazioa edo aholkularitza jasotzeko zerbitzuren bat eta are gutxiago izan dira osasun edo legezko beste laguntzaren bat behar izan dutenak.

